

LAN MERKATUAREN ERROLDA, 2007. URTEA

TXOSTEN XEHATUA

1. Adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleria guztiari buruzko datu orokorrak

1.1. Egungo egoera.

Lan Merkatuaren Erroldaren (LME) datuen arabera¹, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) 16-64 urtekoen guztirako biztanleria 1.425.959 lagunek osatzen zuten 2007ko laugarren hiruhilekoan. Biztanleria hori sexuaren arabera banatuz gero, banaketa orekatua ateratzen da: gizonak % 50,5 eta emakumeak % 49,5 dira.

16-64 urteko biztanleria, sexuaren arabera
(Datua absolutuak eta % bertikalak)

Sexua	Absolutuak	%
Gizona	720.205	50,5
Emakumea	705.754	49,5
Guztira	1.425.959	100

Oro har, sexuen artean oreka izan ohi da Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeetan. Oreka txikieneko egoera Tolosa-Goierri eskualdean dago, izan ere gizonak % 52,2 eta emakumeak % 47,8 dira, baina kasu horretan ere orokorrean esan daiteke generoen artean oreka dagoela.

16-64 urteko biztanleria, sexuaren eta eskualdearen arabera
(% horizontalak)

Eskualdea	Sexua	
	Gizona	Emakumea
Gasteiz	51,0	49,0
Aiara	51,7	48,3
Eskuinaldea	49,3	50,7
Bilbo	49,3	50,7
Ezkerraldea	50,7	49,3
Bizkaia-Kosta	51,4	48,6
Durantaldea	51,4	48,6
Donostialdea	50,1	49,9
Tolosa-Goierri	52,2	47,8
Debagoiena	51,8	48,2
Debarrena	51,8	48,2
Guztira	50,5	49,5

¹ EUSTATEk aurkezten ditu eta BJARA egokitzen ditu LME datuak. Helburua honako hau da: estatistika-eragiketetako zenbateko orokorrekin —jarduerari, okupazioari eta langabeziari buruzkoak— koherente izatea.

Adina kontuan izanik, biztanleria potentzialki aktiboari dagokionez, adin-tarte gazteenak nagusi dira oraindik ere, 45 urtetik beherakoak % 59,7 baitira eta 35 urtetik beherakoak % 35,4. Dena den, kolektibo handiena ez da 20-34 urtekoena —2003. urtera arte bezala—, 35-49 urteko biztanleen kolektiboa baizik. 2007. urte amaieran, kolektibo horretan sartzen dira adin potentzialki aktiboan dauden biztanleen % 35,5; 20 eta 34 urte bitartekoek % 30,6 osatzen dute, eta 50 eta 64 urte bitartekoek % 29,1. Eta 16 eta 19 urte bitarteko gazteei dagokienez, erreferentziako biztanleriaren % 4,8 soilik osatzen dute; 2003tik 2005erako aldian proportzio hori egonkortu egin bada ere, orain behera egin du.

16-64 urteko biztanleria, adinaren arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Adina	Absolutuak	%
16-19 urte	68.758	4,8
20-24 urte	108.611	7,6
25-29 urte	158.239	11,1
30-34 urte	169.251	11,9
35-39 urte	163.051	11,4
40-44 urte	182.853	12,8
45-49 urte	160.025	11,2
50-54 urte	151.434	10,6
55-59 urte	135.763	9,5
60-64 urte	127.975	9,0
Guztira	1.425.959	100

EAEko eskualdeen errealitatea aztertu ondoren, 35 urtetik beherako biztanleriaren nagusitasun erlatiboa ikusten da oraindik ere eskualde askotan. Honako eskualde hauetan % 35etik % 37ra bitarteko kopuruak dituzte: Gasteizen, Eskuinaldean, Bizkaia-Kostan, Tolosa-Goierri eta Debagoienean. Beste zenbait eskualdetan, aldiz, dagoeneko garrantzi berdina edo handiagoa dute 35-49 urteko biztanleek. Egoera hori, 2005. urtean Aiara eta Bilbon ikusten zena jada, Durangaldera hedatu zen 2006. urtean, eta 2007an Ezkerraldean eta Donostialdean gertatu da. Eskualde horietan, 35-49 urtekoen proportzioa % 36-38 bitartekoa da. Debabarrenean, biztanleriaren zahartze-prozesua ere nabaria da, 50 urtetik gorako biztanleria nagusia baita kasu horretan, 2007an guztirakoaren % 35,5 izanik.

Adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleriaren zahartze-prozesua ez da soilik atzematen 35-49 urtekoen garrantzi erlatiboa hazi delako, baita adin handiagoko biztanleriaren garrantzi erlatiboak gorantz egiten duelako ere. Ildo horretatik, EAEko hainbat eskualde nabarmen zehaztu dira, jada, 50 urtetik gorakoen proportzioa % 30etik gorakoa delako. 2006. urtean bezalaxe, Eskuinaldean, Tolosa-Goierri eta Debabarrenean ikusten zen adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleriari dagokionez, 50 urtetik gorakoen proportzioa handia zela.

16-64 urteko biztanleria, adinaren eta eskualdearen arabera
(% horizontalak)

Eskualdea	Adina		
	< 35 urte	35-49 urte	50 urte eta gehiago
Gasteiz	36,8	34,6	28,6
Aiara	34,4	37,9	27,7
Eskuinaldea	35,8	33,2	30,9
Bilbo	35,6	36,1	28,3
Ezkerraldea	34,5	37,0	28,5
Bizkaia-Kosta	35,9	35,0	29,1
Durungaldea	36,0	36,0	28,0
Donostialdea	34,5	36,0	29,5
Tolosa-Goierri	36,4	33,6	30,0
Debagoiena	36,6	34,7	28,7
Debarrena	34,8	29,7	35,5
Total	35,4	35,5	29,1

1.2. Azken aldiko bilakaera.

1997-2007 aldian, 16-64 urteko biztanleriaren beherakada erabatekoa da EAEn. Aldi horretan, aztertutako biztanleria 1.468.915 lagunetik 1.425.959 lagunera jaitsi da; hau da, aintzat hartutako aldi osoan % 2,9ko beherakada izan du. Murrizketa hori 1997-2001 laurtekoari lotzen zaio neurri handi batean, % 3ko beherakada izan baitzuen; kopuru hori kontrastean dago 2001-2005 aldian izandako gorakadarekin (% 0,6), immigrazioaren aldeko eraginarekin zerikusia duena, neurri handi batean. 2005-2007 aldian, ordea, epe luzerako beheranzko joera dagoela ikusten da, adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleria-bolumena % 0,5 jaitsi baita.

Azken aldiko bilakaerak garrantzi berezia du adinari dagokionez, azken urte hauetan gertatzen ari diren egiturazko aldaketak egonkortzen ari direlako. Aldaketa horiek 35 urtetik beherakoen garrantzia murriztu delako, batez ere, agertzen dira; talde hori adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleriaren % 44,5 zen 1997. urtean, 2005. urtean, ordea, % 37,4 da, eta 2007an % 35,4. Beherakada bereziki nabarmena da 25 urtetik beherakoen kasuan, biztanleriaren % 42,7 galdu baitute 1997-2007 aldian. 2005etik 2007rako aldia soilik hartuz gero, 25 urtetik beherakoen zenbatekoa % 9,1 murriztu da EAEn.

2005-2007 aldiaren berrikuntza, ordea, honako hau da: beherakada-eritmoen nabarmentze erlatiboaren joerak 25-34 urtekoen multzora hedatzeko joera duela, biztanle-bolumenean % 4,1 jaitsita biurteko horretan. Epe luzeko ikuspegitik begiratuta talde horretan jaitsiera oraindik mugatua bada ere (-% 4,7 1997-2007 aldian), 2005-2007 aldian ikusitakoak erakusten digu 25 urtetik beherakoen taldean duela urte batzuetatik hona atzematen den biztanleriaren murrizketa handiaren prozesua hasi dela eragiten jada 25-34 urteko taldean.

Bilakaera hori ondorioa baino ez da, 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera izandako jaiotza-tasaren jaitzierak eragin nabarmenaren ondorioa, alegia; Euskadiko egitura demografikoan eragina izanik, eta eragin hori askoz ere handiagoa izango zen immigrazioaren faktorea tartean sartu ez balitz.

35 urtetik beherako biztanleriaren beherakadekin aurrez aurre, 1997-2007 aldian % 12,9 hazi da 35-64 urteko biztanleriaren bolumena; hazteko joera horri 2005-2007 aldian eutsi egingo zaio, 35-49 urteko lagunen hazkundera % 2,5ekoa izan baita, eta % 2,9koa 50 urtetik gorakoena.

Adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleriaren zahartze-prozesuarekin batera, Euskadin 50 urtetik gorako biztanleriak gero eta garrantzi handiagoa duela aipatu behar dugu. Ildo horretatik, 2001. urtera bitarte, 35-49 urteko taldeak izan zuen biztanleriaren hazkunde handiena; 2001-2007 urteetan, aldiz, hazkunde hori 50-64 urteko taldean izan da.

16-64 urteko biztanleriaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera (1997-2007 aldian)

(Datu absolutuak eta hazkundearen %-a)

Sexua eta adina	Absolutuak				Hazkundearen %-a			
	1997	2001	2005	2007	07/05	05/01	01/97	07/97
Gizonak	737.126	716.227	724.351	720.205	-0,6	1,1	-2,8	-2,3
Emakumeak	731.790	708.353	709.253	705.754	-0,5	0,1	-3,2	-3,6
< 25 urte	309.533	236.763	195.184	177.369	-9,1	-17,6	-23,5	-42,7
25-34 urte	343.562	342.756	341.477	327.490	-4,1	-0,4	-0,2	-4,7
35-49 urte	447.991	468.007	493.463	505.928	2,5	5,4	4,5	12,9
50-64 urte	367.829	377.053	403.480	415.172	2,9	7,0	2,5	12,9
Guztira	1.468.915	1.424.579	1.433.604	1.425.959	-0,5	0,6	-3,0	-2,9
Emakumeen %-a	49,8	49,7	49,5	49,5				
16-34 urtekoen %-a	44,5	40,7	37,4	35,4				

Eskualdeko demografian gorabehera handia edo txikia izateak ez du eragin esanguratsurik sexuaren edo adinaren arabera biztanleriaren banaketan; oro har, emakumeen garrantzi erlatiboa egonkortzeko joera dago, eta 35 urtetik beherako biztanleen artean, beherakada izatekoa. Ildo horretan, adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleriari dagokionez, 35 urtetik beherako biztanleen garrantzi erlatiboaren murrizketa EAeko eskualde guztietan sumatzen da, baita, aldi horretan, adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleriak nabarmen gora egiten duen eskualdeetan ere.

2005etik 2007ra bitarte, Eskuinaldean eta Ezkerraldean gertatu da 35 urtetik beherako jaitziera handiena, proportzioan (3-4 puntu); horien atzetik Gasteiz, Aiara, Donostialdea eta

Tolosa-Goierri datoz (2-2,5 puntu bitarte). Tolosa-Goierri kenduta, eskualde horietan sumatzen da gehien gazteen parte-hartzearen murrizketa-prozesua 1997-1007 aldi osoan.

Aurreko eskualdeetan ez bezala, 2005-2007 aldian, adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleria gaztearen proportzioari eutsi egin diote Bilbon, Bizkaia-Kostan, Debagoienean eta Debabarrenean. Hain justu eskualde horietan (baita Tolosa-Goierri ere) gertatu da 35 urtekoen garrantzi erlatiboaren jaitsiera txikiena 1997tik aurrera.

**16-64 urteko biztanleriaren bilakaera, eskualdearen arabera
(1997-2007 aldia)**

(Biztanleriaren barne-egituraren izandako aldaketak)

Eskualdea	Emakumeak %-etan				< 35 urtekoak %-etan			
	1997	2001	2005	2007	1997	2001	2005	2007
Gasteiz	49,5	49,4	49,0	49,0	45,0	41,5	38,8	36,8
Aiara	48,7	48,8	48,4	48,4	45,0	40,4	36,6	34,4
Eskuinaldea	50,5	50,6	50,4	50,4	44,7	41,4	39,0	35,8
Bilbo	51,1	51,1	50,9	50,8	43,7	39,5	35,8	35,6
Ezkerraldea	49,7	49,6	49,3	49,3	45,0	41,4	38,5	34,5
Bizkaia-Kosta	49,0	48,9	48,3	48,5	43,8	39,7	36,3	35,9
Durantaldea	48,9	48,8	48,6	48,5	44,7	41,2	37,5	36,0
Donostialdea	50,1	49,9	49,8	49,8	45,0	40,7	36,9	34,5
Tolosa-Goierri	48,1	48,1	47,8	47,9	43,9	40,4	38,5	36,4
Debagoiena	48,4	48,4	48,2	48,3	43,1	39,9	36,6	36,6
Debabarrena	48,9	48,4	48,2	48,4	42,0	39,5	34,7	34,8
Guztira	49,8	49,7	49,5	49,5	44,5	40,7	37,4	35,4

2. Biztanleria aktiboa

2.1. Egungo egoera.

16-64 urteko biztanleria aktiboaren kopurua milioi bat lagunetik gorakoa da (1.002.357, hain zuzen ere) Euskal Autonomia Erkidegoan 2007ko laugarren hiruhilekoan. Horrek esan nahi du jarduera-tasa orokorra % 70,3 dela, Europar Batasuneko (EB-27) batez bestekotik hurbil samar (% 70,6)².

Guztirako biztanlerian ikusi da oreka-egoera zegoela; biztanleria aktiboan, ordea, gizonak nagusitzen dira, argi eta garbi: gizonak Euskal Autonomia Erkidegoko aktibo guztien % 57,9 dira 2007. urtearen amaieran. Errealitate hori oraindik ere askoz txikiagoa den emakumearen jarduera-tasarekin lotzen da: emakumeak % 59,9 besterik ez dira, eta gizonak, aldiz, % 80,5. Euskadin, emakumeen jarduera-tasa 3,7 puntu inguru txikiagoa da EB-27rekin alderatuz gero (% 63,6); gizonen kasuan, ordea, 2,7 puntu handiagoa (EB-27n % 77,8).

16-64 urteko biztanleria aktiboa, sexuaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta jarduera-tasa %-etan)

Sexua	Absolutuak	%	Jarduera-tasa
Gizona	579.896	57,9	80,5
Emakumea	422.462	42,1	59,9
Guztira	1.002.357	100	70,3

2007. urtean, EAEko lau eskualdek gainditzen dute EB-27ko jarduera-tasaren batez bestekoa. Hona hemen eskualde horiek: Aiara (% 72,2) eta Gipuzkoako lau eskualdeetatik hiru, hau da, Donostialdea (% 72,8), Debagoiena (% 73,2) eta Tolosa Goierri (% 73,8). Beste bi eskualde ere Europako batez bestekotik zertxobait gora daude, baina aldeak txiki-txikiak dira: Gasteiz (% 70,7) eta Durangaldea (% 70,8); azken horrek lehen aldiz gainditu du batez besteko hori 2007. urtean. Euskadiko gainerako eskualde gehienak ere ez dira gehiegi urruntzen Europako batez bestekotik, % 69tik % 70era bitarteko mailetan baitaude. Jarduera-tasa Ezkerraldean soilik urruntzen da argi eta garbi (% 67,8).

² Atal honetan aurkezten diren EB-27ko jardueraren gaineko datuak 2006ko Laugarren hiruhileko Lan Indarrari buruzko Estatistikari (LIE) dagozkio, betiere 15-64 urteko biztanleriaren kasurako kalkulatuta.

Jarduera-maila handienak dituzten lau eskualdeetan EAEko batez bestekoen pareko edo goragoko tasak dituzte, bai gizonetan, bai emakumeetan. Dena den, soilik Donostialdean eta Tolosa-Goierriin gainditzen dituzte nabarmen bi sexuatarako batez bestekoak, hurrenez hurren. Aiaran, emakumeen tasa batez bestekora gehiago hurbiltzen da; Debagoiengan, aldiz, emakumeen jarduera-tasa batez bestekoa baino askoz ere handiagoa da (% 67,5) baina gizonezkoen kasuarekin konpentsatuta geratzen da, erreferentziako EAEko batez bestekoa baino bi puntu txikiagoa baita. Bestalde, Durangaldea eta Gasteiz eskualdeetan gizonezkoen tasak batez bestekoaren gainekoak dira, baina emakumeen jarduera-tasa espezifikoak EAEko batez bestekoaren azpitik daude.

Batez bestekoaren azpiko jarduera-tasa orokorra duten gainerako eskualdeek badute ezaugarri komun bat: emakumeen jarduera-tasa erlatibo txikia, EAEko batez bestekoaren azpikoa betiere. Eskualde horietako gehienetan, hala ere, gizonezkoen tasa ere EAEkoa, oro har, baino txikiagoa da, nabarmen. Debabarrena salbuespena da, EAEko gizonezkoen jarduera-tasa handienetakoa duela (% 82,5). Beraz, batez bestekoaren azpiko tasa orokorra emakumeen jarduera-tasa txikiarekin, soilik, loturik dago kasu horretan, EAEko txikiena izanik (% 56,1). Ezkerraldea ere nabarmen urruntzen da EAEko batez bestekotik emakumeen kasuan, eta horrekin batera, gizonezkoen jarduera-tasa konparatiboki ere txikia duenez (% 79), EAEko jarduera-joera txikiena duen eskualdea da.

Datu horien argitara, esan dezakegu emakumeen jarduera-tasa eta tasa orokorra elkarri lotu-loturik daudela. Jarduera-maila handieneko lau eskualdeetan, emakumeen tasak beti batez bestekoaren gainekoak dira, baina gainerako kasuetan ez dute batez bestekoa gainditzen. Gasteizen eta Durangaldean emakumeen tasak EAEko erreferentziako batez bestekoa baino 0,5-1,5 puntu txikiagoak dira, baina gizonezkoen tasa handiagoekin konpentsatuta geratzen dira, EBko batez besteko orokorra gaindituta. Emakumeen kasuan antzeko egoera duten arren, Eskuinaldea, Bilbo eta Bizkaia-Kosta ez daude hain egoera onean Europako batez bestekoari dagokionez, gizonezkoen jarduera-tasa txikiagoa dutelako. Debabarrenean, gizonezkoen jarduera-tasa oso handia da (Gasteizen eta Durangaldean baino handiagoa), baina lehen esan dugunez, hori konpentsatzeko emakumeen jarduera-tasa EAEko txikienetakoa da. Ezkerraldearen kasua berezia da: emakumeen nahiz gizonen batez besteko tasetatik gutxienez 1,5 puntuko aldea duen eskualde bakarra da.

16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasak, sexuaren eta eskualdearen arabera

(%-etan)

Eskualdea	Sexua			Emakumezko aktiboen %-a
	Gizona	Emakumea	Guztira	
Gasteiz	82,2	58,7	70,7	40,7
Aiara	82,6	60,9	72,2	40,8
Eskuinaldea	79,5	58,3	68,8	43,0
Bilbo	78,7	59,1	68,8	43,6
Ezkerraldea	79,0	56,2	67,8	40,9
Bizkaia-Kosta	78,4	59,5	69,2	41,8
Durungaldea	81,6	59,4	70,8	40,8
Donostialdea	81,8	63,7	72,8	43,6
Tolosa-Goierri	83,9	62,7	73,8	40,6
Debagoiena	78,5	67,5	73,2	44,4
Debarrena	82,5	56,1	69,8	38,7
Guztira	80,5	59,9	70,3	42,1

Adinaren aldagaia kontuan izanik, biztanleria aktiboaren zatirik handiena EAEn 25-39 urtekoei dagokiela egiaztatu da. Lagun horiek aktiboen guztizko bolumenaren % 42,5 osatzen dute, eta bost urteko adin-taldeetan % 85,6tik % 89ra bitarteko jarduera-tasetara heltzen da. Aktiboen beste multzo garrantzitsua osatzen dute 40 eta 49 urte bitartekoek: biztanleria aktiboaren % 28,6 dira eta % 82,8 eta % 84,1 arteko jarduera-tasa dute.

50 urtetik gorakoek, aldiz, biztanleria aktiboaren % 22,2 osatzen dute, eta gainerako % 6,7a 25 urtetik beherakoei dagokie. Hala ere, adin horietan jarduera-tasak oso ezberdinak dira barrutik. Horrela bada, 50-54 urteko lagunak % 73ra iristen dira. Nahiz eta 55-59 urteko lagunak % 57,1era jaitsi, eta 20-24 urtekoak % 55,8ra, oraindik ere biztanleria aktiboa nagusitzen da adin-tarte horretan. 60 urtetik gorakoen eta 20 urtetik beherakoen artean, ordea, egoera bestelakoa da, jarduera-tasa oso txikiak baitituzte bi kasuetan (% 27 eta % 10,2, hurrenez hurren). Egiazta daitekeen bezala, jarduerak gehiengoa izateko joera duen adin-tartea 20 urtetik 59 urtera bitartekoa da, eta 25-54 urteko lagunaren kasuan, zifrak biztanleria aktiboaren % 73tik % 89ra bitarteko tartean daude.

16-64 urteko biztanleria aktiboa, adinaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta jarduera-tasa %-etan)

Adina	Absolutuak	%	Jarduera-tasa
16-19 urte	7.030	0,7	10,2
20-24 urte	60.629	6,0	55,8
25-29 urte	135.479	13,5	85,6
30-34 urte	150.636	15,0	89,0
35-39 urte	139.624	13,9	85,6
40-44 urte	153.762	15,3	84,1
45-49 urte	132.503	13,2	82,8
50-54 urte	110.535	11,0	73,0
55-59 urte	77.615	7,7	57,2
60-64 urte	34.546	3,4	27,0
Guztira	1.002.357	100	70,3

Sexuaren eta adinaren araberako datuei erreparatuta, gizonek jarduerarako joera handiagoa dutela atzematen da adin guztietan. 25 urtetik beherako biztanleriaren artean, aldea 5 puntu baino txikiagoa da (gizonezkoen tasa % 40 da eta emakumeena % 36,2), eta 10 puntu baino txikiagoa 25 eta 34 urte bitartekoetan (% 91,8 eta % 82,6), baina 20 puntutik gorako aldea ageri da 35-49 urte bitarteko multzoan (% 95,1 eta % 73); 50 urtetik gorako kasuan, aldea oso handia da, 35 puntu ingurukoa (gizonen tasa % 70,8 eta emakumeena % 37,3).

Aurreko datuek alde nabarmenak erakusten dituzte sexuaren arabera, jarduerari dagokionez. Jarduerarekiko lotura-maila handienak 25-49 urtekoen artean lortzen dira gizonen kasuan, % 90etik gorako jarduera-tasak dituztela; 50 urtetik gora ere, jarduera nagusi da, % 70,8ko tasarekin; baina emakumezkoen kasuan, 35 urtetik aurrera jarduerari uzteko joera atzematen da. Izan ere, 25-34 urteko emakumeen kasuan, % 82,6ko tasa % 73ra jaisten da 35-49 urteko taldean; gizonen kasuan, ordea, tasa hori % 91,8tik % 95,1era igotzen da. Lan-merkatutik ateratzeko joera areagotu egiten da 50 urtetik gorakoetan, 50-64 urteko emakumezkoen artean gutxiengoa baita jardueran hasten dena (% 37,3). Egia esan, 25-34 urteko adin-taldean soilik ikus daiteke jarduerarako joera nabarmena eta jarduera-maila nahiko hurbilak gizonetan eta emakumeetan.

16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasak, sexuaren eta adinaren arabera

(%-etan)

Adina	Sexua		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira
16-24	40,0	36,2	38,1
25-34	91,8	82,6	87,4
35-49	95,1	73,0	84,2
50-64	70,8	37,3	53,6
Guztira	80,5	59,9	70,3

Oro har, eskualde-eremuan ikusi da jarduera-tasa orokorrak batez bestekoa baino handiagoak dituzten eskualdeak direla adinaren araberrako jarduera-tasa espezifikoko handienak dituztenak. Hori bereziki nabaria da jarduerarako joera handiena duten Gipuzkoako hiru eskualdeetan —Donostialdea, Tolosa-Goierri eta Debagoiena—, eskualde horiek bakarrik gainditzen baitute jarduera-mailen % 72,5a. Eskualde horietan, jarduera-tasak, oro har, EAEko erreferentziako batez bestekoak baino nabarmen handiagoak dira adin guztietan, nahiz eta Debagoiengan, 50 urtetik gorakoen tasa batez bestekoaren ingurukoa den eta 25 urtetik beherakoena batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa. Bestalde, Aiaran, jarduera-tasa orokorra batez bestekoa baino askoz handiagoa izatea 25-49 urtekoen tasa espezifikoa oso handia izatearen ondorioa da, nahiz eta 25 urtetik beherakoena nahiz 50 urtetik gorakoen tasak batez bestekoaren oso hurbil dauden.

Durangaldearen kasua Aiara eskualdearen oso antzekoa da: EAEko batez bestekoa apur bat gainditzen da, 25-49 urtekoen tasa espezifikoko batez bestekoa baino nabarmen handiagoak izanik. 55 urtetik gorakoei dagokienez, batez besteko mailan dago tasa, baina jaitsiera handia gertatzen da (% 33ra arte) 35 urtetik beherakoetan. Gasteizen kasuan, 35 urtetik gorakoen tasa espezifikoko batez besteko mailak gainditzen dituztenez, EAEko batez besteko maila gainditzen du, baina 35 urtetik beherako biztanleriaren jarduera-maila erreferentziako batez bestekoa baino txikiagoa da.

Jarduera-tasa orokorrak EAEko batez bestekotik beherakoak dituzten eskualdeen kasuan, aipagarria da tasa espezifikoko inoiz ez direla EAEko erreferentziako batez bestekoen oso azpikoak adin multzo guztietan. Dena dela, Eskuinaldearen kasuan 25 urtetik beherakoena tasa soilik da batez bestekoa baino zertxobait handiagoa; gainerako adin multzoek ez dute maila hori gainditzen. Ildo berari jarraiki, Bizkaia-Kostaren kasuan 25-34 urtekoek soilik gainditzen dute adin horretako batez besteko maila, eta tasa bereziki txikia da 25 urtetik beherakoena kasuan, adin horretako EAEko jarduera-tasa txikiena izanik (% 24,1).

Bilbon, 35 urtetik beherakoen jarduera-tasak oso txikiak dira konparatuz gero (25 urtetik beherakoen kasuan % 32 eta 35-44 urtekoetan % 80,1), baina hein batean, behintzat, konpentsatuta geratzen dira adin horretatik gorakoek erreferentziako batez bestekoak gainditzen edo berdintzen dituztelako. Ezkerraldean justu kontrakoa gertatzen da; hau da, 35 urtetik beherakoen tasa espezifikoek batez bestekoa gainditzen dute baina adin horretatik gorakoek tasak oso-oso txikiak dira, EAEko txikiak, hain zuzen ere (35-44 urtekoetan % 80,6 eta 45 urte eta gehiagokoek kasuan % 46,8).

Bukatzeko, Debabarrenean 50 urtera arte jarduerarako joera handia dago, baina 50 urtetik gorakoek jarduera-tasa adin horretako EAEko batez bestekoren oso azpitik geratzen da (% 51,8 eta % 53,6, hurrenez hurren).

16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasak, sexuaren eta eskualdearen arabera
(%-etan)

Eskualdea	Adina				Guztira
	< 25 urte	25-34 urte	35-49 urte	> 50 urte	
Gasteiz	37,4	85,8	85,3	55,4	70,7
Aiara	38,4	91,2	85,6	54,3	72,2
Eskuinaldea	39,7	86,3	83,5	52,5	68,8
Bilbo	32,0	80,1	84,3	55,1	68,8
Ezkerraldea	40,9	88,4	80,6	46,8	67,8
Bizkaia-Kosta	24,1	91,7	82,3	53,6	69,2
Durantaldea	33,0	88,6	85,8	53,3	70,8
Donostialdea	43,8	89,5	85,3	56,8	72,8
Tolosa-Goierri	43,0	92,7	85,7	58,2	73,8
Debagoiena	36,9	89,9	91,4	53,7	73,2
Debabarrena	41,5	92,2	85,7	51,8	69,8
Guztira	38,1	87,4	84,2	53,6	70,3

2.2. Azken aldiko bilakaera.

Jarduera-zenbatekoek azken aldian izan duten bilakaera aztertzeko, kontuan izan behar ditugu lehengo mende amaieran Eurostatek eta Eustatek egindako aldaketak, jarduerarekiko loturari dagokionez, biztanleriaren aldagaia osatzeko prozeduran. 2005etik aurrera, BJA metodo berriari dagozkion datuekin soilik lan egitea erabaki zenez, bilakaera-datuak baldintzatuak egongo dira metodologian izandako aldaketekin, eta ez dugu serie homogeneorik izango aldi osorako. Konparazio batera, metodo zaharreko datuei eustea erabaki da 2001. urtera arte — urte hori barnean hartuta— eta hortik aurrera, metodo berriari dagozkion datuekin lan egitea.

Azken aldiko bilakaera aztertzeari ekinda, hona hemen epe luzera nabarmendu beharreko datu garrantzitsu bat: 16-64 urte bitarteko biztanleria aktiboaren hazteko joera, guztirako biztanleriak bilakaera negatiboa izanik. Ildo beretik, 1997-2007 aldi osoan biztanleria aktiboa %

6,5 hazi da. Gorakada horren arrazoi nagusietako bat da 2001 eta 2005 bitartean izandako jardueraren berbiztea, aktibo-bolumena % 4,2 handituta. 1997-2001 laurtekoan, biztanleria mota horretan hazkunde-erritmoa murrizteko joera zegoen, eta gorakada horrekin joera hori eten egin zen (1997-2001 aldian % 1,7 eta 1993-1997 aldian % 2,1).

Alabaina, azken aldiko bilakaerak —2005 eta 2007 bitartean aktiboen bolumena % 0,5 eskas hazi da— 2001-2005 aldiarekiko nolabaiteko haustura adierazten du, hazkunde-mailak 1993 eta 2001 bitartean ikusitako mailen azpikotik ere baitaude, % 2 ingurukoak baitira lau urtean behin. Horretaz gain, datuen arabera, aldi horretako hazkundea 2005. eta 2006. urteetan metatzen da, eta 2006an eta 2007an biztanleria aktiboaren maila geratu egiten dela esan daiteke.

Hala ere, aldaketa hori biztanleria potentzialki aktiboaren bolumen-murrizketarekin (2005. urtetik aurrera gertatu zen) loturik dago. Izan ere, jarduera-tasak gora egin du 2005-2007 aldian, 2005eko % 69,6tik 2006ko % 70era eta 2007ko % 70,3ra igota, 2003-2005 aldiko geldialdiarekin kontrastean. Epe luzera, jarduera-tasaren hazkundea oso nabarmena da, 1997ko % 64,1etik gaur egungo % 70,3ra igarota.

Biztanleria aktiboaren bilakaera oso desberdina da 2005 eta 2007 bitartean, generoaren arabera. Horrela bada, gizonezkoen biztanleriak lehenengo beherakada izan du 1997. urteaz geroztik (-% 0,6 2005 eta 2007 bitartean), emakumezkoen aktibo kopuruaren hazkundearen erritmoa, ordea, garrantzizkoa da (% 2); horrek esan nahi du hazteko joera berreskuratu dela 2003 eta 2005 bitartean izandako geldialdiaren aurrean. Oro har, 1997 eta 2007 bitartean gizonezkoen aktibo kopurua % 3,7 hazi da eta emakume aktibo kopurua, ordea, % 10,6.

Emakumezkoen jardueraren bilakaera aldekoena denez gero, emakumeen jarduera-tasak hurbildu egin dira; izan ere, 1997. urtean, 23,7 puntuko aldea zegoen, 2001. urtean, aldiz, 23,6, 2005. urtean 22,1ekoa eta 2007. urtean 20,7koa. Hortaz, nahiz eta gizonezkoen jarduera-tasa % 75,9tik % 80,5era hazten den 1997 eta 2007 bitartean, tasek argiago egiten dute gora emakumeen kasuan (1997. urtean % 52,2 izatetik % 55,3 izatera igaro dira 2001. urtean; 2005. urtean % 58,4 ziren; 2006. urtean % 59,5 eta 2007an % 59,9)³. Aipatutako bilakaera gorabehera, gizonezkoen eta emakumezkoen jarduera-tasaren arteko aldeak oso handiak dira oraindik.

³ Aipatu behar da, ordea, emakumezkoen jarduera-tasaren hazkundea 2005 eta 2007 bitartean ez dela zifrek adierazten dutena bezain deigarria. Ildo horretatik, gogoratu behar da tasa horrek behera egin zuela 2003 eta 2005 bitartean, aldi hartan % 59 izatetik % 58,4 izatera igaro baitzen. 2005 eta 2007 bitartean izandako aurrerapena garrantzitsua da 2003ko maila gainditzen duelako, baina 2003 eta 2005 bitartean metatutako atzerapena berreskuratzea dela esan daiteke, hein batean.

Egiaz, adinaren aldagaia da alderik handienak dituen azken aldiko bilakaeran. Daturik deigarriena biztanleria aktiboaren bolumenak gazteen taldean izan duen beherakada da. 25 urtetik beherakoei dagokionez, aktiboen bolumena % 44,2 jaitsi da 1997 eta 2007 bitartean. 93-97 laurtekoan joera nabarmena zen, % 13,9ko beherakada izan baitzen, baina 1997 eta 2001 bitartean areagotu egin zen (%-21,6); immigrazioak ere ezin izan du bilakaera hori aldatu, eta aktibo gazteen bolumenak berriro % 18,5eko beherakada izan du 2001-2005 aldirian, 2001-2003 aldirian zertxobait egonkortu zen arren. 2005 eta 2007 bitartean ikusitakoak prozesua areagotu baino ez du egin, % 12,7ko jaitsiera izan baita. Jaiotza-tasaren jaitsierak badu eraginik horretan, eta zalantzarik gabe, horixe da arrazoi nagusia, baina baita jarduerarako joera txikiagoa izateak ere. 25 urtetik beherakoen jarduera-tasa 2003an % 45,2 zen, 2005ean % 39,7, 2006an % 39 eta % 38,1 2007an, 1997-2007 aldiko kopurutik txikienera iritsita.

Aktiboen bolumenak jaisteko izan duen joera bera dagoela ikus daiteke 25-34 urteko lagunen kasuan ere. Aktibo kopurua % 5,9 soilik jaitsi bada ere 1997 eta 2007 bitartean, jaitsiera handiena 2005-2007 aldirian dagokio. Azken bi urte horietan, 25-34 urteko aktiboak % 4,2 jaitsi dira, 1993-1997 eta 1997-2001 laurtekoetako % 1etik beherako zenbatekoekin kontrastea eginez. Jarduerarako joera horrek ere beheranzko joera du 2003. urtetik aurrera talde horretan; izan ere, adierazitako urtean % 89,4koa zen, 2005ean % 87,5ekoa, eta 2007an % 87,4koa, 2006. urteko gutxienera kopurutik (% 86,8) berriz gora eginez.

Beste muturrean, jarduera-zenbatekoen bilakaera oso positiboa da 35 urtetik gorako kasuan. 35-49 urteko taldeari dagokionez, biztanleria aktiboa % 20,3 hazten da 1997 eta 2007 bitartean, eta 2005 eta 2006 bitartean % 3,8ko hazkunde nabarmena du oraindik ere. Taldearen jarduera-tasak goranzko joerari eutsi dio, 1997. urtean % 79koa baitzen, 2005ean % 83,1ekoa eta 2007an % 84,2koa.

Baina 50 urtetik gorako artean handitu da gehien biztanleria aktiboa, 1997. urteaz geroztik % 37,4 handitu baita. Gainerako multzoetan ez bezala, aktiboen kolektibo horren hazkunde-erritmoa etengabe handitu zen 2005. urtera bitarte. 2005etik 2007ra bitarte erritmoa zertxobait murriztu den arren, hazkunde-erritmo handiari eutsi zaio, aktibo kopurua % 5,6 hazi baita. Bilakaera positibo horrek jarduera-tasa nabarmen haztea eragin du (1997. urtean % 44,1 zen; aitzitik, 2001. urtean, % 48,7, 2005. urtean % 52,2 eta 2007. urtean, % 53,6), 25 urtetik beherakoei azken urte honetan dagokien tasa baino 15 puntu gehiago gutxi gorabehera (1997. urtean 5 puntuko aldea besterik ez zegoen).

Hala ere, 50 urtetik gorako biztanleriaren jardueraren azken aldiko bilakaeran bada aipatu beharreko datu negatibo bat: 2007. urtean, jarduera-tasaren hazkunde-prozesua eten egin da, 2006an maila gorenera (% 53,7) iritsi ostean. Azken urtean aktibo-bolumenaren hazkundera

txikiagoa izan delako gertatu da hori, izan ere, 2005-2007 aldiko jarduera-mailaren hazkunde absolutuaren % 79,1 2005-2006 aldiari baitagokio.

Deskribatutako aldaketa horiek eragin handia izaten ari dira biztanleria aktiboaren barne-egituraren oinarritzko ezaugarrietan. Horrela, bada, 1997an 35 urtetik beherakoak Euskadiko aktibo guztien % 45,2 ziren baina proportzioa jaitsi egin da, 2005ean % 37,7ra, 2006an % 36,3 eta 2007an % 35,3ra.

Bestalde, ezin da aipatu gabe utzi 35 urtetik gorakoetan jardueraren bilakaera hobea izan dela, eta bereziki, 50 urtetik gorakoetan, 2006. urtera bitarte; jardueraren aurreko jokabide hori ez dator bat, inolaz ere, 1997ra bitartekoarekin. Aldaketa hori, neurri handi batean, honako honekin loturik dago: emakumeak jardueran hastearekin. Ikus daitekeenez –okupazioaren gorakadako aldietan–, okupazioaren krisi-urteetan izandako prozesuaren alderantzizkoa gertatzen ari da; krisi-garai haietan, langabezia-tasa handiaren eraginez, kolektibo gazteenak eta zaharrenak lan-merkatutik atera ziren pixkanaka, eta batez ere, emakumeak. Baina garai hori bereizten duen elementu nagusia honako hau da: lan-merkatura berriz itzultzeko prozesuak biztanle zaharrenak, batik bat, hartzen dituela eraginpean, eta biztanleria gazteenak jarduerarako duen joerari egonkorki eusten zaiola esan daiteke.

Alabaina, 2006-2007 aldiko datuen argitara, badirudi prozesu hori amaitu dela, 50 urtetik gorakoen kasuan, bederen.

**16-64 urteko biztanleria aktiboaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera
(1997-2007 aldian)
(Datu absolutuak)**

Sexua eta adina	Absolutuak					
	1997	2001	2003	2005	2006	2007
Gizonak	559.334	565.245	567.000	583.244	581.059	579.896
Emakumeak	381.990	391.740	413.219	414.036	421.021	422.462
< 25 urte	121.173	95.045	95.693	77.482	72.182	67.659
25-34 urte	304.018	301.305	303.590	298.791	291.508	286.114
35-49 urte	354.071	377.100	376.534	410.211	418.177	425.889
50-64 urte	162.062	183.535	204.404	210.796	220.213	222.695
Guztira	941.324	956.985	980.220	997.280	1.002.081	1.002.357
Jarduera-tasa	64,1	67,2	69,6	69,6	70,0	70,3

**16-64 urteko biztanleria aktiboaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera
(1997-2007 aldian)
(Hazkundearen %-a)**

Sexua eta adina	Hazkundearen %-a			
	07/05	05/01	01/97	07/97
Gizonak	-0,6	3,2	1,1	3,7
Emakumeak	2,0	5,7	2,6	10,6
< 25 urte	-12,7	-18,5	-21,6	-44,2
25-34 urte	-4,2	-0,8	-0,9	-5,9
35-49 urte	3,8	8,8	6,5	20,3
50-64 urte	5,6	14,9	13,2	37,4
Guztira	0,5	4,2	1,7	6,5

**16-64 urteko biztanleriaren jardueraren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera
(1997-2007 aldian)
(%-etan)**

Sexua eta adina	Jardueraren tasak				
	1997	2001	2003	2005	2007
Gizonak	75,9	78,9	80,1	80,5	80,5
Emakumeak	52,2	55,3	59,0	58,4	59,9
< 25 urte	39,1	40,1	45,2	39,7	38,1
25-34 urte	88,5	87,9	89,4	87,5	87,4
35-49 urte	79,0	80,6	82,4	83,1	84,2
50-64 urte	44,1	48,7	51,0	52,2	53,6
Guztira	64,1	67,2	69,6	69,6	70,3

Sexuaren eta adinaren arabera jardueraren bilakaera aztertuta, 1997 eta 2007 bitartean izandako bilakaeraren zentzu errealari buruzko informazio zehatzagoa lortuko dugu. Bi aldagai horiek batera aztertuz gero, egiaztatzen da emakumeen artean jardueraren bilakaera positiboagoa dela gizonen artean baino, adin-tartea edozein izanik ere. Egia esateko, gizonen kasuan eta 1997-2001 aldiko maila dagokienez, 50 urtetik beherako adin-tartean jardueraren bilakaera positiboagoa garrantzi handiagoko edo txikiagoko beherakadak sumatzen dira.

50 urtetik gorako gizonen kasuan ere, azken aldiko bilakaera ez da oso positiboa. Talde horretan —ikusten zen hazteko joera nabarmena zuela 1997 eta 2001 bitartean; jarduera-tasa % 64,3 izatetik % 69,8 izatera igaro baitzen—, hazkundera moteldu egin da 2001 eta 2005 bitartean; nolana ere, jarduera-tasa % 71,5era iritsi zen urte horretan. 2006. urtean, tasa % 71,4an gelditu zen eta 2007an % 70,8ra jaitsi.

Emakumeen kasuan, bilakaera bereziki positiboa da 35 urteko eta gehiagoko kasuan. Horrela bada, 35-49 urteko emakumeen jarduera-tasa % 62 zen 1997. urtean, 2007. urtean, aldiz, % 73 da; 50 urteko eta gehiagoko emakumeen tasari dagokionez, % 24,2tik % 37,3ra hazten da. Horretaz gain, 2005 eta 2007 bitartean, joera joranzkoa da oraindik ere, bereziki 50 urteko edo gehiagoko emakumeen kasuan (2005. urtean, % 33,4, 2006. urtean, % 36,6 eta 2007an % 37,3; aldiz, 35-49 urteko emakumeen dagokionez, % 71, % 72 eta % 73, hurrenez hurren). Dena dela, 35-49 urteko emakumeen kasuan, 2003-2007 aldiko hazkundera (1,5 puntu jarduera-tasan) askoz txikiagoa da 1997-2003 aldikoarekin (9,5 puntu) alderatuta.

Gizonekin gertatzen zen bezalaxe, emakumeen kasuan ere sumatzen dira prozesu negatiboak jarduera-tasen bilakaerari dagokionez. Horrela bada, 25 urtetik beherako emakumeen kasuan, jarduera-tasa —% 43,6 zen 1993. urtean— 2003. urtean % 40,5ekoa bazen ere, 2007an % 36,2ra jaitsi da; tasa horri % 36 eta % 37 bitarteko mailan eutsi zaio 2005. urtetik aurrera. Nolanahi ere, bilakaera negatiboa 25-34 urteko emakumeen dagokionez. Kasu horretan, 1997 eta 2003 bitartean % 82,6tik % 86,1era hazi zen, baina 2005. urtean % 83ra eta 2006. eta 2007. urteetan % 82,5 inguruko mailara jaitsi da. Hortaz, 2007. urtean, 25-34 urteko emakumeen jarduera-tasa 1997. urtean ikusitako egoerara itzuli da, % 82,6an baitago.

Azken batean, 50 urtetik gorako emakumeen jarduera-tasak gora egin du, nabarmen, 2003tik 2006ra, baina 35-49 urteko emakumeen hazkunde-intentsitatea galdu du aldi horretan, eta bereziki 35 urtetik beherako emakumeen kasuan, jarduerarako joera modu esanguratsuan murriztu da. Azken bi zirkunstantzia horiek, ordea, Euskadin azken urteotan gertatzen ari den ugalketa demografikoaren prozesuarekin loturik daude, neurri batean.

Alderatuta, 1997 eta 2007 bitartean emakumeen jarduera-tasen bilakaera positiboagoa izateak ahalbidetzen du gizonezkoen tasekiko oraindik ere dauden alde izugarriak murriztea, batik bat, 25 urtetik aurrera. Hori horrela izanik, 25-49 urtekoen tasekiko alde nabarmen murriztu da (11,6 puntutik 9,3 puntura 25-34 urtekoetan, eta 34,2 puntutik 22,1 puntura 35-49 urtekoetan), eta 50 urtetik gorako emakumeen ere positiboki eragin die prozesu horrek (1997an 40 puntuko alde zegoen eta gaur egun 33,4 puntuko). Hala ere, joera positibo hori aldatu egin da, zati batean, behintzat, azken urteotan, 25-34 urtekoen kasuan gorakada diferentziala gertatu baita (6,5 puntutik 9,3 puntura 2003-2007 aldian).

25 urtetik beherakoei dagokienez, 1993. urtetik aurrera izandako bilakaerak areagotu egin du gizonetzkoen eta emakumezkoen tasen arteko aldea. 25 urte baino gutxiago dituzten emakumezkoen jarduera-tasa gizonetzkoen oso antzekoa izatera iritsi zen 1993. urtean, baina 2007an 3,9 puntuko alde negatiboa dago (% 36,2 emakumeek, % 40 gizonek). Dena dela, 2003ko egoerarekin alderatzen badugu, esan dezakegu egoera nabarmen hobetu dela (9,3 puntuko aldea dago gizonen alde), baina batez ere gizonetzkoen kasuan, gazteen jarduera-tasak 2003tik 2007ra bitarte izan duen beherakadagatik hobetu da.

16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasen bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera (1997-2007 aldia)
(%-etan)

Sexua eta adina	Jarduera-tasak				
	1997	2001	2003	2005	2007
< 25 urte	40,5	44,4	49,8	42,7	40,0
25-34 urte	94,3	92,2	92,6	91,7	91,8
35-49 urte	96,2	94,1	93,4	95,2	95,1
50-64 urte	64,3	69,8	70,5	71,5	70,8
Gizonak	75,9	78,9	80,1	80,5	80,5
< 25 urte	37,8	35,7	40,5	36,5	36,2
25-34 urte	82,6	83,4	86,1	83,0	82,6
35-49 urte	62,0	67,1	71,5	71,0	73,0
50-64 urte	24,2	28,3	32,0	33,4	37,3
Emakumeak	52,2	55,3	59,0	58,4	59,9

Lurraldearen ikuspegitik begiratuta, aktibo-bolumenak bilakaera ezberdina izan du eskualdeetan. 1997-2007 aldian, zenbait tokitan biztanleria aktiboaren bolumena txikitu ere egin den bitartean, beste toki batzuetan gorakada handiak izan dira aktiboaren kopuruan.

Debabarrena eta Bilbo eskualdeek izan dute bilakaerarik negatiboena. Bi kasuetan, 1997-2007 aldian beherakada txiki bat gertatu da (% 0,5 baino txikiagoa) biztanleria aktiboaren bolumenean, nahiz eta bi eskualdeetan jarduera-tasak egiaz gora egin duen erreferentziako aldi horretan: % 63tik % 69,8ra Debabarrenean, eta % 64,1etik % 68,8ra Bilbon. Gainera, bilakaera positiboa izan da bi eskualdeetan 2005 eta 2007 bitartean, Bilbok % 1,5eko igoera izan baitu aktibo-bolumenean, eta Debabarrenak % 3koa, EAEn batez besteko gisa bildutako % 0,5etik gora. Jardueraren kopuruari dagokionez, 2005-2007 aldiko bilakaera onak 2001-2005eko jaitziera konpentsatu du eskualde horietan. Dena den, Debabarrenean berreskuratze-prozesuari eutsi egin zaio 2006tik 2007ra bitarte, baina Bilbon biztanleria aktiboaren bolumena % 1,4 jaitsi da, jarduera-tasa % 68,8n geratuta.

Bestalde, datuen arabera, 1997-2007 aldian aktibo kopuruaren igoerak batez bestekoa baino askoz txikiagoak izan dira Ezkerraldean eta Debagoienean. Eskualde horietako aktibo-

bolumena % 3,5 eta % 4,7 hazi da, hurrenez hurren, aldi horretan, baina 2005etik 2007ra atzerakada gertatu da. Biurteko horretan, Ezkerraldeko biztanleria aktiboa % 1,4 murriztu da, eta Debagoienekoa % 4,8; azken eskualde horretan, jaitsiera 2006-2007 aldian metatu da, oso-osorik. Ezkerraldearen kasuan, azken aldiko bilakaeran jarduera-tasen gorako joerari eutsi egin zaio: 1997an % 59,8, 2005ean % 66,9, 2006an % 67,5 eta 2008an % 67,8. Debagoienean ez da horrelakorik gertatu; izan ere, 2006. urtetik 2007. urtera bitarte jarduera % 74,9tik % 73,2ra murriztu da eta zenbateko hori 1997ko % 63,7 baino askoz handiagoa den arren, 2005eko % 73,6ren azpitik dago.

Adierazitako eskualdeei kontrajarrita, 1997 eta 2007 bitartean ikusten da EAeko gainerako eskualdeetan aktibo kopuruaren hazkundea EAeko batez bestekoarena (% 6,5) baino handiagoa dela. Gasteizen, Aiaran, Donostialdean eta Tolosa-Goierriin, hazkundea % 7,5etik % 9,5era bitartekoa da 1997 eta 2007 bitartean. Ia eskualde horietan guztietan, igoera hori jarduera-tasak nabarmen igo izanarekin lotzen da, igoera hori 6 puntu ingurukoa edo gehiagokoa izan da azken hamar urte hauetan. Salbuespen bakarra Gasteiz da, 1,5 puntuko igoera izan baitu 1997-2007 aldian. Eskualde horretan aktibo kopurua nabarmen igo izanak lotura handiagoa du adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleria orokorrean igo izanarekin, jarduera-mailak nabarmen igo izanarekin baino.

Eskualde horiek azken aldian izan duten bilakaera, gainera, ez da berdina. Hori horrela, Aiaran, 2005. urtetik 2007. urtera aktibo kopurua eta jarduera-tasak asko handitu dira: jarduera-tasa % 68,7tik % 72,2ra, eta aktibo-bolumena % 3,5. Donostialdean eta Gasteizen, aktibo kopuruaren hazkundea ez da % 0,4 baino handiagoa 2005-2007 biurtekoan. Bi eskualdeetan aktibo-bolumenak behera egin du 2006an eta 2007an, baina Donostialdean beherakada % 0,2koa baino ez da, % 72,8ko jarduera-tasarekin uztargarri izanik (2006ko % 73ko maila gorenetik hurbil). Aldiz, Gasteizen aktibo kopurua % 1 jaitsi da 2006tik 2007ra eta jardueratasaren puntu bateko jaitsierarekin loturik dago (2006ko % 71,7tik 2007ko % 70,7ra). Bestalde, 2005-2007 biurtekoan, Tolosa-Goierriin aktibo-bolumenaren jaitsiera % 1,6koa da, eta batez ere 2005-2006 aldiko bilakaerarekin loturik dago. 2006tik 2007ra % 73,2tik % 73,8ra hazi den arren (gaur egun EAeko mailarik handiena da), eskualde horren jarduera-tasa 2005eko % 74,4 baino txikiagoa da oraindik ere.

Jardueraren bilakaera positiboena Eskuinaldean, Bizkaia-Kostan eta Durangaldean gertatu da. Eskualde horretan, aktibo kopurua % 13tik % 14ra bitarte igo da 1997-2007 aldian. Datuen arabera, ordea, eskualdeetako errealitateak oso bestelakoak dira. Alde batetik, Eskuinaldea eta Durangaldea eskualdeetan, 1997-2007 aldian jarduerarako joera 7 eta 8 puntu bitarte handitu da. Baina 2005-2007 biurtekoan aktibo-bolumena eta jarduera-tasak gehien handitu dituzten eskualdeetako bat Durangaldea den bitartean, Eskuinaldean aktibo kopuruan erabateko

beherakada izan da, biurteko horretan. Eskualde horretan, gainera, 2005ean lortutako jarduera-tasari eutsi baino ez diote egin (% 68,8).

Bizkaia-Kosta, Durangaldearekin batera, 2005etik 2007ra bitarte jarduera-maila gehien handitu duen eskualdeetako bat da. Baina Durangaldean ez bezala, aktibo-bolumenaren hazkundeak lotura argia du adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleriaren bolumen-hazkundearekin, 1007-2007 aldian jarduera-tasa soilik 3,3 puntu handituta (% 65,9tik % 69,2ra); Gasteizeko eskualdeak soilik du hazkunde hori baino txikiagoa, aldi horretan. 2005-2007 aldiko bilakaerari erreparatuta, jarduera-tasak egonkortzeko joera dagoela ikusiko dugu.

Eskualdearen araberako jarduera-tasen azken aldiko bilakaera aztertzen ari garelarik, azken datu bat aipatu behar dugu. 2006-2007 aldian jarduera-mailak jaisteko edo egonkortzeko prozesuari buruzkoa da, urbanizazio-maila handiko edo dinamismo ekonomiko gorakor nabarmeneko eremuetan. Egoera horretan daude Gasteiz, Bilbo eta Ezkerraldea, baita Donostialdea eta Debagoiena ere; eta eskualde horien egoera urbanizazio-maila txikiagoa duten eskualde gehienetako joeraz bestelakoa da, hau da, jarduera oraindik ere handitzeko joerarekin. Azken urtean, Eskuinaldeak itxuraz hobera egin du baina 2005etik 2006ra bitarteko bilakaera negatiboaren ondorio da hori. Oro har hartuta, eskualde horietan jarduera-tasa % 69,5etik % 70,1era igo da 2005. urtetik 2006. urtera, aktibo kopurua % 0,8 handituta; 2007an tasari egonkor eutsi zaio, baina aktibo-bolumena % 0,8 murriztu da. Hori horrela, 2005eko mailaren pare (zertxobait azpitik) geratu dira eskualde horiek aktibo kopuruari dagokionez.

**16-64 urteko biztanleria aktiboaren bilakaera, eskualdearen arabera
(1997-2007 aldia)**

(Aktiboak, hazkundera %-etan eta jarduera-tasak izandako aldaketak)

Eskualdea	Aktiboak				Hazkundera %-etan		Jarduera-tasa			
	1997	2005	2006	2007	07/97	07/05	1997	2005	2006	2007
Gasteiz	118.371	126.798	128.095	127.298	7,5	0,4	69,2	71,1	71,7	70,7
Aiara	18.841	19.590	20.346	20.271	7,6	3,5	66,3	68,7	71,0	72,2
Eskuinaldea	67.131	76.113	73.489	75.813	12,9	-0,4	61,6	68,8	66,6	68,8
Bilbo	158.664	155.757	160.347	158.086	-0,4	1,5	64,1	66,7	68,8	68,8
Ezkerraldea	171.575	180.138	181.492	177.597	3,5	-1,4	59,8	66,9	67,5	67,8
Bizkaia-Kosta	49.729	53.989	52.655	56.463	13,5	4,6	65,9	69,1	67,6	69,2
Durungaldea	49.424	53.615	53.767	56.288	13,9	5,0	62,9	69,3	69,6	70,8
Donostialdea	206.199	222.380	223.236	223.299	8,3	0,4	65,9	72,5	73,0	72,8
Tolosa-Goierri	48.454	53.887	52.940	53.006	9,4	-1,6	64,0	74,4	73,2	73,8
Debagoiena	28.339	31.155	31.664	29.674	4,7	-4,8	63,7	73,6	74,9	73,2
Debabarrena	24.596	23.859	24.051	24.563	-0,1	3,0	63,0	65,8	66,7	69,8
Guztira	941.324	997.280	1.002.081	1.002.357	6,5	0,5	64,1	69,6	70,0	70,3

2005 eta 2007 bitarteko jarduera-tasen bilakaera eskualdearen eta sexuaren arabera aztertuz gero, orain ere argi ikusten da jarduera-mailen igoera orokorra eta emakumezkoen jarduera-tasen igoera hertsiki lotuta daudela. Horrela bada, 2005 eta 2007 bitartean jarduerta-tasak gehien hazten diren bost eskualdeetan ikusten da emakumezkoen jarduerta-tasak 2,5 puntu edo gehiago igotzen direla. Eskualde horietan, gizonezkoen jarduerta-tasaren bilakaera, ordea, positiboa da zenbait kasutan: Aiaran, Bilbon eta, bereziki, Debabarrenean. Aldiz, Ezkerraldean eta Durungaldean gizonezkoen jarduerta-tasek jaitsiera handia izan dute. Jaitsiera horrek eskualde horietako jarduerta-tasa orokorra Aiarakoa, Bilbokoa eta Debabarrenekoa baino gutxiago haztea eragin du, hain justu, 0,9 eta 1,5 puntu bitarte; jarduerta-tasa orokorra 2 eta 4 puntu bitarte hazi da.

Emakumeen jarduerta-tasen bilakaera ez da hain ona Bizkaia-Kostan, Donostialdean, Tolosa-Goierri eta Debagoiengan: 2005etik 2007ra bitarte, 0,9 puntutik 1,3 puntura, eta gainera, gizonezkoen jarduerta-tasak ere jaitsi egin dira. Bizkaia-Kostan eta Donostialdean, gizonezkoen tasak puntu bat edo gutxiago jaitsi direnez, jarduerta-tasa orokorrean zertxobait goranzko bilakaerari eutsi ahal izan diote; Tolosa-Goierri eta Debagoiengan 1,9 puntuko beharakada izan da gizonezkoen jardueran eta horren eraginez, 2005-2007 aldian jarduerta-tasa orokorra puntu-erdi inguru jaitsi da.

2005-2007 biurtekoan, Eskuinaldean eta Gasteizen soilik jaitsi da emakumeen jarduerta-tasa. Alabaina, emakumeen tasetako jaitsiera horrekin batera, gizonezkoen jarduerta-tasak igo egin direnez, jarduerta-tasa egonkortu egin da Eskuinaldean. Gasteizen emakumeen jarduerta bi puntu erori da, eta gizonezkoena 1,2 puntu hazi denez, ez da behar adina konpentsatzen eta eskualde horretako jarduerta-tasa orokorra 0,4 puntu jaitsi da.

Aurkeztutako datuen argitara, eta emakumeen jarduera-tasaren bilakaera erabakigarria izanik ere, gizonezkoen jarduera-tasa oraindik ere garrantzitsua dela ondoriozta dezakegu, jardueraren dinamika orokorrari dagokionez. Hortaz, nahiz eta gizonezkoen tasaren bilakaera ez den jarduera-tasaren igoera nabarmenaren arrazoi nagusia (gaur egun, emakumeen tasen garrantzi-aldaketa hartzen da arrazoi nagusizat), eragin positiboa izan dezakeela eztabaida ezina da. Hori horrela, emakumeen tasa-aldaketekin lotutako joera positiboak areagotzen dituen elementu izan daiteke, horixe gertatu baita 2005-2007 aldian Aiaran, Bilbon eta Debabarrenean; beste zenbait kasutan, emakumeen jarduera-tasetako jaitsiera konpentsatzeko elementu izan daiteke, Gasteizen eta Eskuinaldean bezala. Alde negatiboan, gizonezkoen jardueran izandako aldaketak emakumeen tasen bilakaera positiboaren kontrapuntu izan daitezke, Bizkaia-Kostan gertatu den moduan, edo bereziki, Tolosa-Goierri eta Debagoienean, azken urteotan.

16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasen bilakaera, sexuaren eta eskualdearen arabera (2005-2007 aldia)
(%-etan)

Eskualdea	Sexua			
	Gizonak		Emakumeak	
	2005	2007	2005	2007
Gasteiz	81,0	82,2	60,7	58,7
Aiara	81,4	82,6	55,1	60,9
Eskuinaldea	78,3	79,5	59,5	58,3
Bilbo	78,0	78,7	55,9	59,1
Ezkerraldea	79,7	79,0	53,7	56,2
Bizkaia-Kosta	79,4	78,4	58,1	59,5
Durungaldea	82,9	81,6	54,9	59,4
Donostialdea	82,1	81,8	62,8	63,7
Tolosa-Goierri	85,8	83,9	61,8	62,7
Debagoiena	80,4	78,5	66,3	67,5
Debabarrena	78,9	82,5	51,7	56,1
Guztira	80,5	80,5	58,4	59,9

Adinaren araberako jarduera-tasei buruzko datuek adierazten dutenez, 2005-2007 aldian gehien hobetu duten eskualdeetako jarduera-mailen hazkundearen arrazoietakoa bat honako hau izan daiteke: 35 urtetik gorakoen jarduera-tasak, oro har, EAEko batez bestekoaren gainetik nabarmen handitzea. Hobekuntza hori 25-34 urtekoen jarduera-tasek orokorrean izan duten bilakaera positiboarekin ere lotzen da. Soilik Debabarrenaren kasuan, hazkunde horiek 35 urtetik gorakoena baino handiagoak dira, eta gauza bera gertatzen da 25 urtetik beherakoetan ere, kasu horretan. Kontrastean, Bilboren kasua aipatuko dugu: jarduera-tasak jaitsi egin dira 2005-2007 biurtekoan 35 urtetik beherakoan artean, eta 25 urtetik beherakoak aintzat hartuz gero, errealitate horrek Ezkerraldea eta Durungaldea ere hartzen ditu eraginpean. Aiaran eta Debabarrenean soilik dago gazteen jarduera-tasa handitzeko joera.

2005. urtetik 2007. urtera bitarte, jarduera-tasa orokorretan joera negatiboa duten eskualdeen kasuan – Gasteiz, Tolosa-Goierri eta Debagoiena-, bereziki nabarmena da lotura handia dagoela joera horren eta 35 urtetik beherakoen jarduera-mailek izandako jaitsieraren artean. Eta garrantzitsuak dira, halaber, 35 urtetik gorakoen tasak egonkortzea Debagoiengan, eta 50 urtetik gorakoen jarduera-tasen jaitsiera handiak Gasteizen eta Tolosa-Goierriin.

50 urtetik gorakoen jarduera-tasen murrizketa –batzuetan, murrizketa nabarmena izaten da- ezaugarri komuna da Eskuinaldean, Bizkaia-Kostan edo Donostialdean, alegia, aldi horretan jarduera-tasa orokorra egonkortu egin den eskualdeetan. Bizkaia-Kostan, beherakada horrek eraginpean hartzen ditu 35-49 urtekoak ere. Eskuinaldeko 25-34 urteko biztanleak alde batera utzita, 35 urtetik beherakoen bilakaerak EAE osokoak baino positiboagoa izateko joera du.

16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasen bilakaera, adinaren eta eskualdearen arabera (2005-2007 aldian)
(%-etan)

Eskualdea	Adina							
	< 25 urte		25-34 urte		35-49 urte		50-64 urte	
	2005	2007	2005	2007	2005	2007	2005	2007
Gasteiz	39,4	37,4	88,9	85,8	83,8	85,3	56,8	55,4
Aiara	35,5	38,4	89,3	91,2	82,2	85,6	50,0	54,3
Eskuinaldea	33,2	39,7	88,6	86,3	82,6	83,5	54,2	52,5
Bilbo	34,2	32,0	84,0	80,1	82,3	84,3	47,3	55,1
Ezkerraldea	49,4	40,9	86,7	88,4	79,6	80,6	42,2	46,8
Bizkaia-Kosta	22,7	24,1	86,0	91,7	87,7	82,3	54,0	53,6
Durangaldea	40,2	33,0	87,9	88,6	82,6	85,8	50,8	53,3
Donostialdea	41,5	43,8	88,1	89,5	84,5	85,3	59,1	56,8
Tolosa-Goierri	45,7	43,0	93,7	92,7	83,7	85,7	61,0	58,2
Debagoiena	41,2	36,9	90,3	89,9	91,3	91,4	53,5	53,7
Debarrena	31,2	41,5	84,7	92,2	82,7	85,7	50,4	51,8
Guztira	39,7	38,1	87,5	87,4	83,1	84,2	52,2	53,6

3. Biztanleria landuna

3.1. Egungo egoera. Datu orokorrak.

2007. urtearen amaieran 16-64 urteko biztanleria landuna guztira 970.957 lagunekoa zen. Horrek esan nahi du biztanleriaren okupazio-koefizientea % 68,1 dela Euskadin⁴.

Biztanleria aktiboan gertatzen zen bezala, okupazioari dagokionez, sexuen arteko desoreka dago, eta biztanleria aktiboan ikusten zen desorekaren antzekoa da. Hortaz, ikusten da landunen % 58,3 gizonak direla, eta % 41,7 emakumeak. Landunen taldean gizonek garrantzi handia izatea okupazio-koefizienteetan dauden alde handiei lotzen zaie: % 78,6 gizonetan eta % 57,4 emakumeetan.

16-64 urteko biztanleria landuna, sexuaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta okupazio-koefizienteak %-etan)

Sexua	Absolutuak	%	Okupazio-koefizienteak
Gizona	565.770	58,3	78,6
Emakumea	405.188	41,7	57,4
Guztira	970.957	100	68,1

Euskadiko okupazio-koefizientea EB-27ko herrialdeena baino handiagoa da, 2007an % 65,7 baita. Euskadik Europar Batasuna (EB-27) osatzen duten 15 estatuk baino maila hobea du aztertutako urtean. Europar Batasun zaharraren barruan, gure okupazio-mailak hegoaldeko Estatu gehienetakoak (Espainia, Italia edo Grezia) baino handiagoak dira, baita Europako erdialdeko zenbait herrialdeetakoak baino handiagoak, hala nola Frantzia, Luxemburg edo Belgika; eta Alemaniarekin, Austriarekin, Irlandarekin edo Finlandiarekin alderatuz gero, gehenez hiru puntuko aldea dugu. Zabaltzearen ondorioz sartutako herrialde berrien artean, Ziprek, Estoniak eta Letoniak soilik dute EAEk baino okupazio-koefiziente handiagoa. Bestalde, oro har okupazio-maila handienak dituzten herrialdeekiko aldea murrizten ari da: 3,6 puntuko aldea Britainia Handiarekin; 5,9 puntukoa Suediarekin, eta 8tik 9,5 puntura bitartekoa Herbehereak eta Danimarkarekin.

⁴ Okupazio-koefizientea zera da: erreferentziako biztanle guztien artean (kasu honetan, 16-64 urteko biztanleria) lan egiten ari diren biztanleek osatzen duten proportzioa. Europan enplegu-tasa erabiltzen da okupazio-tasatik bereizteko (aktibo guztiei dagokienez, landun kopurua erlazionatzen duen tasa). Nolanahi ere, terminologia hori formaren aldetik ez da oso zuzena, izan ere enpleguaren kontzeptua okupazioaren kontzeptuarekin parekatzen da, eta hori ez da horrela.

Aldiz, EB-27rekin alderatuta, Euskadin emakumezkoen okupazio-koefizientea 1,3 puntu txikiagoa da oraindik ere (% 57,4; EB-27koa % 58,7 izanik). Finlandiako, Herbeheretako edo Suediako emakumezkoen okupazio-koefizientea baino 10 puntu txikiagoa da eta Danimarkakoa baino 15 puntu handiagoa. Halaber, Alemanian, Austrian, Britainia Handian, Zipren eta, oro har, Baltikoko herrialdeetan handiagoa da, 5-9 puntu bitartean.

Alabaina, gizonzkoen okupazio-koefizientea askoz handiagoa da Euskadin (% 78,6, EB-27koa % 72,7 dela). Koefiziente hori 2 puntu inguru soilik txikiagoa da Ziprekoa eta Danimarkakoa baino, eta gizonzkoen okupazio-maila handiena duten Herbehereetakoekin 4 puntu baino gutxiagoko aldea dago. 2006. urtetik aurrera, EAEn gizonzkoen koefiziente horrek, gainera, Erresuma Batukoa gainditzen du.

**Adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleriaren okupazio-koefizienteak Europar
Batasunean, sexuaren arabera
2007. urtea
(%-etan)**

Estatua	Sexua		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Alemania	75,3	64,7	70,0
Austria	78,5	64,3	71,3
Belgika	68,8	56,5	62,7
Bulgaria	67,4	58,5	62,9
Zipre	80,3	63,2	71,5
Danimarka	80,8	74,0	77,4
Eslovakia	69,5	53,6	61,6
Eslovenia	72,8	62,3	67,7
Estonia	73,4	65,1	69,1
Finlandia	71,5	68,2	69,9
Frantzia	69,4	60,5	64,9
Grezia	74,9	48,0	61,5
Hungaria	63,6	50,8	57,1
Irlanda	77,1	60,8	69,0
Italia	70,6	46,9	58,7
Letonia	74,7	66,3	70,3
Lituania	67,4	61,5	64,4
Luxenburgo	70,7	57,4	64,0
Malta	73,4	37,7	55,7
Herbehereak	82,4	70,3	76,4
Polonia	64,9	51,5	58,1
Portugal	74,2	62,0	68,1
Txekiar Errepublika	77,7	65,9	71,7
Errumania	75,5	57,4	66,5
Erresuma Batua	64,1	51,7	57,9
Suedia	76,3	71,6	74,0
Espainia	75,8	55,1	65,5
EB-27	72,7	58,7	65,7
EAE	78,6	57,4	68,1

Iturria: 2006ko LIE- 4. hiruhilekoa (15-64 urtekoei aplikatutakoak). Lan Merkatuaren Erroldaren (LME) datuak EAErrako.

Eskualdeen okupazio-koefizienteei dagokienez, gure eskualdeetako posizioa askotarikoa da. Baina horri dagokionez, gaur egun, EAEko eskualde gehienetako okupazio-koefizienteak EB-27koak baino handiagoak dira. Eskualde horien artean, posiziorik onena Aiarak, Donostialdeak, Tolosa-Goierri eta Debagoienak dute. Aiaran eta Donostialdean koefizientea % 70 eta % 71 bitartekoa da, Debagoiengan % 72,2ra iristen da, eta Tolosa-Goierri % 72,6ra, gehieneko mailara. Lau eskualde horietan, okupazio-koefizientea EB-27koa baino handiagoa da, 5 eta 7 puntu bitartean, izan ere European okupazio-maila handienak dituzten Estatuotatik hurbil daude (egia esan, soilik honako hauetatik urruntzen dira nabarmen: Suediako % 74tik, Herbeheretako % 76,4tik eta Danimarkako % 77,4tik).

2007. urtean, okupazio-koefizienteak Europako mailak argi eta garbi gainditu dituzte beste hainbat eskualdetan ere, hain zuzen ere, EAEko batez bestekoaren gaineko okupazio-koefizientea dutenetan: Gasteiz (% 69,2) eta Durangaldea (% 69,4). EAEko batez bestekoaren azpitik egon arren, beste eskualde hauetako koefizienteak EB-27ren batez bestekoaren gainetik daude: Bizkaia-Kosta (% 67,1) eta Debabarrena (% 68). Eskuinaldea Europako batez bestekoaren inguruko mailan dago, % 65,9rekin.

Aldiz, aurreko urteetan bezalaxe, Ezkerraldea oraindik ere EB-27ko batez bestekoaren azpitik dago, gutxi bada ere (% 65,2, EB-27koa % 65,7 izanik). 2006. urtean Bilbok Europako batez bestekoa gainditu zuen, baina 2007an, Bilboren okupazio-koefizientea maila horretatik behera dago berriz ere, % 65,4rekin.

Okupazio-maila orokorra emakumeen okupazio-koefizienteei lotuta dago. Ildo horretan, emakumeen batez besteko koefizientetik gora dauden EAEko eskualdeak, oro har, EB-27ko okupazio-maila orokorra erraz gainditzen dutenak dira, hala nola Aiara, Donostialdea, Tolosa-Goierri eta Debagoiena. Gainera, lau eskualde horietan emakumeen okupazio-koefizienteak EB-27koak baino handiagoak dira, nabarmen. Debagoiengan bereziki handia da maila: % 66ko koefizientea izaki, Europa iparraldeko herrialdeetako egoeraren parean dago, Suedia eta Danimarka alde batera utziz gero.

Aldiz, Gasteizen eta Durangaldean, oro har, EB-27koa baino koefiziente handiagoa duten arren, emakumezkoen koefizienteei dagokienez EB-27ko koefizientearen azpitik daude, baina EAEko batez bestekoaren pareko mailan. Dena den, bi eskualde horietan gizonezkoen okupazio-koefizienteak oso handiak dira (% 80tik gora). Debabarrenean ere EB-27koak baino tasa orokor handiagoak dituzte, gizonezkoen okupazio-koefizienteak ere oso handiak izanik (% 81,5). Alabaina, eskualde horretan emakumeen koefizientea % 53,5ekoa baino ez da (EAEko txikienetakoa), eta horren ondorioz, Gasteizekin eta Durangaldearekin alderatuz gero, okupazio-koefiziente orokorra txikiagoa da. Aldiz, Bizkaia-Kostan emakumeen okupazio-koefizienteak

azken bi eskualdeetako antzekoak dira baina gizonezkoena % 76,6 da, EAEko batez bestekoaren azpitik.

Bilboko areako hiru eskualdeak posizio txarrean daude, gizonezkoen eta emakumezkoen okupazio-koefizienteak EAEko batez bestekoa baino txikiagoak direlako. Gizonen kasuan maila % 76 eta % 77 bitartekoa da, eta emakumeen kasuan % 55etik zertxobait gorako zifretaraino jaisten da Bilbon eta Eskuinaldean, eta % 53,4ra Ezkerraldean.

Dena den, gaur egun, EAEn oinarritzko ezaugarrietako bat da eskualde guztietan asko gaintzen dela Europako batez bestekoa gizonezkoen okupazio-mailari dagokionez. Eskualde horietako askotan, okupazio-maila altua denez gero, alderatuta txikiagoak diren emakumezkoen okupazio-mailak konpentsa daitezke, eta era horretan, EB-27ko okupazio-koefizienteen gainetik jartzen da. Egoera horretan daude, hain zuzen ere, honako eskualde hauek: Gasteiz, Eskuinaldea, Bizkaia-Kosta, Durangaldea eta Debabarrena, zeren gizonezkoen okupazio-koefizienteak Europako batez bestekoa baino handiagoak direnez gero, EB-27ko okupazio orokorraren batez bestekotik hurbil daude edo gaintu egiten dute batez besteko hori. Hain zuzen ere, konpentsazio-mekanismo hori erabiliz, soilik Ezkerraldean eta Bilbon ez dira gaintu Europar Batasuneko okupazio-koefizienteak. 2006an, Ezkerraldea soilik zegoen errealitate horretan, baina 2007an, Bilbo ere sartu da berriro egoera horretan.

16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizienteak, sexuaren eta eskualdearen arabera (%-etan)

Eskualdea	Sexua			Emakume landunen %-a
	Gizona	Emakumea	Guztira	
Gasteiz	80,6	57,4	69,2	40,6
Aiara	81,7	59,6	71,0	40,5
Eskuinaldea	77,0	55,1	65,9	42,4
Bilbo	76,0	55,2	65,4	42,8
Ezkerraldea	76,7	53,4	65,2	40,4
Bizkaia-Kosta	76,6	57,1	67,1	41,4
Durangaldea	80,8	57,4	69,4	40,2
Donostialdea	79,8	61,6	70,8	43,4
Tolosa-Goierrri	82,9	61,3	72,6	40,4
Debagoiena	78,0	66,0	72,2	44,0
Debabarrena	81,5	53,5	68,0	37,9
Guztira	78,6	57,4	68,1	41,7

25-34 urteko taldea garrantzitsua da oraindik ere landunen artean, guztizko okupazioaren % 28,3 biltzen baitu. Hala ere, tarteko adineko biztanleriak gero eta garrantzi handiagoa du. Hori horrela izanik, biztanleria landunaren % 42,8 35-49 urtekoa da, eta 35-44 urtekoek guztizkoaren % 29,5 osatzen dute, eta 2006tik aurrera, talde hau nagusi da okupazioari dagokionez. 50 urtetik gorakoak landunen % 22,5 dira, eta 25 urtetik beherakoak, aldiz, soilik % 6,4. EAEko

biztanleria landuna zahartzen ari da, biztanleria horren batez besteko adina altua baita gaur egun: 40 urte⁵.

Okupazio-koefiziente handienak 25-49 urte bitartekoak dira, hau da, % 81 eta % 86 bitartekoak dira. Mailarik handiena 30-34 urtekoei dagokie, % 85,9ko koefizientea dutela. 35-39 urtekoetan, zenbatekoak % 83,4ra jaisten dira; 25-29 urtekoetan eta 40-49 urtekoetan % 81-82ra.

50-54 urte bitartekoek gainditzen dituzte okupazioaren batez besteko koefizienteak, % 71,4rekin. 55-59 urtekoetan zenbatekoak nabarmen jaisten dira, baita 20-24 urtekoetan ere, baina % 50etik gorako zenbatekoetan daude oraindik ere (% 56,3 eta % 51,4, hurrenez hurren). Aitzitik, biztanleria landunaren proportzioa oso txikia da 60-64 urtekoen artean (% 26,5) eta, batez ere, 20 urtetik beherakoetan (% 9,4).

16-64 urteko biztanleria landuna, adinaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta okupazio-koefizienteak %-etan)

Adina	Absolutuak	%	Okupazio-koefizienteak
16-19 urte	6.441	0,7	9,4
20-24 urte	55.835	5,8	51,4
25-29 urte	129.121	13,3	81,6
30-34 urte	145.322	15,0	85,9
35-39 urte	135.941	14,0	83,4
40-44 urte	150.170	15,5	82,1
45-49 urte	129.714	13,4	81,1
50-54 urte	108.077	11,1	71,4
55-59 urte	76.375	7,9	56,3
60-64 urte	33.961	3,5	26,5
Guztira	970.957	100	68,1

Eskualde bakoitzean adinaren aldagaia kontuan izanik, honako alderdi interesgarri hauek azpimarra daitezke. Alde batetik, ikusten da, orokorrean, okupazio-koefiziente orokor handienak dituzten eskualdeak (Arabako eskualdeak, Durangaldea eta Gipuzkoako eskualdeak, Debabarrena izan ezik) adin guztietan EAEko batez bestekoaren pareko edo hortik gorako okupazio-mailak dituztelako ere nabarmentzen direla. Adin-talde bakoitzerako EAEko batez bestekoei dagokionez, diferentzial komun deigarriena 25-34 urtekoa da; talde horretan, erreferentziako eskualde guztiek (Gasteizek izan ezik) bi puntu edo gehiagoko aldearekin gainditzen dituzte EAEko koefiziente espezifikokoak.

⁵ Batez besteko hori biztanleria landunari dagokio, orokorrean; beraz, 65 urtetik gorako landunen talde txikia ere barnean hartuta dago.

Debarrenean ere aurreko eskualdeen antzeko ezaugarriak daude, 50 urtetik beherakoetan adinaren arabera batez besteko espezifikoen gaineko okupazio-koefizienteekin. 50-64 urtekoen okupazio-koefizientea oso txikia da, baina landun ez hain zaharren posizio hoberekin konpentsatuta geratzen da, eskualde hori EAEko batez bestekoaren pareko mailan geratzen dela, koefiziente orokorrari dagokionez.

EAEko okupazio-koefiziente txikiak dituzten eskualdeei dagokienez, Ezkerraldean 35 urtetik gorako koefizienteak oso-oso txikiak dira, eta Bilbo eta Eskuinaldearen kasuan, adin horretatik beherako koefizienteak dira txikiak. Alabaina, Eskuinaldea da eskualde bakarra adin guztietan erreferentziako batez besteko azpiko koefizienteak dituen. Hiru eskualde horiek badituzte puntuak komunean, bereziki okupazio-koefiziente orokorra % 65-66 bitartekoa izatea, baina horretaz gain, badute beste ezaugarri komun bat: 35-49 urteko koefizienteak batez bestekoa baino nabarmen txikiagoak dituzte.

Bestalde, Bizkaia-Kostaren kasuan (Bilbon edo Eskuinaldean bezalaxe), EAEko batez bestekoa baino okupazio-koefiziente txikiagoa du 25 urtetik beherakoetan eta 35-49 urtekoetan, eta 50 urtetik gorakoetan, aldiz, batez bestekoaren inguruko maila. Dena dela, beste eskualdeetako baino okupazio-koefiziente handiagoa lortzen du 25-39 urtekoen esker; izan ere, adin horretarako EAEko batez bestekoa baino askoz koefiziente handiagoa baitu.

16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizienteak, adinaren eta eskualdearen arabera (%-etan)

Eskualdea	Adina				
	< 25 urte	25-34 urte	35-49 urte	> 50 urte	Guztira
Gasteiz	35,0	84,2	83,8	54,5	69,2
Aiara	37,2	89,5	84,0	54,1	71,0
Eskuinaldea	34,8	80,7	81,1	51,9	65,9
Bilbo	29,4	74,7	80,8	53,3	65,4
Ezkerraldea	37,3	84,3	78,6	45,3	65,2
Bizkaia-Kosta	20,9	87,2	80,8	53,2	67,1
Durangaldea	31,7	86,9	84,3	52,3	69,4
Donostialdea	41,1	86,0	83,5	56,0	70,8
Tolosa-Goierra	38,3	91,7	85,1	57,7	72,6
Debagoiena	34,8	87,8	90,7	53,7	72,2
Debarrena	38,1	88,4	85,1	51,0	68,0
Guztira	35,1	83,8	82,2	52,6	68,1

3.2. Egungo egoera. Egiturazko datuak.

3.2.1. Sektorearen eta jarduera-adarraren araberako datuak.

EAEko biztanleria landunaren sektoreen araberako banaketak, 2007an, azaltzen du zerbitzuen sektorea gailentzen dela; izan ere, kontuan hartutako biztanleriaren % 62,7 da. Industriak landunen % 26,6 biltzen ditu, eraikuntzak % 9,1 eta lehen sektoreak % 1,5.

Jarduera-adarrak aintzat hartuta, okupazioa honako eremu hauetan banatzen da:

- a) Merkataritza eta ostalaritza: % 18,5.
- b) Metalurgia, eta makineriaren eta bestelako materialen eraikuntza: % 16,8.
- c) Hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak: % 14.
- d) Finantza-erakundeak eta enpresetarako gainerako zerbitzuak: % 11,9.
- e) Eraikuntza: % 9,1.
- f) Bestelako merkataritza-zerbitzuak (etxe-zerbitzua barnean hartuta): % 6,7.
- g) Garraioak eta komunikazioak: % 6,4.
- h) Manufaktura-industria (paperaren sektorea barnean hartuta): % 5,4.
- i) Administrazio Publikoa: % 5,3.
- j) Beste industria batzuk (kimikoa, energia, erauzketa): % 4,4.
- k) Nekazaritza eta arrantza: % 1,5.

Datuek honako hau adierazten dute: alde batetik, zuzeneko industria-produkzioarekin eta nekazaritza-produkzioarekin alderatuta, zerbitzu-sektorea gailentzen dela (6tik 4ko proportzioan); eta bestetik, industriaren barnean, metalaren sektoreak, eta zerbitzuen sektoreari dagokionez, merkataritza-zerbitzuek —merkataritza, ostalaritza, bestelako merkataritza-zerbitzuak eta etxe-zerbitzua— garrantzi handia dutela. Sektore horiek okupazioaren % 25,2 biltzen dute, zerbitzu publikoek, orokorrean, aldiz, % 19,2 (hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, Administrazio Publikoa), eta gizabanakoentzako eta enpresentzako zerbitzu orokorrek % 18,2 biltzen dute (finantza-erakundeak, garraioak eta komunikazioak eta enpresetarako zerbitzuak).

16-64 urteko biztanleria landuna, sektorearen eta jarduera-adarraren arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Sektorea eta adarra	Absolutuak	%
Nekazaritza	15.004	1,5
Industria	258.625	26,6
Eraikuntza	88.671	9,1
Zerbitzuak	608.657	62,7
Nekazaritza	12.833	1,3
Arrantza	2.171	0,2
Erauzketa-industria	1.721	0,2
Elikagai-industria	14.547	1,5
Paper-industria	14.643	1,5
Industria petrokimikoa	10.925	1,1
Kautxu-industria	17.494	1,8
Bestelako gai ez-metalikoen industria	6.323	0,7
Metalurgia	82.246	8,5
Makinagintza	37.688	3,9
Material elektrikoa	16.578	1,7
Garraiatzeko materiala	27.053	2,8
Hainbat manufaktura-industria	22.773	2,3
Energia-produkzioa	6.635	0,7
Eraikuntza	88.671	9,1
Merkataritza	129.105	13,3
Ostalaritza	50.579	5,2
Garraioak eta komunikazioak	61.923	6,4
Finantza-erakundeak	20.708	2,1
Enpresetarako zerbitzuak	94.455	9,7
Administrazio Publikoa	50.990	5,3
Hezkuntza	67.295	6,9
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	68.465	7,1
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	40.855	4,2
Etxeko zerbitzua	24.282	2,5
Guztira	970.957	100

Nolanahi ere, eskualde-eremuan zerbitzu-sektorearen nagusitasuna ez da erabatekoa. Industriako eta eraikuntzako okupazioa gehiengo da oraindik ere EAeko eskualde batzuetan. Esate baterako, Durangaldean, Debagoiengan eta Tolosa-Goierriin, non bigarren sektoreko landunak % 50,5etik % 55era bitarte diren. Aiarra eta Debabarrenean % 45 inguru dabilta eta esan daiteke eskualde industrialak direla, nahiz eta zerbitzu-sektorearen garrantzia nagusi den.

Metalurgiaren eta makinagintzaren eta beste material batzuk egitearen adarrean enpleguaren garrantzia erabakigarria da eskualde horietako gehienetan, batez ere Debagoiengan (% 42,8). % 30etik gora daude, halaber, Durangaldean, Tolosa-Goierriin eta Debabarrenean (% 34,1, % 31,4 eta % 31, hurrenez hurren). Proporzio txikiagoan bada ere, Aiaran ere garrantzi handia du (% 25,5). Eraikuntzak eta gainerako industriek, oro har, okupazioaren % 10 gaintu dute eskualde horietan, Debagoiengan % 12,1 izanik, txikien-txikiena. Adar horietako okupazioak garrantzi bereziki handia du Aiaran, okupazioaren % 20,9ra heltzen dela.

Horretaz gain, zerbitzuen sektorea gehiengoa bada ere, landunen % 40tik gora zerbitzuak ez diren sektoreetan daude Gasteizen (% 40,4). Aitzitik, biztanleria landunaren % 60 baino gehiago zerbitzuen sektoreetan biltzen da Donostialdean, Bizkaia-Kostan, Ezkerraldean, Eskuinaldean eta Bilbon. Azken bi eskualde horietan, sektorearen okupazioa % 70etik gora ere iristen da, maila handiena Bilbok duela, % 74rekin. Bost eskualde horietan merkataritza-zerbitzuen (merkataritza, ostalaritza, bestelako merkataritza-zerbitzuak eta etxe-zerbitzua), eta enpresetarako zerbitzu eta finantza-erakundearen artean dauden aldeek garrantzi handia dute. Azken adar horietan okupazioaren garrantzia Bizkaia-Kostako % 36,6 eta Eskuinaldeko % 44,7 bitartekoa da (Bilbon % 43,9, Ezkerraldean % 39,5 eta Donostialdean % 39,2). Eskualde horietan guztietan, balio horiek industriako eta eraikuntzako landunek ordezkatzen dituzten balioak baino handiagoak dira.

Nekazaritzari eta arrantzari dagokienez, 2007an Aiaran (% 5,5) eta Bizkaia-Kostan (% 3,7) soilik dute garrantzi handia. EAeko gainerako eskualdeetan % 3tik behera daude.

16-64 urteko biztanleria landuna, jarduera-sektorearen eta eskualdearen arabera
(% horizontalak)

Eskualdea	Jarduera-sektorea			
	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Gasteiz	2,5	29,6	8,3	59,6
Aiara	5,5	38,7	7,7	48,2
Eskuinaldea	0,8	20,9	8,1	70,3
Bilbo	0,1	15,8	10,1	74,0
Ezkerraldea	1,0	23,4	12,7	62,9
Bizkaia-Kosta	3,7	26,5	7,1	62,7
Durangaldea	1,5	43,6	7,0	47,9
Donostialdea	1,6	23,4	8,6	66,3
Tolosa-Goierri	1,9	42,2	8,2	47,6
Debagoiena	1,5	50,6	4,3	43,6
Debabarrena	2,5	36,5	8,4	52,6
Guztira	1,5	26,6	9,1	62,7

16-64 urteko biztanleria landunaren banaketa eskualdearen eta jarduera-adarraren arabera
(% bertikalak)

Jarduera-adarra	Eskualdea											
	Gasteiz	Aiara	Eskuinaldea	Bilbo	Ezkerraldea	Bizkaia-Kosta	Durangaldea	Donostialdea	Tolosa-Goierri	Debagoiena	Debabarrena	
Nekazaritza	2,4	5,5	0,8	0,1	0,9	2,2	1,5	1,2	1,8	1,5	2,0	
Arrantza	0,0				0,1	1,5		0,5	0,2		0,5	
Erauzketa-industria	0,1		0,1	0,4	0,1	0,2		0,1	0,6	0,2	0,5	
Elikagai-industria	2,4	2,1	0,5	0,6	1,1	2,1	1,9	1,9	1,5	2,9	0,8	
Paper-industria	0,8	1,0	1,4	1,7	1,5	0,8	1,0	2,0	3,5	0,3	0,6	
Industria petrokimikoa	0,9	0,6	3,1	0,8	1,7	0,4	0,8	1,1	0,1	0,1		
Kautxu-industria	4,1	1,5	0,9	0,5	1,6	4,9	1,2	1,9	0,6	0,1	1,2	
Bestelako gai ez-metalikoen industria	0,5	4,1	0,4	0,4	0,6	0,1	1,9	0,5	0,9	1,4		
Metalurgia	7,9	15,5	5,3	4,9	8,6	3,7	20,3	5,9	13,6	21,8	16,8	
Makinagintza	3,1	3,4	2,7	1,7	2,2	3,9	5,5	3,5	8,8	17,7	9,4	
Material elektrikoa	1,4	1,5	2,5	1,3	1,4	3,3	1,9	1,7	2,1	1,3	1,6	
Garraiatzeko materiala	5,8	5,1	1,3	1,4	1,6	4,1	6,4	1,0	7,0	1,9	3,3	
Askotariko manuf. ind.	2,0	3,0	1,3	1,1	2,4	2,0	2,6	3,4	3,3	2,6	2,1	
Energia-produkzioa	0,6	0,9	1,4	1,0	0,8	0,9	0,2	0,4	0,4	0,2	0,3	
Eraikuntza	8,3	7,7	8,1	10,1	12,7	7,1	7,0	8,6	8,2	4,3	8,4	
Merkataritza	12,1	10,9	12,5	13,4	15,7	11,5	11,7	14,3	10,8	11,0	13,1	
Ostalaritza	3,8	5,1	7,6	4,6	5,6	7,1	3,1	5,8	4,6	2,9	5,6	
Garraioak eta komunikazioak	6,1	4,2	6,8	8,9	6,5	4,3	5,5	6,5	5,1	4,2	2,7	
Finantza-erakundeak	2,3	1,9	3,1	3,0	1,8	1,8	0,7	2,2	1,4	0,9	1,6	
Enpresetarako zerbitzuak	9,0	7,4	13,9	14,4	10,7	7,2	5,5	9,3	3,8	5,4	4,1	
Administrazio Publikoa	7,1	5,5	4,2	5,0	5,3	5,7	5,0	5,2	4,4	2,9	4,7	
Hezkuntza	6,2	4,3	8,4	8,0	4,9	9,6	6,5	7,2	7,5	6,7	8,0	
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	7,5	5,0	6,2	8,3	6,8	6,5	5,4	8,1	5,6	4,2	5,0	
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	3,6	3,0	5,2	4,8	3,9	5,5	2,3	4,8	2,7	3,3	4,5	
Etxeko zerbitzuak	1,9	0,9	2,3	3,8	1,7	3,6	2,4	2,7	1,7	2,0	3,1	
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	

Nolanahi ere, okupazioaren banaketaren datuak aztertzean kontu handia izan behar da. Gerta daiteke datu horiek behar bezala ez azaltzea sektoreek eta jarduera-adarrek eskualde jakin batean duten benetako eragina. Adierazitako eragin hori zehatzago neurtu behar da sektoreetako okupazioaren koefizienteak aztertuta. Hortaz, esate baterako, egiaztatu dugu zerbitzu-sektorearen garrantzia berriz ere argi eta garbi azaltzen dela Bilbon, Eskuinaldean eta Donostialdean, 16-64 urteko guztirako biztanleriaren % 46,3 eta % 48,4 bitarte sektore horretan aritzen baita, baina aldi berean, Ezkerraldean eta Bizkaia-Kostan zerbitzu-adarren egiazko garrantzia ez da hain handia, 16-64 urteko biztanleriaren % 41 eta % 42,1 hartzen dutela, hurrenez hurren. Azken zenbateko horiek Gasteizekoaren antzekoak dira, non zerbitzu-sektoreko landunen proportzioa % 41,3 den. Eskualde horretan, okupazioaren banaketa orokorrean zerbitzu-sektoreak garrantzi txikiagoa du, alderatuta industriak eta eraikuntzak eragin handiagoa dutelako. Sektore horien okupazio-koefizientea % 26,3 da Gasteizen, Ezkerraldean, aldiz, % 23,6, Donostialdean % 22,7, Bizkaia-Kostan % 22,6, Eskuinaldean % 19,1, eta Bilbon % 16,9.

Azpimarratu behar den beste alderdi bat honako hau da: Debagoienean bigarren sektoreak okupazioan duen garrantzi handia, industriako eta eraikuntzako landunak 16-64 urteko guztirako biztanleriaren % 39,6 baitira. Proportzio hori oso handia da, halaber, Tolosa-Goierri (% 36,6) eta Durangaldean (% 35,1). Aiaran koefizientea % 32,9 da oraindik, eta Debabarrenean % 30,6. Jarraian Gasteiz dago (% 26,3), % 22tik % 24ra bitarteko okupazio-koefizienteak dituzten zenbait eskualderen gaineratik, hala nola Ezkerraldearen, Bizkaia-Kostaren eta Donostialdearen gaineratik. Bilbo eta Eskuinaldea azkeneko posizioetan daude; izan ere, eskualde horietako industrian eta eraikuntzan izandako okupazio-koefizienteak % 17tik % 19ra bitartekoak dira.

Testuinguru horretan, gogora ekarri behar da desindustrializazio-prozesuak Bilbon eta Ezkerraldean nahiz Eskuinaldean izan zuen eragina. Eskualde horietan, industriako eta eraikuntzako okupazio-koefizienteak % 20 inguru edo txikiagoak dira oraindik ere. Bilbon izan da proportzio txikiena (% 16,9) eta handiena Ezkerraldean (% 23,6).

Hiri-kontzentrazio handietan ohikoa izaten denarekin alderatzen badugu, desindustrializazioaren errealitate horrek ez dakar zerbitzuen ezarpen-zenbatekoak nabarmen handiagoak izatea. Gaur egun Bilbo eta Eskuinaldea nabarmentzen dira zerbitzuetako okupazio-zenbateko handienetakoak dituztelako (% 48,4 eta % 46,3, hurrenez hurren), baina hala ere, Donostialdeko kopuruak ere antzekoak dira (% 46,9). Ezkerraldean koefizientea askoz txikiagoa da (% 41), Euskadiko urbanizazio-maila handieneko eskualdeen artean txikiena, Gasteizko % 41,3ko koefizientearen azpitik geratuta.

EAEko urbanizazio-maila txikieneko zonak kontuan hartzen baditugu, 16-64 urteko guztirako biztanleriari dagokionez, zerbitzuen garrantzia % 35 baino txikiagoa da Aiaran,

Durangaldean, Tolosa-Goierri eta Debagoiengan; Debabarrenean % 35,8ra heltzen da. Horrelako eskualdeetan, soilik Bizkaia-Kosta hurbiltzen da zona urbanizatuagoetako mailalara, 16-64 urteko biztanleriaren % 42,1 zerbitzu-sektoreko landun izanik.

Bizkaiko area urbanizatuenetako okupazio-koefiziente orokorraren maila txikia izatearen arrazoa industrian eta eraikuntzan okupazio-maila txikiagoak izatea da; Eskuinaldeko % 65,9 da mailarik handiena Gasteizekin eta Donostialdearekin alderatuz gero, % 69tik % 71ra bitarteko okupazio-koefizientea baitute. Hortaz, Bilbo Handiko arean merkataritza eta finantzak nagusi izateak oraindik ez du industriaren garrantzi txikiagoa konpentsatzen, okupazioari dagokionez behintzat.

Okupazio-koefizienteak
16-64 urteko biztanleria landuna, jarduera-sektorearen eta eskualdearen arabera
(%-etan)

Eskualdea	Jarduera-sektorea			
	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Gasteiz	1,7	20,5	5,7	41,3
Aiara	3,9	27,5	5,4	34,2
Eskuinaldea	0,5	13,8	5,3	46,3
Bilbo	0,1	10,3	6,6	48,4
Ezkerraldea	0,6	15,3	8,3	41,0
Bizkaia-Kosta	2,5	17,8	4,8	42,1
Durangaldea	1,1	30,2	4,8	33,3
Donostialdea	1,1	16,6	6,1	46,9
Tolosa-Goierri	1,4	30,7	6,0	34,6
Debagoiena	1,1	36,6	3,1	31,4
Debabarrena	1,7	24,8	5,7	35,8
Guztira	1,1	18,1	6,2	42,7

Oso interesgarria da gaur egun kualifikazio handieneko sektoreek okupazioan duten eragina kontuan hartzea. Ildo horretatik, egiaztatu dugu landunen % 12,2 goi-teknologia gisa definitzen diren sektoreetan biltzen dela, % 24 goi-mailako formazio handiko sektoreetan eta % 29,4 ezagutzaren indar handia duten sektoreetan. Aurreko edozein sektore —hau da, goi-mailako kualifikazio gisa defini ditzakegunak— elkarrekin kontuan hartzen badugu, ikusiko dugu EAEko biztanleria landunaren % 39,5ek gaur egun sektore mota horietan lan egiten duela, zenbateko hori oraindik txikia bada ere.

16-64 urteko biztanleria landuna goi-mailako kualifikazioko sektoreetan
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Sektore mota	Absolutuak	%
Sektoreak: Goi-mailako teknologia	118.277	12,2
Sektoreak: Goi-mailako prestakuntza	232.665	24,0
Sektoreak: Ezagutzaren indar handia	285.861	29,4
Goi-mailako kualifikazioko edozein sektore	383.384	39,5
Gainerako sektoreak	587.573	60,5
Guztira	970.957	100

Goi-mailako sektoreen okupazioaren banaketan garrantzi handiena Eskuinaldeko eta Bilboko biztanleria landunak izan du (% 46,9 eta % 45,1, hurrenez hurren). % 40tik gorako maila dute Bizkaia-Kostan (% 43,2) eta Debagoiengan (% 41); aldiz, % 38tik % 40ra bitartean Gasteiz, Donostialdea eta Tolosa-Goierri geratu dira. Alabaina, proportzioa % 34tik % 36ra bitarte jaitsi da Ezkerraldean, Durangaldean eta Debabarrenean. Mailarik txikiena (% 31,7) Arabako Aiarako eskualdeak du.

Goi-mailako kualifikazioko sektoreetako 16-64 urteko biztanleria landunaren banaketaren garrantzia, eskualdearen arabera
(%-etan)

Eskualdea	Goi-mailako kualifikazioko sektoreak			
	Goi-mailako teknologia	Goi-mailako prestakuntza	Ezagutzaren indar handia	Goi-mailako kualifikazioa
Gasteiz	13,0	22,8	27,9	39,7
Aiara	12,4	16,2	21,0	31,7
Eskuinaldea	14,0	29,2	36,5	46,9
Bilbo	10,9	31,3	39,2	45,1
Ezkerraldea	9,1	22,7	27,4	34,9
Bizkaia-Kosta	14,2	23,6	31,0	43,2
Durangaldea	16,2	17,2	19,9	34,5
Donostialdea	9,2	24,8	29,9	38,0
Tolosa-Goierri	20,0	16,8	20,8	38,8
Debagoiena	23,0	16,0	19,8	41,0
Debabarrena	14,9	17,6	21,3	36,0
Guztira	12,2	24,0	29,4	39,5

Aurreko datuak aztertzen baditugu, okupazio-koefizienteei dagokienez Eskuinaldeak soilik du % 30etik gorako proportzioa goi-mailako kualifikazioko sektoreetan okupatutako 16-64 urteko biztanlerian (% 30,9). Hala ere, proportzioa maila horien ingurukoa da Bilbon eta Bizkaia-Kostan, % 29tik % 30era bitarte baitute, baita Debagoiengan ere. Gasteiz, Donostialdea eta Tolosa-Goierri tarteko posizioetan daude, sektore horietako okupazio-koefizienteak % 27tik % 28ra bitartekoak izanik. 16-64 urteko guztirako biztanleriari dagokionez, goi-mailako kualifikazioko sektoreetako landunen proportzioa % 24tik % 24,5era bitartekoa da Durangaldean eta

Debabarrenean; Aiarak eta Ezkerraldeak, aldiz, gutxieneko mailak dituzte (% 22,5 eta % 23, hurrenez hurren).

Okupazio-koefizienteak
Goi-mailako kualifikazioko sektoreetako 16 eta 64 urte bitarteko biztanleria landuna,
eskualdearen arabera
 (%-etan)

Eskualdea	Goi-mailako kualifikazioko sektoreak			
	Goi-mailako teknologia	Goi-mailako prestakuntza	Ezagutzaren indar handia	Goi-mailako kualifikazioa
Gasteiz	9,0	15,8	19,3	27,5
Aiara	8,8	11,5	14,9	22,5
Eskuinaldea	9,2	19,2	24,0	30,9
Bilbo	7,1	20,5	25,7	29,5
Ezkerraldea	5,9	14,8	17,9	22,8
Bizkaia-Kosta	9,5	15,8	20,8	29,0
Durangaldea	11,2	12,0	13,8	24,0
Donostialdea	6,5	17,5	21,1	26,9
Tolosa-Goierrri	14,5	12,2	15,1	28,2
Debagoiena	16,6	11,6	14,3	29,6
Debabarrena	10,2	12,0	14,5	24,5
Guztira	8,3	16,3	20,1	26,9

3.2.2. Lanbidearen araberako datuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria landunaren egungo lanbide-egituran, langile kualifikatuak eta makineriako operadoreak garrantzi handia dute. Izan ere, okupazio osoaren % 46,2 osatzen dute, eta langile ez-kualifikatuen taldea gehituz gero, proportzio hori % 58,7 izatera iritsiko litzateke. Piramidearen goialdean teknikarien % 26,1 dago; autonomoak eta zuzendaritzako langileak, aldiz, landunen % 5,8 dira. Bestalde, enplegatu administrariak okupazioaren % 9,3 biltzen dute.

16-64 urteko biztanleria landuna, lanbidearen arabera
 (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Lanbidea	Absolutuak	%
Indar Armatuak	498	0,1
Zuzendariak	56.567	5,8
Teknikariak	253.073	26,1
Enplegatu administrariak	90.784	9,3
Langile kualifikatuak	331.100	34,1
Makineriako operadoreak	117.834	12,1
Langile ez-kualifikatuak	121.103	12,5
Guztira	970.957	100

Teknikarien taldea zehatzago aztertuz gero, 2007. urtean ere talderik garrantzitsuena ingeniarietako eginkizunei loturiko teknikariena da —bai goi-mailako ingeniariak, baita laguntza-

teknikariak ere— (teknikari guztien % 23,3). 2005. urtean, administraritzako eta merkataritzako laguntza-teknikariak lehen postuan zeuden eta berriro ere goiko postuetara itzultzen ari dira (% 23,3). Hirugarren talde garrantzitsuena irakaskuntzako goi- eta erdi-mailako teknikariena da (teknikari guztien % 22,2). Badira beste zenbait talde garrantzitsu: osasunaren eta natur zientzien arloetako erdi- eta goi-mailako teknikariek osatzen dituztenak (% 11,1).

16-64 urteko teknikari landunak, lanbidearen arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Lanbide xehatua	Absolutuak	%
Ingeniariak	24.717	9,8
Osasunaren eta natur zientzien arloetako goi-mailako tituludunak	14.756	5,8
Irakaskuntzako goi-mailako tituludunak	28.701	11,3
Zuzenbideko goi-mailako tituludunak	6.544	2,6
Gizarte-zientzietako goi-mailako tituludunak	12.756	5,0
Idazleak, artistak	6.426	2,5
Ingeniari teknikoak	9.827	3,9
Osasunaren eta natur zientzien arloetako erdi-mailako tituludunak	13.394	5,3
Irakaskuntzako erdi-mailako tituludunak	27.391	10,8
Erdi-mailako bestelako tituludunak	4.510	1,8
Ingeniari teknikoak	24.499	9,7
Administraritzako eta merkataritzako laguntza-teknikariak	58.926	23,3
Bestelako laguntza-teknikariak	20.625	8,1
Guztira	253.073	100

EAEko enpresetan ez dute modu berean arautzen lanbide-kategoria eta horrek baldintzatu egiten du lanbide-kategoriari buruzko informazioa; hala eta guztiz ere, aldagai hori kontuan izan behar da, lanbidearen eta lanbide-kategoriaren arteko nahasmendua adierazten baitu.

Alde batetik, Lanbideen Estatuko Sailkapenari jarraiki, lanbideen sailkapen-eredu estatistikoarekin lortzen diren datuetan lan kualifikatuaren egiazko garrantzia gainbalioesteko joera dago, baina *kualifikaziorik ezak* EAEko produkzio-sisteman duen egiazko eragina handiagoa da goiko zenbatekoek adierazten dutena baino. Ildo berari jarraiki, ez-kualifikatutzat jo ditzakegun taldeetako lanbide-kategoriak dituzte enplegatu administrarien % 59,7k, eta langile kualifikatutzat jotakoen % 23,7k. Langile ez-kualifikatuaren lanbide-kategoria duten zenbait langile langile kualifikatuak dira, egiten duten lan motari erreparatuz gero; baina lehen emandako datuen arabera, lan ez-kualifikatuaren garrantzia askoz handiagoa da lanbidearekin loturiko datuek adierazten dutena baino.

Bestalde, deskualifikazioaren arazoa atzematen da baita teknikarien kasuan ere. Izan ere, teknikarien % 19,6 langile kualifikatuaren lanbide-kategoria sartuta dago.

Deskualifikazioaren arazo horren eraginez edo LES-94aren estatistika-joerak eraginda bada ere, egia esan, lanbide-kategoriaren aldagaiak okupazio-sistemaren inguruan ematen duen irudia ez dator bat lanbidearen edo okupazioaren aldagaia aztertuta ateratako ondorioekin. Lanbide-kategoriari buruzko datuen arabera, langileak oso garrantzitsuak dira, okupazio osoaren % 71,6 osatzen baitute; horietatik % 45,5 langile kualifikatuak dira eta % 26,1 ez-kualifikatuak. Lanbide-kategoriari dagokionez, arduradunak okupazioaren % 1,6 dira, teknikariak % 21 eta zuzendariak gainerako % 5,8a osatzen dute.

16-64 urteko biztanleria landuna, lanbide-kategoriaren arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Lanbide-kategoria	Absolutuak	%
Zuzendariak	56.244	5,8
Teknikariak	203.883	21,0
Arduradunak	15.508	1,6
Kualifikatua	441.587	45,5
Ez-kualifikatua	253.735	26,1
Guztira	970.957	100

Lanbidearen aldagaiari erreparatuta berriz ere, ikusiko dugu langileen taldea (kualifikatuak eta ez-kualifikatuak barnean hartuta) dela nagusi eskualde gehienetan, eta % 60tik gorako mailetara heltzen da Aiaran, Ezkerraldean, Durangaldean, Tolosa-Goierriin, Debagoieneran eta Debabarrenean. Eskualde horietan guztietan, teknikarien garrantzia EAEko batez bestekoa baino txikiagoa da, nabarmen. Zuzendariak dagokienez ere, EAEko batez bestekoaren pareko edo azpiko kopuruak daude, Aiaran izan ezik.

Gasteiz, Bizkaia-Kosta eta Donostialdea eskualdeetan, lanbideen banaketa orekatuagoa da, lanbide-talde guztietan EAEko batez bestekoen pareko zenbatekoak izanik. Langile taldeen nagusitasuna adierazten du horrek —landun guztien % 56,5etik % 57,5era bitarte baitira— baina zuzendari, teknikari eta enplegatuen presentzia EAEko batez bestekoaren ingurukoa da.

Langileen kolektiboaren nagusitasunaren salbuespen bakarrak Eskuinaldea eta Bilbo dira, kolektibo horrek, hurrenez hurren, % 45,7ko eta % 48,5eko garrantzia duela. Bi eskualde horiek aipagarriak dira dagokien lanbide-egituraren barnean, teknikarien eta enplegatuen proportzioa handia delako; izan ere, Bilboko mailak landun guztien % 44,8 dira eta Eskuinaldekoak % 47,8 (Donostialdean % 36,9 eta Gasteizen % 35,6). 2007. urtean, zuzendarien kolektiboaren garrantzi erlatiboa EAEko batez besteko mailen gainekoa da berriro ere eskualde horietan (% 6,5 Bilbon eta % 6,7 Eskuinaldean), nahiz eta kasu horretan, Donostialdeko edo Gasteizko kopuruaren antzekoak izanik (% 6,2 eta % 6,9, hurrenez hurren).

16-64 urteko biztanleria landuna, lanbidearen eta eskualdearen arabera

(% horizontalak)

Eskualdea	Lanbidea			
	Zuzendariak	Teknikariak	Enplegatuak	Bestelako langileak
Gasteiz	6,9	27,4	8,2	57,5
Aiara	7,1	20,5	7,6	64,8
Eskuinaldea	6,5	36,6	11,3	45,7
Bilbo	6,7	31,6	13,2	48,5
Ezkerraldea	4,1	20,0	9,3	66,6
Bizkaia-Kosta	5,7	30,7	7,2	56,4
Durangaldea	4,4	19,2	5,8	70,6
Donostialdea	6,2	27,5	9,4	56,9
Tolosa-Goierri	5,8	18,4	6,3	69,5
Debagoiena	4,2	20,7	6,3	68,8
Debarrena	5,7	18,4	9,9	66,0
Guztira	5,8	26,1	9,3	58,7

Okupazio-koefizienteen maila adierazletzat erabilita, lanbide mota bakoitzaren inpaktu errearen azterketak aurreko irudia egiaztatzen du orokorrean, xehetasun batzuk gehituta. Horri dagokionez, 16-64 urteko biztanleria osoan langile taldearen garrantzia nabarmena dela egiaztatu da, batik bat, Durangaldean (guztirako biztanleria landuaren % 49), Debagoienean (% 49,7) eta Tolosa-Goierri (% 50,4), baina Aiaran eta Debarrenean ere % 45aren inguruko edo gainekoa da (% 46 eta % 44,9, hurrenez hurren). Adierazlea % 43,4ra iristen da Ezkerraldean. Eskualde horietan 16-64 urteko biztanleetan zuzendarien, teknikarien eta enplegatuen presentzia % 25en inguruan edo hortik behera dago beti.

Datuen arabera, langileen egiazko garrantzia nabarmen txikiagoa da Gasteizen, Donostialdean eta Bizkaia-Kostan, % 38tik % 40ra bitarteko okupazio-koefizienteekin. Nolanahi ere, kasu horretan zuzendari, teknikari eta enplegatuen garrantzia handiagoa da, % 29tik % 30,5era bitarteko zenbatekoak lortuta.

Azkenik, Eskuinaldea eta Bilbo nabarmentzen dira zuzendari, teknikari eta enplegatuen guztirako biztanleriaren garrantzi erlatiboa handia delako (% 35,8 eta % 33,7, hurrenez hurren), baina langileen zenbatekoak oso txikiak dira (batean % 30,1 eta bestean % 31,7), Autonomia Erkidegoko txikiak, alegia.

Okupazio-koefizienteak
16-64 urteko biztanleria landuna, lanbidearen eta eskualdearen arabera
 (%-etan)

Eskualdea	Lanbidea			
	Zuzendariak	Teknikariak	Enplegatuak	Bestelako langileak
Gasteiz	4,8	19,0	5,7	39,8

Aiara	5,0	14,6	5,4	46,0
Eskuinaldea	4,3	24,1	7,4	30,1
Bilbo	4,4	20,7	8,6	31,7
Ezkerraldea	2,7	13,0	6,1	43,4
Bizkaia-Kosta	3,8	20,6	4,9	37,9
Durangaldea	3,1	13,4	4,0	49,0
Donostialdea	4,4	19,4	6,7	40,2
Tolosa-Goierrri	4,2	13,4	4,6	50,4
Debagoiena	3,0	14,9	4,5	49,7
Debarrena	3,9	12,5	6,7	44,9
Guztira	4,0	17,8	6,4	40,0

3.2.3. Lanbide-egoeraren araberako datuak.

Lanbide-egoerari dagokionez, sektore pribatuko soldatapeko biztanleriak okupazioan garrantzia duela ikusiko dugu, biztanleria landunaren % 68,9 biltzen duelako. Garrantziaren arabera, gaur egun bigarren taldea sektore publikoko soldatapeko langileek osatzen dute. Enpresa publikoari eta Administrazioari loturiko langileak kontuan hartzen baditugu, okupazio guztiaren % 14,2 biltzen dute, langile autonomoen kolektiboari dagokion % 11,1 gaindituta. Enplegu-emaila ez-autonomoak landun guztien % 2,9 dira, kooperatibistak % 2,1, familia-laguntzak % 0,3, eta beste egoera batean dauden lagunak gainerako % 0,4a.

16-64 urteko biztanleria landuna, lanbide-egoeraren arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Lanbide-egoera	Absolutuak	%
Enplegu-emailea	28.438	2,9
Autonomoa	108.197	11,1
Familia-laguntza	2.589	0,3
Kooperatibista	20.388	2,1
Adm. Publikoko soldatapeko langilea	98.965	10,2
Enpresa publikoko soldatapeko langilea	39.332	4,1
Enpresa pribatuko soldatapeko langilea	668.712	68,9
Bestelako egoeraren bat	4.337	0,4
Guztira	970.957	100

Sektore pribatuko soldatapeko langileen nagusitasun-egoera EAEko eskualde guztietako ezaugarria da. Nolanahi ere, hainbat eskualde nabarmentzen dira biztanleria mota horren proportzioa handiagoa delako, izan ere, lortzen dituzten mailak % 70en parekoak edo hortik gorakoak dira. Halaxe gertatzen da Eskuinaldean, Ezkerraldean, Durangaldean eta Tolosa-Goierriin; eskualde horietako enpresa pribatuetako soldatapeko langileen proportzioa % 71,5etik % 75era bitartekoa baita. Beste eskualde batzuetan, hala nola Gasteiz, Aiara, Bilbo, Donostialdea eta Debabarrena, mailak % 67tik % 69ra bitartekoak dira, EAEko batez bestekoetatik zertxobait beherago. Proportzioa % 64,8ra jaisten da Bizkaia-Kostan. Debagoiena gehiago urruntzen da batez bestekoetatik, sektore pribatuko soldatapekoak % 58,2 izanik.

Debagoiena eskualdearen ezaugarrietako bat soldatarik gabeko langileen proportzio handia da (% 32,8, batez bestekoa % 16,4 izanik); ziurrenik kooperatibismoak zonalde horretan duen garrantziarekin loturik dago. Soldatarik gabekoen proportzioa ez da hain deigarria, baina batez bestekoaren gainekoa, hala ere, Aiaran (% 21,8). Bizkaia-Kosta, Donostialdea, Tolosa-Goierri eta Debabarrena eskualdeetan % 17tik % 18,5era bitarteko zenbatekoak dituzte. Gainerako eskualdeak % 12,5etik % 15era bitarteko zenbatekoetan dabilta.

Soldatapeko publikoen garrantziari dagokionez, % 15 inguru edo hortik gorakoa da Gasteizen, Eskuinaldean, Bilbon, Bizkaia-Kostan eta Debabarrenean, Donostialdean % 14,4 izanik. Aiaran, Ezkerraldean, Durangaldean eta Tolosa-Goierriin proportzioa murriztu egiten da % 11tik % 12ra bitarte, eta mailarik txikiena Debagoiengan lortzen da, % 9ekin.

16-64 urteko biztanleria landunaren banaketa, lanbide-egoeraren eta eskualdearen arabera
(% horizontalak)

Eskualdea	Lanbide-egoera		
	Soldatarik gabeko langileak	Soldatapeko langile publikoak	Soldatapeko langile pribatuak eta bestelakoak(1)
Gasteiz	15,7	16,8	67,5
Aiara	21,8	10,9	67,3
Eskuinaldea	12,5	15,6	71,9
Bilbo	15,0	16,4	68,7
Ezkerraldea	14,3	12,0	73,6
Bizkaia-Kosta	18,5	16,8	64,8
Durungaldea	13,0	11,8	75,2
Donostialdea	18,2	14,4	67,4
Tolosa-Goierri	17,6	10,8	71,6
Debagoiena	32,8	9,0	58,2
Debarrena	16,9	14,7	68,4
Guztira	16,4	14,2	69,3

(1) *Bestelako egoeraren batean dagoen kolektiboa barnean hartuta*

Okupazio-koefizienteen azterketak egoera konplexuagoa dela adierazten du. Sektore pribatuko soldatapeko langileen koefizienteei dagokienez, Debagoiena eta Bizkaia-Kostako mailak txikiak dira, EAEko batez bestekoa baino askoz txikiagoak (% 42 eta % 43,5, hurrenez hurren). Adierazlea batez bestekoaren nabarmen azpitik dago oraindik Bilbon, % 44,9rekin. % 46,5etik % 48ra bitarteko mailan daude Gasteiz, Aiara, Eskuinaldea, Ezkerraldea, Donostialdea eta Debarrena, EAEko batez bestekoaren inguruko mailan, alegia. Batez besteko horretatik gorago daude, argi eta garbi, Durungaldea eta Tolosa-Goierri, soldatapeko 16-64 urteko biztanleria landunaren % 52 inguru ari baita lanean sektore pribatuan.

Soldatapeko publikoen garrantzi handiena Gasteiz eta Bizkaia-Kosta eskualdeek dute, % 11tik % 11,5era bitarteko zenbatekoekin. Proporzioa % 10etik % 11ra bitartekoa da Eskuinaldean, Bilbon, Donostialdean eta Debarrenean. Gainerako eskualdeetan, koefizienteak batez bestekoaren azpitik daude, oro har, % 7,5etik % 8ra bitarteko koefizienteak baitituzte, Debagoienean izan ezik, % 6,5eko gutxieneko maila duelako.

Soldatarik gabeko biztanleriari dagokionez, biztanleria horren presentzia nabarmena da Debagoienean, % 23,7rekin; zenbateko hori Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoaren (% 11,2) bikoiztetik gora dago. Askoz beherago Aiara dago, nahiz eta oraindik EAEko batez bestekoaren gaineratik dagoen argi eta garbi (% 15,5). Jarraian Bizkaia-Kosta, Donostialdea eta Tolosa-Goierri daude, % 12,5etik % 13ra bitarteko zenbatekoekin. Tarteko mailan Gasteiz eta Debarrena daude, % 11tik % 11,5era bitarteko zenbatekoekin.

Soldatarik gabeko biztanleriaren okupazio-koefizientea % 10etik behera dago Bilbon, Ezkerraldean eta Durangaldean; Eskuinaldeak, aldiz, % 8,2koa du, txikien-txikiena.

Okupazio-koefizienteak
16-64 urteko biztanleria landuna, lanbide-egoeraren eta eskualdearen arabera
 (%-etan)

Eskualdea	Lanbide-egoera		
	Soldatarik gabeko langileak	Soldatapeko langile publikoak	Soldatapeko langile pribatuak eta bestelakoak
Gasteiz	10,8	11,6	46,7
Aiara	15,5	7,7	47,8
Eskuinaldea	8,2	10,3	47,4
Bilbo	9,8	10,7	44,9
Ezkerraldea	9,3	7,9	48,0
Bizkaia-Kosta	12,4	11,2	43,5
Durangaldea	9,0	8,2	52,2
Donostialdea	12,9	10,2	47,7
Tolosa-Goierrri	12,8	7,8	52,0
Debagoiena	23,7	6,5	42,0
Debarrena	11,5	10,0	46,5
Guztira	11,2	9,7	47,2

2007ko laugarren hiruhilekoan atzemandako 807.008 soldatapeko langileen ia hiru laurdenak kontratu mugagabea badu ere, kontratu mota hori ez duten taldeak soldatapeko langile guztien % 25,4 dira. Langile horien % 23k aldi baterako kontratua du, eta % 2,4k ez du kontraturik.

16-64 urteko soldatapeko biztanleria landuna, kontratu motaren arabera
 (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Kontratu mota	Absolutuak	%
Mugagabea	602.035	74,6
Aldi baterakoa	185.463	23,0
Kontraturik gabe	19.510	2,4
Guztira	807.008	100

LMEk ematen dituen datuei esker, kontratazio motak zein diren zehatzago jakin daiteke, egungo kontratu motak aztertuta. Hori horrela izanik, kontratu mugagabe iraunkorrak % 71,5 dira (% 3,1 gehiago aldizkako kontratu mugagabeak aintzat hartuta); obrako eta zerbitzuko kontratuak % 12,1 dira, eta % 10,9 aldi baterako beste kontratu mota batzuk dira. Gainerako % 2,4a kontraturik gabeko soldatapeko langileei dagokie.

16-64 urteko soldatapeko biztanleria landuna, kontratu motaren arabera

Hurbiltze xehatua
(% bertikalak)

Kontratu mota	%
Mugagabe iraunkorra	71,5
Aldizkako mugagabea	3,1
Ikaskuntza, praktikaldia, prestakuntza	1,4
Urte-sasoikoa	2,3
Probaldikoa	0,8
Bajaren bat betetzeko	2,2
Obrakoa/Zerbitzukoa	12,1
Ahozkoa	0,2
Aldi baterako besteren bat	4,1
Kontraturik gabe	2,4
Guztira	100

Eskualde-eremuan, kontratu motaren eragina aztertuta alde nabarmenak ikusten dira, bereziki, enpresarekiko kontratu-lotura mugagaberik ez duten motetan. EAEko zenbait eskualdetan, lan-kontratu mugagabea ez duen soldatapeko biztanleriaren mailak EAEko batez bestekotik behera daude, % 21en eta % 22,5en artean. Egoera horretan daude Gasteiz, Eskuinaldea eta Durangaldea. Donostialdean proportzioa % 24,2ra igotzen da, eta % 26 ingurura Bilbon eta Tolosa-Goierri, EAEko batez bestekotik ez oso urrun, hala ere.

Kontratu mugagaberik ez duten soldatapeko langileen proportzioa, ordea, % 28,5etik % 30era bitartekoa da Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Debarrenean. % 30etik gora daude Debagoienean eta Aiara (% 30,2 eta % 31,4, hurrenez hurren).

Egiazta daitekeenez, nolahi ere, kontratazio mugagabearen garrantziak ez du soldatapeko biztanleria landunaren % 80ko maila gainditzen ezein eskualdetan.

Kontratu mugagaberik gabeko soldatapeko langileen proportzioa, eskualdearen arabera (%-etan)

Eskualdea	Kontratu mugagaberik gabeko soldatapeko langileen proportzioa
Gasteiz	22,5
Aiara	31,4
Eskuinaldea	21,1
Bilbo	26,1
Ezkerraldea	28,6
Bizkaia-Kosta	28,8
Durangaldea	21,0
Donostialdea	24,2
Tolosa-Goierri	25,9
Debagoiena	30,2
Debarrena	29,9
Guztira	25,4

16-64 urteko biztanleria osoan kontratazio mota guztiek duten eraginaren egiazko garrantzia aztertzen badugu, ikusiko dugu mugagabea ez den soldatapeko kontratazioak Aiaran eta Debabarrenean lortu dituela maila handienak (% 17tik % 17,5era bitarte) erreferentzia-biztanlerian, baita Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Tolosa-Goierriin ere (% 15etik % 16ra bitarte). Tarteko mailan daude Bilbo, Donostialdea eta Debagoiena, % 14tik % 14,5era bitarte. Eragin txikiena (% 12tik % 13ra bitartekoa) Gasteizen, Eskuinaldean eta Durangaldean izan du.

16-64 urteko biztanleria guztiari dagokionez, soldatapeko kontratazio mugagabearen eragin handiena Gasteiz, Eskuinaldea eta Durangaldea eskualdeei dagokie, % 45etik % 47era bitarte, eta % 44 inguruan dabilta oraindik Donostialdean eta Tolosa-Goierriin. Eragina % 40,8ra jaisten da Bilbon, % 38-40ra Aiaran, Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Debabarrenean. Debagoiena askoz gehiago aldentzen da zenbateko horietatik, 16-64 urtekoen % 33,7k soilik baitu soldatapeko kontratu mugagabea; eskualde horretan ekonomia kooperatiboak garrantzi handia izateak badu zerikusirik egoera horretan.

Okupazio-koefizienteak
16-64 urteko soldatapeko biztanleria landuna, kontratu motaren eta eskualdearen arabera
 (%-etan)

Eskualdea	Kontratu mota	
	Mugagabea	Ez-mugagabea
Gasteiz	45,0	13,1
Aiara	37,9	17,4
Eskuinaldea	45,0	12,1
Bilbo	40,8	14,4
Ezkerraldea	39,6	15,9
Bizkaia-Kosta	38,9	15,7
Durangaldea	47,6	12,7
Donostialdea	43,7	13,9
Tolosa-Goierri	44,0	15,4
Debagoiena	33,7	14,6
Debabarrena	39,4	16,8
Guztira	42,2	14,4

Hemen ez da kontuan hartzen "Bestelako egoeraren bat" izeneko kategoria

Gizarte Segurantzaren kotizatzen ez duen soldatapeko biztanleria landunari buruzko informazioa ere ematen du LMEk. Eraginpean hartutako pertsonen proportzioa % 2,8 da 2007. urtean.

16-64 urteko soldatapeko biztanleria landuna, Gizarte Segurantzaren aurrean duen egoeraren arabera

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Gizarte Segurantzaren aurrean duen egoera	Absolutuak	%
Kotizatzen dute	784.334	97,2
Ez dute kotizatzen	22.674	2,8
Guztira	807.008	100

Lanaldiaren aldagaia aztertuta, inkesta egin zen aldian lanaldi normalizatua zuten soldatapeko langileei (713.390 lagun) dagokienez, kasu horretan soilik ikusten da soldatapeko biztanleria landun gehienak (% 70,3) okupatuta jarraitzen duela astean 40 ordu edo gutxiagoko iraupena duten lanetan, eta % 6,5 direla astean 40 orduetik gora lan egiten dutenak. 30-39 ordu lan egiten duten soldatapekoak guztirakoaren % 17,3 dira. 30 orduetik beherako lanaldia (lanaldi partziala, beraz) duten langileek osatzen dute gainerako % 12,4a.

16-64 urteko soldatapeko biztanleria landuna, lan egindako orduen arabera

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Lan egindako orduak	Absolutuak	%
< 10 ordu	10.113	1,4
11-20 ordu	38.866	5,4
21-30 ordu	39.271	5,5
31-35 ordu	87.257	12,2
36-39 ordu	36.261	5,1
40 ordu	455.169	63,8
41-45 ordu	26.883	3,8
> 45 ordu	19.371	2,7
Guztira	713.190	100

Oharra: Adierazitako denboraldian ohiko moduan lan egin zuten soldatapeko langileak

Enplegu jarraitua izan duen biztanleria soilik hartzen badugu kontuan (hortaz, familia-laguntzak eta noizbehinkako lanak edo "lantxoak" ez dira kontuan hartuko), lanaldi partzialeko lanaren proportzioa kalkula daiteke; lanaldi teorikoa 30 orduetik beherakoa dutenak hartuko dira lanaldi partzialtzat. Lanaldi teorikoa soilik kontuan izanik, lanaldi partzialeko enplegua duen soldatapeko biztanleriaren proportzioa % 11,3ra murrizten da.

Eskualdeetako egoera aldagai horren arabera aztertuz gero, aipatzeko moduko aldea sumatzen da lurraldeetan. Mailarik altuenak, % 12tik % 13ra bitartekoak, Bilbok eta Donostialdeak dituzte. Proportzioa zertxobait txikiagoa da, baina oraindik ere % 11tik % 11,5era bitartekoa, Gasteizen, Ezkerraldean, Tolosa-Goierriin eta Debarrenean.

Lanaldi partzialeko enpleguaren garrantziak nabarmen egin du behera gainerako eskualdeetan. Hori horrela, Aiaran, Eskuinaldean, Bizkaia-Kostan eta Debagoiengan zenbatekoak % 9tik % 9,5era bitartekoak dira.

**Lanaldi partzialeko soldatapeko langileen proportzioa, eskualdearen arabera
(Lanaldi teoriko erreala)
(%-etan)**

Eskualdea	Lanaldi partzialeko soldatapeko langileen proportzioa
Gasteiz	11,2
Aiara	9,6
Eskuinaldea	8,9
Bilbo	12,2
Ezkerraldea	11,5
Bizkaia-Kosta	9,2
Durangaldea	8,9
Donostialdea	13,1
Tolosa-Goierri	11,1
Debagoiena	9,5
Debarrena	11,3
Guztira	11,3

Oharra: Enplegu jarraituetan okupatutako biztanleria

3.2.4. Egungo okupazioan hasitako urtearen araberako datuak.

LMEren datuek gaur egungo okupazioan emandako denborari buruzko informazioa ematen dute. Denbora hori landun bakoitza dagokion enpleguan lanean hasitako urtearen arabera neurtzen da. Eskuragarri dauden datuek erakusten dute lan-merkatuan mugikortasun handia dagoela, eta landunek lanpostuan daramaten denbora igotzen den heinean enpleguen proportzioa pixkanaka-pixkanaka jaitsi egiten dela. Horrela, bada, okupazio-egoera gehienak duela lau urte baino gutxiago okupatutako enpleguei dagozkie (% 40,9). Okupazio-egoeren ia % 60 gehienez duela 10 urte baino gutxiagoko alditik aurrera okupatutako enpleguei dagozkie, hain zuzen ere % 59,6.

16-64 urteko biztanleria landuna, egungo okupazioan daramaten denboraren arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Urteak egungo okupazioan	Absolutuak	%
< 2 urte	230.026	23,7
2-4 urte	166.774	17,2
5-9 urte	182.014	18,7
10-14 urte	113.538	11,7
15-19 urte	88.164	9,1
20 urte edo gehiago	190.441	19,6
Guztira	970.957	100

Egungo enpleguan okupazio-denbora gutxien erakusten duten egoerak nagusitzen dira eraikuntzan eta zerbitzuetan; izan ere, duela 5 urtetik hona okupatutako enpleguak % 44,7 eta % 42,5 izan dira. Proportzioa % 36,9ra jaisten da industrian eta % 19,8ra lehen sektorean.

Adarrei dagokienez, gehienez 5 urteko okupazioa duten enpleguen proportzio handiena (batez bestekoa baino askoz handiagoa) honako hauek dute: etxeko zerbitzuak (% 62,4), ostalaritzak (% 56,6), enpresetarako zerbitzuek (% 46,0), elikagaien industriak (% 45,2), eraikuntzak (% 44,7) eta energia-produkzioak (% 44,4). Halaber, % 40tik gorako maila gaintzen da (% 40tik % 43,5era bitarteko zenbatekoak izanik) gai ez-metalikoen fabrikazioan, makinagintzan, material elektrikoaren fabrikazioan, merkataritzan, osasunean nahiz gizarte-zerbitzuetan, eta gainerako merkataritza-zerbitzuetan.

Aitzitik, duela 5 urtetik hona okupatutako enpleguen proportzioa % 35,5etik % 39ra bitartekoa da paper-industrian, metalurgian, garraio eta komunikazioetan, finantza-erakundeetan eta hezkuntzan. Gainerako industria-adarretan (erauzketa, petrokimikoa, kautxua, garraiatzeko materialaren fabrikazioa eta askotariko manufaktura-industriak) nabarmen jaitsi da, % 30,5etik % 34ra bitarteko mailara; % 28,3an dago Administrazio Publikoan eta % 15etik % 20ra bitarte nekazaritzan eta arrantzan. Hortaz, egungo okupazioari dagokionez, azken adar horietan irauten da gehien epe luzera.

**Egungo okupazioan 5 urte baino gutxiago daraman 16-64 urteko biztanleria landuna,
sektorearen eta jarduera-adarraren arabera**
(%-etan)

Jarduera-adarra eta sektorea	%
Nekazaritza	19,8
Industria	36,9
Eraikuntza	44,7
Zerbitzuak	42,5
Nekazaritza	20,3
Arrantza	16,6
Erauzketa-industria	33,7
Elikagai-industria	45,2
Paper-industria	35,9
Industria petrokimikoa	30,8
Kautxu-industria	33,9
Bestelako gai ez-metalikoen industria	40,9
Metalurgia	35,5
Makinagintza	40,2
Material elektrikoa	43,6
Garraiatzeko materiala	32,8
Hainbat manufaktura-industria	34,1
Energia-produkzioa	44,4
Eraikuntza	44,7
Merkataritza	42,6
Ostalaritza	56,6
Garraioak eta komunikazioak	37,4
Finantza-erakundeak	35,5
Enpresetarako zerbitzuak	46,0
Administrazio Publikoa	28,3
Hezkuntza	38,7
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	41,1
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	42,6
Etxeko zerbitzua	62,4
Guztira	40,9

Lanbidearen arabera, nabarmena da langile ez-kualifikatuetan enplegu hasi berrien proportzio handia (% 50,4), eta langile kualifikatuen kasuan ere batez bestekotik gora daude (% 43,4). % 39tik % 41era bitarteko proportzioa dute teknikariek (% 39,6) eta enplegatu administrariak (% 41,1), eta mailarik txikiak dituzte makineriako operadoreen (% 34,4) eta zuzendaritzako langileen (% 23,9) kasuan.

Egungo okupazioan 5 urte baino gutxiago daraman 16-64 urteko biztanleria landuna, lanbidearen arabera

(%-etan)

Lanbidea	%
Indar Armatuak	78,4
Zuzendariak	23,9
Teknikariak	39,6
Enplegatu administrariak	41,1
Langile kualifikatuak	43,4
Makineriako operadoreak	34,4
Langile ez-kualifikatuak	50,4
Guztira	40,9

Lanbide-kategoriaren araberako datuei erreparatuta, konturatuko gara lotura handia dagoela honako hauen artean: lanpostuaren kualifikazio-maila txikiaren eta enpleguan antzintasun gutxien duten pertsonen proportzio handiaren artean. Hori horrela izanik, zuzendarien eta arduradunen kasuan, enpleguan 5 urte baino gutxiago daramatenen proportzioa % 25etik beherakoa da; % 38,7koa langile kualifikatuen artean, eta langile ez-kualifikatuei dagokienez, % 49,8ra igo da. Teknikarien egoera langile kualifikatuen egoeraren antzekoagoa da, % 40,7ko proportzioa baitute egungo okupazioan 5 urte baino gutxiago daramatenen multzoan.

Egungo okupazioan 5 urte baino gutxiago daraman 16-64 urteko biztanleria landuna, lanbide-kategoriaren arabera

(%-etan)

Lanbide-kategoria	%
Zuzendariak	24,0
Teknikariak	40,7
Arduradunak	20,2
Kualifikatua	38,7
Ez-kualifikatua	49,8
Guztira	40,9

Lanbide-egoera aztertzen badugu, honako hau egiaztatuko dugu: sektore pribatuko soldatapeko langileen eta gainerako kolektibo profesionalen artean alde handia dagoela; izan ere, sektore pribatuko langileen % 46,2k gehienez duela 5 urtetik hona lortu du egungo enplegua. Azken kolektibo horiei dagokienez, landunen % 30 inguru edo hortik behera dago adierazitako egoeraren eraginpean (honako kategoria hauek alde batera utzita: *bestelako egoeraren bat* eta familia-laguntzak). Eta enplegu-emaitzen eta kooperatibisten kasuan, proportzioa % 15era ere jaitsi da.

Aurrekoa gorabehera, enpresa publikoko soldatapeko langileak tarteko posizioan daude 2007an (2006an bezalaxe); izan ere, azken bost urte hauetan egungo okupazioa lortu dutenak % 36 dira.

Egungo okupazioan 5 urte baino gutxiago daraman 16-64 urteko biztanleria landuna, lanbide-egoeraren arabera
(%-etan)

Lanbide-egoera	%
Enplegu-emailea	15,9
Autonomia	29,3
Familia-laguntza	38,2
Kooperatibista	16,6
Adm. Publikoko soldatapeko langilea	31,7
Enpresa publikoko soldatapeko langilea	36,0
Enpresa pribatuko soldatapeko langilea	46,2
Bestelako egoeraren bat	46,4
Guztira	40,9

Azkenik, eskualdeari dagokionez, duela gutxi okupaturako lanpostuen eragin handiena Ezkerraldean, Donostialdean eta Debabarrenean izan da, landunen % 43-44k gehienez 5 urte baitarama egungo okupazioan. Gainerako eskualdeetan, erreferentziako proportzioa % 38,5etik % 40,5era bitartekoa da. Zenbateko horietatik behera daude Debagoiena (% 37,2) eta Durangaldea (% 35,5).

Egungo okupazioan 5 urte baino gutxiago daraman 16-64 urteko biztanleria landuna, eskualdearen arabera
(%-etan)

Eskualdea	%
Gasteiz	38,3
Aiara	38,7
Eskuinaldea	39,4
Bilbo	40,7
Ezkerraldea	43,5
Bizkaia-Kosta	40,4
Durangaldea	35,5
Donostialdea	43,0
Tolosa-Goierrri	39,4
Debagoiena	37,2
Debabarrena	44,2
Guztira	40,9

Duela gutxi lortutako enpleguaren azterketa egin ostean, interesgarria iruditu zaigu honako datu hau jakitea: egungo lanpostua lortzeko aldi baterako laneko enpresen (ABLE) edo enplegu-bulego publikoren baten laguntza izan dutela diotenen proportzioa. Azken bost urteotan okupatutako enplegu jarraituak aintzat hartuta, zuzeneko eragina 2007an ere ez da hain handia. Izan ere, horrelako landunen % 2,5ek soilik lotu du okupazioa lortzea bulego publikoek egindako lanarekin, eta ABLEen kasuan proportzioa % 4,7 da. Azken urte honetan lortutako enpleguak soilik hartzen baditugu, proportzioa zertxobait handiagoa den arren (% 2,8 eta % 5,7, hurrenez hurren), aintzat hartutako zerbitzuen kudeaketaren eragin zuzena mugatua da⁶.

Eskualdearen araberako datuetan ez da aldaketa handirik izan bulego publikoen eraginari dagokionez, eskualde gehienek % 2,5eko batez bestekoaren inguruko zenbatekoak dituztela. Horren azpitik daude Bilbo eta Debarrena, % 1 inguruko edo horren azpiko zenbatekoekin, eta Donostialdea eta Tolosa-Goierni eskualdeetan % 3,5etik % 4ra bitarteko kopuruak dituzte.

Bestalde, ABLEen eragina % 3tik % 5era bitartekoa da, baina Eskuinaldean eta Debarrenean eragin hori % 2koa edo hortik beherakoa da. Alabaina, Gasteizen, Aiaran eta Debagoiengan % 6tik % 8ra igotzen da. Durangaldean, proportzioa % 10,5era ere igotzen da.

Oro har, Gasteiz eta Durangaldea eskualdeetan dute eragin handiena enplegu-bulegoek — publiko nahiz ABLE—, azken bost urtetako landunen % 10,3tik % 12,5era bitarte esan baitu bulego horien kudeaketaren bidez lortu duela lana. Proportzioa EAEko batez bestekotik gorakoa da Aiaran, Donostialdean eta Tolosa-Goierrin ere, % 8tik % 9,5era bitarteko zenbatekoak baitituzte. Zenbatekoak % 6-7 ingurura jaisten dira Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Debagoiengan; nolana ere, ez daude EAEko batez bestekoetatik oso urrun. Bulego horien eragina askoz txikiagoa da, ordea, Eskuinaldean, Bilbon eta Debarrenean; landun berrien % 5ek baino gutxiagok esan baitu egungo enplegua lortzeko bide nagusi izan direla. Mailarik txikiena Debarrenak du, % 2,6rekin.

⁶ Kontuan izan datu horietan ez dagoela sartuta ABLEen eta, batik bat, enplegu-bulegoen zeharkako eragina, enpresen eta langileen arteko zuzeneko kontaktua lortzeko ezinbesteko elementuak diren aldetik. Egungo enplegua lortu aurreko prozesuak —enplegu-bulego publikoekin loturikoak— ere ez daude barnean hartuta; esate baterako, lanpostuz igotzea, prestakuntzaren bidez hobetzea, eta abar.

Egungo okupazioan 5 urte baino gutxiago daraman eta enplegu jarraitua duen 16-64 urteko biztanleria landuna, eskualdearen arabera

(ABLEen edo enplegu-bulego publikoen bidez enplegua lortu dutenak %-etan)

Eskualdea	ABLEen bidezko %a	Bulego Publikoen bidezko %a	Bata zein bestea
Gasteiz	8,0	2,5	10,3
Aiara	7,1	2,4	9,3
Eskuinaldea	2,0	2,3	4,3
Bilbo	3,7	1,1	4,8
Ezkerraldea	3,2	2,5	5,7
Bizkaia-Kosta	4,7	2,5	7,0
Durangaldea	10,5	2,3	12,5
Donostialdea	4,4	3,9	8,1
Tolosa-Goierra	4,9	3,6	8,3
Debagoiena	6,1		6,1
Debarrena	1,9	0,7	2,6
Guztira	4,7	2,5	7,1

3.2.5. Enplegua bilatzearen araberako datuak.

Badakigu interesgarria dela beste enplegu bat bilatzeak biztanleria landunarengan duen eragina zein den jakitea. Izan ere, egungo lanpostuaren okupazioari dagokionez, langile horiek duten gogobetetze-mailaren edota egonkortasun-mailaren adierazle izan daiteke datu hori.

Horrekin loturik, 28.775 landunek —landun guztien % 3k— adierazi dute gaur egun beste enplegu bat bilatzen ari direla.

16-64 urteko biztanleria landuna, beste enplegu bat bilatzearen arabera

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Beste enplegu bat bilatzen ari da	Absolutuak	%
Bai	28.775	3,0
Ez	942.182	97,0
Guztira	970.957	100

EAEko eskualde gehienetan batez bestekoaren inguruko zenbatekoak atzeman dira, lana bilatzen ari diren landunen proportzioa % 2,5etik % 3,5era bitartekoa izanik. Aitzitik, beste lan bat bilatzen ari diren landunen proportzioa % 2,1era jaisten da Durangaldean, eta % 1,6ra Eskuinaldean eta Debagoienean. Hortik gora, soilik Debarrenak gainditzen du % 5aren maila (% 5,2).

**Beste lan bat bilatzen ari den 16-64 urteko biztanleria landunaren proportzioa,
eskualdearen arabera
(%-etan)**

Eskualdea	Lan bila ari direnen %-a
Gasteiz	3,5
Aiara	3,0
Eskuinaldea	1,6
Bilbo	3,1
Ezkerraldea	2,9
Bizkaia-Kosta	3,2
Durungaldea	2,1
Donostialdea	3,2
Tolosa-Goierri	2,6
Debagoiena	1,6
Debabarrena	5,3
Guztira	3,0

3.2.6. Enplegu-aniztasuna.

Lanaldi partzialeko lanak garrantzi mugatua du gizartean eta ekonomian; horretaz gain, lana bilatzea okupazio berria lortzeko itxaropenarekin lotzen da, enplegu-osagarriaren helburuarekin baino gehiago. Bi faktore horiek funtsezkoak dira honako hau ulertzeko: enplegu-aniztasunaren fenomenoak EAEn duen garrantzi txiki-txikia. LMEren datuen argitara, 16-64 urteko landunen % 1 soilik hartzen du eraginpean egoera sozioekonomiko horrek, eta soldatapeko biztanleriari dagokionez, proportzio hori % 0,9ra ere jaisten da. Egoera hori ez dator bat Europako gainerako herrialdeetako eta Estatu Batuetako errealitatearekin, non enplegu-aniztasunaren eragina ez den, inolaz ere, txikia⁷.

Datuen arabera, 2006. urtera arte enplegu-aniztasunak beheranzko joera zuen. Ildo beretik, Lan Baldintzei buruzko Inkestan (LBI), 2004. urtean fenomeno horren eragina % 2,2koa zen, LMEn 2005ean eta 2006an erregistratutako % 0,8 eta 0,7 erraz gaindituta. 2007. urtean, beraz, enplegu-aniztasunaren gorakadatxo bat izan da, baina zenbatekoak 2005eko eta 2006ko errealitatetik hurbilago daude 2004ko LBIn adierazletik baino.

⁷ Third European Survey on Working Conditions, Bizi eta Lan Baldintzak hobetzeko Europar Fundazioa, Dublin, 2000. Horren arabera, Europar enplegu-aniztasunaren eragina % 6koa da soldatapeko biztanleriari dagokionez. Aldiz, Estatu Batuetan % 5,3ra heldu da proportzioa 2005ean, Current Population Survey-k jasotako datuen arabera. Baliteke Euskadin datuen bat ezkutuan geratzea horrelako egoerak aitortzeko garaian; horren adierazle izan daiteke elkarrizketatuen % 0,3k ez ziola erantzun galdera horri. Hala ere, EAEn zenbatekoak asko aldentzen dira Estatu Batuetan eta Europar Batasunean, oro har, atzemandako zenbatekoetatik.

Enplegu-aniztasunaren egoeran dagoen 16-64 urteko biztanleria landuna
(% bertikalak)

Enplegu-aniztasuna	%
Bai	1,0
Ez	99,0
Guztira	100

Enplegu-aniztasunaren eragina ez da esanguratsua EAEko eskualde bakar batean ere. Dena den, ia eskualde guztietan % 1,5etik beherakoa den arren, Aiaran % 3,1era igotzen da.

Enplegu-aniztasunaren egoeran dagoen 16-64 urteko biztanleria landuna, eskualdearen arabera

(enplegu-aniztasunaren egoeran daudenak %-etan)

Eskualdea	Enplegu anitz dituztenak %-etan
Gasteiz	1,2
Aiara	3,1
Eskuinaldea	0,9
Bilbo	0,8
Ezkerraldea	0,7
Bizkaia-Kosta	0,4
Durangaldea	1,1
Donostialdea	1,1
Tolosa-Goierri	0,8
Debagoiena	1,2
Debarrena	0,7
Guztira	1,0

3.2.7. Lanak eragindako diru-sarrera garbiak.

2005. urtetik aurrera, biztanleria landunak aurreko hilean lortutako diru-sarrera garbiei — lan-jarduerak eragindakoak, soldatapekoa izan ala ez izan— buruzko informazioa bildu da LMEn⁸. Datu horien arabera, 16-64 urteko egungo landunen % 99,6k izan zuen diru-sarrera positiboren bat aurreko hilean, betiere elkarrizketatuen % 79,9ri buruzko informazioa lortu dela kontuan izanik. Zenbateko hori nahikoa da EAEko biztanleria landunak lan bakoitzeko lortzen dituen diru-sarrera garbien gutxi gorabeherako azterlana egiteko, nahiz eta kontu handiz ibili behar den ez erantzuteak duen garrantziaren ondorioz; hori dela medio gutxi gorabeherako datuekin lan egin behar dugu. Jarraian aurkeztuko dugun informazioa honako datu hauetan oinarritzen da: erantzun duen biztanlerian, oro har, eta erantzun gabekoei aplikatutako estimazioan; eta diru-sarrera positiboak dituzten landunen % 99,6 izanik azterlanaren ardatz⁹

⁸ Diru-sarrera horietan ez dira sartzen aparteko diru-sarrerei dagozkien hainbanatutako zatiak.

⁹ Erantzunik eman ez duen biztanleriaren diru-sarrera garbien estimazioa egite aldera, erantzun dutenen diru-sarrera garbien batez bestekoa aplikatu dugu kasu bakoitzean eta horretarako, hainbat estratu hartu ditugu kontuan, honako aldagai hauetatik eratorrita: lanbide-egoera, lanbide-kategoria eta kontratu mota.

Esan dezakegu EAEko 16-64 urteko biztanleria landunaren batez besteko diru-sarrera garbiak, aparteko ordainsariei dagokien zatia hainbanatu gabe, 1.300,05 € direla 2007ko laugarren hiruhilekoan. Landunen % 5,6k soilik dituen arren 600 €-tik gorako sarrerak, 1.000 € eta 1.200 € baino diru-sarrera txikiagoak dituztenen proportzioa garrantzitsua da: % 27,2 eta % 36,9, hurrenez hurren. EAEko biztanleria landunaren % 60,1ek 1.300 € baino gutxiagoko diru-sarrera du hilean oraindik ere.

Lanbide-egoera kontuan izanik, EAEko batez bestekoa baino diru-sarrera handiagoak dituzten kolektiboak bi dira. Enplegu-emaileak, batez beste 1.694,32 €-ko diru-sarrera dutela, eta Administrazio Publikoko soldatapeko langileak, batez beste 1.641,98 €-rekin. Kasu horietan, diru-sarreraren batez besteko maila % 25-30 handiagoa da EAEko batez besteko orokorra baino.

Hain deigarria izan gabe ere, EAEko batez bestekoa baino diru-sarrera handiagoak dituzte enpresa publikoko soldatapeko langileek eta kooperatibistek: hurrenez hurren 1.520,20 € eta 1.430,59 € sartzen dituzte, batez bestekoa % 16,9 eta % 10 gaindituta. Autonomoek ere batez bestekoa gainditzen dute % 6,4, batez besteko diru-sarrerak 1.383,89 € izanik.

Aitzitik, gainerako egoeretan EAEko batez bestekoaren azpiko diru-sarrerak dituzte. Bereziki nabarmena da enpresa pribatuko soldatapeko langileen egoera. Batez beste 1.208,34 €-ko diru-sarrera dutelarik, EAEko batez bestekoaren % 92,9an dago talde hori.

Azkeneko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, lanbide-egoeraren arabera

(Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan eta EAEko batez bestekoari dagokion %-a)

Lanbide-egoera	Diru-sarreraren batez bestekoa	EAEko batez bestekoaren gaineko %-a
Enplegu-emailea	1.694,32	130,3
Autonomoa	1.383,89	106,4
Familia-laguntza	648,41	49,9
Kooperatibista	1.430,59	110,0
Administrazio Publikoko soldatapeko langilea	1.641,98	126,3
Enpresa publikoko soldatapeko langilea	1.520,20	116,9
Enpresa pribatuko soldatapeko langilea	1.208,34	92,9
Bestelako egoeraren bat	634,15	48,8
Guztira	1.300,05	100

Orokorrean hartuta, soldatapeko biztanleriaren egoera, oro har, ez da mesedegarria. Batez beste 1.276,82 €-ko diru-sarrerak izanik, EAEko batez bestekoaren % 98,2an dago soldatapeko biztanleria, eta lehen ere ikusi dugunari jarraiki, sektore pribatuko batez besteko diru-sarreraren maila txikiagoarekin loturik dago egoera hori.

Enpresa motaren eragina ez ezik, kontratu motaren eragina ere garrantzitsua da soldatapeko biztanleriaren taldean. Horrela, bada, kontratu mugagabea dutenek —1.375,13 €-rekin— EAEko batez besteko diru-sarreraren maila gainditzen dute % 5,8; aldi baterako kontratua duten langileen kasuan, 1.033.34 €-rekin % 20,5 azpitik daude, eta kontraturik gabeko langileak, aldiz, % 59,5 azpitik, 526,32 €-rekin.

Aldi baterako kontratua dutenei dagokienez, kontratu mugagabea duten soldatapeko langileen diru-sarrera maila baino nabarmen txikiagoa dute enpresa-egitura guztietan, publiko nahiz pribatu. Hala ere, Administrazio Publikoko soldatapeko aldi baterako langileen diru-sarrerak EAEko diru-sarreraren batez bestekotik % 2,8 gaintetik daude, eta enpresa publikoko soldatapekoak, aldiz, batez besteko horren % 2,2 azpitik; baina enpresa pribatuko langileen diru-sarrerak batez bestekotik % 25,4 behera daude.

Lanbide-egoera, enpresa mota eta kontratu bidezko lotura batera hartuz gero, Administrazio Publikoan kontratu mugagabea duten soldatapeko langileak egoera pribilegiatuan daudela egiaztatuko dugu. Diru-sarrera garbien batez bestekoa 1.734,76 € izanik, kolektibo horrek enplegu-emaileen diru-sarreraren batez bestekoa ere (1.694,32 €) gainditzen du. Bestalde, enpresa publikoko soldatapeko langile mugagabeen batez besteko diru-sarrerak (1.611,56 €) kooperatibistenak gainditzen dituzte (1.430,59 €). Kontratu mugagabea duten enpresa pribatuko soldatapeko langileen batez besteko diru-sarrerak, ordea, autonomoen egoeratik urruntzen dira (batzuek 1.306,54 € eta besteek 1.383,89 €), eta horien diru-sarrerak sektore publikoko aldi baterako kontratua duten langileen diru-sarreraren antzekoak dira (1.335,85 € Administrazioan eta 1.270,93 € enpresa publikoan). Zenbateko horietatik behera daude sektore pribatuko aldi baterako kontratua duten langileak (970,11 €) eta sektore horretan lan egiten duten kontraturik gabeko langileak, 522,96 € jasotzen baitituzte, batez beste, hilean.

Azken buruan, diru-sarreraren egituraren goiko aldean enplegu-emaileak eta Administrazio Publikoko langile mugagabeak nabarmentzen dira. Tarteko posizioan daude enpresa publikoko soldatapeko langile mugagabeak eta zertxobait atzerago kooperatibistak. Horren azpitik daude enpresa publikoko eta Administrazioeko soldatapeko langileak, betiere kontratu mugagabea ez dutenak, baita autonomoen kolektiboa ere. Zerrendaren beheerenerako zatian, batez bestekotik askoz beheragoko diru-sarrerak izanik, enpresa pribatuko behin-behineko langileak eta kontraturik gabekoak daude.

Azkeneko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituen 16-64 urteko soldatapeko biztanleria landuna, enpresa motaren eta egungo kontratu motaren arabera
(Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan eta EAeko batez bestekoari dagokion %-a)

Administrazio publikoa

Kontratu mota	Diru-sarreraren batez bestekoa	EAeko batez bestekoaren gaineko %-a
Mugagabea	1.734,76	133,4
Ez-mugagabea	1.335,85	102,8
Guztira	1.641,98	126,3

Enpresa publikoa

Kontratu mota	Diru-sarreraren batez bestekoa	EAeko batez bestekoaren gaineko %-a
Mugagabea	1.611,56	124,0
Ez-mugagabea	1.270,93	97,8
Guztira	1.520,20	116,9

Enpresa pribatua

Kontratu mota	Diru-sarreraren batez bestekoa	EAeko batez bestekoaren gaineko %-a
Mugagabea	1.306,54	100,5
Aldi baterakoa	970,11	74,6
Kontraturik gabe	522,96	40,2
Guztira	1.208,34	92,9

GUZTIRA

Kontratu mota	Diru-sarreraren batez bestekoa	EAeko batez bestekoaren gaineko %-a
Mugagabea	1.375,13	105,8
Aldi baterakoa	1.033,34	79,5
Kontraturik gabe	526,32	40,5
Guztira	1.276,82	98,2

Diru-sarreraren maila lanbide-egiturarekin loturik dago, argi eta garbi. Batez bestekoa baino % 34,8 handiagoa da zuzendarien kasuan, eta % 20,8 teknikarien kasuan, hurrenez hurren 1.694,44 eta 1.569,93 €-ko batez besteko diru-sarrerak baitituzte. Makineriako operadoreen kasuan, 1.386,02 €-rekin, horiek ere % 6,6 gaintzen dute batez bestekoa. Aitzitik, gainerako lanbide taldeetan batez besteko diru-sarrerak nabarmen murriztu dira. Enplegatu administrariak (1.185,46 €) batez bestekotik % 8,8 jaitsi dira, % 11,5 langile kualifikatuak (1.150,73 €) eta % 38,5 langile ez-kualifikatuak (929,57 €).

Azkeneko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, lanbidearen arabera

(Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan eta EAeko batez bestekoari dagokion %-a)

Lanbidea	Diru-sarreraren batez bestekoa	EAeko batez bestekoaren gaineko %-a
Indar Armatuak	1.694,44	130,3
Zuzendariak	1.751,95	134,8
Teknikariak	1.569,93	120,8
Enplegatu administrariak	1.185,46	91,2
Langile kualifikatuak	1.150,73	88,5
Makineriako operadoreak	1.386,02	106,6

Langile ez-kualifikatuak	929,57	71,5
Guztira	1.300,05	100

Lanbide-kategoria kontuan hartzen badugu, goian egindako diagnostikoa berretsi egiten da. Langile ez-kualifikatuen diru-sarrerak batez bestekoa baino % 23,2 txikiagoak dira¹⁰, baina kualifikatuenak batez bestekoaren inguruko mailan egoten dira (% 96,3); arduradunek, teknikariek eta zuzendariak gainditzen dute maila hori, % 27,8, % 25 eta % 34,8, hurrenez hurren.

Azkeneko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, lanbide-kategoriaren arabera

(Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan eta EAEko batez bestekoari dagokion %-a)

Lanbide-kategoria	Diru-sarreraren batez bestekoa	EAEko batez bestekoaren gaineko %-a
Ez-kualifikatua	998,83	76,8
Kualifikatua	1.251,46	96,3
Arduradunak	1.661,78	127,8
Teknikariak	1.625,35	125,0
Zuzendariak	1.753,09	134,8
Guztira	1.300,05	100

Sektorearen eta jarduera-adarraren araberako datuei gagozkiela, industriaren eta eraikuntzaren arloko diru-sarrera garbiak oso handiak direla nabarmendu behar dugu: batez beste 1.368,83 eta 1.361,52 €, hurrenez hurren. Zerbitzu-sektorearekiko aldea, ordea, ez da oso handia okupazio-sektore horretan, 1.263,01 €-ko batez bestekoarekin. Nekazaritza-sektoreko batez besteko diru-sarrerak ere ildo berean daude, 1.248,44 €-rekin.

Alabaina, adarraren araberako datuek aurreko ikuspegi hori zehaztera behartzen dute. Alde batetik, batez bestekoa baino diru-sarrera nabarmen handiagoak dituzten hainbat sektore atzeman dira bai industrian, baita zerbitzuetan ere. Lehenengo kasuan, EAEko batez bestekoa % 10 gainditzen duten diru-sarrerak izanik, erauzketa-industria (1621,72 €), industria petrokimikoa (1.532,98 €) eta energia-produkzioa (1.460,97 €) aipatuko ditugu; batez besteko hori % 3-10 bitarte gainditzen dute metalurgiak (1.402,56 €), makinagintzak (1.428,27 €) eta garraiatzeko materialaren industriak (1.423,25 €), baita eraikuntzak ere (1.361,52 €). Zerbitzu-sektorean, EAEko batez bestekoa % 15 gainditzen dute honako adar hauek: finantza-erakundeak (1.639,46 €), Administrazio Publikoak (1.603,84 €) eta hezkuntzak (1.509,90 €);

¹⁰ Ezin dugu aipatu gabe utzi honako hau: lanbide-kategoriaren aldagaia aintzat hartzen denean, langile ez-kualifikatuen egoera hobea da lanbidearen aldagaiarekin alderatuz gero. Horren arrazoi izan daitezke joera hauek: alde batetik, langile ez-kualifikatuen multzoaren barruan kualifikazio txikieneko taldeak soilik sartzeko LESen joera; eta bestetik, lanbide-kategoriari dagokionez, biztanleria landuna deskualifikatzeko joera. Horrela, kualifikaziorik gabeko

aldiz, batez bestekoaren % 5aren gainera daude garraioak eta komunikazioak 1.403,06 €), eta osasuna eta gizarte-zerbitzuak (1.402,45 €).

Hala eta guztiz ere, sektore horietan badira batez bestekoaren azpiko diru-sarrerera maila duten adarrak ere. Zenbait kasutan, diru-sarrerak batez bestekoa baino % 3-10 txikiagoak dira; esaterako, elikagai-industrian (1225,37 €), askotariko manufaktura-industrietan (1.177,70 €) edo enpresetarako zerbitzuetan (1.231,93 €). Dena dela, beste kasu batzuetan, eta bereziki, zerbitzu-adarretan, are txikiagoa da: merkataritzan % 14,9ra iristen da (1.106,62 €), bestelako merkataritza-zerbitzuetan % 16ra (1.091,79 €), ostalaritzan % 23,7ra (991,78 €) eta etxeko zerbitzuan % 56ra (571,95 €). EAEko batez besteko orokorra baino % 6,3 txikiagoak dira nekazaritzako batez besteko diru-sarrerak (1.218,55 €), arrantza-adarrak, ordea, % 9,4an gaintzen du batez besteko hori (1.422,78 €).

Industriaren gainerako adarretan –paperaren industrian, kautxu eta gai plastikoen industrian, gai ez-metalikoen fabrikazioan eta material elektrikoaren produkzioan– EAEko batez besteko mailen pareko daude, hilean 1.300 € ingururekin.

Azkeneko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, jarduera-adarraren eta sektorearen arabera
(Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan eta EAEko batez bestekoari dagokion %-a)

Jarduera-adarra eta sektorea	Diru-sarreraren batez bestekoa	EAEko batez bestekoaren gaineko %-a
Nekazaritza	1.248,44	96,0
Industria	1.368,83	105,3
Eraikuntza	1.361,52	104,7
Zerbitzuak	1.263,01	97,2
Nekazaritza	1.218,55	93,7
Arrantza	1.422,78	109,4
Erauzketa-industria	1.621,72	124,7
Elikagai-industria	1.225,37	94,3
Paper-industria	1.286,43	99,0
Industria petrokimikoa	1.532,98	117,9
Kautxu-industria	1.332,78	102,5
Bestelako gai ez-metalikoen industria	1.311,70	100,9
Metalurgia	1.402,56	107,9
Makinagintza	1.428,27	109,9
Material elektrikoa	1.327,52	102,1
Garraiatzeko materiala	1.423,25	109,5
Hainbat manufaktura-industria	1.177,70	90,6
Energia-produkzioa	1.460,97	112,4
Eraikuntza	1.361,52	104,7
Merkataritza	1.106,62	85,1
Ostalaritza	991,78	76,3
Garraioak eta komunikazioak	1.403,06	107,9
Finantza-erakundeak	1.639,46	126,1
Enpresetarako zerbitzuak	1.231,93	94,8

lanbide-kategoria duten langileek bolumen handiagoa hartzeaz gain, LESen arabera, langile kualifikatu direnak ere hartzen dituzte barnean.

Administrazio Publikoa	1.603,84	123,4
Hezkuntza	1.509,90	116,1
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	1.402,45	107,9
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	1.091,79	84,0
Etxeko zerbitzua	571,95	44,0
Guztira	1.300,05	100

Jarraian, diru-sarrerak aztertuko ditugu baina hainbat aldagai demografiko garrantzitsuren arabera; datu horiek adierazten dutenez, gizonen eta emakumeen batez besteko diru-sarrera garbietan alde nabarmena dago. Hori horrela izanik, gizonen batez besteko diru-sarrera garbiak (1.428,27 €) EAEko batez bestekoa baino % 9,9 handiagoak diren bitartean, emakumeenak batez besteko hori baino % 14,8 txikiagoak dira (1.120,00 €). Emakumezko biztanleria landunaren diru-sarrerak gizonen batez besteko sarreren % 78,4 osatzen dute, batez beste, 2005ean izandako % 78,1etik gora, baina 2006an lortutako % 80,4tik behera.

Azkeneko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, sexuaren arabera

(Diru-sarreren batez bestekoa €-tan eta EAEko batez bestekoari dagokion %-a)

Sexua	Diru-sarreren batez bestekoa	EAEko batez bestekoaren gaineko %-a
Gizonak	1.428,27	109,9
Emakumeak	1.120,00	86,2
Guztira	1.300,05	100

Sexuaz gain, diru-sarrera garbietan eragin handia duen beste aldagai demografiko bat adina da: biztanleria landunak adinean zenbat eta beherago egin, horien batez bestekoa orduan eta txikiagoa dela ikusi dugu, oro har. 20 urtetik beherakoetan, EAEko batez bestekoa baino % 38,5 txikiagoak dira diru-sarrerak; proportzio hori % 26,9koa da oraindik ere 20-24 urtekoetan, eta % 13,7koa 25-29 urtetan. 30 urtetik aurrerakoetan diru-sarrerak batez bestekoaren antzekoak dira: 30-34 urtekoetan % 7,5 txikiagoak dira, eta % 0,2 handiagoak 35 urtetik 39 urtera bitarte. 40-49 urtekoetan, diru-sarrerak % 5etik % 8,5era bitartean handiagoak izaten dira EAEko batez bestekoekin alderatuta, eta proportzio hori % 8ra igotzen da 60 urtetik gorakoetan. Egoera onenean daude 50-59 urteko taldeak, horien diru-sarrerak EAEko batez besteko zenbatekoak baino % 12-14 handiagoak dira-eta.

Azkeneko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, adinaren arabera

(Diru-sarreren batez bestekoa €-tan eta EAEko batez bestekoari dagokion %-a)

Adina	Guztirako okupazioan emakumeak %-etan	EAEko batez bestekoaren gaineko %-a
16-19	799,61	61,5
20-24	950,47	73,1
25-29	1.121,31	86,3
30-34	1.202,24	92,5

35-39	1.303,19	100,2
40-44	1.369,86	105,4
45-49	1.411,99	108,6
50-54	1.456,49	112,0
55-59	1.482,56	114,0
60-64	1.403,73	108,0
Guztira	1.300,05	100

Ikasketek ere garrantzi handia duten arren, eragina ez da hain handia unibertsitateko ikasketarik gabeko biztanleria landunaren kasuan. Hori horrela, lehen mailako ikasketak dituztenen edo ikasketarik gabekoaren artean, diru-sarreraren batez bestekoa txikia den arren (1.154,13 €, EAEko batez besteko orokorraren % 88,8), aldeak ez dira oso handiak bigarren mailako ikasketak dituztenekin alderatuta, ikasketa horiek lanbide-arlokoak izan (1.205,18 €, batez bestekoaren % 92,7) edo ez izan (1.234,30 €, EAEko batez bestekoaren % 94,9). Unibertsitateko tituludunen kasuan soilik handitzen da nabarmen diru-sarreraren batez besteko maila (1.548,51 €, EAEko batez bestekoaren gaineratik % 19,1).

Azkeneko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, ikasketa-mailaren arabera

(Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan eta EAEko batez bestekoari dagokion %-a)

Ikasketa-maila	Guztirako okupazioan emakumeak %-etan	EAEko batez bestekoaren gaineko %-a
Lehen mailako ikasketak	1.154,13	88,8
Bigarren mailako ikasketak	1.205,18	92,7
Lanbide-ikasketak	1.234,30	94,9
Unibertsitate-ikasketak	1.548,51	119,1
Guztira	1.300,05	100

Funtsean, eskualdeen arteko aldeak ez dira garrantzizkoak batez besteko diru-sarrerei dagokienez. Nolanahi ere, intereseko zenbait alderdi bereizgarri aipa ditzakegu. Alde batetik, Gasteiz, Eskuinaldea, Bilbo eta Bizkaia-Kosta eskualdeak posizio orokor hobean daude, EAEko batez besteko diru-sarreraren maila baino % 2-4,5 handiagoa dutela. Funtsean, batez bestekoaren inguruko mailan daude Aiara, Donostialdea eta Tolosa-Goierri.

Diru-sarrerak, ordea, batez bestekotik % 2 behera daude Durangaldean eta Debagoienean. Batez bestekoari dagokionez, deigarria da Debabarrenean, eta batez ere Ezkerraldean dagoen aldea, eskualde horietako sarrerak EAEko batez bestekotik % 4,5 eta % 5,5 behera baitaude.

Azkeneko hilean diru-sarrera garbi positiboak izan dituen 16-64 urteko biztanleria landuna, eskualdearen arabera

(Diru-sarreraren batez bestekoa €-tan eta EAEko batez bestekoari dagokion %-a)

Eskualdea	Guztirako okupazioan emakumeak %-etan	EAEko batez bestekoaren gaineko %-a
Gasteiz	1.333,43	102,6
Aiara	1.294,42	99,6
Eskuinaldea	1.339,75	103,1
Bilbo	1.357,68	104,4
Ezkerraldea	1.228,43	94,5
Bizkaia-Kosta	1.325,11	101,9
Durungaldea	1.273,72	98,0
Donostialdea	1.294,25	99,6
Tolosa-Goierrri	1.301,94	100,1
Debagoiena	1.275,07	98,1
Debarrena	1.244,21	95,7
Guztira	1.300,05	100

3.3. Azken aldiko bilakaera. Datu orokorrak.

Bilakaerari buruzko datuak aintzat hartuta, hasiera batean ikus daiteke azkeneko hamarkada honetan izandako okupazioaren hazkunde izugarria berretsiz dutela 2007ko datuek. Horrela, bada, EAEko landunen zenbatekoa 1997. urteko 750.439tik (683.079, 1993an) 970.957ra igo da 2007an, hau da, % 29,4ko igoera izan da 1997. urteko okupazio-bolumenari dagokionez, eta 220.518 okupazio berri garbi sortu dira (egungo guztirako okupazioaren % 22,7, alegia).

Okupazioaren hazkunde handiena 1997-2001 aldian izan zen: landun-bolumena % 14,8 handitu zen eta 111.375 okupazio berri garbi sortu ziren. Hala eta guztiz ere, 1993-1997 aldian eta 2001-2005 aldian ere hazkundera oso garrantzitsua izan da, okupazio-zenbatekoan % 9,9ko eta % 10eko igoera izanik, hurrenez hurren. 2005-2006 bitartean, % 2,1 hazi da, hazkunde handia, beraz; horrek esan nahi 2001-2005 bitartean aztertutako hazkunde-erritmoei eutsi zaiela.

Adierazitako bilakaera positiboaren aurrean, hazkunde-prozesua nabarmen mantsotu da 2006tik 2007ra bitarte, EAEko okupazio-maila % 0,3 soilik handitu baita. Horrela, 1993. urteaz geroztik okupazioaren bilakaeran izandako goranzko joera eten da.

Hala ere, haustura hori lehendik ere suma zitekeen. Urteko batez besteko hazkundeari dagokionez, 2006-2007ko zenbatekoek erakusten dute urteko % 2,09ko hazkundera izan dela, eta horrek agerian uzten duen, dagoeneko, bizitasuna galdu zela, okupazioa gehien hazi den aldietan ikusitakoarekin alderatuta. Hori ez zen nabaria soilik 1997-2001 aldiari, hots, hazkunderaren gehieneko aldiari, dagokionez, (okupazioa % 3,52 hazi zen, batez beste, urte bakoitzean), baita aurreko aldiko bilakaerari dagokionez ere, urte bakoitzean % 3,02 hazi baita,

batez beste, 2003-2005 aldian. Egia esateko, 2005-2006 aldian gertatu zena 2001-2003 aldian izandako hazkundera motelagoarekin lotzen zen, % 1,82ko batez besteko urteko hazkundera izan baitzen. Epe ertain eta luzera begira, aipatutako datuak balioetsita, zera esan dezakegu: hazkunderaren mantsotzea, berez, mende hasieran hasi zela eta 2003-2005 aldiko gorakada salbuespenzat hartu behar dela hazkunderaren desazelerazioko ziklo batean; 2006. urtetik aurrera argi eta garbi sumatzen da desazelerazio hori. 2006-2007 aldiko datuetan, desazelerazioaren joera areagotu egiten da, baina okupazioaren zenbatekoak egonkortu egiten dira, urteko hazkundera soilik % 0,31 izanik.

Nolanahi ere, okupazioaren hazkundera oso desberdina da sexuaren eta adinaren arabera. Sexuaren aldagaiari dagokionez, 1997. eta 2007. urteen artean okupazioaren hazkundera askoz ere handiagoa da emakumeen artean. Aldi horretan, okupazio-bolumenaren hazkundera % 51,1 izan da emakumeen kasuan, eta % 17,3 gizonen kasuan. Egia esan, 1997-2007 aldian sortutako okupazio garbi berria aztertzen badugu, ikusten dugu okupazio horren % 62,1 emakumezkoen okupazio berriak direla.

Izan ere, azken urteotako bilakaerak agerian uzten du emakumearen garrantzia gero eta handiagoa dela okupazio berrietan. Gauzak horrela, 1997-2001 bitartean enplegu garbi berrien % 60 emakumeak badira, proportzioa % 61,8ra igotzen da 2001-2005 bitartean, eta % 73,5era 2005etik 2007ra bitarte. Azken aldiko bilakaerak, hortaz, erakusten du 2003-2005 bitartean ikusitakoa (hau da, enpleguaren hazkundera handiagoa izatea gizonetan), egoeraren araberrako aldi baterako desbideratzea baino ez dela, eta, epe luzera, emakumezkoen enpleguaren hazkundera askoz handiagoa izateko joera duela. 2005-2007 bitartean, emakumezkoen okupazioa indar handiagoz hazi da berriz ere: % 4,3, eta % 1,1 inguru gizonetan. 2006tik 2007ra, okupazioa egonkortu ere egin da gizonen artean, izandako hazkundera praktikan nulutzat ere har daitekeela, 2005-2006 aldiko % 1eko igoeraren aurrean. Gizonen hazkundera nulua den bitartean, emakumeen artean % 0,7ko hazkundera gertatu da azken urtean. Zenbateko hori, hala ere, 2005etik 2006ra bitarteko % 3,6 baino askoz ere txikiagoa da.

Adinaren araberrako bilakaeraren datuek ere hainbat joera agertzen dituzte; izan ere, okupazioaren hazkundera, 1997-2007 bitartean, adin handienekoekin lotzen da batez ere. Horrela bada, 25-34 urteko landunen bolumenak % 19,7ko hazkundera izan du aldi horretan, 35-49 urtekoen kasuan, aldiz, proportzioa % 37,2ra igo da, eta 50 urtetik gorakoetan % 47,8ra. Izan ere, aldi horretan sortutako okupazio berri garbien % 80,3 35 urtekoei edo gehiagokoei dagokie, % 49,3, 35-49 urtekoei eta % 30,9, 50 urtetik gorakoei. Gainera, joera handituz doa: 35 urtetik gorakoek 1993-1997 aldiko enplegu berrien % 60,8 osatzen zuten, okupazio berriaren % 63,4 1997-2001 aldian, eta % 83,4 2001-2005 aldian. 2005-2007 aldian, ordea, okupazio berri garbiaren % 100 biltzen da lagun talde horretan.

Aurkeztutako datuak aztertutako aldian adinaren arabera multzo guztietan okupazioaren bilakaera berdina ez izatearen ondorio dira. Esaterako, 1997tik 2006ra bitarte, 35 urtetik gorakoek artean okupazio-bolumenak etengabe handitzeko joera dago. 50 urtetik gorakoek kasuan, hazkunde-erritmoa hazi ere egin da denborak aurrera egin ahala; izan ere 1993-1997 bitartean % 8,2 izatetik % 17,9 izatera igaro baita 1997-2001 bitartean eta % 18,2 izatera 2001-2005 aldian. 2005-2006 bitartean izandako % 4,9k erakusten zuen hazkunde-prozesua ez zela amaitu oraindik. 2006. urtetik 2007. urtera, hazkundearen erritmo positiboak % 1,1era murriztu dira.

Hazkunde-erritmoa zertxobait jaitsi den arren, 35-49 urtekoek kasuan joera oso antzekoa da, adierazitako aldietan honako hazkunde-tasa hauek bildu baitira: 1993-1997 aldian % 10,9, 1997-2001 aldian % 14,6 eta 2001-2005 aldian % 13,4. 2005-2006 aldian izandako % 3,3ko hazkundeari esker, goranzko joera berretsi zen, baina kasu horretan, 2006-2007 aldian ere deigarria da joera hori, % 2,2koa baita. 1997. urteaz geroztik lehen aldiz, 35-49 urtekoek okupazioaren hazkunde-erritmoa handiagoa da 50 urtekoek gorakoena baino, 2006. urtetik 2007. urtera.

35 urtetik gorakoekin alderatuta, 35 urtetik behekoek arteko okupazioaren bilakaera askoz ere negatiboagoa da. 25-34 urtekoek dagokienez, 2001etik 2005era bitarte, okupazioaren hazkunde-erritmoa (% 5,9) nabarmen murriztu da: 1997-2001 aldian hazkunde % 15 zen, eta % 8,4 1993-1997 aldian. Hala ere, joera negatiboa areagotu egiten da 2005. urtetik aurrera eta 2005etik 2006ra 25-34 urteko landunen bolumena % 0,2 murriztu zen. Jaitsiera-erritmoa areagotu egin da 2006-2007an, % 1,6ko zifra negatibora iritsita. Oro har, 2005etik 2007ra bitarte, 25-34 urteko landunen kopurua % 1,8 murriztu da.

Bilakaera horrek erakusten du jaiotza-tasa jaitsi izanak landun gazteen bolumenean duen eragina hasi dela eragiten tarteko adineko taldeetan. Nolanahi ere, 25 urtetik behekoetan atzematen da, nabarmen, arazo hori. 1993-1997 bitartean, okupazioaren hazkunde handiena izan zuen talde horrek (% 14,1), baina 1997tik 2001era bitarte atzean geratu zen, % 8,9ko hazkundearekin, gainerako adin-tarteetako hazkunde baino % 40-50 txikiagoa. Harrezkero, 25 urtetik behekoek arteko okupazioak behera eta behera egin du, poliki hasieran (% 1 2001. eta 2003. urteen artean), baina nabarmen gero: 2003tik 2005era % 9, 2005etik 2006ra % 3,9, eta 2006tik 2007ra % 6.

Oro har, 25 urtetik beheko landunen kopurua % 11,4 jaitsi da 1997-2007 aldian. Lehengo mende amaierako krisi demografikoaren ondorio latzenak dira horiek.

16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera

(1997-2007 aldia)¹¹
(Datu absolutuak)

Sexua eta adina	Absolutuak					
	1997	2001	2003	2005	2006	2007
Gizonak	482.219	526.722	527.713	559.737	565.611	565.770
Emakumeak	268.220	335.092	365.726	388.443	402.370	405.188
< 25 urte	70.253	76.498	75.769	68.930	66.226	62.276
25-34 urte	229.339	263.821	270.800	279.457	278.968	274.442
35-49 urte	303.094	347.356	350.868	393.877	406.719	415.825
50-64 urte	147.753	174.139	196.002	205.917	216.067	218.414
Guztira	750.439	861.814	893.439	948.180	967.981	970.957

16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera
(1997-2007 aldian)
(Hazkundearen %-a)

Sexua eta adina	Hazkundearen %-a					
	07/06	06/05	07/05	05/01	01/97	07/97
Gizonak	0,0	1,0	1,1	6,3	9,2	17,3
Emakumeak	0,7	3,6	4,3	15,9	24,9	51,1
< 25 urte	-6,0	-3,9	-9,7	-9,9	8,9	-11,4
25-34 urte	-1,6	-0,2	-1,8	5,9	15,0	19,7
35-49 urte	2,2	3,3	5,6	13,4	14,6	37,2
50-64 urte	1,1	4,9	6,1	18,2	17,9	47,8
Guztira	0,3	2,1	2,4	10,0	14,8	29,4

Nolanahi ere, enpleguaren bilakaera positiboa izatearen ondorioz, 1993tik aurrera izandako ezohiko eraldatzea garatzeari eutsi dio okupazio-koefizienteak. Horrela bada, 16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefiziente orokorra 1997an % 51,1 izan zen, 2001ean, ordea, % 60,5, eta 2003an % 63,4ra igo zen, eta 2005ean % 66,1era. 2006an, koefizientea % 67,6 da eta 2007an % 68,1era ere iritsi da. Horrek esan nahi du 10 urtean 17 puntuko hazkundera izan dela.

Okupazio-koefizientearen bilakaera positiboa da gizonen artean, 1997-2007 aldian % 65,4tik % 78,6ra igota. Zenbateko erlatiboetan nahiz absolutuetan, ordea, emakumeen artean atzeman da hazkunderik handiena, 1997an okupazioaren % 36,7 izatetik egungo % 57,4ra igarota. Emakumezkoen okupazio-koefizientea 20,8 puntu hazi da, eta gizonezkoena 13,1.

Azken urteotako bilakaera positiboa izan den arren, emakumezkoen okupazioaren hazkundera ez da nahikoa izan egituraren aldaketa sakonak eragin eta alde aurreko desoreka-errealitateak parekatzeko. Okupazio-koefizienteen mailetan gizonen mesederako alde oso

¹¹ 2001. urtetik aurrera, LMEren datuak EUSTATen metodologia berria aintzat hartuta eman dira, bai jarduerarekiko loturaren aldagaia sailkatzeko moduari dagokionez, bai aurkezte-prozesuari dagokionez. Langabeziaren eta jarduera-ezaren datuetan eragin handia izan du metodologia-aldaketak, baina okupazioari buruzko datuak, funtsean, oso antzekoak dira.

handiak daude oraindik ere, (21,1 puntu 2007an); hala ere, maila horiek 1997ko 28,8 puntuko aldetik behera daude, nabarmen.

Okupazio-koefizienteen bilakaera positibo orokorra ere nabaria da adina kontuan hartzen badugu, baina kasu horretan aldeak nabariagoak izateaz gain, okupazioari buruzko datu orokorrak aztertu ondoren ateratzen diren ondorioak gehiago zehazten dira. Ildo horretatik, eta oro har, okupazio-koefizienteen hazkundera handiagoa da adinean behera egin ahala. Izan ere, 1997-2007 bitartean 17 puntuko hazkundera izan da 25-34 urtekoen artean, 14,5 puntukoa 35-49 urtekoetan, eta 12,4 puntukoa 50 urtetik gorakoetan. Bilakaera horrek ondorio garrantzitsu bat izan du: 90eko hamarkadaren amaieratik aurrera, 25-34 urteko adin multzoa da Euskadiko okupazio-koefiziente handiena duena —1998. urtean lehen aldiz gaindituta 35-49 urtekoen koefizientea—, eta 2001. urteaz geroztik, errealitate hori sendotu egin da, 2001-2007 bitartean. Aldaketa garrantzitsu hori ez da gertatu 35-49 urtekoen okupazio-koefizientea murriztu delako —1993-2007 aldian hazten jarraitu baitu—, baizik eta 25-34 urtekoen artean okupaziorako joera askoz gehiago handitu delako aldi horretan.

Adinean behera egin ahala okupazioaren hazkundera handiagoa izateko joera 25 urtetik beherako kasuan soilik apurtzen da, 12,4 puntukoa baita, 25-49 urtekoena baino txikiagoa izanik. Zirkunstantzia hori 2003-2006 aldiko gazteen okupazio-koefizientearen egonkortzearekin, bereziki, loturik dago, eta jarraian, 2006-2007 aldian jaitsiera izan da, koefizientea % 35,1ean geratu dela (2003ko % 35,8tik behera). Egonkortze-prozesu horrek (azken aldiko joera beheranzkoa duen arren), nolana ere, gazteen artean 1997-2003 aldian izandako okupazioaren hazkunde handiagoa eten du. Hori horrela, gazteen okupazio-koefizientea 13,1 puntu hazi zen aldi horretan, 13 puntu 25-49 urtekoen artean, 9,1 puntu 35-49 urtekoetan, eta 8,7 puntu 50 urtetik gorakoetan.

Aurkeztutako datuen arabera, 35 urtetik gorako artean okupazio-hazkunde erlatiboa handiagoa izatea joera demografikoekin loturik dago —35 urtetik aurrera bolumen askoz handiagoko belaunaldiak baitaude—, adin horretatik aurrera okupazio-koefizienteen hazkunde diferentziala izateko azken aldiko joerarekin baino gehiago. Data horretatik aurrera, ordea, bilakaera horrek areagotu egiten du 35 urtetik beherakoetan eta gorakoetan okupazioarekiko joeran ikusten den aldaketa ere. Ildo horretatik, 2003-2006 aldian ikusten diren aldaketek gazteen okupazio-koefizientea egonkortu dela erakusten dute. Era berean, erakusten dute adin handiagoko koefizienteen bilakaera hobea dela, 35-49 urtekoetan 4,6 puntu hazi baita eta 50 urtetik gora, 3,8 puntu, 25-34 urteko biztanleriak izandako 3,3 puntuko hazkundetik gora; bilakaera horrek, epe ertainera, eragin dezake okupazio-koefizienteetan dauden aldeak murriztea, bereziki tarte adin-taldeei dagokienez. Hortaz, 2003-2006 aldian lan-merkatuan sartzen diren belaunaldi berrien dimentsio geografikoa gero eta txikiagoa izateari erantsi behar

zaio gazteek okupaziorako duten joeraren hazkundera txikiagoa dela, jaitsi edo egonkortu egiten ez bada, 25 urtetik beherakoetan gertatzen den bezala.

Dena den, 2006-2007 aldiko datuek ez dituzte berresten 2003-2006 aldiko joerak, salbuespen batekin: gazteenen koefizienteak egonkortzeko edo jaisteko joera. Kasu horretan, 25 urtetik beherakoetan, okupazio-koefizienteak 0,7 puntu murriztu dira. Alabaina, 2003-2006 aldiarekiko alde nagusia ez da hori, 50 urtetik gorakoetan koefizienteetan goranzko prozesua etetea baizik; azken hamar urteotan, lehen aldiz behera egin du koefiziente horrek. Jaitsiera ez da esanguratsua, hamarren bat eskas, baina goranzko prozesu garrantzitsua etetea da adierazgarriena. Bestalde, eta goranzko joerari eutsi dion arren (0,8 puntuko hazkunderarekin), 25-49 urtekoen okupazio-koefizienteen joerak argi erakusten du biztanleria okupazioan hasteko prozesuak mantsotu egin direla 2006an eta 2007an, bereziki, 35 urtetik gorakoetan.

**Okupazio-koefizienteen bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera
(1997-2007 aldian)
(%-etan)**

Sexua eta adina	Okupazio-koefizienteak					
	1997	2001	2003	2005	2006	2007
Gizonak	65,4	73,5	74,5	77,3	78,2	78,6
Emakumeak	36,7	47,3	52,2	54,8	56,8	57,4
< 25 urte	22,7	32,3	35,8	35,3	35,8	35,1
25-34 urte	66,8	77,0	79,8	81,8	83,0	83,8
35-49 urte	67,7	74,2	76,8	79,8	81,4	82,2
50-64 urte	40,2	46,2	48,9	51,0	52,7	52,6
Guztira	51,1	60,5	63,4	66,1	67,6	68,1

Eskualdeetako zenbatekoen bilakaerari dagokionez, ikusten da okupazioa nabarmen hazi dela eskualde guztietan 1997-2007 aldian, bai zenbateko absolutuetan, bai okupazio-koefizientei dagokienez. Alabaina, bilakaeran izan dira aldeak eta ezin aipatu gabe utzi.

1997-2007 aldia erreferentziatzat hartuta, bilakaera orokor positiboena Bizkaiko eskualdeek izan dute. Bilboren arean, ibaiaren bi ertzetako okupazioaren hazkunde garrantzitsua nabarmendu behar da, Ezkerraldean % 34,4 eta Eskuinaldean % 37,8, maila gorena izanik; bi eskualde horiek lehen postuetan daude enpleguaren gorakadari dagokionez. Bizkaia-Kostan eta Durangaldean ere % 30etik gorako hazkundea izan da, hain zuzen ere, % 32,7 eta % 36,7, hurrenez hurren. Bizkaiko hazkunderik txikiena Bilbok izan du, % 27,5ekin, EAeko batez besteko hazkundea (% 29,4) baino zertxobait gutxiago.

Bizkaitik kanpo, okupazioaren hazkunde-mailak, oro har, txikiagoak dira. Hala ere, % 29ren inguruko mailara iristen dira Aiara eta Donostialdea, EAeko batez besteko hazkundearen paretsu. Batez besteko horretatik nabarmen beheragoko hazkundea izan da Tolosa-Goierri eta Gasteizen (% 26,4 eta % 24,3, hurrenez hurren). Aldi horretan Deba ibaiaren haranean ikusten da okupazio-hazkunde txikiena, betiere enplegua nabarmen hazi den testuinguruan. Horrela bada, okupazioa % 18,4 hazi da Debarrenean eta % 14,3 (EAeko mailarik txikiena) Debagoienean.

2006-2007 aldiko bilakaerak atzemandako ezberdintasunen zati handi bat azaltzen du, haustura esanguratsuak txertatuta. Deigarriena Debagoieneko enplegu-jaitsiera handiari dagokio; eskualde horretan, okupazioaren % 6,1 galdu da aldi horretan. 2003-2006 aldian gorakada izan zen arren, Debagoienean okupazioak behera egin zuen dagoeneko 2003-2005 aldian.

Bilbon eta Ezkerraldean ere % 1,5 inguruko galerak izan dira okupazioari dagokionez, eta horrela, 2006. urtera bitarteko okupazio-hazkunde handiak mugatu dira. Bi eskualde horietan,

2005. eta 2006. urteetan izandako hazkunde handiekiko haustura sakona jasotzen du jaitsiera horrek (% 5,6 eta % 3,8, aztertutako aldiko ehuneko handienak). Bilboren arean, Eskuinaldean soilik sendotu da okupazioaren goranzko joera, 2005. urtetik aurrera urtean % 1 inguruko hazkundeak izanik. 2005-2007 aldiko okupazioaren hazkundera, hala ere, txikiagoa da Bilbori eta Ezkerraldeari aldi berean dagokiena baino (% 1,9, eta Ezkerraldean % 2,3 eta Bilbon % 4,1), nahiz eta eskualde horietan 2006tik 2007ra bitarte okupazio-jaitsierak izan.

Baina azken urteko enpleguaren bilakaera negatiboa ez da soilik eskualde horietako kontua. Hori horrela, Gasteizen eta Donostialdean okupazioaren geldialdia gertatu da; 2005etik 2006ra bitarte, okupazio-hazkundera batez bestekoa baino txikiagoa zuten dagoeneko eskualde horietan. Bilakaera horri esker, bi eskualdeak EAeko batez bestekotik oso behera daude 2005-2007 biurtekoan (% 0,7ko eta % 1,3ko okupazio-hazkundera, hurrenez hurren, EAE osokoa % 2,4 izanik). Azken aldiko egonkortze horrek 2001-2005 bitartean ikusitako hazkunderaren moteltzea egiaztatzen du, bi eskualde horiek, 90eko hamarkadan, okupazio-hazkunderari dagokionez, nagusi izanarekin kontrajarrita.

Azken aldiko arazoak Tolosa-Goierri ere sumatu dira, 2005. urtetik 2007, urtera okupazioaren % 0,9 galdu baitu, nahiz eta 2006tik 2007ra gorakadatxo bat izan. Bilakaera horrek eskualdearen joera eten du; izan ere, 2001-2005 aldian okupazioaren hazkunde erlatibo handieneko eskualdea zen (% 20,1, laurteko horretan EAeko batez besteko hazkunderaren bikoitza).

Aipatu ditugun azken bi eskualde horietan ez bezala, okupazioaren bilakaerak gorakadari eutsi dio EAEn gutxien urbanizatutako zenbait eskualdeetan, 2005-2007 aldian. Debabarrenean hazkundera % 3,2 da (EAeko batez bestekoa baino nabarmen handiagoa), baina Aiaran % 5,4ra iristen da, eta % 7,8ra Bizkaia-Kostan eta Durangaldean. Gainera, eskualde horietan okupazio garbi berrien sorrerari eutsi edo areagotu egiten da 2006tik 2007ra.

Dena dela, okupazioaren bilakaeraren ondoriorik garrantzitsuenetako bat, 1997-2007 bitartean, okupazio-koefizienteak berdintzeko joera izan da; alderdi hori deigarria da eskualde urbanizatueneen kasuan. 1997an, okupazio-koefiziente handiena duen eskualde urbanizatuak, hots, Gasteizek, 14,2 puntutan gainditzen zuen landunen proportzio txikiena duen eskualdearen, hots, Ezkerraldearen, erregistroa 16-64 urteko biztanleriari dagokionez (batak % 58,6 eta besteak % 44,4). 2007an, Gasteizen eta Ezkerraldearen arteko aldea 4 puntu murriztu da, eskualde horien koefizienteak hazi diren testuinguruan, gainera (batak % 69,2 eta besteak % 65,2). Egia da, ordea, Gasteizko okupazioaren hazkundera txikiagoa izateak eragin duela 2007an Donostialdea izatea okupazio-koefizienterik handiena duen eskualdea izatea eskualde urbanizatueneen artean (Donostialdeak % 70,8). Baina 2007an Ezkerraldearekiko aldea, 5,5 puntukoa, 1997an zeuden 9,3 puntukoa baino txikiagoa da oraindik ere.

Adierazitako konbergentzia-prozesuan, halaber, ikusi da Bilborentzat ere mesedegarria izan dela, % 65,4ko koefiziente-hazkundera baitu gaur egun, EAeko batez bestekotik soilik 2,7 puntuko aldearekin, 1997. urtean, ordea, 3,4 puntukoa zuen. Hobekuntza txikiagoa izan da Eskuinaldean, EAeko batez bestekoarekiko aldea 2,7 puntutik 2,2 puntura murriztuta hamar urte horietan eta 1997-2007 bitartean okupazioa gehien hazi den eskualdea dela kontuan hartuta, horrek paradoxa ematen du. Eskuinaldean, hortaz, okupazio-hazkundera gehiago lotzen da adin aktiboan dagoen biztanleriaren hazkunde demografikoarekin jarduerarako joera nabarmen hazi izanarekin baino; joera hori, gainera, 1997-2007 bitartean Bilbon edo Ezkerraldean ikusitakoa baino txikiagoa da.

Aipatutako bilakaera ona den arren, Bilbo inguruko eskualdeak 70eko eta 80ko desindustrializazio-prozesuaren ondorioak pairatzen ari dira oraindik ere, zerrendaren beheko zatian baitaude oraindik, okupazioari dagokionez. Azken aldiko bilakaera, gainera, ez da positiboa. Bilbon eta Ezkerraldean koefizienteetan gorakada handiak izan ziren 2005etik 2006ra, eta 2006tik 2007ra bitarte, okupazio-koefizientearen hazkundera 0,7 puntu soilik murriztu da Ezkerraldean, aurreko urtean 2,5 puntuko galera izan ostean; Bilbon, egonkortzea sumatu da. Kasu horretan, okupazio-koefizientea % 65,5etik % 65,4ra igaro da 2006-2007 aldian, 2005etik 2006ra bitarte 3,6 puntu hazi ostean.

Nolanahi ere, Bizkaian 2005etik 2007ra bitarte okupazio-koefizienteen joera goranzkoa izan da, baita Bizkaiko gainerako eskualdeetan ere. Esate baterako, Durangaldean Euskadiko okupazio-koefizientearen hazkunde handienetako bat izan da 1997-2007 aldian, eta 2005etik 2007ra ere eutsi egin dio goranzko joerari. Hori dela-eta, aldi osoan EAeko batez besteko mailaren inguruan egoteari eusteaz gain, 2007an okupazio-koefiziente handienetakoa duten eskualdeen mailara hurbildu ere egin da (% 69,4).

Bizkaia-Kostaren bilakaera ez da hain positiboa; azken aldiko bilakaera ona duen arren, 2008an EAeko batez bestekoaren azpitik dago oraindik. Bizkaia-Kosta goiko postuetan zegoen 1997. urtean baina postuak galdu ditu. 2006tik 2007ra goraldia izan duen arren, eskualde hori 1997ko hirugarren posiziotik 2007an Bilbo inguruko hiru eskualdeetako okupazio-koefizienteak soilik gainditzera igaro da (% 67,1).

Bizkaitik at, Debabarrena eta Aiara soilik izan dira aurrerapen garrantzitsuak okupazio-koefizientei dagokienez, 2005. eta 2007. urteen artean, baina zenbateko absolutuetan, Bizkaiko eskualdeak gainditzen dituzte. Debabarreneko okupazio-koefizientea % 64tik % 68ra hazi da 2005-2007 aldian, hasieran posizio txarrean zegoen eskualdea EAeko batez bestekoaren antzeko mailan jarrita. Hala ere, Debabarreneko egoera ez da ohikoa Gipuzkoako testuinguruan. 1997an nabarmentzen zen, jada, Gipuzkoako gainerako eskualdeetako

okupazio-koefizientea baino askoz txikiagoa zuelako, baina Debabarrenaren okupazioaren bilakaera ez da Euskadiko gainerako eskualdeena bezain positiboa, 2006. urtera arte. Horregatik, 1997an EAeko batez besteko mailetan bazegoen ere, bi puntu baino zertxobait beherago dago. Azken aldiko gorakada dela-eta, eskualde hori EAeko batez bestekoa mailara hurbiltzeaz gain, azken urteetan lehen aldiz Gipuzkoako gainerako eskualdeekiko aldea murriztu ere egin da.

Aiaran, 2005etik 2007ra % 66,4tik % 71ra hazi da; beraz, 2006an batez bestekoaren inguruko mailetan bazegoen, 2007an okupazio-koefizienteen zerrendako lehen hiru postuetan sartzea lortu du. Horrela, bada, Aiarak 1997. urteaz geroztik Arabako eskualde guztiek aldi horretan izandako bizitasun txikiagoa gainditu du. Aztertutako aldiak, koefizienteen hazkundera positiboa da oraindik ere Donostialdean, baina batez bestekoaren oso azpitik dago jada, 2007an izandako koefiziente-egonkortzearen ondorioz, neurri handi batean. % 70,8rekin, eskualde hori Euskadiko okupazio-maila handienekoen artean dago oraindik ere.

Alabaina, gainerako eskualdeetan okupazio-koefizienteak egonkortu egin dira; hain zuzen ere, Gasteizen, Debagoienean eta Tolosa-Goierri, eta Gasteiz eta Debagoienaren kasuan, 2006tik 2007ra izandako jaitsiera esanguratsuekin loturik dago (% 69,7tik % 69,2ra Gasteizen; % 73,7tik % 72,2ra Debagoienean). Lehendik ere EAeko goiko postuetan zeudenez, eskualde horiek EAeko batez bestekoaren gaineko okupazio-koefizientei eustea lortu dute.

Epe luzerako ikuspegitik begiratuta, ordea, Gasteizek izan du bilakaera erlatibo txarrena. Ildo beretik, Aiaran koefizienteak berdintzeko eta hazkunderako joera izan dira, eta horretaz gain, azken aldiko bilakaeraren ezaugarri bereizgarrietako bat hauxe izan da: Donostialdea, Tolosa-Goierri eta Debagoiena Euskadiko okupaziorako joera handieneko eskualdetzat finkatzea. Azken aldiak egonkortu eta jaitsi egin diren arren, eskualde horiek (1997an Gasteizek baino okupazio-koefiziente txikiagoa zuten) lehen postuetan finkatu dira 2000ko hamarkadaren amaieran, % 70 inguruko edo hortik gorako zenbatekoekin. Gaur egun, Debagoienak eta Tolosa-Goierri gutxienez hiru punturekin gainditzen dute Gasteiz; izan ere, eskualde horiek elkarren arteko lehiak zeuden lehen postuetan 90eko hamarkadaren erdialdean, okupazioari dagokionez. Gasteiz lehen postuan zegoen 1997. urtean, baina 2006an laugarrenera eta 2007an seigarrenera jaitsi da, % 69,2rekin. Gasteizen postu-galera hori okupazio-koefizientearen hazkundera txikiarekin loturik dago; izan ere, 1997-2006 aldiko hazkundera txikienetakoa izan zuen eta 2006. urtetik 2007. urtera koefizienteetan jaitsiera izan du.

**16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, eskualdearen arabera
(1997-2007 aldia)**

(Landunak, hazkundera %-etan eta okupazio-koefizienteetan izandako aldaketak)

Eskualdea	Landunak				Hazkundera %-etan				Okupazio-koefizientea			
	1997	2005	2006	2007	07/97	06/05	07/06	07/05	1997	2005	2006	2007

Gasteiz	100.299	123.764	124.503	124.625	24,3	0,6	0,1	0,7	58,6	69,4	69,7	69,2
Aiara	15.497	18.923	19.338	19.944	28,7	2,2	3,1	5,4	54,5	66,4	67,5	71,0
Eskuinaldea	52.704	71.288	71.761	72.626	37,8	0,7	1,2	1,9	48,4	64,5	65,0	65,9
Bilbo	117.989	144.541	152.639	150.399	27,5	5,6	-1,5	4,1	47,7	61,9	65,5	65,4
Ezkerraldea	127.202	167.050	173.392	170.931	34,4	3,8	-1,4	2,3	44,4	62,0	64,5	65,2
Bizkaia-Kosta	41.289	50.792	50.810	54.778	32,7	0	7,8	7,8	54,7	65,0	65,3	67,1
Durungaldea	40.387	51.241	52.349	55.213	36,7	2,2	5,5	7,8	51,4	66,2	67,7	69,4
Donostialdea	167.974	214.242	216.706	217.074	29,2	1,1	0,2	1,3	53,7	69,8	70,8	70,8
Tolosa-Goierri	41.273	52.612	51.747	52.150	26,4	-1,6	0,8	-0,9	54,5	72,6	71,6	72,6
Debagoiena	25.591	30.518	31.158	29.259	14,3	2,1	-6,1	-4,1	57,5	72,1	73,7	72,2
Debarrena	20.234	23.209	23.578	23.958	18,4	1,6	1,6	3,2	51,8	64,0	65,4	68,0
Guztira	750.439	948.180	967.981	970.957	29,4	2,1	0,3	2,4	51,1	66,1	67,6	68,1

Okupazio-koefizienteek 2005-2007 aldian izandako aldaketak aztertuta, berriz ere ikus dezakegu harreman oso estua dagoela okupazio-koefiziente orokorren bilakaeraren eta emakumezkoen okupazio-koefizienteen artean. Horrela bada, 2005etik 2007ra okupazio-koefizientea gehien hazi den eskualdeetan — Aiara, Bilbo, Ezkerraldea. Durungaldea eta Debarrena— hazi da, halaber, emakumezkoen okupazio-koefizientea, 4-7 puntuko igoerekin. Bizkaia-Kostaren okupazio-koefiziente orokorra 2 puntu baino gehiago hazi da eta emakumeen koefizienteak ere nabarmen handitu dira.

Aitzitik, Gasteizen 2006. urtetik aurrera koefiziente orokorra jaitsi egin da, 2006-2007 aldian emakumeen okupazio-koefizienteetan izandako beherakadaren (% 58,8tik % 57,3ra) ondorioz. Ildo berari jarraiki, Eskuinaldean 2005-2007 aldian gizonezkoen okupazio-koefizienteak nabarmen handitu dira, baina koefiziente orokorra Bilbon edo Ezkerraldean baino gutxiago hazi da, eskualde horretan emakumeen koefizientea ia egonkortu egin baita.

Hala ere, aipatu behar dugu zenbait kasutan gizonezkoen okupazio-koefizientearen bilakaera erabakigarria izaten dela 2005-2007 aldiko okupazio-hazkunderaren joerak azaltzeko. Esaterako, Eskuinaldean, Aiaran, Bilbon eta Debarrenean hazkunde handiak izan dira gizonezkoen okupazio-koefizienteetan, 2,5 eta 4 puntu bitartekoak. Alabaina, Eskuinaldean ez bezala, kasu horretan joera hori emakumeen koefizientearen igoera handiarekin loturik dago; igoera horri esker, aztertzen ari garenaldi osoko hazkunde handienak gertatu dira koefiziente orokorrei dagokienez.

Aitzitik, Tolosa-Goierri eta Debagoienan okupazio-koefiziente orokorrak egonkortu egin dira nahiz eta emakumeen koefizienteetan hazkundera gertatu (1,4 eta 1,9 puntu bitarte) 2005. urtetik 2007. urtera, baina EAEko batez bestekoaren azpitik. Baina hazkunde horiei kontra eginez, gizonezkoen koefizienteetan 1,5 puntu inguruko jaitsierak izan dira.

Gizonen artean hobekuntza diferentzialen eragina erlatibizatu egin behar da, nolahi ere. Ezein eskualdetan EAEko batez besteko mailetatik gora dagoen gizonezkoen okupazio-koefizientearen hazkundera ez du berak bakarrik ezartzen koefiziente orokorren goranzko bilakaera EAEko batez bestekotik gorakoa izatea, aldi berean, emakumezkoen koefizientearen bilakaera positiboa ez bada.

2006an eta 2007an gertatutakoa zehatzago aztertuz gero, ikusiko dugu okupazio-koefiziente orokorren jaitsierako edo egonkortzeko prozesuen arrazoia ez dela berdina eskualde guztietan. Zenbait kasutan, emakumeen okupazio-koefizienteetan izandako jaitsierekin loturik dago, Gasteizen edo Bilbon, esaterako; eskualde horietan, gizonezkoen okupazio-koefizienteak oraindik ere gora egin du aldi horretan. Azken eskualde horretan, jaitsierarekin batera, emakumeen koefizientea 2005ekoa baino askoz handiagoa da oraindik (% 55,2 eta % 51,2); Gasteizen, aldiz, % 57,4koa izan da, 2005eko eta 2006ko % 58,5-59 ingurukoaren azpitik.

Eskuinaldeak baditu ezaugarri batzuk komunean Gasteizekin eta Bilborekin. Dena den, eskualde horretan gizonezkoen koefizientearen hazkundera emakumeen koefizientearen egonkortzearekin loturik dago, eta horrela, okupazio-koefiziente orokorrean % 65etik % 65,9rako igoera izan da.

2006tik 2007ra bitarte okupazio-koefiziente orokorra egonkortu egin da baita Donostialdean ere. Kasu horretan, emakumeen okupazio-koefizienteak goranzko joera txikia izan zuen 2005-2006 aldi osoan, eta, beraz, koefiziente orokorraren egonkortzea gizonen jaitsierarekin loturik dago (% 80,9tik % 79,8ra). Ezkerraldean antzeko beherakada izan da 2006tik 2007ra, gizonezkoen koefizientea % 77,5etik % 76,7ra igarota, baina emakumezkoen koefizienteak (Donostiarekin alderatuta) gehiago hazi direnez, okupazio-koefiziente orokorrak goranzko joerari etsi dio, hazkundera puntu bat txikiagoa bada ere 2006-2007 aldian.

Bilakaerarik negatiboenak Debagoienak izan du; 2006-2007 aldian, gizonezkoen (% 79,3tik % 78ra) nahiz emakumezkoen (% 67,7 % 66ra) koefizienteetan jaitsiera izan duen eskualde bakarra da.

2006tik 2007ra okupazio-koefiziente orokorrean puntu bateko edo hortik gorako hazkundera izan duten eskualdeen kasuan, bilakaera beti positiboa da, bai gizonezkoen kasuan, baita emakumezkoen kasuan ere. Hala ere, Aiaran, Bizkaia-Kostan eta Tolosa-Goierrin okupazio-koefizienteen hazkundera handiagoa da emakumeen artean, baina sexuen arteko oreka da Durangaldeko hazkunderaren bereizgarri, eta Debabarrenean, gizonezkoen koefizientea askoz gehiago handitu da, alderatuz gero.

Okupazio-koefizienteen bilakaera, sexuaren eta eskualdearen arabera

(2005-2007 aldia)
(%-etan)

Eskualdea	Gizonak			Emakumeak		
	2005	2006	2007	2005	2006	2007
Gasteiz	79,9	80,2	80,6	58,5	58,8	57,4
Aiara	79,3	79,7	81,7	52,6	54,5	59,6
Eskuinaldea	74,4	75,2	77,0	54,7	55,0	55,1
Bilbo	73,1	74,5	76,0	51,2	56,8	55,2
Ezkerraldea	75,3	77,5	76,7	48,4	51,1	53,4
Bizkaia-Kosta	75,1	75,1	76,6	54,2	54,8	57,1
Durangaldea	80,4	79,0	80,8	51,3	55,8	57,4
Donostialdea	79,2	80,9	79,8	60,4	60,7	61,6
Tolosa-Goierri	84,2	82,5	82,9	59,9	59,7	61,3
Debagoiena	79,5	79,3	78,0	64,1	67,7	66,0
Debarrena	77,4	77,4	81,5	49,6	52,6	53,5
Guztira	77,3	78,2	78,6	54,8	56,8	57,4

Adinari dagokionez, 2005-2007 aldian okupazio-koefiziente orokorra EAEko batez bestekoa baino gehiago handitu den eskualdeetan (Aiara, Bilbo, Ezkerraldea, Durangaldea eta Debarrena), bada ezaugarri komun bat: adinaren arabeko koefiziente espezifikoaren hazkundeak, oro har, batez bestekoa baino handiagoak dira 35 urtetik gorakoan artean. Bilakaera antzekoa da 25-34 urtekoen artean ere, Bilbon izan ezik; eskualde horretan, adin horretako biztanleriaren koefizientearen beherakada izan da. 25 urtetik beherakoetan, egoerak askotarikoak dira: Aiaran eta Debarrenean koefizienteak nabarmen handitzen diren bitartean, hazkundera txikixeagoa da Bilbon, eta Ezkerraldean eta Durangaldean, aldiz, negatiboa da aldi horretan.

2005-2007 aldian okupazio-koefiziente orokorraren bilakaera negatiboa izan duten eskualdeen kasuan –Gasteiz, Tolosa-Goierri eta Debagoiena-, ezaugarri komun nabarmenena honako hau da: 25 urtetik beherakoan okupazio-koefizientearen beherakada handia. Beste ezaugarri komun bat ere badute, 50 urtetik gorakoetan koefizienteak egonkortu edo jaitsi egiten direla, alegia. Dena dela, 25-49 urtekoetan EAEko batez bestekoaren azpiko hazkundera sumatu da eskualde horietan, eta Gasteizen, 25-34 urtekoen artean okupazio-koefizientea jaitsi ere egin da. Eskualde horietan okupazio-koefizienteak egonkortu edo jaisteko prozesuak belaunaldi ugari hartzen dituzte eraginpean; horrek egiturazko osagai bat dagoela adierazten du, eta osagai hori ez dago lotzerik orain gertatzen ari diren ugalketa demografikoko prozesuei, soil-soilik.

Azken aldiko bilakaera aztertzeko garaian, beste bi alderdi deigarri ere aipatu behar dira. Lehena, Eskuinaldean 25 urtetik gorakoan arteko okupazio-koefizientearen erortzeko edo egonkortzeko joerari dagokio. Kasu horretan, beraz, 2005-2007 aldian okupazio-koefiziente orokorrean puntu baten inguruko hazkundera gertatu da, 25 urtetik beherakoan okupazioaren bilakaera positiboarekin loturik, neurri handian. Beste datu deigarria honako hau da: EAEko

eskualde gehienetan 50 urtetik gorako okupazio-koefizienteak egonkortzeko edo jaisteko joera duela. 2006tik 2007ra bitarte, egoera horretan daude Gasteiz, Eskuinaldea, Durangaldea eta Gipuzkoako eskualde guztiak.

**Okupazio-koefizienteen bilakaera, adinaren eta eskualdearen arabera
(2005-2007 aldian)
(%-etan)**

Eskualdea	Adina											
	< 25 urte			25-34 urte			35-49 urte			50-64 urte		
	2005	2006	2007	2005	2006	2007	2005	2006	2007	2005	2006	2007
Gasteiz	38,4	37,0	35,0	85,9	83,9	84,2	81,9	82,9	83,8	56,1	56,8	54,5
Aiara	31,7	29,5	37,2	86,0	83,2	89,5	80,0	82,7	84,0	49,1	52,4	54,1
Eskuinaldea	28,5	28,0	34,8	81,6	81,6	80,7	78,8	80,7	81,1	51,7	52,4	51,9
Bilbo	26,7	33,6	29,4	76,1	78,5	74,7	77,8	79,4	80,8	45,9	50,5	53,3
Ezkerraldea	42,6	41,7	37,3	78,6	81,6	84,3	75,3	77,4	78,6	40,5	44,5	45,3
Bizkaia-Kosta	19,0	19,9	20,9	78,9	81,1	87,2	82,5	82,6	80,8	53,5	50,6	53,2
Durangaldea	36,9	31,2	31,7	81,2	84,1	86,9	80,0	82,0	84,3	50,3	52,9	52,3
Donostialdea	37,7	39,7	41,1	84,2	85,3	86,0	81,9	83,0	83,5	58,0	58,2	56,0
Tolosa-Goierri	43,8	41,8	38,3	90,9	88,9	91,7	81,6	84,2	85,1	60,5	57,4	57,7
Debagoiena	39,9	39,3	34,8	87,0	89,5	87,8	89,8	91,8	90,7	53,3	53,6	53,7
Debabarrena	30,2	23,1	38,1	82,0	86,2	88,4	80,7	82,6	85,1	49,1	51,7	51,0
Guztira	35,3	35,8	35,1	81,8	83,0	83,8	79,8	81,4	82,2	51,0	52,7	52,6

Nolanahi ere, atal hau amaitu aurretik, 1997. urteaz geroztik Euskadin okupazioan izandako hazkunde garbiaren lurraldearen araberako banaketa aztertzea komeni da. Hori horrela, okupazioaren hazkunderan parte-hartze handiena duen eskualdea Donostialdea izan da, 1997-2007 bitartean sortutako okupazio berrien % 22,3rekin; hala ere, okupazio berriaren sorrera garbian duen garrantzia etengabe murrizten ari da: % 24,8 1997tik 2001era, % 21,6 2001-2005 aldian, % 11,9 2005etik 2006ra eta soilik % 3,8 2006tik 2007ra. Okupazio garbiaren sorrera handienetakoa duen beste eskualde batean ere antzekoa gertatu da, Gasteizen, alegia, 1997-2007 aldiko okupazio berri garbiaren % 11 biltzen duen eskualdean: okupazio berriaren % 14,5 osatzen zuen 1997-2001 aldian, baina 2001-2005 aldian % 8,5era, 2005-2006 aldian % 3,6ra murriztu da eta % 1,3ra 2006-2007an. Oro har, bi eskualde horiek okupazio berriaren % 45,8 biltzen zuten 1993. urtetik 1997. urtera bitarte, baina proportzio hori murriztu egin da denborarekin: 1997tik 2001era bitarte % 39,3ra, 2001etik 2005era bitarte % 30,1era, 2005-2006 bitartean, % 15,5era, eta 2006-2007an % 5,1era.

Kontrako bilakaera dute, ordea, Bilbo eta Ezkerraldea eskualdeek, gutxienez 2006. urtera arte; izan ere, 1993-1997 bitartean okupazio berria % 17,8 zen, eta 1997-2001 bitartean, % 32,5era, 2001-2005 aldian % 35era, eta 2005-2006 aldian % 69,9ra igaro da, Donostialdeko eta Gasteizko % 30,1etik eta % 15,5etik gora aztertutako azken bi aldi hauetan. Azken aldiko bilakaeran, prozesuaren erabateko haustura ikus dezakegu, bai Bilbon, baita Ezkerraldean ere,

2006tik 2007ra. Dena dela, 1997-2007 aldian sortutako okupazio garbiari ekarpen garrantzitsua egiten diote oraindik ere Bilbok eta Ezkerraldeak: % 34,5.

Oro har, Bilbo inguruko hiru eskualdeetan metatzen da 1997. urtetik 2007. urtera bitarte sortutako okupazio berriaren zatirik handiena (% 43,6), Donostialdeko eta Gasteizko % 33,5 gaindituta. Banaketa horren arabera, 1993-1997 aldiko bilakaera guztiz aldatzen da; izan ere, azken bi eskualde horiek okupazio berriaren % 45,8 pilatzen zuten aldi horretan, Bilbo inguruko hiru eskualdeen kasuan % 26,1 izanik. 1997tik 2001era bitarte hasi zen aldaketa, zeren orduan hasi baitziren hiru eskualde horiek Donostialdea eta Gasteiz gainditzeko, okupazio berria sortzeari dagokionez (% 42,4 eta % 39,3, hurrenez hurren). Joera hori 2001-2005 aldian sendotu da: Bilbo inguruko eskualdeetan okupazio berriaren % 43,8 metatzen da, eta gainerako bi hiriburuetan % 30,1. 2005-2006 aldian oso adierazgarria da: okupazio berri garbiaren % 72,2 Bilbo inguruko hiru eskualdeetan, Donostian eta Gasteizen, aldiz, % 15,5.

Ikusitako aldaketa asko Gasteiz, Ezkerraldea eta Bilbo eskualdeetan izandako bilakaera ezberdinak eragindakoak dira. Alde negatiboan, aipatu dugu lehen ere Arabako eskualdeak gero eta parte-hartze txikiagoa duela okupazio berriaren sorreran, azken urteotan: 1993-1997 aldian % 19,9, 1997-2001 aldian % 14,5, 2001-2005 aldian % 8,5 eta % 3,6 2005etik 2006era. 1993tik 1997ra bitarte, Gasteiz bigarren postuan zegoen enplegua sortzeari dagokionez; 1997-2001 aldian hirugarren postura jaitzi zen, eta seigarrenera 2001. eta 2005. urteen artean. Donostialdea, ordea, okupazio berria sortzen duten eskualdeen artean goiko postuetan egon da, eta 2005era arte % 20tik gorako maileri eutsi zien.

Alde positiboan, Bilbo Handiaren inguruko okupazio garbiaren bilakaera Ezkerraldeko eta Bilboko okupazioaren gorakadarekin loturik dago, hein handi batean. Izan ere, bi eskualde horiek bigarren eta hirugarren postuetan daude okupazio garbiaren sorreraren onuradunei dagokienez, 1997. urtetik 2006. urtera bitarte; okupazio garbiaren % 21,2 eta % 15,9 sortu da, hurrenez hurren, eskualde horietan, Donostialdeak soilik gainditzeko duela proportzio hori, eta Eskuinaldeko (% 8,8) eta Gasteizko (% 11,1) proportzioen oso gainetik. Ezkerraldearen kasuan, 1997tik 2001era bitarteko aldian sumatzen zen aldeko posizio hori: okupazio garbia sortzen Gasteiz gainditzeko zuen (% 18,9 eta % 14,5, hurrenez hurren); eta 2001-2005 aldian posizio hori sendotu egin da, Bizkaiko eskualde hori okupazio berria sortzen lehenengo postura iritsi dela, Donostialdea ere gaindituta (% 21,7 eta % 21,6, hurrenez hurren). Bilbok ere areagotu egin du okupazio berria sortzen duen parte-hartzea 1997. urtetik aurrera, baina % 13 inguruko mailetan egonkortzeko joera izan du 2005-2006 aldira arte; aldi horretan nagusi izan da enplegua sortzen, sortutako okupazio berriaren % 39,2 pilatu baitu. Eskuinaldeak, bestalde, eutsi egin die EAEn sortutako okupazioaren % 8ko eta % 10eko maileri 1993. urtetik 2005. urtera bitarte, baina 2005-2006 aldian % 2,3ra jaitzi da, zenbatekorik txikiena.

Goian aipatutako joerak, ordea, ez digute arreta galarazi behar 2006-2007 aldiko gertaera gako berriari dagokioenez: bost eskualde urbano handiek ekarpen oso mugatua egiten diote orain okupazio berriari. Euskadiko zona urbanizatuenean, oro har, okupazioa galdu dute 2006tik 2007ra, hazkunderaren % 78,2 osatu ostean 1995-2005 aldian, eta % 90 inguru 2005etik 2006ra.

Hiriburuetako eskualde handiak alde batera utzita, bilakaerarik onena Bizkaiko gainerako eskualdeek izan dute, 1997-2007 aldiko okupazio berriaren % 12,8 biltzen baitute, Gipuzkoako gainerako eskualdeen % 8,3ren eta Aiararen % 2ren gainetik. Bizkaia-Kostaren eta Durangaldearen egitekoa funtsezkoa da 2006tik 2007ra; izan ere, aldi horretako okupazio-hazkunde garbiaren % 71,3 metatzen da bi eskualde horietan. EAEko gainerako eskualdeetan zenbatekoak jaitsi edo egonkortu egin diren bitartean, Durangaldean eta Bizkaia-Kostan okupazioak gora egin du 6.833 lagunetan. Bi eskualde horietan izan ezik, okupazioaren bilakaeran hazkunde-prozesuaren amaiera gertatu da 2007an. Bi eskualde horiek alde batera utzita, izan ere, okupazioaren maila orokorretan azken balantzea eginez gero, 3.856 laguneko murrizketa izan da.

Okupazioaren igoeraren banaketa 1997. urtetik 2007. urtera bitarte, eskualdearen arabera (% bertikalak)

Eskualdea	Okupazioaren igoeraren banaketa, aldiaren arabera			
	97/05	05/06	06/07	97/07
Gasteiz	11,9	3,6	1,3	11,0
Aiara	1,7	2,0	6,3	2,0
Eskuinaldea	9,4	2,3	9,0	9,0
Bilbo	13,4	39,2	0,0	14,7
Ezkerraldea	20,2	30,7	0,0	19,8
Bizkaia-Kosta	4,8	0,1	41,4	6,1
Durangaldea	5,5	5,4	29,9	6,7
Donostialdea	23,4	11,9	3,8	22,3
Tolosa-Goierrri	5,7	0,0	4,2	4,9
Debagoiena	2,5	3,1	0,0	1,7
Debarrena	1,5	1,8	4,0	1,7
Guztira	100	100	100	100

3.4. Azken aldiko bilakaera. Egiturazko datuak.

Ikusi ahal izan dugun bezala, okupazioa % 2,4 hazi da 2005-2007 bitartean. Txostenaren atal honetan komenigarria da hazkunderari dagokionez, bi urte horietan ikusitako egiturazko alderdia kontuan hartzea.

3.4.1. Sektorearen eta jarduera-adarraren arabeko datuak.

Datu esanguratsu bat da jarduera-sektoreei modu positiboan eragin ziela okupazioaren bilakaerak 2005-2007 aldian, lehen sektoreari izan ezik. Aldi horretako okupazio-hazkunde handiena industriari dagokio, % 3,5ekin. 2001-2005 aldiko beherakadaren ostean, industrian errekupeazio-prozesua izan da, okupazioa % 2,6 hazi baita 2006tik 2007ra bitarte, 2007-2001 aldiko hazkunde-erritmoetara hurbilduta. Aldiz, 2006tik 2007ra hazkunde-tasa % 0,9ra murriztu da.

Eraikuntzaren okupazio-hazkundera % 2,7koa da. Industrian ez bezala, hazkunde horrek joera oso ezberdinak ezkututzen ditu azken bi urteotan. 2005etik 2006ra, sektorea % 4,7 hazten ari zen, 2001-2005 aldiko batez bestekoa baino erritmo askoz handiagoan. Baina azken urtean haustura handia izan da, okupazioa % 2 jaitsita 2006tik 2007ra.

Zerbitzu-sektorean, okupazioaren hazkundera % 2ra murriztu da 2005etik 2007ra bitarte. 2006-2007 aldian ere okupazioa handitzen ari den arren, kasu horretan ere hazkunde-erritmoak mantsotu egin dira: 2005-2006 aldian % 1,3 eta 2006-2007 aldian % 0,6. Egia esan behar bada, zerbitzuetan ikus zitekeen okupazio berria sortzeko gaitasuna galtzen ari zela 2005etik 2006ra bitarte. Alde batetik, 2001-2005 aldian gehien hazitako sektoreetako bat izatetik azken postura igaro dira zerbitzuak 2005etik 2006ra bitarte, enplegua sortzeko erritmoari dagokionez, eta posizio hori finkatu egin da –lehen sektorean izan ezik– 2006. urtetik 2007. urtera. 2005etik 2006ra bitarte, gainera, 1993. urteaz geroztik sektore horretan izandako hazkunde-prozesu auto-iraunkorra eten egin da. Beraz, 2005-2006 aldian gertatutakoa funtsezko aldaketa da Euskadiko zerbitzu-sektorearen okupazioaren azken aldiko bilakaeran; izan ere, aipatzeko moduko aldaketa da hori, eta are gehiago, 2006-2007 aldian okupazio berriaren sorrera-erritmoetan beheranzko joera finkatu baita.

Arestian deskribatutako bilakaera deigarria da kontraste handia egiten duelako 2001-2005 aldian ikusitakoarekin. Izan ere, aldi horretan, zerbitzu-sektorearen okupazioaren hazkundera indartu izana ekonomiaren gainerako sektoreetan atzematen den joera negatiboarekin kontrastean dago. 1997. urteaz geroztik, lehen sektorean hazkunde-erritmoetan jaitsiera handia izan da, eta gainera, 2001etik aurrera industrian jaitsiera izan da, baita eraikuntzan ere. Izan ere, erreferentziako laurtekoan, zerbitzuetan soilik ziren positiboak emaitzak, okupazio berrien sorrera-erritmoa areagotuta, eta nekazaritzan eta industrian, okupazioaren hazkunde-erritmoan ez ezik, okupazioaren mailetan ere jaitsiera izan da.

Sektoreetako zenbateko orokorrez gain, arestian azaldutako gaietan sakontzea komeni da, eta, horretarako, industrian eta zerbitzuetan adarraren arabera bilakaera aztertuko dugu. Industriarekin hasita, 2005-2007 aldiko igoerarik nabarmenena metalaren zenbait adarretan (makinagintza, material elektrikoa eta garraiatzeko materiala) gertatu dela ikusiko dugu, % 5etik gorako zenbatekoekin, baita askotariko manufaktura-industrietan eta energia-produkzioan ere.

Hala ere, soilik makinagintzan, eta hein txikiagoan, garraiatzeko materialaren fabrikazioan esan dezakegu okupazioaren hazkunde jarraitua izan dela 2005etik 2006ra eta 2006tik 2007ra.

Nolanahi ere, metalaren sektorearen azken aldiko bilakaera izan da positiboena, 2006-2007 aldian okupazioaren hazkunde oso nabarmenak izanik adar guztietan, eta horrekin kontrastean, industriaren gainerako adarretan eta eraikuntzan jaitsierak izan dira. Izan ere, aldi horretan bereziki negatiboa da elikagai-industrian izandako bilakaera, okupazioan % 14,5eko galera izan baita, 2005etik 2006ra bitarteko okupazioaren zabalkunde garrantzitsua etenda. Jaitsiera deigarria izan da, halaber, gai ez-metalikoen fabrikazioan, gainerako manufaktura-industrietan eta energia-produkzioan, azken urtean % 10etik gorako beherakadekin.

Zerbitzu-eremuan, orokorrean izandako hazkunde txikiagoak merkataritza-sektorean 2005-2007 aldian izan diren okupazio-galera garrantzitsuekin du zerikusia. Azken urtean okupazioaren gorakada txikia izan den arren, aztertutako biurtekoan okupazioaren % 1,9ko jaitsiera izan da merkataritzan eta % 11,6koa gainerako merkataritza-zerbitzuetan, 1997-2005 aldiko enplegu-hazkunde handiarekin kontrastean. Beherakada deigarriak (% 3tik % 4,5era bitarte) izan dituzte, era berean, honako adar hauetan: garraio eta komunikazioetan, finantza-erakundeetan eta etxeko zerbitzuetan, 2006-2007 aldiko datuak aurreko biurtekokoak baino negatiboagoak izanik. Garraio eta komunikazioen nahiz finantza-erakundeen adarretan, azken aldiko bilakaeran ere aldaketa izan da 2005. urtera bitarteko goranzko joeran.

Zerbitzuetako gainerako adarretan, ordea, bilakaera positiboa da 2005-2007 aldian, oro har. 2005-2007 aldian okupazioak izandako hazkundera % 5,4koa da enpresetarako zerbitzuetan, eta hezkuntzan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan % 7-8ra iritsi da, adar horiek guztiek 1997az geroztik izandako enpleguaren hazkunde-prozesua sendotzen dute. Administrazio-okupazioaren hazkundera (% 13,1) erakusten du 1997-2001 aldian izandako goranzko bilakaera suspertu dela; bilakaera hori, ordea, geldirik egon zen 2001-2005 aldian. Ostalaritzak izandako % 5,9ko hazkundera aurrekoen antzera jokatu du, nahiz eta 2001-2005 aldian goranzko joera izan zuen.

Alabaina, aipatutako adar horietan 2006-2007 aldiak haustura ekarri du goranzko joerari dagokionez. Horrela, bada, okupazioa % 0,5etik % 1,5era bitarte erori da ostalaritzan, enpresetarako zerbitzuetan eta Administrazioan. Egia esan, soilik hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuetako okupazioak eutsi dio goranzko joerari, baina 2005-2006 aldikoak baino hazkunde-tasa txikiagoekin.

Bukatzeko, lehen sektorean deigarria da arrantza-sektorearen joera negatiboa. Sektore horretan, epe luzearako okupazio-galerari eutsi egin zaio 1997. urtetik aurrera, eta 2005etik 2007ra bitarte areagotu egin da, okupazioan % 43,2ko jaitsiera gertatu baita. 2006. urtetik

aurrera jaisten ari den arren, nekazaritzako okupazioan, aldiz, hazkundera gertatu da 2005-2007 aldian (% 14).

Zenbateko erlatiboetan, 2005. urtetik 2007. urtera bitarte okupazioaren hazkundera honako adar hauetan, batik bat, metatzen da (parentesi artean jarri dugu hazkunde horretan izandako parte-hartze erlatiboa):

- * Hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak (hazi diren adarrei dagokien hazkundearen % 25,1).
- * Metal-sektorearen hainbat adar, metalurgia izan ezik (% 16,8).
- * Administrazio Publikoa (% 15,2).
- * Enpresetarako zerbitzuak (% 12,6).
- * Ostalaritza (% 7,3).
- * Eraikuntza (% 5,9).
- * Askotariko manufaktura-industriak (% 5,6).

Enpleguaren hazkunde positiboa izan duten adarrei dagokienez, 2005-2007 bitartean ikusitako okupazio-hazkundearen % 88,5 biltzen dute adierazitako adarrek. Hala ere, aipatu behar dugu aurreko adar horietatik guztietatik honako hauek soilik egiten diotela ekarpen positiboa 2006-2007 aldiko hazkundeari: metalaren adar horiek, hezkuntzak, eta osasuna eta gizarte-zerbitzuen sektoreak.

Enplegua galtzen duten adarrei dagokienez, jaitsiera garbi guztiaren % 49,7 merkataritzaren eta bestelako merkataritza-zerbitzuen adarrei soil-soilik dagokie, nahiz eta 2006tik 2007ra adar horietan gorakada txiki bat gertatu. Okupazio-galeran parte hartzen dute, halaber, metalurgiak (% 15,6, nahiz eta kasu horretan ere azken urtean hobekuntza izan den), garraioak eta komunikazioak adarrak (% 12,4) arrantzak (% 10,4) eta finantza-erakundeak (% 6,1). Azken hiru adar horietan, joera negatiboa suma daiteke 2005-2007 biurtekoaren urte guztietan. Oro har, adar horietan biltzen da 2005-2007 aldian joera negatiboa duten adarretako okupazio-jaitsieraren % 94,1.

Aurreko datuak 2001-2005 aldian izandakoekin alderatzen baditugu, ikusiko dugu zenbait adarrek garrantzi handia dutela oraindik ere 2005etik 2007ra bitarteko okupazio-hazkundeari

dagokionez. Horrela bada, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen, enpresetarako zerbitzuen eta eraikuntzaren adarrek aztertutako aldiko okupazio-hazkunde garbiaren % 50 inguru biltzen zuten, eta orain ere okupazio berriaren % 43,6 biltzen dute. Garrantzizko beste sektore batzuek (merkataritza, bestelako merkataritza-zerbitzuak eta garraioak eta komunikazioak) 2001-2005 laurtekoan % 40tik gorako okupazio-hazkundea bazuten ere, horien enplegu-bolumena nabarmen jaitsi da orain. Administrazio Publikoak, manufaktura-industriak eta metalak konpentsatzen dute, neurri batean, aztertutako zerbitzu-adarren joera negatiboa.

Dena den, ezin dugu ahaztu azken urteotan okupazioaren hobekuntzari mesede gehien egiten dioten adar guztien artetik, epe luzera hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarrak soilik dira gorakorak. Enplegu-sorreran gakoak izan diren hainbat adarren kasuan (hala nola eraikuntza, enpresetarako zerbitzuak, edo baita ostalaritza ere), 1997. urteaz geroztik, lehen aldiz okupazio-mailak murriztu egin dira 2006tik 2007ra bitarte. Jaitsiera are deigarriagoa da, erreferentziako hiru adarretan 2006-2007 aldian oraindik ere % 5etik % 7,5era bitarteko okupazio-hazkundearen mailez bestelakoa delako.

16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, sektorearen eta jarduera-adarraren arabera (2005-2007 aldia)

(Datu absolutuak eta hazkundea %-etan)

Adarrak eta sektoreak	Absolutuak			Hazkundea %-etan		
	2005	2006	2007	2006/2005	2007/2007	2007/2005
Nekazaritza	15.082	16.510	15.004	9,5	-9,1	-0,5
Industria	249.794	256.232	258.625	2,6	0,9	3,5
Eraikuntza	86.373	90.475	88.671	4,7	-2,0	2,7
Zerbitzuak	596.931	604.764	608.657	1,3	0,6	2,0
Nekazaritza	11.257	13.779	12.833	22,4	-6,9	14,0
Arrantza	3.825	2.731	2.171	-28,6	-20,5	-43,2
Erauzketa-industria	1.754	1.171	1.721	-33,3	47,0	-1,9
Elikagai-industria	14.404	17.013	14.547	18,1	-14,5	1,0
Paper-industria	14.271	15.119	14.643	5,9	-3,1	2,6
Industria petrokimikoa	11.133	10.831	10.925	-2,7	0,9	-1,9
Kautxu-industria	16.889	18.960	17.494	12,3	-7,7	3,6
Bestelako gai ez-metalikoen industria	6.097	7.347	6.323	20,5	-13,9	3,7
Metalurgia	84.719	77.234	82.246	-8,8	6,5	-2,9
Makinagintza	34.477	35.915	37.688	4,2	4,9	9,3
Material elektrikoa	15.486	14.043	16.578	-9,3	18,1	7,0
Garraiatzeko materiala	24.868	25.109	27.053	1,0	7,7	8,8
Hainbat manufaktura-industria	20.605	25.985	22.773	26,1	-12,4	10,5
Energia-produkzioa	5.091	7.507	6.635	47,4	-11,6	30,3
Eraikuntza	86.373	90.475	88.671	4,7	-2,0	2,7
Merkataritza	131.670	125.656	129.105	-4,6	2,7	-1,9
Ostalaritza	47.770	51.389	50.579	7,6	-1,6	5,9
Garraioak eta komunikazioak	63.889	62.904	61.923	-1,5	-1,6	-3,1

Finantza-erakundeak	21.672	21.254	20.708	-1,9	-2,6	-4,4
Enpresetarako zerbitzuak	89.596	95.041	94.455	6,1	-0,6	5,4
Administrazio Publikoa	45.101	51.251	50.990	13,6	-0,5	13,1
Hezkuntza	62.123	65.058	67.295	4,7	3,4	8,3
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	63.940	66.542	68.465	4,1	2,9	7,1
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	46.190	40.649	40.855	-12,0	0,5	-11,6
Etxeko zerbitzua	24.979	25.019	24.282	0,2	-2,9	-2,8
Lurralde kanpoko erak.	0	0	0	--		
Guztira	948.180	967.981	970.957	2,1	0,3	2,4

Biztanleria landunaren sektorearen araberrako bilakaeraren azterketan eskualdearen aldagaia sartzeko garaian, hobe da zerbitzu-sektoreko okupazioaren bilakaera bereiz aztertzea, ez gainerako sektore ekonomikoekin batera.

Zerbitzu-sektorearen okupazioari dagokionez, 2005etik 2007era bilakera ezberdina ikus daiteke eskualdeetan. Zenbait kasutan, hazkundera nabarmena da oraindik ere, % 10etik gorako okupazio-hazkundera baitute Bizkaia-Kostan, Durangaldean eta Debarrenean. Aiaran eta Bilbon, hazkundera txikiagoa da baina oraindik ere positiboa (% 5,1 eta % 3,3, hurrenez hurren). Aiaran, Bizkaia-Kostan eta Debarrenean okupazioaren hazkunde-eritmoak hazi ere egin dira 2006tik 2007ra, baina Bilbon eta Durangaldean ez da horrelakorik gertatu. Nahiz eta azken eskualde horretan okupazioaren hazkundera positiboa izan den azken urtean (% 1), datuen arabera okupazioa egonkortu egin dela esan dezakegu. Bilbon, ordea, zerbitzu-sektoreko biztanleria landuna % 1,2 murriztu da 2006tik 2007ra, 2005etik 2006ra izandako % 4,5eko hazkundera mugatuta.

Aipatutako eskualdeei dagokienez, 2005-2007 aldian zerbitzu-sektoreko okupazioaren hazkunde-eritmoa txikiagoa da Donostialdean eta Gasteizen, bietan ere % 1,5 inguruko hazkundera izanik. Donostialdean, zenbateko horrek hazkunde txikiak baina positiboak biltzen ditu aldi horretako urte guztietan, nahiz eta 2006tik 2007ra beheranzko joera izan den; Gasteizen, aldiz, 2006-2007 aldian % 2ko hazkundera izan da eta horrek konpentsatu egiten du, hein batean, 2005etik 2006ra izandako % 0,3ko beherakada.

Aurreko eskualdeetan ez bezala, Ezkerraldean zerbitzu-sektoreko landunen bolumena % 0,4 erori da 2005-2007 aldian. Jaitsiera askoz handiagoa da (% 3-4,5) Eskuinaldean, Debagoienean eta Tolosa-Goierriin. Ezkerraldean, jaitsiera 2005-2006 aldiko erregistro negatiboekin loturik dago, baina Debagoienean, 2006-2007 aldiko bilakaera negatiboa da erabakigarria. Eskuinaldean eta Tolosa-Goierriin, 2005-2007 biurtekoaren fase guztietan beherakadak izan dira.

2005 y 2007 aldian zerbitzu-sektoreko okupazioaren hazkundeari dagokionez, garrantzizkoa da Bizkaia-Kostaren eta Durangaldearen eragina, hazkunde handiena izan duten eskualdeekin lotutako hazkundearen % 42,3 biltzen baitu, Bilboren % 23,1eko eta Donostialdearen % 13,3ko zenbatekoen gainetik. Lau eskualde horietan metatzen da zerbitzu-sektorean hazi egin diren eskualdeetako hazkunde guztiaren % 78,8.

Bizkaiko hiriburuaren garrantzia nabarmendu behar dugu sektorearen hazkunde gorakorrean, 2006. urtera arte etengabe handitu diren okupazioaren hazkunde-tasak izan baititu. Alabaina, bilakaera hori eten egin da 2006an eta 2007an izandako jaitsierekin; jaitsiera horiek joera-aldaketa garrantzitsua gertatu dela adieraz dezakete, Bilbo inguruko beste hainbat eskualdetan bezala. Ildo beretik, datu hau deigarria da: 2005-2007 aldian zerbitzuetako okupazioan beherakada izan duten eskualdeetako jaitsieraren % 57,2 Ezkerraldean eta Eskuinaldean pilatzen da, eta Eskuinaldeari % 46,9 dagokio. Ehuneko horiek adierazten duten okupazioaren galera absolutua kuantitatiboki txikia den arren, esanguratsua da, zeren 2005etik aurrera izandako bilakaeran erabateko haustura ekarri baitzuen 1997-2005 aldian eskualde horietan izandako okupazioaren hazkunde handiarekin. Hori horrela izanik, baliteke Bilbo ere zerbitzu-sektorearen okupazioaren bilakaera negatiboaren dinamikara gehitzea 2006. urtetik aurrera.

Bestalde, aipatu beharrekoa da dinamika negatibo horrek zentzu zabalagoan hartzen dituela eraginpean EAEko zona urbano garrantzitsuenak, oro har. Izan ere, Donostialdean eta Gasteizen sektorearen bizitasuna jaitsi bada ere, jaitsiera hori bateragarria da oraindik 2005-2007 aldiko fase guztietan izandako okupazioaren hazkundearekin, hazi egin diren eskualdeetan okupazio-hazkunde garbi berriaren % 21,5eko ekarpena eginez; bi eskualde horietan, 1997-2005 aldian zerbitzu-sektorean gertatutako okupazioaren hazkunderako joera argi eta garbi eten egin da.

Egia esan, haustura-prozesua gutxiago urbanizatutako eskualdeetara ere zabaldu da, 2001-2005 aldian zerbitzuen hazkunde handia izan baitzuten; Tolosa-Goierrri eta Debagoienaren kasuak dira. Izan ere, bi eskualde horietan metatzen da 2005-2007 aldian zerbitzu-sektorean jaitsiera izan zuten eskualdeetako okupazio-galeraren % 42,2.

Hortaz, datuen arabera muga nabarmenak daude zerbitzu-sektoreetako okupazio-hazkundearen prozesuari dagokionez. Eskualde bakar batek izan du 1997-2006 aldian sektoreko okupazioaren hazkunderik handiena eta azken urte honetan hazkunde-erritmo garrantzitsuari eutsi dio. Durangaldea da eskualde hori. 2005-2006 aldian hazkunderako joera garbia zuen zona urbano bakarra izateari utzi dio Bilbok, aldi horretako hazkunde handiaren mugak adierazita; dena dela, 1993-2005 aldian batez bestekoa baino hazkunde-maila txikiagoetatik abiatzen zelako izan zen hain handia hazkunde hori.

**16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera zerbitzu-sektorean, eskualdearen arabera
(2005-2007 aldian)**

(Datu absolutuak eta hazkundea %-etan)

Eskualdea	Absolutuak			Hazkundea %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Gasteiz	73.008	72.810	74.274	-0,3	2,0	1,7
Aiara	9.142	9.306	9.611	1,8	3,3	5,1
Eskuinaldea	52.778	51.772	51.041	-1,9	-1,4	-3,3
Bilbo	107.725	112.618	111.292	4,5	-1,2	3,3
Ezkerraldea	107.871	107.072	107.464	-0,7	0,4	-0,4
Bizkaia-Kosta	30.219	30.273	34.348	0,2	13,5	13,7
Durungaldea	24.059	26.200	26.462	8,9	1,0	10,0
Donostialdea	141.935	143.424	143.993	1,0	0,4	1,4
Tolosa-Goierrri	25.772	25.606	24.826	-0,6	-3,0	-3,7
Debagoiena	13.361	13.927	12.744	4,2	-8,5	-4,6
Debarrena	11.061	11.757	12.603	6,3	7,2	13,9
Guztira	596.931	604.764	608.657	1,3	0,6	2,0

Zerbitzu-sektoreko okupazioaren bilakaeran ikusitako joera negatiboak are deigarriagoak dira, zeren 2005. urtera arte gertatukoa ez bezala, okupazioaren bilakaera positiboagoa da 2005-2007 aldian gainerako sektoreetan. Oro har, lehen sektorean, industrian eta eraikuntzan okupazioa % 3,1 hazi da erreferentziako biurtekoan, zerbitzuetan baino 1,1 puntu gehiago.

Hala ere, zerbitzuetan gertatzen den bezala, gainerako sektoreetako enpleguaren bilakaera bestelakoa da EAeko eskualdeetan. Hazteko joera duten eskualdeetatik begiratuta, okupazioaren hazkundea bereziki handia da, betiere % 6tik gorakoa Bilbo inguruko hiru eskualdeetan. Aiaran eta Durungaldean ere % 6 inguruko hazkunde-maila dute, baina zertxobait txikiagoa. Hazkunde askoz txikiagoa da (% 1 eta % 2 bitartekoa) Donostialdean eta Tolosa-Goierrin.

Bilboren areako hiru eskualdeen egitekoa bereziki nabarmena da okupazioaren hazkunde positiboa duten eremu horien barruan. Hiru eskualde horien artean zerbitzutakoak ez diren sektoreetako okupazio-hazkunde garbiaren % 74,1 metatzen dute 2005-2007 aldian, eta proportzioa % 86,1era igotzen da Durungaldea ere kontuan hartuz gero. Beraz, esan gabe doa okupazioaren hobekuntza Bizkaiko eskualdeetan metatzen dela.

Aipatutako eskualdeekin kontrastean, gainerako sektoreetako okupazioak behera egin du EAeko zenbait lurraldetan. Jaitsierak puntu bat baino txikiagoak dira Gasteizen eta Bizkaia-Kostan, baina % 3,7ra iristen da Debagoienean, eta % 6,5era Debarrenean. Gasteizen eta Deba ibaiaren haraneko bi eskualdeetan metatzen da zerbitzutakoak ez diren sektoreetan hazkunderik izan ez duten eskualdeetako beherakadaren % 92,8. Aipatutako eskualde horietan, gainera, enplegu-galera luzerako joera dago erreferentziako sektoreetan, eta zenbait kasutan,

2005etik 2006ra bitarte okupazioan gorakadatxo bat baino ez da izan. 1997-2001 aldiko okupazio-hazkunde handien ostean, lau eskualde horietan zerbitzutakoak ez diren sektoreetako okupazio-bolumena 2001ekoa baino txikiagoa da 2007. urtean. Mende berriaren hasierako urteetan sektore horietan enpleguaren jaitsierarako joera luzea izan zen eskualde horietan, eta horren ondorioa da guztia.

Eta egia esan behar bada, aurreko egoerak adierazten duena baino okerragoak dira azken aldiko joerak. Ildo beretik, Bizkaia-Kostaren eta Gasteiz Deba ibaiaren haraneko bi eskualdeekin lotzen duen arearen bilakaera, oro har, negatiboaz gain, 2006tik 2007ra bitarte zerbitzutakoak ez diren sektoreetan okupazioan izandako beherakadak ere nabarmendu behar dira Bilbon eta Ezkerraldean (% 2,3 eta % 4,3, hurrenez hurren). Egia esateko, bi eskualde horiek elementu asko dituzte komunean 2001-2007 aldian enplegua galdu zuten lau eskualdeekin. Alde bakarra dago horien artean, eta hain justu 2005-2007 aldiko okupazio-hazkunde garbia ez ezik, 2007ko okupazio-maila 2001ekoa baino handiagoa izatea ere justifikatzen du alde horrek; hauxe da alde hori: 2005etik 2006ra bitarte, zerbitzutakoak ez diren sektoreei dagokienez, bi eskualde horietan izandako okupazioaren hazkunde diferentziala. Beraz, aldi horretan izan ezik, mende berriaren lehen urteetan sektore horietako okupazioan epe luzerako galera izateko joera dago.

Neurri txikiagoan bada ere (jaitsiera soilik % 0,3koa baita), Donostialdean ere behera egin du okupazioak zerbitzutakoak ez diren sektoreetan 2006tik 2007ra bitarte, 2001-2005 aldiko jaitsiera txikia luzatuz; 2006-2007 aldian gorakada izan da (% 1,3koa), baina ez du askorik konpentsatu aurreko galera. Okupaziorik galtzen ez duen arren, eskualde horretan zerbitzutakoak ez diren sektoreen okupazioa praktikan ere gelditu egin da 2001. urtetik 2007. urtera bitarte.

Egia esan, soilik Aiaran, Eskuinaldean, Durangaldean eta Tolosa-Goierriin suma daiteke goranzko joera (gorabehera eta guzti) epe ertain eta luzera zerbitzutakoak ez diren sektoreetan, 2006tik 2007ra goranzko ildo horri eutsiz oraindik. Hori horrela izanik, lau eskualde horietan metatzen da 2005-2007 aldiko zerbitzutakoak ez diren sektoreetako okupazio-hazkundearen % 43,6, baina betiere Bilboren eta Ezkerraldearen % 50,5 gainditu gabe.

16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera zerbitzutakoak ez diren sektoreetan, eskualdearen arabera (2005-2007 aldia)

(Datu absolutuak eta hazkundea %-etan)

Eskualdea	Absolutuak			Hazkundea %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Gasteiz	50.756	51.693	50.351	1,8	-2,6	-0,8
Aiara	9.781	10.032	10.334	2,6	3,0	5,6
Eskuinaldea	18.510	19.989	21.585	8,0	8,0	16,6
Bilbo	36.816	40.021	39.107	8,7	-2,3	6,2
Ezkerraldea	59.179	66.320	63.467	12,1	-4,3	7,2
Bizkaia-Kosta	20.573	20.536	20.430	-0,2	-0,5	-0,7
Durangaldea	27.182	26.148	28.751	-3,8	10,0	5,8
Donostialdea	72.307	73.282	73.081	1,3	-0,3	1,1
Tolosa-Goierrri	26.840	26.141	27.324	-2,6	4,5	1,8
Debagoiena	17.158	17.231	16.516	0,4	-4,2	-3,7
Debarrena	12.148	11.822	11.355	-2,7	-3,9	-6,5
Guztira	351.249	363.217	362.300	3,4	-0,3	3,1

Hona hemen nabarmentzea merezi duen datu bat: goi-mailako kualifikazioko sektoreetan okupazioaren hazkundeak duen garrantzi diferentziala 2005etik 2007ra bitarte. Goi-mailako kualifikazioko sektoreetako okupazioa % 5 hazi da biurteko horretan, gainerako sektoreetako % 0,7 erraz gaindituta. Goi-mailako prestakuntzarekin loturiko sektoreetan gertatu da hazkunderik handiena, landunen zenbatekoa % 7 handitu baita, ezagutzaren indar handia duten sektoreetako (% 6,7) eta goi-mailako teknologiko sektoreetako (% 4,6) gaindituta.

Epe ertain eta luzerako joerei erreparatuta, hona hemen datu garrantzitsu bat: goi-mailako okupazioko sektoreetako okupazioak enpleguaren hazkunde-erritmoari eustea lortu du (2006tik 2007ra bitarte % 2,2, 2005-2006 biurtekoan izandako % 2,8tik gehiegi urrundu gabe), baina kualifikazio-maila txikiagoko sektoreetako okupazioak behera egin du 1997. urteaz geroztik lehen aldiz, 2006-2007 aldian okupazioaren % 0,9 galduta. 2001-2006 aldian okupazioaren hazkunde oso handia zen oraindik, baina hala ere, 1997-2001 aldikoak baino hazkunde-erritmo txikiagoak suma zitezkeen.

Dena dela, okupazioaren datu negatiboak ez dira mugatzen soilik kualifikazio-maila txikiagoko okupazioan izandako joera-aldaketara. Oraindik ere goranzko joera garbia duen arren, goi-mailako kualifikazioko sektoreetako okupazioan izandako % 5eko hazkundeari esker sendotu egin da 1997. urteaz geroztik sumatzen den okupazioaren hazkunde-erritmoen jaitziera, eta 2005-2007 aldian ere eutsi egin zaio joera horri. Mantsotzea bereziki deigarria da goi-mailako prestakuntzarekin loturiko sektoreetan, hazkunde-erritmoa % 4,4tik % 2,5era jaitzita 2005-2006 alditik 2006-2007 aldira, baita ezagutzaren indar handia duten sektoreetan ere (% 4,1etik % 0,5era). Alabaina, hazkundeari erritmoa % 1,8tik % 4,8ra igo da goi-mailako teknologiko sektoreekin loturiko enpleguari dagokionez.

Azken datu hori, ziurrenik, 2006-2007 aldiko daturik positiboetako bat izango da. Izan ere, 2001. urtetik aurrera, goi-mailako teknologiko sektoreetako okupazioan izandako joera-

aldaketa garrantzitsua eten du. Horrela, bada, 1993tik 2001era bitarte pixkanaka-pixkanaka hazi ostean, eta EAEn aldi horretako okupazioaren hazkunde handiena izanik, 2001-2005 aldian % 0,3ko jaitsiera izan zuten sektore horietako okupazioetan, aurreko aldietako % 25etik gorako hazkundeekin kontrastean. Era berean, okupazio-galera hori deigarria suertatzen da goi-mailako kualifikazioko gainerako sektoreetan 2001etik 2005era bitarte atzemandako % 20tik gorako hazkunde-mailekin alderatuta. 2005etik 2006ra, datuen arabera, berretsi egin zen goi-mailako teknologiko sektoreetako okupazioak izandako bizitasun txikiagoa, nahiz eta urte horietan % 1,8ko gorakadatxoa izan okupazioan. Hala ere, 2006-2007 aldian hazkundearen goranzko joera finkatzearen ondorioz 2005-2007 aldiko okupazioan % 6,7ko hazkundera izan da; horrek guztiak zera adierazten du, okupazioa hazkundearen bidera itzuli dela berriro, baina krisi ekonomikoaren eta finantza-krisiaren garai berrietan joera hori sendotzeko gai diren ikusi beharko da.

Nolanahi ere, hona hemen aipatu beharreko azken datu bat: okupazio berriaren sorreran goi-mailako kualifikazioko sektoreek garrantzi gero eta handiagoa dute. Goi-mailako kualifikazioko sektoreek okupazioaren hazkunde garbiari egindako ekarpena % 46,9koa da 1997-2001 aldian, okupazio berri garbiari dagokionez, 2001-2005 biurtekoan % 58,2ra igaro da eta % 80,9ra 2005-2007 aldian. Orain datorkigun testuinguru ekonomiko zail honetan, baliteke joera hori egonkortzea, okupazio-hobekuntzak goi-mailako kualifikazioko sektoreetan metatuta praktikan. Kualifikazio-maila txikiagoko sektoreetako okupazioan jaitsiera izan da 2006tik 2007ra, eta ziurrenik, balizko bilakaera berriaren sintoma izango da.

16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera goi-mailako kualifikazioko sektoreetan, okupazio-sektorearen arabera (2005-2007 aldia)
(Datu absolutuak eta hazkundera %-etan)

Sektore mota	Absolutuak			Hazkundera %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Goi-mailako teknologia	110.827	112.876	118.277	1,8	4,8	6,7
Goi-mailako prestakuntza	217.398	227.036	232.665	4,4	2,5	7,0
Ezagutzaren indar handia	273.326	284.513	285.861	4,1	0,5	4,6
Goi-mailako kualifikazioa	364.967	375.243	383.384	2,8	2,2	5,0
Gainerakoak	583.213	592.737	587.573	1,6	-0,9	0,7
Guztira	948.180	967.981	970.957	2,1	0,3	2,4

2005-2007 bitartean, goi-mailako kualifikazioko sektoreetako okupazio-hazkunde handiena Bilbon, Bizkaia-Kostan eta Durangaldean gertatu da, % 10 inguruko edo hortik gorako hazkundeekin. Halaber, Aiaran, Eskuinaldean, Ezkerraldean eta Donostialdean % 3,5etik % 6ra bitarteko hazkunde garrantzitsuak izan dira. Tolosa-Goierri hazkundera % 1,4ra jaitsi da, eta Gasteizen % 0,8ra. Aurrekoarekin kontrastean, goi-mailako kualifikazioko sektoreetako okupazioa % 2,1 murriztu da Debabarrenean eta % 19,9 Debagoiengan.

Okupazio-hazkunde garbiari dagokionez, enplegu berria Bizkaiko eskualdeetan pilatu da. Eskualde horietan metatu da goi-mailako kualifikazioko sektoreetako okupazio berri garbiaren % 79,4. % 28,2 Bilbori dagokio, % 21,4 Ezkerraldeari eta Eskuinaldeari, % 17,5 Bizkaia-Kostari, eta % 12,2 Durangaldeari. Bizkaitik kanpo, soilik Donostialdeak egin du ekarpen garrantzitsua, hazi diren eskualdeetako okupazio-hazkundearen % 16,1ekin.

Bizkaiko eskualdeek enplegu mota horretan duten garrantzia ikusita, argi ikusten da goranzko joera dagoela. 1993-2005 aldian okupazio berriaren % 46,4 biltzen zuten, eta 2005-2007 biurtekoan proportzioa % 79,4 da. Aldiz, Donostialdeak protagonismoa galdu du sektorearen zabalkuntzan (okupazio berriaren % 16,1 azken biurtekoan, eta 1993-2005 aldian % 22,8), baina Gasteiz, Debagoiena eta Debabarrena eskualdeetan, oro har, okupazio-galera izan da goi-mailako kualifikazioko sektoreetan, 1993-2005 aldian okupazio berriaren zati garrantzitsuena pilatu ostean.

Joera horien atzean, 2005. urtera arte, Arabako eta Gipuzkoako eskualdeetan ikusitako goi-mailako kualifikazioko enpleguaren hazkunde handiko prozesua eten izana dago. Hori horrela izanik, 2005etik 2007ra bitarte, eskualde horietan, oro har, batez bestekoaren oso azpiko hazkundeak gertatu dira, edo baita jaitsierak ere erreferentziako sektoreetako okupazio-mailetan. Salbuespen bakarrak Aiara eta Donostialdea dira; Aiaran 2006tik 2007ra gorakada nabarmena izan da, eta Donostialdean era bai, baina neurri txikiagoan. Aipatutako eskualdeen artetik, 2005-2007 biurtekoaren fase guztietan okupazio mota horretan goranzko joerari eutsi dion eskualde bakarra den arren, deigarria da okupazioaren hazkunde-erritmoan izandako jaitsiera, 2006tik 2007ra bitarte % 0,8ko gutxienera iritsita.

Egia esan, 2006-2007 aldian okupazioaren hazkunde-erritmoak egonkortu edo jaisteko joera errealitatea da aurreko urteekin alderatuta, eta errealitate horrek EAeko hainbat eskualde hartzen ditu eraginpean, goi-mailako kualifikazioko sektoreei dagokienez. Donostialdeaz gain, errealitate hori agerikoa da Bilbo inguruko hiru eskualdeetan, eta bereziki Bilbon eta Ezkerraldean. % 5 inguruko edo hortik gorako hazkundeak izatetik, 2006tik 2007ra bitarte % 1,9ra eta % 1,3ra, hurrenez hurren, jaitsi dira eskualde horiek. Debagoienaren kasua are deigarriagoa da, izan ere, eskualde horretan jaitsiera-erritmoak areagotu egin baitira (2005. eta 2006. urteetan %-8, eta 2006. eta 2007. urteetan %-13).

Aurreko datuez bestelako datu positiboak ere baditugu. Alde batetik, Bizkaia-Kostan eta Durangaldean goi-mailako kualifikazioko sektoreetan izandako okupazioaren hazkunde handi eta jarraituari dagokio, eta bestetik, 2006tik 2007ra bitarte okupazio mota horrek Arabako eskualdeetan, Tolosa-Goierri eta Debabarrenean izan duen gorakadari, betiere 2005. eta 2006. urteetako okupazio-jaitsieren ostean.

16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera goi-mailako kualifikazioko sektoreetan, eskualdearen arabera (2005-2007 aldia)

Eskualdea	Absolutuak			Hazkundera %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Gasteiz	49.113	48.100	49.501	-2,1	2,9	0,8

Aiara	6.015	5.976	6.324	-0,6	5,8	5,1
Eskuinaldea	32.883	33.444	34.079	1,7	1,9	3,6
Bilbo	61.684	66.497	67.778	7,8	1,9	9,9
Ezkerraldea	56.236	58.893	59.652	4,7	1,3	6,1
Bizkaia-Kosta	19.892	20.641	23.671	3,8	14,7	19,0
Durandaldea	16.416	18.254	19.056	11,2	4,4	16,1
Donostialdea	78.974	81.812	82.456	3,6	0,8	4,4
Tolosa-Goierra	19.982	19.423	20.257	-2,8	4,3	1,4
Debagoiena	14.968	13.777	11.991	-8,0	-13,0	-19,9
Debarrena	8.805	8.425	8.618	-4,3	2,3	-2,1
Guztira	364.967	375.243	383.384	2,8	2,2	5,0

3.4.2. Lanbidearen araberako datuak.

2005etik 2007ra bitartean okupazioaren bilakaerak enplegu-sorreraren gehieneko maila izan du langile ez-kualifikatuetan. Biurteko horretan, kolektibo horren okupazioa % 9,1 hazi da, langile kualifikatuen % 5,2 eta teknikari eta administrarien % 4,2 gaindituta¹². Aldiz, okupazioak nabarmen egin du behera makineriako operadoreen artean (%-6,8) eta zuzendarien artean (%-14).

Langile kualifikatuak, makineriako operadoreak eta langile ez-kualifikatuak batera hartuta, hazkunde orokorra % 3,2ra murriztu da 2005-2007 aldian, hau da, teknikarien eta administrarien hazkundearen zertxobait azpitik. Hala ere, 1997-2001 eta 2001-2005 laurtekoen artean hazkunde-erritmoak murriztu ostean (% 13,8tik % 5,9ra), hortik aurrera okupazio berriaren sorrera-mailari % 1,5 inguruan eutsi zaio, eta horri esker, 2001etik 2005era bitarteko okupazio berriaren sorrera-maila finkatu da.

Aztertzen ari garen langile kolektiboan, langile kualifikatuen eta ez-kualifikatuen artean okupazioak gora egin du 2005etik 2007era bitarte, eta gorakada horrek konpentsatu egiten ditu makineriako langileen beherakadak. Azken aldiko bilakaerari dagokionez, langile ez-kualifikatuen okupazioan joera-aldaketa dagoela nabarmendu behar da. 2006. urtera arte, okupazio ez-kualifikatuen hazkunde-erritmoa pixkanaka murrizten ari zen. Biztanleria hori % 18,3 hazi zen 1993-1997 aldian, % 14,2 1997-2001 aldian, eta % 11,9 2001-2005 aldian, baina 2005-2006 aldian soilik % 1,1eko hazkundera izan zuen; enplegu mota horren egonkortzearen ataria izan daiteke. 2006. urtetik 2007. urtera okupazio ez-kualifikatuak gorakada handia izan zuenez, badirudi kualifikazio-maila txikieneko lanbideetan okupazio berri garbiaren sorrerara atzera buelta egiten ari garela.

¹² Teknikariei eta administrariei buruzko datua batera hartu da, 1997. urteaz geroztik okupazio-sailkapen berria erabiltzen hasi baita; izan ere, gerta daiteke lehen enplegatutako administrariak zirenak orain teknikaritzat definitu diren taldeetara aldatu izana.

Teknikarien eta administrarien artean okupazio berria sortzeko erritmoa handiagoa da 2005-2007 biurtekoan lehen aipaturako langileen hiru kategorietako langileen artean baino (% 4,2 eta % 3,2, hurrenez hurren); hori guztia 2005-2006 aldirian okupazio-hazkunde askoz handiagoa izan zutelako gertatu da, % 4,9ko hazkundea izan baitzuten, eta langile kualifikatu, makineriako operadore eta langile ez-kualifikatuen artean % 1,7 izan zen. Izan ere, teknikariek eta administrariak okupazioaren % 0,7 galdu dute 2006tik 2007ra; beraz, argi eta garbi esan daiteke lanbide-talde honetako zati batek enplegu berriak sortzeko epe luzearako gaitasuna galdu duela.

Orain arte aztertutako joeraren bat kezkatzeko modukoa da. Hain zuzen ere, teknikarien eta administrarien kasuan, bereziki, okupazio-hazkundea –1993tik 1997ra % 5,7 izatetik % 21,5 izatera igaro zen 1997tik 2001era, eta berriz ere % 15,5era murriztu zen 2001-2005 laurtekoan– berriro ere garrantzitsua izan zen 2005etik 2006ra bitarte (% 4,9), eta horrek esan nahi du hazkunde-potentzial oso handia duela. Baina ikuspegi positibo hori erabat aldatu da 2006. urtetik 2007. urtera bitarte, okupazioan % 0,7ko galera izan baita. Hein handi batean, aldaketa hori lanbide administrarietara lekuz aldatu da, 2006-2007 aldirian okupazio-jaitziera handia izan baitute, baina aipatzeko modukoa da, baita ere, 2005. urtetik aurrera okupazio tekniko berrien sorreran izandako bizitasun-galera nabarmena, 1997-2005 aldikoak baino okupazio-hazkundearen erritmo askoz txikiagoak izan baititu. 2005etik 2006ra bitarte sortutako okupazio berri gehienak teknikarien eta administrarien multzoan metatzen ziren, baina orain, gainerako langileak (langile kualifikatuak, makineriako operadoreak eta langile ez-kualifikatuak) biltzen dituen kolektiboak erraz gainditzen du multzo hori.

Nolanahi ere, bilakaerarik negatiboen zuzendarien kolektiboari dagokio. 2005-2006 aldirian nabarmena zen, dagoeneko, beheranzko joera eta 2006-2007 aldirian joera hori finkatu egin da. Oro har, okupazio-bolumena % 14 murriztu da 2005-2007 aldirian. Beherakada hori bat dator 1997. urtetik 2001. urtera bitarteko bilakaerarekin (%-4,6), baina 2001-2005 aldiko hazkunde garrantzitsuarekin (% 22,3) kontraste handia egiten du.

Bestalde, ezin dugu aipatu gabe utzi 2006. urtetik 2007. urtera bitarte lanbidearen eta enplegu-sorreraren artean dagoen lotura negatiboa. Hori horrela izanik, zuzendarien artean okupazioa % 5 murriztu da, eta % 0,7 teknikari eta administrarien artean, baina gainerako langileen kasuan % 1,5 egin du gora. Alabaina, 1997. urtetik 2006. urtera bitarte, teknikari eta administrarien okupazio-hazkunde gainerako langileen baino askoz ere handiagoa izan zen. 2001-2005 aldirian, kontrako prozesua gertatzen ere iritsi zen, hau da, okupazio-hazkunde handiena zuzendarien artean, eta txikiena makineriako operadore, langile kualifikatu eta langile ez-kualifikatuen artean.

16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, lanbidearen arabera

(2005-2007 aldia)
(Datu absolutuak eta hazkundera %-etan)

Lanbidea	Absolutuak			Hazkundera %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Indar Armatuak	147	373	498	153,4	33,5	238,3
Zuzendariak	65.757	59.567	56.567	-9,4	-5,0	-14,0
Teknikariak	243.536	247.314	253.073	1,6	2,3	3,9
Enplegatu administrariak	86.567	99.065	90.784	14,4	-8,4	4,9
<i>Teknikariak/Administr.</i>	<i>330.103</i>	<i>346.379</i>	<i>343.856</i>	<i>4,9</i>	<i>-0,7</i>	<i>4,2</i>
Langile kualifikatuak	314.832	320.313	331.100	1,7	3,4	5,2
Makineriako operadoreak	126.382	129.199	117.834	2,2	-8,8	-6,8
Langile ez-kualifikatuak	110.958	112.150	121.103	1,1	8,0	9,1
<i>Bestelako langileak</i>	<i>552.172</i>	<i>561.662</i>	<i>570.036</i>	<i>1,7</i>	<i>1,5</i>	<i>3,2</i>
Guztira	948.180	967.981	970.957	2,1	0,3	2,4

Oharra: ED/EE ez dago barnean hartuta

2005-2007 aldian, lanbide motaren araberako okupazioaren bilakaera aztertuz gero eskualde-ikuspegitik begiratuta, honako alderdi hauek nabarmen daitezke:

Zuzendarien biztanleriari dagokionez, 2005-2007 aldian okupazio mota horrek behera egin zuen EAEko ia eskualde guztietan. Landunen zenbatekoaren murrizketa bereziki deigarria da (% 15etik gorako beherakadak) Ezkerraldean, Durangaldean eta Bizkaia-Kostan eta Gipuzkoako eskualde guztietan, Tolosa-Goierri izan ezik. Eskualde horiek guztiek badute ezaugarri komun bat: 2005. urtetik aurrera okupazioa etengabe jaisten ari dela, eta bereziki 2005-2006 aldian, 2001. urtetik 2005. urtera bitarte zuzendarien artean izandako hazkunde handiarekin kontraste garrantzitsua eginez.

Zuzendaritzako biztanleriaren bolumen-jaitsiera txikiagoa da beste eskualdeetan: Bilbon % 4,8, Aiaran % 2,9 eta Eskuinaldean % 0,9. Dena den, Bilbon eta Eskuinaldean aurretik ere okupazio mota horren beheraldia izan zen 2001etik 2005era, bereziki Eskuinaldean. Aiaran, jaitsiera 2006-2007 aldiko bilakaera negatiboarekin loturik dago, 1997-2006 aldian hazkundeak izan baitziren, eta EAEko batez bestekoa baino handiagoak, gainera.

2005-2007 aldiko zuzendari kopuruaren murrizketaren % 56,5 Gipuzkoako eskualdeei dagokie, Debarrena alde batera utzita, eta beste % 37,7 Ezkerraldeari, Bizkaia-Kostari eta Durangaldeari. Alabaina, erreferentziako aldian atzemandako okupazio-murrizketaren % 41,2 Donostialdean metatzen da.

Aipatutako okupazio-galeren testuinguruan, Gasteiz eta Tolosa-Goierri eskualdeetan soilik ikus daitezke zuzendarien biztanleriaren kopuru handiagoa 2007an 2005. urtean baino, eta horrela, 2001-2005 aldiko hazkunde positiboa luzatu dute; 2001-2005 aldiko gorakada horretan, egiturazko aldaketarik ia ez zen izan, soilik urteko jaitsiera puntualen bat.

16-64 urteko biztanleria landunaren (zuzendariak) bilakaera, eskualdearen arabera
(2005-2007 aldia)

(Datu absolutuak eta hazkundera %-etan)

	Absolutuak	Hazkundera %-etan
--	------------	-------------------

Eskualdea	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Gasteiz	8.103	7.176	8.604	-11,4	19,9	6,2
Aiara	1.458	1.543	1.415	5,9	-8,3	-2,9
Eskuinaldea	4.735	5.258	4.690	11,0	-10,8	-0,9
Bilbo	10.634	9.490	10.124	-10,8	6,7	-4,8
Ezkerraldea	8.360	8.981	7.053	7,4	-21,5	-15,6
Bizkaia-Kosta	4.482	3.183	3.110	-29,0	-2,3	-30,6
Durangaldea	3.607	2.793	2.447	-22,6	-12,4	-32,2
Donostialdea	17.711	15.049	13.514	-15,0	-10,2	-23,7
Tolosa-Goierri	2.514	2.956	3.011	17,6	1,9	19,8
Debagoiena	1.770	1.398	1.233	-21,0	-11,8	-30,3
Debarrena	2.386	1.740	1.365	-27,1	-21,5	-42,8
Guztira	65.757	59.567	56.567	-9,4	-5,0	-14,0

Zuzendaritzako biztanleriaren kasuan ez bezala, teknikarien eta administrarien bilakaera positiboa da eskualde askotan 2005. urtetik 2007. urtera, eta EAE osoan okupazioa % 4,3 handitu da. Hazkundera bereziki handia izan da (% 10 ingurukoa edo gehiagokoa) Bilbon eta Bizkaia-Kostan. Aurrekoak baino txikiagoak diren arren, Eskuinaldeko eta Donostialdeko kopuruak % 5etik % 6,5era bitartekoak dira oraindik, eta Tolosa-Goierri % 3,5ekoak. Gasteizen, aldiz, hazkundera soilik % 0,8koa da, positiboa betiere.

2006-2007 aldiko bilakaerak, ordea, emandako zenbateko horien positibotasuna zehazten du. Bizkaia-Kostan izan ezik, 2006tik 2007ra gainerako eskualdeetan okupazioaren hazkunderan mantsotzea ez ezik (Eskuinaldean eta, bereziki Bilbon, % 0,4 eskaseko hazkunderarekin), jaitsiera deigarria ere ikus daiteke teknikarien eta administrarien okupazioan. Azken urtean, jaitsiera hori % 1,2koa da Gasteizen, eta Donostialdean eta Tolosa-Goierri are handiagoak (% 2,9 eta % 4,8, hurrenez hurren).

Balantze orokorra are negatiboagoa da gainerako eskualdeetan. Aiaran, 2005etik 2007ra lanbide horietan okupazioaren egonkortzea gertatu dela esan dezakegu (% 0,2ko jaitsiera izan da), baina Ezkerraldean eta Durangaldean erreferentziako biztanleria landunaren jaitsiera % 2-2,5 ingurukoa da dagoeneko. Murrizketa handiagoa da oraindik Debarrenean eta Debagoienean, % 7,2 eta % 9,8ko murrizketekin. Ezkerraldean eta Aiaran, azken urtean mantsotu egin dira 2005-2006 aldiko galera handiak, baina Deba ibaiaren inguruko eskualdeetan aurreko urteko jaitsiera-erritmo garrantzitsuak finkatu egin dira 2006tik 2007ra. Bestalde, Durangaldean goranzko joera nabarmena izan zuten 2006. urtera arte, baina 2006-2007 aldian teknikarien eta administrarien artean okupazioak behera egin du % 8,5.

Jaitsiera horiek bereziki deigarriak dira 1997-2005 aldian okupazio mota horretan izandako hazkunde handi eta orokortuarekin alderatuta. EAEko zenbait eskualdeetan 2005-2007 aldian bilakaera positiboa suma daitekeen arren, egia esan behar bada 2006. urtetik aurrera okupazio tekniko eta administratiboaren bilakaeran joera-aldaketa nagusitzen ari da. Ildo beretik, zazpi eskualde dira jada 2006. urtetik 2007. urtera bitarte teknikarien eta administrarien okupazioan beherakada izan dutenak, eta Bilboko eskualdean egonkortzeko joera garbia atzematen da.

**16-64 urteko biztanleria landunaren (teknikari edo administrariak) bilakaera, eskualdearen arabera
(2005-2007 aldia)**

(Datu absolutuak eta hazkundera %-etan)

Eskualdea	Absolutuak			Hazkundera %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Gasteiz	43.977	44.884	44.313	2,1	-1,3	0,8
Aiara	5.611	5.504	5.599	-1,9	1,7	-0,2
Eskuinaldea	33.098	34.087	34.749	3,0	1,9	5,0
Bilbo	61.319	67.084	67.334	9,4	0,4	9,8
Ezkerraldea	51.108	50.324	50.112	-1,5	-0,4	-1,9
Bizkaia-Kosta	17.228	18.277	20.763	6,1	13,6	20,5
Durangaldea	14.182	15.095	13.808	6,4	-8,5	-2,6
Donostialdea	75.213	82.534	80.109	9,7	-2,9	6,5
Tolosa-Goierri	12.466	13.546	12.902	8,7	-4,8	3,5
Debagoiena	8.746	8.300	7.887	-5,1	-5,0	-9,8
Debarrena	7.302	7.117	6.779	-2,5	-4,8	-7,2
Guztira	330.250	346.752	344.354	5,0	-0,7	4,3

Oharra: Datuetan Indar Armatuak sartuta daude

Gainerako langileen eskualdearen araberako bilakaera aztertu behar dugu oraindik, hau da, makineriako operadoreena eta langile kualifikatu eta ez-kualifikatuena. Lehen ere esan dugunez, kasu horretan EAEko datu orokorrak % 3,2ko hazkunde orokorra adierazten du, eta hazkunde hori teknikari eta administrariei dagokiena baino txikiagoa da. Hala ere, azken kolektibo horretan ez bezala, 2006tik 2007ra eutsi egin zaio okupazio berri garbia sortzeko erritmoari gainerako langileen artean.

Izan ere, EAEko eskualde gehienetan okupazioaren bilakaera positiboa da 2007an ere, 2005eko egoerarekin alderatuz gero. Kasu horretan, hazkunderik handiena Durangaldeak eta Debarrenak izan dute, % 15etik gorako zenbatekoekin; Aiarak % 9,1 izan du, eta Ezkerraldean eta Bizkaia-Kostan % 6 inguru. Donostialdean hazkundera % 1,8 izan da. Ezkerraldean izan ezik (okupazioa egonkortu egin baita), eskualde horietan guztietan okupazio-hazkunde garrantzitsua izan da lanbide mota horiei dagokienez 2006tik 2007ra.

Azken aldiko bilakaera ez da hain positiboa beste zenbait eskualdetan. Bilbon eta Debagoiengan, langile multzo horretan okupazioaren beherakada handia (% 4tik % 6ra bitarte) izan da 2006tik 2007ra, eta 2005-2006 aldiko aurrerapen handia murriztu du. Horrela, 2005-2007 aldian eskualde horietako langileen okupazio-hazkunde garbia soilik % 0,5era murriztu da. Bestalde, Eskuinaldea eta Tolosa-Goierri eskualdeetan gainerako langileen okupazioaren % 0,8 eta % 3,7 galdu dute 2005-2007 aldian. Bilbon eta Debagoiengan ez bezala, 2006-2007 aldian goraldia izan dute, % 2,5 eta % 3 arteko hazkunderekin eta hazkunde horiek 2005-2006 aldiko % 3tik gorako jaitsierak konpentsatzen dituzte, partzialki.

Alabaina, epe luzera bilakaerarik negatiboa Gasteizek izan du. Eskualde horretan, gainerako langileen okupazio-galera txikia da 2006tik 2007ra, % 1 soilik, eta 2005-2006 aldian % 1,1eko hazkundera izan zen. Beraz, 2005-2007 aldian gainerako langileen artean okupazioa egonkortu egin dela esan dezakegun arren, garrantzitsuena zera da, egonkortze horrek luzatu egin duela 2001-2005 aldiko joera negatiboa. Laurteko horretan, Gasteizen, makineriako operadoreen eta

langile kualifikatu nahiz ez-kualifikatuen kasuan okupazioan % 3,3ko jaitsiera izan zen. 2007. urtearen amaieran, Gasteiz da eskualde bakarra 2001ean baino landun kopuru txikiagoa duena lanbide mota horretan.

16-64 urteko biztanleria landunaren (bestelako langileak) bilakaera, eskualdearen arabera (2005-2007 aldia)

(Datu absolutuak eta hazkundea %-etan)

Eskualdea	Absolutuak			Hazkundea %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Gasteiz	71.684	72.443	71.708	1,1	-1,0	0,0
Aiara	11.855	12.291	12.930	3,7	5,2	9,1
Eskuinaldea	33.455	32.416	33.187	-3,1	2,4	-0,8
Bilbo	72.588	76.066	72.941	4,8	-4,1	0,5
Ezkerraldea	107.582	114.087	113.765	6,0	-0,3	5,7
Bizkaia-Kosta	29.082	29.349	30.906	0,9	5,3	6,3
Durungaldea	33.453	34.460	38.958	3,0	13,1	16,5
Donostialdea	121.319	119.123	123.451	-1,8	3,6	1,8
Tolosa-Goierrri	37.632	35.246	36.237	-6,3	2,8	-3,7
Debagoiena	20.003	21.460	20.139	7,3	-6,2	0,7
Debabarena	13.520	14.721	15.814	8,9	7,4	17,0
Guztira	552.172	561.662	570.036	1,7	1,5	3,2

3.4.3. Lanbide-egoeraren arabeko datuak.

2005-2007 aldian biltzen diren lanbide-egoeraren arabeko datuen arabera, sektore publikoko soldatapeko langileen artean bilakaera positiboagoa da, % 6,6ko hazkundearekin, eta hazkunde horrek sektore pribatuko soldatapeko biztanleriaren % 4,3 gainditzen du. Datua bat dator aurreko urteetan ikusitako joerarekin, eta agerian jartzen du epe luzerako aldaketa bat. Hortaz, okupazioaren hazkundea hiru aldiz handiagoa zen sektore pribatuan 1997-2001 aldian (batean % 22,6, eta bestean % 7,8), 2001-2005 aldian, ordea, orekatu egin da, bi lanbide-taldeetan % 11,4ko mailekin. 2005-2007 bitartean, azkenean sektore publikoak lortu du enplegua sortzen aitzindari izatea.

Adierazitako bilakaera, hein batean, enplegu publikoari azken urte hauetan eman zaion eragin handiagoaren emaitza da. 1997-2001 bitartean, okupazio publikoaren % 7,8ko hazkunde globala dagoela ikusten da, eta hori kontrastean dago 1993-1997 bitartean izandako % 3,7ko beherakadarekin. Adierazitako aldaketa areagotu egiten da 2001-2005 aldian, okupazioaren % 11,4ko hazkundearekin, eta 2005-2006 aldiko % 5,2ko hazkundearekin sendotzen da. Horren ondorioetako bat da 1993-2001 bitartean % 21etik % 16,8ra jaitsi ondoren, sektore publikoko soldatapeko langileen garrantzia soldatapeko langile guztien artean % 17,1era igotzen dela 2006an eta 2007an.

Aitzitik, enplegu publikoaren garrantzia indartu izana enpresa pribatuko soldatapeko langileen okupazioak dinamismoa galdu izanarekin ere lotzen da. 1997-2001 aldian hazkunde-mailak nabarmen hazi ondoren (% 22,6, 93-97 aldiko zenbateko handitik, hots, % 11,2tik gora),

hezkundearen erritmoa jaitsi egin da 2001. urtetik aurrera, hazkundera % 11,4 izanik 2001-2005 bitartean. 2005-2006 aldiko datuak, okupazioaren hazkundera nabarmen hazten ari dela ikusten bada ere oraindik (% 3,1), erakusten du 2001-2005 laurtekoan ikusitako okupazio-hazkunderaren ildoari eusten zaiola, kasurik hoberenean, azken urte honetan.

2006tik 2007ra bitarteko bilakaerak soldatapeko okupazio pribatuaren dinamismo-galera finkatu egiten du, azken urtean soilik % 1,1eko hazkundera izan baita. Hala ere, hazkundera-erritmoen jaitsierak sektore publikoko soldatapekoak ere hartzen ditu eraginpean, 2005etik 2006ra hazkundera-maila % 5,2 izatetik 2006tik 2007ra % 1,4 izatera igarota. Horrela, 2001-2006 aldiaren enplegu publikoak jasandako gorakada garrantzitsua eten da.

2005-2007 biurtekoan soldatapeko biztanleriaren bilakaera positiboa da oraindik, baina soldatapekoak ez diren kolektiboen artean okupazio-jaitsiera handiak izan dira. Aldi horretako okupazio-jaitsiera % 5etik gorakoa da enplegu-emailen eta autonomoen artean, eta kooperatibisten artean % 18,7ra ere iristen da.

Soldatapekoak ez diren zenbait kolektibo espezifikoren dinamikari erreparatuta, zera ikusiko dugu, soldatapekoak dituzten enplegu-emailen kopurua batez ere 2006tik 2007ra bitarte murriztu dela. Horrek aldaketa garrantzitsua ekarri du, hain zuzen ere, 1997-2006 aldiaren okupazio-mailaren hazkundera erlatibo handieneko (% 45 aldi osoan) kolektiboa zenak joera hori eten egin du; aldi horretan hazkundera handiena izan zuen, bereziki 2001-2006 aldiaren izandako hazkundera izugarriarengatik.

Enplegu-emailen bilakaerak kontraste egiten zuen soldatapekoak ez ziren beste kolektiboen okupazio-beherakadarekin, 1997-2006 aldi osoan enplegua galtzen ari baitziren. 2005etik 2006ra bitarteko bilakaera negatiboa, ordea, erabakigarria izan zen, autonomoen bolumenean % 6,3ko jaitsiera eta kooperatibisten bolumenean % 22,6koa izanik. Autonomoen kasuan, jaitsierarako joera atzematen zen 1997-2001 bitartean; 2001-2005 aldiaren nabarmen suspertu bazen ere, kooperatibisten kasuan, ordea, epe luzearako bilakaera oraindik kezkarriagoa da. Hori horrela izanik, kooperatibisten bolumena nabarmen hazi bazen ere 1993tik 2001era bitarte, 2001-2005 aldiaren geratu egin zen eta 2005etik 2006ra gainbehera nabarmena izan zuen. Aldiz, azken aldiko bilakaeran kooperatibistek gorakadaxo bat izan dute, okupazioan % 5eko igoerarekin, autonomoen % 0,9 gaituta. Dena dela, bi kasuetan gaur egungo okupazioaren zenbatekoak 2001ekoak baino txikiagoak dira, baita 1997koak baino txikiagoak ere.

Soldatapekoak dituzten enplegu-emailen eta autonomoen kolektiboak batera hartuta, aintzat hartu beharreko beste datu bat aterako zaigu, bi kolektiboen artean traspaseak izaten baitira. Horrela jakatuta, egiaztatuko dugu enpresaburuen eta autonomoen biztanleria % 6,9 hazi

zela 2001-2005 aldian, 1997-2001 laurtekoan % 0,8 murriztu ostean, eta 2005etik 2007ra bitarte % 5,5 jaitsi da. 2006. urtetik 2007. urtera finkatu egin den arren, joera negatibo hori suma zitekeen jada 2005etik 2006ra.

Okupazio berriaren sorkuntza garbiari dagokionez, sektore publikoko soldatapeko langileen azken aldiko bilakaera hobea bada ere, ezin dugu ahaztu enplegu-sorkuntza sektore pribatuko soldatapeko langileen artean metatzen oraindik. 2005etik 2007. urtera, azken horietan biltzen da okupazio berriaren % 76, 2001-2005 aldiko % 75,2ko ildoari jarraiki. 2005-2007 aldiko okupazio-galerak, aldiz, soldatapekoak ez diren langileetan pilatzen dira, eta % 47,4 autonomoei dagokie, % 35,7 kooperatibistei, % 12,8 soldatapeko langileak dituzten enplegu-emaleei, eta gainerako % 4,1a familia-laguntzei.

16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, lanbide-egoeraren arabera (2005-2007 aldia)

(Datu absolutuak eta hazkundera %-etan)

Lanbide-egoera	Absolutuak			Hazkundera %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Enplegu-emalea	30.114	32.912	28.438	9,3	-13,6	-5,6
Autonomia	114.415	107.255	108.197	-6,3	0,9	-5,4
Familia-laguntza	3.123	3.248	2.589	4,0	-20,3	-17,1
Kooperatibista	25.067	19.410	20.388	-22,6	5,0	-18,7
Sekt. publ. soldatapeko lang.	129.710	136.442	138.296	5,2	1,4	6,6
Enpr. prib. soldatapeko lang.	641.434	661.509	668.712	3,1	1,1	4,3
Bestelako egoeraren bat	4.318	7.204	4.337	66,8	-39,8	0,4
Guztira	948.180	967.981	970.957	2,1	0,3	2,4

Lanbide-egoera kontuan hartuta, okupazioak eskualdearen arabera izan duen bilakaerari dagokionez, alde batetik, esan dezakegu soldatapekoa ez den guztirako biztanleriak nabarmen behera egin duela 2005-2007 bitartean (% 7,6). Okupazio-galera ia orokorra da, EAEko hamaika eskualdeetatik bederatzi hartzen baititu eraginpean. Bereziki deigarria da Eskuinaldean, Durangaldean, Tolosa-Goierri eta Debagoiengan, eskualde horiek % 15etik gorako mailak lortu baitituzte. Bizkaia-Kostan % 8 inguruko jaitsiera izan da, eta Gasteiz, Bilbo eta Donostialdea eskualdeetan % 5-6 bitartekoa. Jaitsiera % 2ra murriztu da Debabarrenean. Eskualde horietako gehienetan jaitsieraren zati garrantzitsuen 2005-2006 aldikoa den arren (Bilbon edo Bizkaia-Kostan, esaterako, enpleguaren gorakadak ere izan ziren), Deba ibaiaren haraneko bi eskualdeetan okupazioaren arazoa larriagotu egin da 2006tik 2007ra.

Soldatapekoak ez diren langileen taldearen okupazioaren guztirako jaitsiera garbiei dagokionez, % 24,1 Bilbo eta Eskuinaldea eskualdeei dagokie, % 20,5 Bizkaia-Kostari eta Durangaldeari eta % 30,6 Tolosa-Goierri eta Debagoiena eskualdeei. Beherakadaren % 15,4 Donostialdeari dagokio, % 8,9 Gasteizi eta gainerako % 0,6a Debabarrenari.

EAEko gainerako eskualdeekin kontrastean, Aiaran eta Ezkerraldean soldatapekoak ez diren langileen kopuruak gora egin du 2005tik 2007ra. Aiararen kasuan, 2005-2006 aldiko jaitsieraren ostean, okupazio mota horren goranzko joera berreskuratzea dakar; Ezkerraldean, berriz, egoera positibo horrek azken aldiko joera-aldaketa ezkututzen du. Izan ere, eskualde horretan soldatapekoak ez direnen okupazioa % 3,3 jaitsi da 2006. eta 2007. urteen artean, eta hori deigarria suertatzen da 2005-2006 urteetan izandako % 8,4ko hazkundearekin alderatuta, eta baita gutxienez 2001. urtetik aurrerako joera gorakorrekin ere.

16-64 urteko soldatapekoa ez den biztanleria landunaren bilakaera, eskualdearen arabera (2005-2007 aldia)

(Datu absolutuak eta hazkundea %-etan)

Eskualdea	Absolutuak			Hazkundea %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Gasteiz	20.802	19.613	19.521	-5,7	-0,5	-6,2
Aiara	4.247	4.211	4.351	-0,9	3,3	2,5
Eskuinaldea	11.277	9.108	9.078	-19,2	-0,3	-19,5
Bilbo	23.769	21.885	22.515	-7,9	2,9	-5,3
Ezkerraldea	23.365	25.337	24.498	8,4	-3,3	4,9
Bizkaia-Kosta	11.012	9.346	10.123	-15,1	8,3	-8,1
Durungaldea	9.245	7.636	7.194	-17,4	-5,8	-22,2
Donostialdea	41.693	40.768	39.490	-2,2	-3,1	-5,3
Tolosa-Goierrri	11.474	9.362	9.191	-18,4	-1,8	-19,9
Debagoiena	11.698	10.792	9.598	-7,7	-11,1	-17,9
Debarrena	4.137	4.769	4.054	15,3	-15,0	-2,0
Guztira	172.718	162.826	159.612	-5,7	-2,0	-7,6

Lehen ere esan dugunez, sektore publikoko soldatapeko langileei dagokienez, 2005-2007 aldian % 6,6 hazi zen biztanleria landuna. Aiaran, Ezkerraldean eta Debagoiengan izan ezik (eskualde horietan sektore publikoko soldatapeko biztanleriaren zati bat galdu baitute), gainerako eskualdeetan gora egin du okupazio mota horrek. Gasteizen, Eskuinaldean, Bilbon eta Donostialdean hazkundea % 5-7 ingurukoa zen, eta Bizkaia-Kostan, Durungaldean, Tolosa-Goierrin eta Debarrenean % 10etik gorakoa. Sortutako okupazio berriari dagokionez, badirudi Donostialdea dela onurarik handiena izan duen eskualdea, sektore publikoko okupazio berri garbiaren % 22,5 bildu baitu 2005-2007 aldian, Bizkaia-Kostak eta Durungaldeak batera osatzen duten % 27,8 gaituta. Tolosa-Goierrri eta Debarrenari % 19,6 dagokie, % 18,3 Bilbo eta Eskuinaldeari, eta % 11,9 Gasteizi.

Epe luzeagorako ikuspegitik begiratuta, honako hau da aipagarria: sektore publikoko soldatapeko langileen gorakada handia Bizkaia-Kosta, Durungaldea, Tolosa-Goierrri eta Debarrena eskualdeetan; eskualde horietan % 50etik gora hazi da soldatapeko publikoen bolumena 1997tik 2007ra. Azken hamar urteotan sortutako okupazio berriaren % 32,5 metatzen dute eskualde horiek, eta Donostialdea ere ehuneko horretara hurbiltzen da, % 28,7rekin. Bilbok eta Eskuinaldeak okupazio berriaren % 20,3 osatzen dute, Gasteizen % 11,3 eta Ezkerraldearen % 3,7 gaituta. Gainerako % 3,5a Aiarari eta Debagoienari dagokie.

Sektore publikoko soldatapeko langileen okupazioaren bilakaeraren azterketari dagokionez, modu berezian nabarmendu behar da Bilbo inguruko bi aldeen egoera. Izan ere, 1997-2001 aldian enplegu mota hori nabarmen hazi zen Eskuinaldean, EAeko batez bestekoa baino askoz gehiago; 2001-2005 aldian, ordea, hazkunde hori batez bestekoa baino askoz txikiagoa da, eta 2005-2006 aldian hazkunde hori negatiboa da. Eskuinaldean soldatapeko okupazio publikoak gora egin du 2006tik 2007ra, baina Ezkerraldean sektore publikoko soldatapeko langileen beherakadari eutsi egin zaio 2001. urtetik, eta azken aldiko bilakaerak ere ez du besterik adierazten, hau da, okupazioaren zenbatekoak egonkortu egin direla. Bilakaera horren ondorioa da bi eskualde horiek EAeko soldatapeko langile publikoen artean duten garrantzia, 2001-2006 aldian, % 27,7tik % 22,8ra jaitsi dela, eta 2007. urtean % 23,1era baino ez da igo.

Aztertutako aldian, eta neurri txikiagoan, okupazio mota horren garrantzi erlatiboa ere murriztu da Bilbon (% 18tik % 17,8ra, 2006ko % 17,3tik igo ostean) eta Arabako eskualdeetan (% 16,9tik % 16,7ra). Aitzitik, enplegu mota horrek EAEn duen garrantzia % 37,4tik % 43,2ra igarotzen da 2001-2006 aldian Bizkaia-Kostan, Durangaldean eta Gipuzkoako eskualdeetan, 2007an zenbateko hori % 42,4ra murriztuta. Aurrerapen horrek, ordea, eskualde horietako biztanleriaren garrantzira egokitzea dakar, EAeko 16-64 urteko biztanleriaren % 43,2 baitira.

16-64 urteko soldatapeko biztanleria landun publikoaren bilakaera, eskualdearen arabera (2005-2007 aldia)

(Datu absolutuak eta hazkundea %-etan)

Eskualdea	Absolutuak			Hazkundea %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Gasteiz	19.825	20.571	20.934	3,8	1,8	5,6
Aiara	2.211	2.281	2.168	3,2	-5,0	-1,9
Eskuinaldea	10.803	10.562	11.307	-2,2	7,1	4,7
Bilbo	23.420	23.630	24.622	0,9	4,2	5,1
Ezkerraldea	20.870	20.506	20.584	-1,7	0,4	-1,4
Bizkaia-Kosta	7.668	8.766	9.179	14,3	4,7	19,7
Durangaldea	5.416	5.995	6.500	10,7	8,4	20,0
Donostialdea	29.142	32.828	31.240	12,6	-4,8	7,2
Tolosa-Goierrri	4.595	5.141	5.613	11,9	9,2	22,1
Debagoiena	3.047	3.023	2.625	-0,8	-13,2	-13,8
Debarrena	2.713	3.137	3.525	15,6	12,4	29,9
Guztira	129.710	136.442	138.296	5,2	1,4	6,6

Sektore pribatuko soldatapeko biztanleria nabarmentzen da sektore publikoko soldatapekoen artean ikusitako hazkunde baino zertxobait txikiagoa dutelako, 2005-2007 bitartean, % 4,2 da hazkunde hori. Beste lanbide motetan ez bezala, kasu horretan okupazioak gora egin du eskualde guztietan erreferentziako aldia, baina hala ere, hazkunde-mailetan gorabehera handiak daude eskualdearen arabera. Alderik positiboenean Bizkaia-Kosta eta Durangaldea daude, hazkunde oso handiarekin; eskualde horietan, sektore pribatuko soldatapeko langileen bolumena % 10 baino gehiago hazi da eta 2006tik 2007ra bitarte joera hori areagotu egin da, gainera.

Aiaran, Eskuinaldean, Bilbon eta Debagoiengan ere hazkunde-mailak garrantzitsuak dira (% 6-8). Baina soilik Aiaran eutsi zaio okupazio mota horretako hazkunde nabarmenei 2006-2007 aldian. Eskuinaldean, sektore pribatuko soldatapeko langileen kopurua geratu egin da azken urtean, eta Debagoiengan eta Bilbon behera egin du (% 1,8 eta % 3,6, hurrenez hurren). Azken urtean Bilbok eta Debagoienak bilakaera negatiboa izateak hainbat haustura deigarri adierazten ditu. Esaterako, Bilbon, hazkunde handia eten egin da; hain zuzen ere, 2001. urteaz geroztik goranzko prozesu garrantzitsua izan zen eta 2005. urtetik 2006. urtera izandako % 10eko hazkunde handiak areagotu egin zuen prozesu hori, baina orain eten egin da. Debagoienari dagokionez, 2006. urtera arteko bilakaeraren arabera, sektore pribatuko soldatapeko enpleguaren hazkunde-erritmoa pixkanaka areagotzen ari zen, kontuan izanik eskualde horretan kooperatibismoak indar handia duela eta horren eraginez enplegu mota hori murriztuta zegoela.

Beste hainbat eskualdetan, 2005-2007 aldiko hazkunde-maila % 2tik % 2,5era bitartekoa da; esaterako, Ezkerraldean, Donostialdean eta Tolosa-Goierriin. Sektore pribatuko soldatapeko okupazioa ere egonkortu egin da 2006tik 2007ra bitarte Tolosa-Goierriin, baina Ezkerraldea da bilakaera txarrena izan duen eskualdea, sektore pribatuko soldatapeko langileen bolumena % 1,3 murriztuta. Murrizketa horrek aurreko zikloarekiko haustura adierazten du, gorakorra baitzen. Sektore pribatuko soldatapeko enpleguaren hazkundera garrantzitsua izan zen Ezkerraldean (% 3,9) 2005etik 2006ra, 1997-2005 aldian enplegu mota horrek izandako gorakada indartuta eskualde horretan. Aurreko urteetan Bizkaiko beste zenbait eskualdetan ez bezala, kasu horretan, ordea, 2005-2006 aldian gertatutakoak soldatapeko enpleguaren hazkunde-erritmoen desazelerazio-prozesua iragartzen zuen.

Desazelerazio-prozesua nabaria da, halaber, Gasteizen, 2005etik 2006ra % 1,4ko okupazio-hazkunde txikia izan baitzuen. Hurrengo urtean okupazioaren % 0,2 galdu ostean, eskualde horretako sektore pribatuko soldatapeko langileen kopuruan % 1,2ko hazkundera soilik izan da 2005-2007 aldian.

Sektore pribatuko soldatapeko enplegua sortzeari dagokionez, azken urte hauetan bizitasuna galtzeko prozesua areagotu egin da Debabarrenean. 2006. eta 2007. urteetan eskualdeak gora egin duen arren, 2005-2006 aldiko erregistro negatiboen ondorioz, 2005-2007 aldian sektore pribatuko soldatapeko langileen artean soilik % 0,1eko hazkundera izan da. Okupazio mota horren hazkunde txikia epe luzeko arazoa da eskualde horretan. Ildo beretik, datuen arabera Debabarrena hazkundearen batez bestekoaren azpitik zegoen jada 1997-2005 aldian.

2005-2007 aldian sektore pribatuko soldatapeko enpleguaren bilakaera Bilbo inguruko hiru eskualdeetan positiboa izateak azaltzen du hiru eskualde horiek, 2005etik 2007ra bitartean, enplegu mota horren okupazio berri garbiaren % 43,9 biltzea. Azken aldian, sektore pribatuko soldatapeko okupazioan jaitsierak izan direnez Bilbon eta Ezkerraldean, eta Eskuinaldean zenbateko horiek egonkortu egin direnez, aipatutako proportzioa 2005-2006 aldikoa baino askoz txikiagoa da; izan ere, biurteko horretan hiru eskualdeek okupazioaren % 72,6 osatzen baitzuten.

Nolanahi ere, okupazio-hazkundera fenomeno bizkaitarra dela esan dezakegu aztertutako urteetan, eta 2006-2007 aldian, gainera, Bizkaia-Kostan eta Durangaldean areagotu egin da. Hori horrela izaik, okupazio berri garbiaren proportzioa % 74,3koa da 2005etik 2007ra bitarte Bizkaian, Gipuzkoako eskualdeen % 18,4 eta Arabako eskualdeen % 7,3 gaudituta.

16-64 urteko sektore pribatuko soldatapeko biztanleria landunaren bilakaera, eskualdearen arabera (2005-2007 aldian)

(Datu absolutuak eta hazkundera %-etan)

Eskualdea	Absolutuak			Hazkundera %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Gasteiz	83.137	84.319	84.170	1,4	-0,2	1,2
Aiara	12.465	12.846	13.425	3,1	4,5	7,7
Eskuinaldea	49.208	52.091	52.241	5,9	0,3	6,2
Bilbo	97.352	107.124	103.262	10,0	-3,6	6,1
Ezkerraldea	122.815	127.549	125.849	3,9	-1,3	2,5
Bizkaia-Kosta	32.112	32.697	35.477	1,8	8,5	10,5
Durangaldea	36.581	38.717	41.519	5,8	7,2	13,5
Donostialdea	143.407	143.110	146.344	-0,2	2,3	2,0
Tolosa-Goierrri	36.543	37.244	37.347	1,9	0,3	2,2
Debagoiena	15.774	17.343	17.036	9,9	-1,8	8,0
Debabarrena	16.359	15.672	16.380	-4,2	4,5	0,1
Guztira	645.752	668.713	673.049	3,6	0,6	4,2

Oharra: Bestelako egoeraren batean dagoen kolektiboa barnean hartuta

3.4.3.1. Soldatapeko langileei buruzko datu osagarriak.

EAEko lan-merkatua aztertzeari dagokionez, honako hau garrantzi bereziko datua da: okupazioaren bilakaerak, kontratu motaren arabera, 1997az geroztik izan duen joera-aldaketa. Izan ere, 1997-2005 aldian mugagabea ez den kontratua duten landunen kopurua murriztu egin da, 1993-1997 aldian izandako % 45,1eko hazkunde handiarekin erabateko hausturan; 1997az geroztik, ordea, kontratu mugagabea duen soldatapeko langile kopuruak hazten jarraitu du. 2005-2006 aldian joera horiek sendotu egin dira, landun mugagabe kopurua % 8,3 hazi baita eta % 10,1 jaitsi soldatapeko beste egoera mota batean dagoen biztanleriaren bolumena.

Horretaz gain, 2005-2006 aldian beste berrikuntza garrantzitsu bat aipatu behar da. Lehen aldiz, mugagabea ez den kontratua duten soldatapeko langileen kopuruan jaitsiera argia sumatu zen, 1997-2005 aldian beherakada oso txikiak izanik, eta praktikan, zenbatekoak egonkortu egin zirela esan zitekeen. 1997-2006 aldi osoa kontuan hartzen badugu, kontratu mugagabea duten soldatapeko langileen kopurua % 65 hazi zen, mugagabea ez den kontratua duten langileen bolumena, ordea, % 11,2 jaitsi zen; jaitsiera horren % 90 2005-2006 aldian ikusitako beherakadarengatik gertatu zela esan daiteke.

Testuinguru horretan, 2006. urtetik 2007. urtera bitarteko bilakaera are deigarriagoa da oraindik, mugagabea ez den enpleguak gorakada izan baitu, eta enplegu mugagabeak jaitsiera. Horrela, kontratu mugagabea duten soldatapeko langileak 617.101 ziren 2006an, eta 2007an 602.035 izatera igaro ziren, % 2,4ko jaitsierarekin; jaitsiera hori deigarria da, kontuan izaten badugu soldatapeko langileen bolumenak % 1,1 hazten jarraitzen duela aintzat hartutako aldi osoan. Horrekin kontraste handia eginez, mugagabea ez den kontratua duten soldatapekoen bolumena 180.850 lagunetik 204.973 lagunera igo da, % 13,3 2006. urteko zenbatekoari dagokionez. Kontratu mugagabea ez duten soldatapeko langileen kopurua 1997. urteko zenbatekoetara itzuli da.

Mugagabea ez den soldatapeko enpleguaren gaineko eragina aipatzeko modukoa da. 1997. urtean, proportzio hori guztirakoaren % 35,3 izatera iritsi zen 1997an, eta % 29,1 2001. urtean, baina 2005ean % 26,1era murriztu zen, hain zuzen ere, 1993. urteko maila (% 26,3) baino bi hamarren gutxiago. 2006. urtean, ordea, aurrerapen garrantzitsua gertatu zen, proportzioa % 22,7ra iritsita. Urtebete eskasean, mugagabea ez den kontratua dutenen proportzioa 3,4 puntu jaitsi zen, 2001-2005 laurtekoan izandako 3 puntuko jaitsiera gaindituta. Hala ere, aurrerapen horiek aldatu egin dira 2006tik 2007ra bitarte, aztertutako proportzioa % 25,4ra itzuli baita, LMEa egiten hasiz geroztik lortutako bigarren erregistro onena izanik.

16-64 urteko soldatapeko biztanleria landunaren bilakaera, kontratu motaren arabera

(2005-2007 aldian)

(Datu absolutuak eta hazkundera %-etan)

Kontratu mota	Absolutuak			Hazkundera %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Mugagabea	570.040	617.101	602.035	8,3	-2,4	5,6
Ez-mugagabea	201.104	180.850	204.973	-10,1	13,3	1,9
Guztira	771.144	797.951	807.008	3,5	1,1	4,7

2006-2007 aldian, kontratu mugagabea duten landunen bolumenean jaitsiera absolutua izan den arren (EAE osoan gertatu baita), kontratu-lotura hori duten soldatapeko langileen bolumena handiagoa da oraindik ere 2007an, 2005ean baino, EAeko ia eskualde guztietan. 2005-2007 aldiko hazkundera bereziki aipagarria da Durangaldean eta Debagoiengan, % 10etik gorako hazkunderekin. Bizkaia-Kostan eta Donostialdean % 7tik % 9ra bitarteko zenbatekoak dituzte, eta Gasteizen, Bilbo inguruko hiru eskualdeetan eta Tolosa-Goierriin % 4tik % 5era bitartekoak.

Nolanahi ere, Bizkaia-Kosta eta Durangaldea salbuespen izanik (hazkunde-erritmo oso handiei eusten baitiete, % 3,6 eta % 4,5, hurrenez hurren), aipatu ditugun gainerako eskualdeetan kontratu mugagabea duten soldatapeko langileen zenbatekoak behera egin du 2006-2007 aldian. Jaitsiera ez da oso handia Gasteizen eta Bilbon (% 0,7 eta % 1,5), eta Donostialdean % 2,2ra igo da. Aldiz, Eskuinaldean, Ezkerraldean, Tolosa-Goierriin eta Debagoiengan galerak handiagoak dira (% 4tik % 6ra bitarte).

Badira bi eskualde bilakaera txarragoa izan dutenak; hain zuzen ere, 2005etik 2006ra bitarte lehen aldiz kontratu mugagabea duen soldatapeko biztanlerian jaitsiera izan duten eskualdeak. Aiara da horietako bat, 2005-2007 aldian % 6,3ko jaitsiera izan baitu, eta bestea Debabarrena, % 13,4rainoko jaitsierarekin. Bi kasu horietan, 2005-2006 aldiko bilakaera negatiboa finkatu egin da 2006-2007 aldian.

Kontratu mugagabea duen 16-64 urteko soldatapeko biztanleria landunaren bilakaera, eskualdearen arabera (2005-2007 aldian)

Eskualdea	Absolutuak			Hazkundera %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Gasteiz	78.095	81.678	81.105	4,6	-0,7	3,9
Aiara	11.356	11.063	10.636	-2,6	-3,9	-6,3
Eskuinaldea	47.091	51.849	49.628	10,1	-4,3	5,4
Bilbo	89.137	95.201	93.784	6,8	-1,5	5,2
Ezkerraldea	99.546	110.441	103.906	10,9	-5,9	4,4
Bizkaia-Kosta	29.625	30.654	31.747	3,5	3,6	7,2
Durangaldea	33.354	36.228	37.841	8,6	4,5	13,5
Donostialdea	123.337	137.280	134.205	11,3	-2,2	8,8
Tolosa-Goierrri	30.136	33.488	31.645	11,1	-5,5	5,0
Debagoiena	12.332	14.411	13.657	16,9	-5,2	10,7
Debarrena	16.031	14.808	13.880	-7,6	-6,3	-13,4
Guztira	570.040	617.101	602.035	8,3	-2,4	5,6

Kontratu mugagaberik ez duen soldatapeko biztanleriaren bilakaeran jaitsiera handia sumatu zen 2005-2006 aldian, % 10 inguru edo hortik gora jaisten baita EAEko eskualde gehienetan. Eskualde horietako batzuetan, ordea, ikus zitekeen enplegu mota hori egonkortu egin zela, Bizkaia-Kostan esaterako, edo hazkunde nabarmena izan zuela. Hori horrela izanik, % 10 inguruko edo hortik gorako igoerak sumatu ziren Aiaran, Bilbon eta Debarrenean.

2006. urtetik 2007. urtera bitarte, biztanleria landun mota hori orokorrean handitu dela esan daiteke. Baina hazkunde hori ez da nahikoa 2006tik 2007ra bitarte izandako beherakada handiak konpentsatzeko, esate baterako, Gasteizen, Ezkerraldean, Donostialdean eta Debagoienean; izan ere, eskualde horietan, soldatapeko langile mota horren okupazioan galera izan baita 2005-2007 aldi osoan. Beste zenbait kasutan, Eskuinaldean edo Tolosa-Goierrin, 2006tik 2007ra bitarte okupazio mota horrek gorakada garrantzitsua izan du eta horren ondorioz, 2005-2007 biurteko osoan % 5-6ko hazkundera izan da; Durangaldearen kasuan, proportzioa % 18,8ra ere iristen da.

2005etik 2006ra bitarte kontratu mugagaberik gabeko soldatapeko langileen zenbatekoak egonkortu edo hazi egin ziren eskualdeetan, hain zuzen, handitu da gehien okupazio mota hori 2005-2007 aldi osoan. Bizkaia-Kostan hazkundera % 26,9ra iristen da, eta Aiaran eta Debarrenean % 50etik gorakoa da.

Nolanahi ere, mugagabea ez den kontratua dutenen garrantzi kuantitatiboak bereizten ditu EAEko eskualdeen bilakaerak azken hamar urteotan. Aipatzekoak dira 1997-2007 aldian landun mota horren beherakada nabarmena izaten duten eskualdeak; hau da, Gasteiz, Gipuzkoako eskualdeak (Debarrena izan ezik) eta Durangaldea. Mugagabea ez den kontratua duten soldatapeko langileen kopurua, ordea, nabarmen handitu da aldi horretan Aiaran, Debarrenean eta Bizkaiko eskualdeetan (Durangaldean izan ezik).

Testuinguru horretan, Bilbo eta Ezkerraldeak badituzte hainbat berezitasun. 1997. urteaz geroztik, biztanleria landun mota horren goranzko joerari 2006ra arte etengabe eutsi zion

eskualde bakarra da Bilbo izan zen EAE osoan, biztanleria hori % 25,9 hazi zela 1997-2006 bitartean; betiere erabat kontrastean EAEn izandako % 11,2ko beherakadarekin. Ezkerraldeari dagokionez, bilakaera antzekoa izan zuen 2005era arte, baina 2005-2006 aldian kontratu mugagaberik gabeko langile kopurua asko jaitsi zen, 2006tik 2007ra berriz gora egiteko. Ezkerraldean eta beste hainbat eskualdetan ez bezala, kontratu mugagaberik gabeko soldatapeko langileen guztirako zenbatekoan beherakada txiki bat izan da, lehen aldiz, Bilbon. Izan ere, 2006-2007 aldian kontratu mugagabea duten soldatapeko langileen guztirako bolumena murriztu duen eskualde bakarra da Bilbo.

Kontratu mugagaberik gabeko 16-64 urteko soldatapeko biztanleria landunaren bilakaera, eskualdearen arabera (2005-2007 aldia)
(Datu absolutuak eta hazkundea %-etan)

Eskualdea	Absolutuak			Hazkundea %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Gasteiz	24.669	22.555	23.614	-8,6	4,7	-4,3
Aiara	3.233	3.950	4.879	22,2	23,5	50,9
Eskuinaldea	12.677	10.716	13.299	-15,5	24,1	4,9
Bilbo	31.150	34.011	33.050	9,2	-2,8	6,1
Ezkerraldea	43.785	36.714	41.587	-16,1	13,3	-5,0
Bizkaia-Kosta	10.108	10.123	12.822	0,2	26,7	26,9
Durangaldea	8.488	7.569	10.083	-10,8	33,2	18,8
Donostialdea	47.151	37.089	42.748	-21,3	15,3	-9,3
Tolosa-Goierri	10.561	8.579	11.056	-18,8	28,9	4,7
Debagoiena	6.390	5.652	5.903	-11,5	4,4	-7,6
Debarrena	2.892	3.892	5.932	34,6	52,4	105,1
Guztira	201.104	180.850	204.973	-10,1	13,3	1,9

Lehen ere aipatu dugunez, 2006tik 2007ra bitarte atzemandako aldaketarik garrantzitsuenetako bat hauxe da: kontratu mugagaberik gabeko soldatapekoen proportzioaren gorakada, erreferentziako proportzioa 2006ko % 22,7tik 2007ko % 25,4ra igarota. Hazkundea 3-4 puntukoa izaten da gehienbat, Bizkaiko eskualde gehienetan (Bilbon izan ezik) eta Donostialdean gertatzen den moduan. Hala ere, proportzioa 5 puntutik 5,5 puntura bitarte igotzen da Aiaran eta Tolosa-Goierri, eta Debarrenean maila gorena lortu du, 9,1 puntura iritsita. EAeko batez bestekoaren azpitik, aipatutako proportzio horren igoera puntu 1 eta 2 punturen artekoa da Gasteizen eta Debagoienean, eta Bilbon 0,3 puntuko galera ere gertatu da. Dena dela, epe luzera, azken aldiko aldaketak kontratu mugagaberik gabeko soldatapekoen proportzioaren hazkundea dakar, 2001-2007 aldian, Aiaran, Bilbon eta Debarrenean, eta 1997. urtea erreferentziatzat hartuz gero, beherakada orokorrak izan dira. Bilboren kasuan, egonkortasunerako joera dagoela esan dezakegu, izan ere, 2001-2007 aldian % 25etik % 26,5era bitarteko mailari eutsi baitio; baina Aiararen eta Debarrenaren kasuan, adierazleak goranzko joera handia izan du 2005. urteaz geroztik, 1997-2005 aldian beherakada handiak izan ostean.

Mugagabeak ez diren kontratuen proportzioaren bilakaera soldatapeko langileen artean, eskualdearen arabera

(1997-2007 aldia)
(%-etan)

Eskualdea	Kontratu ez-mugagabeen proportzioa				
	1997	2001	2005	2006	2007
Gasteiz	35,7	25,3	24,0	21,6	22,5
Aiara	33,5	31,2	22,2	26,3	31,4
Eskuinaldea	25,9	31,2	21,2	17,1	21,1
Bilbo	28,8	25,2	25,9	26,3	26,1
Ezkerraldea	37,0	32,4	30,5	24,9	28,6
Bizkaia-Kosta	36,2	30,2	25,4	24,8	28,8
Durangaldea	34,6	30,3	20,3	17,3	21,0
Donostialdea	39,2	30,7	27,7	21,3	24,2
Tolosa-Goierri	40,7	28,0	26,0	20,4	25,9
Debagoiena	42,3	31,9	34,1	28,2	30,2
Debarrena	36,0	22,3	15,3	20,8	29,9
Guztira	35,3	29,1	26,1	22,7	25,4

Soldatapeko langileen taldeak lan egindako ordu kopuruaren bilakaera aztertzen badugu (erreferentziako aste horretan ordutegi normalizatua egin zutenak soilik kontuan hartuta) honako hau ikusten dugu: 2005-2007 aldian zertxobait igo da lanaldi partzialeko soldatapeko langileen proportzioa. Proportzio hori % 11,8tik % 12,4ra igo da, 1997ko maila gorenera (% 12,6) hurbilduz.

Aldiz, 2005etik 2006ra bitarte goraldi txikia izan ostean, 2006tik 2007ra bitarte jaitsiera-prozesura itzuli da berriro, 40 orduko edo gehiagoko lanaldia duten landunen proportzioari dagokionez. Gehiegizko lanaldia duten langileen garrantzia 1997ko % 78,4tik 2005eko % 72ra murriztu da, 2007ko amaieran % 70,3 izanik. Horrek badu ondorio bat: epe luzera, 30-39 orduko lanaldia duten landunen proportzioaren hazkunde jarraitua, nahiz eta 2005tik 2006ra jaitsiera izan zen. 1997an % 9, 2001ean % 12,1, 2005ean % 16,3 eta 2007an % 17,3.

16-64 urteko soldatapeko biztanleria landunaren bilakaera, lan egindako ordu kopuruaren arabera

(2005-2007 aldia)
(% bertikalak)

Lan egindako orduak	1997	2001	2005	2006	2007
< 30 ordu	12,6	11,8	11,8	12,1	12,4
30-39 ordu	9,0	12,1	16,3	15,5	17,3
40 ordu edo gehiago	78,4	76,1	72,0	72,4	70,3
Guztira	100	100	100	100	12,4

Oharra: Asteazkera zehar normalki lan egin duen biztanleria landuna

EAEko zenbateko orokorrekin lanaldi partzialaren goranzko joera adierazten dute, baina horren atzean, eskualdearen arabera bilakaera askotarikoak daude 2005etik 2007ra bitarte. Zenbait eskualdetan, esaterako, okupazio mota horren beheranzko joera deigarria da. Eskuinaldean eta Debagoiengan, bereziki, sumatzen da egoera hori, hurrenez hurren, 5,1 eta 2 puntu galdu baitituzte aldi horretan lanaldi partziala duten landunen proportzioan. 2005. urtetik aurrera, lanaldi partzialaren garrantzia murriztu egin da Eskuinaldean eta Debagoiengan, baina 2005ean, lanaldi mota horren maila oso handia zen bi eskualdeetan.

Bestalde, Bilbon eta Donostialdean lanaldi partzialeko lanaren zenbatekoetan jaitsiera txikiak edo egonkortzea ikus daiteke. Ezkerraldea ere egoera berean dago, baina kasu horretan, lanaldi partzialeko landunen proportzioan hazkunde txikira joera izanik. Lanaldi partzialeko okupazioaren zenbatekoetan jaitsiera edo egonkortzea izan duten eskualdeen artean, Ezkerraldean soilik gertatu da 2005ean lanaldi partzialeko landunen proportzioa batez bestekoa baino txikiagoa izatea.

2005-2007 aldiko hazkunde handixeagoa da: Aiaran, Durangaldean eta Tolosa-Goierri 1,5 eta 2,5 puntu artekoa, nahiz eta 2005ean eskualde horietan lanaldi partzialeko okupazioaren batez bestekoa EAEkoa baino askoz txikiagoa izan. Antzeko egoera dago, halaber, Bizkaia-Kostan eta Debabarrenean, aldi horretan lanaldi partzialeko okupazioan 3,5-5 puntuko hazkundeak izan baitituzte.

Eskualde bakar batean ikus daiteke 2005-2007 aldian lanaldi partzialeko okupazioak gora egin duela, 4,6 puntu hain zuzen ere; Gasteiz da eskualde hori, eta 2005ean ere batez bestekoaren gaineko egoeratik abiatu zen. % 16,7rekin, 2007. urtean Gasteiz da lanaldi partzialeko okupazioaren eragin handiena duen eskualdea.

EAE osoan, lanaldi partzialeko okupazioak goraldia izan du azken aldian, baina horrek ez du ezkutatu behar epe luzerako joeraren errealitatea, zenbatekoetan jaitsierak edo egonkortzeak izateko joerak baitaude. Egia esan, soilik Gasteizen eta Debagoiengan igo da puntu bat baino gehiago lanaldi partzialeko okupazioaren proportzioa, 1997-2007 aldian.

Lanaldi partzialeko 16-64 urteko soldatapeko biztanleria landunaren proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera (1997-2007 aldia)
(%-etan)

	Lanaldi partzialeko landunen proportzioa
--	--

Eskualdea	1997	2001	2005	2006	2007
Gasteiz	12,8	12,5	12,1	11,3	16,7
Aiara	13,3	13,0	10,5	12,0	12,3
Eskuinaldea	11,2	10,7	14,6	11,2	9,5
Bilbo	12,4	11,1	12,1	13,1	11,8
Ezkerraldea	12,8	12,2	11,6	12,2	12,2
Bizkaia-Kosta	12,1	14,1	7,2	6,9	12,1
Durantaldea	9,5	9,1	8,6	10,6	10,1
Donostialdea	14,8	12,9	13,8	13,6	13,7
Tolosa-Goierri	12,1	9,2	7,1	11,3	9,8
Debagoiena	9,9	13,0	14,1	13,8	12,1
Debarrena	10,3	8,6	7,2	12,3	10,9
Guztira	12,6	11,8	11,8	12,1	12,4

3.4.4. Enplegua bilatzearen arabera datuak

2006. urtetik 2007. urtera atzemandako aldaketak gorabehera, joera bati eutsi egin zaio; hain zuzen ere, egun eskuragarri dagoen enpleguarekin gustura dagoen biztanleria landunaren proportzioa izugarri handitu izanarekin loturiko joera positiboari. Hortaz, 1997az geroztik % 44,8 jaitsi da enpleguz aldatu nahi dutela adierazi duten landunen kopurua, enpleguz aldatu nahi ez dutela esan dutenen kopurua, ordea, % 34,9 hazi da. 2005-2007 bitartean, joera hori sendotu egin da, enplegu berri bat bilatu nahi dutela dioten landunen bolumena % 32,1 jaitsi baita, egungo lanpostuan jarraitu nahi duten landunena, ordea, % 4 hazi da. Izan ere, beste enplegu bat lortu nahi zuten landunen proportzioa murrizten ari da oraindik 2007. urtean, biztanleria landun guztiaren % 3 izanik (2001-2006 aldiko % 4tik % 4,5era bitarteko zenbatekoen eta 1997ko % 6,9 zenbatekoaren azpitik).

16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera, beste enplegu bat bilatzearen arabera (2005-2007 aldian)

(Datu absolutuak eta hazkunde %-etan)

Beste enplegu bat bilatzen ari da	Absolutuak			Hazkunde %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Bai	42.373	39.887	28.775	-5,9	-27,9	-32,1
Ez	905.807	928.093	942.182	2,5	1,5	4,0
Guztira	948.180	967.981	970.957	2,1	0,3	2,4
Lan bila ari direnen %-a	4,5	4,1	3,0			

EAEko eskualde gehienetan azken urtean izandako bilakaera positiboan oinarrituta, beste enplegu bat bilatzen ari diren landunen proportzioaren murrizketarako joera EAEko eskualde guztietan orokorra dela esan dezakegu. Ildo beretik, eskualde gehienetan 3 puntutik 4,5 puntura bitarteko beherakadak izan dira, Bizkaia-Kosta eta Debarrena salbuespen izanik; azken horietan, jaitziera 1,8 eta 0,3 puntukoa izan da, hurrenez hurren. Bi eskualde horietan, baita

Aiaran ere, 2005-2007 aldian gora egin du lana bilatzen ari diren landunen proportzioak. Aiaran eta Bizkaia-Kostan, EAEko batez besteko mailara hurbiltzea dakar horrek, baina Debabarrenean, 2006tik 2007ra bitarte hazkunde esanguratsua sumatu da, enplegu berria bilatzen ari diren landunen proportzioa % 2,5etik % 5,3ra igarota.

**Beste lan bat bilatzen ari den 16-64 urteko biztanleria landunaren proportzioa,
eskualdearen arabera
(1997-2007 aldia)
(%-etan)**

Eskualdea	Beste enplegu bat bilatzen ari direnen proportzioa				
	1997	2001	2005	2006	2007
Gasteiz	7,9	5,0	4,3	4,4	3,5
Aiara	5,8	7,5	2,1	3,3	3,0
Eskuinaldea	4,9	5,2	5,4	4,6	1,6
Bilbo	7,4	5,2	6,4	4,3	3,1
Ezkerraldea	7,8	5,0	4,7	5,1	2,9
Bizkaia-Kosta	4,9	3,5	2,2	2,5	3,2
Durantaldea	5,8	3,7	2,7	3,0	2,1
Donostialdea	7,7	4,0	4,3	3,8	3,2
Tolosa-Goierra	5,5	2,7	4,7	3,3	2,6
Debagoiena	5,0	3,7	3,3	5,2	1,6
Debabarrena	5,6	0,5	2,8	2,5	5,3
Guztira	6,9	4,4	4,5	4,1	3,0

4. Langabeak

4.1. Egungo egoera.

Eurostat/BJA metodologia berriaren arabera, 2007. urtearen amaieran Euskal Autonomia Erkidegoan 31.400 langabe daude guztira. Langabezia-tasa biztanleria aktiboaren % 3,1 da. 16-64 urte bitartekoei dagokienez, horrek esan nahi du biztanleria guztiaren % 2,2 langabezia dagoela adin horietan.

Langabe gehienak emakumeak dira, guztirakoaren % 55. Dena den, aurreko aldiekin alderatzen badugu, generoaren arabera banaketan oreka handiagoa dagoela konturatuko gara, emakumeen langabezia-tasa gizonen tasara hurbiltzen ari baita, modu deigarrian; gizonezkoen tasa ere % 5etik behera dago (% 4,1 eta % 2,4).

16-64 urteko langabeak, sexuaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta langabezia-tasa %-etan)

Sexua	Absolutuak	%	Langabezia-tasa
Gizona	14.126	45,0	2,4
Emakumea	17.274	55,0	4,1
Guztira	31.400	100	3,1

EAEko eskualdeetako langabeziaren errealitateari dagokionez, hona hemen nabarmendu beharreko datu nagusia: azken hamarkada hauetan lehenengo aldiz, EAEko eskualde guztiek % 5eko edo hortik beherako langabezia-tasei eutsi dietela 2006. urtetik aurrera. Aurrerapena izugarria da, zeren 2005ean soilik hasi zen langabezia-tasa % 10etik behera jaisten EAEko eskualde guztietan. Langabeziaren bat-bateko beherakada da, beraz, mende berriaren hasierako urteetako bilakaeraren bereizgarri, 2007. urtean sendotuta.

Gaur egungo langabezia-tasak oso txikiak dira eskualde gehienetan. Aiaran, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan % 1,5 inguruko mailak dituzte, eta Gasteizen eta Durangaldean % 2 ingurukoak. Bizkaia-Kostan, Donostialdean eta Debabarrenean % 2,5etik % 3ra bitarteko zenbatekoetan dabilta. Zenbateko handienak Bilbo inguruko hiru eskualdeetan aurkituko ditugu. Eskuinaldean eta Ezkerraldean % 4 inguruko maila dute eta Bilbon % 4,9, mailarik handiena izanik, baina % 5aren azpitik, betiere.

Eskualdearen arabera, langabeziaren errealitatea ez da modu berean jasotzen generoa kontuan hartuta aztertzen badugu egoera. Gizonen kasuan, 2005ean esan zitekeen EAEko ia eskualde gehienetan enplegu bete teknikoaren egoerak zeudela. Zirkunstantzia hori areagotu egin da 2006an, Bilbo inguruko hiru eskualdeetako enplegu-tasak % 3tik % 3,5era bitartekoak

baitira gehienez. EAEko gainerako eskualdeetan, gizonezkoen langabezia-tasa % 2,5ekoa edo hortik beherakoa da, eta % 2ko zenbatekoak edo hortik beherakoak dituzte Gasteizen, Aiaran, Durangaldean, Tolosa-Goierri, Debagoienean eta Debabarrenean. Debagoiena da gizonezkoen langabezia-tasarik txikiena (% 0,7) duena.

Emakumeen kasuan, 2005etik 2006ra bitarteko aurrerapen handiei esker, eskualde gehienak % 5etik beherako mailan daude oraindik ere. Langabeziaren kopuruak % 3tik beherakoak dira Tolosa-Goierri eta Debagoienean, baita Aiaran eta Gasteizen ere. Zenbatekoak txikiak dira oraindik (% 3-4) Bizkaia-Kostan, Durangaldean eta Donostialdean, eta % 4,5etik % 5era bitartekoak Ezkerraldearen eta Debabarrenaren kasuan. Bilbon eta Eskuinaldean, ordea, % 5eko maila gainditzen dute: Eskuinaldean langabezia-tasa % 5,5 da eta Bilbon % 6,7.

2005. urtean eta 2006. urtean gertatzen zen bezala, langabe guztien artean gizonen proportzioa emakumeena baino handiagoa da EAEko zenbait eskualdetan; 2007an hori gertatzen da Gasteizen eta Donostialdean. Langabezia-tasak, ordea, handiagoak dira orain ere emakumeen artean eskualde guztietan, oro har, gizonezkoen langabezia-tasa baino puntu 1etik 2,5 puntura bitarte ginetik baitaude, nahiz eta alde horiek txikiagoak diren Gasteizen eta Donostialdean. Bilbon eta Debabarrenean, emakumeen langabezia-tasak gizonenak baino 3 puntutik gora handiagoak dira.

Gizonen eta emakumeen langabezia-tasak elkarrekin aztertzen baditugu, hiru eskualde mota handi bereiz ditzakegu:

a) Lehenengo taldean honako eskualde hauek sartzen dira: gizonen eta emakumeen langabezia-tasak oso txikiak dituzten eskualdeak, % 3ko edo hortik beherako mailak dituztenak. Talde horretan daude Gasteiz, Aiara, Tolosa-Goierri eta Debagoiena.

b) Bigarren taldean honako eskualde hauek biltzen dira: gizonen langabezia-tasak % 3koak edo hortik beherakoak dituztenak, eta emakumezkoen langabezia-tasak % 3tik % 5era bitarte dituztenak. Ezkerraldea, Bizkaia-Kosta, Durangaldea, Donostialdea eta Debabarrena eskualdeak daude, hain zuzen ere, egoera horretan.

c) Hirugarren taldean honako eskualde hauek daude: enplegu bete teknikoaren egoerak gizonei nahiz emakumei eragiten dietenak, % 5etik hurbil dauden langabezia-tasak dituztenak, ordea, baina tasa horiek % 5etik gorakoak dira emakumeen kasuan. Eskuinaldea eta Bilbo talde horretan daude, emakumeen langabezia-tasa % 5,5 eta % 6,7 baitituzte, hurrenez hurren.

Langabezia-tasa 16-64 urtekoetan, sexuaren eta eskualdearen arabera

(%-etan)

Eskualdea	Sexua			Emakume langabeak %-etan
	Gizona	Emakumea	Guztira	
Gasteiz	2,0	2,2	2,1	42,5
Aiara	1,2	2,2	1,6	56,8
Eskuinaldea	3,2	5,5	4,2	56,6
Bilbo	3,5	6,7	4,9	60,0
Ezkerraldea	3,0	4,9	3,8	53,5
Bizkaia-Kosta	2,3	3,9	3,0	55,1
Durungaldea	1,0	3,2	1,9	69,2
Donostialdea	2,5	3,2	2,8	49,9
Tolosa-Goierra	1,3	2,1	1,6	53,9
Debagoiena	0,7	2,3	1,4	73,1
Debarrena	1,1	4,6	2,5	71,6
Guztira	2,4	4,1	3,1	55,0

Langabezia-egoera gehienak gazteen taldeetan biltzen dira, baina ez nahitaz gazteen artean. Horrela bada, langabeen % 17,1 besterik ez dira 25 urtetik beherakoak. Aitzitik, proportzio hori % 37,2ra iritsi da 25-34 urtekoetan. 35-49 urtekoen taldean langabe guztien % 32 biltzen da, 50 urtetik gorakoak % 13,6 soilik direla. Praktikan, arazo horren muin nagusia 20 urtetik 39 urtera bitartekoetan biltzen da, egiaz; langabezia-egoeren % 64,2 osatzen dute.

Hala ere, erlatiboki begiratuta, langabeziaren eragin nabarmenena 20 urtetik beherakoei dagokie oraindik ere, % 8,4ko langabezia-tasa baitute, baina 2006. urteaz geroztik % 10etik behera dago, ordea. Tasak handiak dira oraindik 20-24 urtekoetan, % 7,9ra iristen baitira, baina % 5etik behera daude jada 25-29 urtekoetan (% 4,7). Adin horretatik aurrera, tasak nabarmen jaisten dira eta % 3,5ean kokatu dira 30-34 urtekoetan, eta % 2tik % 2,5era bitarte 35-54 urtekoetan. Edonola ere, 55-64 urtekoetan, langabezia-tasak % 1,5era inguratu dira.

16-64 urteko langabeak, adinaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta langabezia-tasa %-etan)

Adina	Absolutuak	%	Langabezia-tasa
16-19 urte	589	1,9	8,4
20-24 urte	4.794	15,3	7,9
25-29 urte	6.358	20,2	4,7
30-34 urte	5.314	16,9	3,5
35-39 urte	3.683	11,7	2,6
40-44 urte	3.592	11,4	2,3
45-49 urte	2.788	8,9	2,1
50-54 urte	2.458	7,8	2,2
55-59 urte	1.240	3,9	1,6
60-64 urte	584	1,9	1,7
Guztira	31.400	100	3,1

Langabezia-tasak adinaren eta eskualdearen arabera aztertuz gero, EAEko zenbait eskualdetan gazteen langabezia-tasa oraindik ere oso handia dela konturatuko gara, % 10etik gorakoa. Esate baterako, Eskuinaldean, Bizkaia-Kostan eta Tolosa-Goierri % 11tik % 13,5era bitarteko tasa dute. Langabezia-tasa txikiagoa duten arren, oraindik ere % 8-9 ingurukoa da Bilbon, Ezkerraldean eta Debabarrenean, eta % 6tik % 6,5era bitartekoa Gasteizen, Donostialdean eta Debagoiengan. % 5etik beherako tasak Aiaran eta Durangaldean soilik aurkituko ditugu.

25 urtekoen edo gehiagoko kasuan, % 5etik beherako langabezia-tasak dituzten eskualdeak gehiago dira. Egia esateko, hamaika eskualdeetatik bederatzik bizi dute egoera hori 2007. urtearen amaieran. Eskuinaldea eta Bilbo eskualdeetan soilik dago % 5etik gorako langabezia-tasa 25 urtetik gorako arteen; hain zuzen ere, % 6,5 inguru 25-34 urtekoetan.

Adinaren araberako langabezia-tasa espezifikokoak batera aztertuta, EAEn lau egoera mota bereiz daitezke eskualdeei dagokienez:

a) Zenbait eskualdetan, langabezia-tasak % 5etik beherakoak dira adin guztietan. 2007. urtean, Aiara eta Durangaldea soilik daude errealitate horretan. Bi kasuetan, zenbatekoak % 3tik % 4ra bitartekoak dira 25 urtetik beherakoetan, eta % 2tik beherakoak 25 urtetik gorakoetan.

b) Beste eskualde batzuetan, aurreko egoera horretan daude 25 urtetik gorako talde guztiak, orokorrean, baina hortik beherakoetan, langabezia-tasa % 5 baino zertxobait handiagoa da, betiere % 7,5etik behera. Egoera horretan daude Gasteiz, Donostialdea eta Debagoiena. Kasu horietan, gazteen gehieneko langabezia-tasa % 6,6 da Gasteizen, eta 25 urtetik gorako arteen, oro har, % 2 inguruko edo hortik beherako zenbatekoak, salbuespen batekin: 25-34 urteko arteen % 3,9 da Donostialdean.

c) Ezkerraldean eta Debarrenean, gazteen langabezia-tasak % 8-9 dira, eta 25-34 urtekoetan % 4ko maila gainditzen da. 35 urtetik gorakoei dagokienez, Ezkerraldean % 3 inguruko edo hortik beherako tasak dituzte, eta % 1,5etik beherakoak Debarrenean. Debarrenaren kasuan, langabezia-tasa orokorra EAEko batez bestekoa baino nabarmen txikiagoa da (% 2,5, eta Ezkerraldean % 3,8).

d) Bizkaia-Kostan eta Tolosa-Goierri, gazteen langabezia-tasak % 10etik gorakoak dira, 25 urtetik gorakoen tasak, oro har, % 2tik beherakoak izanik; salbuespen gisa, Bizkaia-Kostan, 25-34 urtekoetan % 4,8 da. Azken egoera hori dela-eta, Bizkaia-Kostaren langabezia-mailak, oro har, handiagoak dira, betiere EAEkoaren antzekoak (% 3, eta Tolosa-Goierri soilik % 1,6).

f) Eskuinaldean eta Bilbon, hauxe da ezaugarri bereizgarria: 25-34 urtekoetan langabeziak eragin handia duela, % 6,5 inguruko zenbatekoekin. Gainera, gazteen langabezia-tasak nahikoa handiak dira, bereziki, Eskuinaldean (% 12,4, eta Bilbon % 8,1). 35 urteko edo hortik gorakoen artean, tasak % 3tik % 4ra bitartekoak dira Bilbon, baita 35-49 urtekoetan ere, Eskuinaldean. Aipatutako egoera horri esker, langabezia-tasa orokorrak % 4tik gorakoak dira bi eskualdeetan.

Langabezia-tasa 16-64 urtekoetan, adinaren eta eskualdearen arabera
(%-etan)

Eskualdea	Adina				
	< 25 urte	25-34 urte	35-49 urte	> 50 urte	Guztira
Gasteiz	6,6	1,8	1,8	1,6	2,1
Aiara	3,1	1,8	1,8	0,4	1,6
Eskuinaldea	12,4	6,4	2,9	1,1	4,2
Bilbo	8,1	6,7	4,1	3,3	4,9
Ezkerraldea	9,0	4,6	2,5	3,2	3,8
Bizkaia-Kosta	13,3	4,8	1,8	0,7	3,0
Durantaldea	4,0	1,9	1,7	1,8	1,9
Donostialdea	6,2	3,9	2,1	1,5	2,8
Tolosa-Goierri	10,9	1,1	0,7	0,9	1,6
Debagoiena	5,8	2,3	0,8		1,4
Debarrena	8,1	4,2	0,7	1,4	2,5
Guztira	8,0	4,1	2,4	1,9	3,1

Langabeen taldeko barne-ezaugarriak aztertzea interesgarria izan daiteke. Langabezia-egoeran emandako denboraren aldagaia kontuan hartuz gero, egiazta dezakegu 2001ean izandako aldaketa sendotu egin dela 2007an. 2001ean ikusten zen EAEko langabe gehienak iraupen laburreko edo ertaineko langabeak zirela. Langabeen % 63k urte bat baino gutxiago

darama langabezia-egoeran. Langabeen % 36,8k urte bat baino gehiago darama langabezia-egoeran, eta bi urtetik gora lan bila daramaten langabeen proportzioa % 16,8 da.

16-64 urteko langabeak, langabezia-egoeran emandako denboraren arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Langabezia emandako denbora	Absolutuak	%
< urte 1	19.776	63,0
1-2 urte	6.264	19,9
> 2 urte	5.290	16,8
Ez dago lanerako prest	70	0,2
Guztira	31.400	100

Luzaroko langabeziaren eraginari dagokionez, eskualdeen arteko aldeak nabarmenak dira. Ildo beretik, Aiara, Eskuinaldea eta Ezkerraldea eskualdeen kasuan, zenbatekoak % 37tik % 39ra bitartekoak dira, Gasteizen % 44,1 eta Bilbon % 46,9. Aldiz, % 34 inguruko mailara murriztu dira zenbatekoak Durangaldean eta Debarrenean, eta luzaroko langabeen proportzio txikiak Donostialdean eta Debagoienean aurkituko ditugu (% 26 eta % 27,5, hurrenez hurren), eta, batez ere, Bizkaia-Kostan eta Tolosa-Goierri, bi eskualdeetan % 25etik beherako mailak dituztela.

Luzaroko (urtebete baino gehiago) langabeen proportzioa, eskualdearen arabera
(%-etan)

Eskualdea	Luzaroko langabeen %-a
Gasteiz	44,1
Aiara	39,0
Eskuinaldea	39,0
Bilbo	46,9
Ezkerraldea	36,8
Bizkaia-Kosta	21,3
Durangaldea	34,3
Donostialdea	27,4
Tolosa-Goierri	23,4
Debagoiena	25,9
Debarrena	33,9
Guztira	36,8

Langabeen alde aurreko lan-esperientzia kontuan hartzen badugu, honako hau egiaztatuko dugu: hamar langabetatik bederatzik baino gehiagok (% 92,1) lan-esperientziaren bat izan du egungo langabezia-egoeran egon aurretik. Hortaz, funtsean, langabezia mota horretan, lana bilatzen ari direnek badute alde aurreko esperientziaren bat lanean hasi aurretik.

16-64 urteko langabeak, alde aurreko lan-esperientziaren arabera

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Aldez aurreko lan-esperientzia	Absolutuak	%
Bai	28.930	92,1
Ez	2.400	7,6
Ez dago lanerako prest	70	0,2
Guztira	31.400	100

Deskribatutako errealitate hori ikus daiteke EAEko eskualde guztietan, eta soilik bi eskualdek gainditzen dute zertxobait % 10eko maila: Eskuinaldeak (% 13,4) eta Bilbok (% 10,2).

Aldez aurreko lan-esperientziarik gabeko langabeen proportzioa, eskualdearen arabera (%-etan)

Eskualdea	lan-esperientziarik gabeko langabeak %-etan
Gasteiz	6,6
Aiara	7,5
Eskuinaldea	13,4
Bilbo	10,2
Ezkerraldea	8,2
Bizkaia-Kosta	9,6
Durangaldea	7,3
Donostialdea	2,2
Tolosa-Goierri	1,6
Debagoiena	7,4
Debarrena	3,0
Guztira	7,6

4.2. Azken aldiko bilakaera.

LMEaren aurreko eragiketetan azaldutako arrazoiak direla medio, langabeziari buruzko datuen bilakaeraren azterketa jatorrizko BJA metodoari dagozkion datuekin landuko da, 2001. urtera bitarte —urte hori barne—, eta data horretatik aurrera, Eurostat metodo berriari dagozkion datuak hartuko dira aintzat. Erabaki horren ondorioz, 2005etik 2007ra bitarteko datuetan areagotu egiten dira jarraian aipatuko ditugun joerak, baina inolaz ere zalantzan jarri gabe.

Ebaluazioari buruz eskuragarri ditugun datuak aztertzeari ekinda, honako hau da kontuan hartu behar dugun funtsezko alderdia: 1997-2007 aldian langabezia-mailen murrizketa-prozesu garrantzitsu eta bizkorra sendotu da. Euskadiko langabeziaren azken aldiko bilakaera bereziki mesedegarria da, langabeen guztirako zenbatekoan gainbehera izugarria izan baita, 1997an 190.885 izatetik 2001ean 95.085, 2005ean 49.100 eta 2007an 31.400 izatera iritsita. Bilakaera hori zein garrantzitsua den ikusteko, gogorarazi behar dugu hamar urtean langabezia % 83,6 murriztu dela Euskadin, 2007ko maila txikietara iristeko (% 3,1).

1993-1997 bitartean langabeziaren murrizketa handia izan zen, langabeen zenbatekoan % 20ko beherakadarekin, baina 1997-2005 aldian prozesu hori sendotu egin zen, langabe kopuruan % 50 inguruko jaitsiera izanik, bai 1997-2001 aldian (%-50,2), bai 2001-2005 aldian (%-48,4). 2005-2006 bitartean, beherakadaren intentsitatea areagotu ere egiten da, langabezia-zenbatekoak % 30,5 jaitsi baitira. Beheranzko joerari eutsi zaion arren, 2006tik 2007ra joera hori % 7,9ra murriztu da. Hala ere, 2005-2007 aldi osoan langabezia % 36 jaitsi da.

Termino erlatiboetan, 1997-2007 aldian langabeziak izandako beherakada nabarmena izan da bereziki 35 urtetik gorakoetan. Izan ere, langabezia-zenbatekoak % 89,4 jaitsi dira 25 urtetik beherakoetan, eta % 84,4 25-34 urtekoetan. Jaitsiera oraindik handiagoa da 35-49 urtekoetan (% 80,3). Baita 50 urtetik gorakoetan ere, langabe kopurua % 70,1 murriztuta. Bestalde, 1997-2007 aldian langabeziak izandako bilakaerari erreparatuta, argi geratu da langabeziaren bolumena gehiago murrizten dela adinean behera egin ahala, eta urte hauetan egonkor samarra dela egoera hori.

Gazteenen taldeetan izandako jaitsiera erlatibo handiagoak alde batera utzi gabe, aipatu behar dugu langabezia-murrizketaren eragin absolutua handiagoa dela tarteko adin-multzoetan. 2001-2007 aldian langabezia-bolumenean izandako jaitsiera garbiaren banaketa eginez gero, batik bat, 25-34 urteko eta 35-49 urteko biztanleriari dagokiela ikusiko dugu (% 38,5 eta % 31,9, hurrenez hurren). Beraz, langabe kopuruaren jaitsiera garbiaren % 70,4 25-49 urtekoekin loturik dago, 1993-2001 aldiko % 55 gaindituta. Izan ere, aldi horretan erabakigarria izan zen 25 urtetik beherakoen artean langabeziak izandako jaitsiera, talde horrek guztirako jaitsieraren % 42,4 osatu baitzuen, 2001-2007 aldian, ordea, % 20,4 osatu zuten.

2005-2007 aldian ikusitakoak bereziki erakusten du hobekuntzak tarteko adinetako lagunetan gehiago metatzek joera dagoela. Horrela, biurteko horretan, langabeziaren zenbatekoen jaitsiera absolutuaren % 78,7 25-49 urtekoen dagokie, 2001-2005 aldian % 67,1, eta 1997-2001 aldian % 61,7.

Nolanahi ere, 35 urtetik gorakoen artean langabezia-murrizketaren eragin kuantitatiboa nabarmentzeko moduko datua da azken urteotan. Hori horrela dela, azken urteotako langabeziaren jaitsiera absolutuaren banaketan 25 urtetik beherakoek garrantzia galdu badute ere (1997-2001 aldian jaitsieraren % 34, eta 2001-2007 aldian % 20,4), eta, funtsean, 25-34 urtekoen garrantzi erlatiboari eutsi egin zaion arren (1997-2001 aldian, % 40,2ko jaitsiera, 2001-2006 bitartean, % 38,5ekoa), 35 urtetik gorakoen garrantzia nabarmen handitu da. 1997-2001 aldian, 35 urtetik gorakoek langabeziaren jaitsiera guztiaren % 25,8 biltzen zuten eta 2001-2007 bitartean % 41,2 (% 38,8 2005-2007 aldian). Azken aldiko bilakaera mesedegarria da, halaber,

50 urtetik gorakoentzat 2006. urtera arte, talde horrek okupazio berriaren % 2,6 biltzen zuen 1993-2001 bitartean, baina % 9,3 2001-2007 aldian.

Deskribatu dugun bilakaera-prozesuan bada aipatu beharreko datu negatibo bat, hain zuzen ere, 2006tik 2007ra bitarte izandako langabeziaren gorakada txikiarekin loturik, 50-64 urtekoen kasuan. Datu negatibo hori ez da oso garrantzitsua termino kuantitatibotan; izan ere, 2006an adin horietako 4.146 langabe izatetik 2007an 4.282 izatera igaro zen. Baina garrantzitsua da joera-aldaketa adierazten duelako, adin-multzo handi bakarra baita mende berriaren hasierako urtetan langabeziaren zenbatekoen etengabeko jaitsierarako joera eten duena azken urtean.

Bere garaian egiaztatu ahal izan genuen okupazioaren hazkundera emakumeentzat izan zela batez ere mesedegarri 1997-2007 bitartean, langabeziaren jaitsieraren eragin erlatiboa, ordea, orekatuagoa da generoaren arabera. Izan ere, 1997tik 2007ra bitarteko aldian, emakumezkoen langabezia-bolumena % 84,8 jaitsi da; jaitsiera hori gizonetan % 81,7 da. 1993tik 1997ra gizonetzkoen langabezia gehiago murriztu zen (%-29,1 gizonen artean, eta emakumeetan %-12,3) baina joera hori neutralizatu egin zen 1997-2001 aldian, bi generoetan antzeko jaitsiera izan baitzen (% 50,6 gizonetan eta % 49,9 emakumeetan); 2001-2005 aldian konpentsatuta geratu zen, emakumeen kasuan gainbehera askoz handiagoa izanik (%-55,1, eta gizonetan %-38,3).

2001-2005 aldian, ordea, aldaketa deigarri batzuk atzeman dira. Emakumeen artean langabeziaren jaitsiera handiago hori 2001-2003 bitartean gertatu zen, egiaz; izan ere, aldi horretan emakumeen langabezia-bolumena % 16,6 murriztu zen, gizonetzkoen langabezia, ordea, % 3,1 hazi zen. 2003. urtetik aurrera, zenbatekoak orekatuagoak dira, emakumeen kasuan langabeziaren jaitsiera handiagoa den arren (emakumeen artean % 46,1eko jaitsiera, eta gizonetan % 40,2). 2005-2006 aldian, langabeziaren jaitsiera zertxobait handiagoa da gizonen kasuan (% 34,3, eta % 27,1 emakumeetan). Aldaketa hori sendotu egin da 2006tik 2007ra bitarte, gizonetan % 8,6ko jaitsierarekin eta emakumeetan % 7,4. Oro har, 2005-2007 aldian langabezia % 39,9 murriztu da gizonen artean eta % 32,5 emakumeen artean.

**16-64 urteko langabeen bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera
(1997-2007 aldian)¹³
(Datu absolutuak)**

Sexua eta adina	Absolutuak					
	1997	2001	2003	2005	2006	2007
Gizonak	77.115	38.109	39.287	23.506	15.448	14.126

¹³ 2001. urtera arte —urte hori barnean hartuta—, BJA metodologia zaharraren arabera aurkeztu ditugu LMEn zenbatekoak.

Emakumeak	113.770	56.976	47.494	25.594	18.652	17.274
< 25 urte	50.920	18.347	19.924	8.553	5.956	5.383
25-34 urte	74.679	36.159	32.790	19.334	12.540	11.672
35-49 urte	50.977	30.381	25.666	16.334	11.458	10.064
50-64 urte	14.310	10.197	8.402	4.879	4.146	4.282
Guztira	190.885	95.085	86.781	49.100	34.100	31.400

(Hazkundera %-etan)

Sexua eta adina	Hazkundera %-etan					
	07/06	06/05	07/05	05/01	01/97	07/97
Gizonak	-8,6	-34,3	-39,9	-38,3	-50,6	-81,7
Emakumeak	-7,4	-27,1	-32,5	-55,1	-49,9	-84,8
< 25 urte	-9,6	-30,4	-37,1	-53,4	-64,0	-89,4
25-34 urte	-6,9	-35,1	-39,6	-46,5	-51,6	-84,4
35-49 urte	-12,2	-29,8	-38,4	-46,2	-40,4	-80,3
50-64 urte	3,3	-15,0	-12,2	-52,2	-28,7	-70,1
Guztira	-7,9	-30,5	-36,0	-48,4	-50,2	-83,6

Langabeziari buruz aurkeztu ditugun datuetan langabezia-tasaren beherakada handia jasotzen da. Tasa orokorrak honako bilakaera hau izan du: 1993an % 25,9, 1997an % 20,3, 2001ean % 9,9, 2003an % 8,9, 2005ean % 4,9, 2006an % 3,4 eta 2007an % 3,1. 2005-2007 bitartean, hortaz, eutsi egin zaio langabezia-tasari dagokionez, aurreko urteetan izandako benetako murrizketari.

Adinean behera egin ahala, langabezia-tasak hobeagoak dira. Hori horrela izanik, gazteen langabeziaren murrizketa handia nabarmendu behar dugu, 1997an % 42 izatetik 2007an % 8 izatera jaitsi baita. Dena dela, 25-34 urtekoetan ere deigarria da jaitsiera —% 24,6tik % 4,1era—. Era berean, jaitsiera oso deigarria da 35-49 urtekoetan (% 14,4tik % 2,4ra) eta 50 urtetik gorakoetan (% 8,8tik % 1,9ra). Bi adin-talde horietan, tasen jaitsierak % 3tik beherako langabezia-zenbatekoetara garamatza aldi horren bukaeran, nahiz eta tasa egonkortu egin den 2006tik 2007ra bitarte 50 urtetik gorako kasuan.

Sexuaren aldagaia kontuan hartuta, bilakaera askoz mesedegarriagoa da emakumeentzat 1997-2007 aldi osoan. Emakumeen langabezia-tasa % 29,8tik % 4,1era jaitsi da 1997-2007 aldian. Gizonezkoen langabezia-tasa, ordea, garrantzizkoa da, % 13,8tik % 2,4ra igarotzen baita aztertutako aldian.

Emakumearen mesederako jaitsiera-aldea erabakigarria da 1997-2001 aldian. Aldi horretan, emakumezkoen langabezia-tasa 15,3 puntu jaitsi da, gizonezkoena, aldiz, 7,1. 2001-2005 laurtekoan aldeak txikiagoak izan arren, joera egonkortu egin da: emakumeen langabezia-tasetan 8,3 puntuko murrizketa izan da, eta gizonetan 2,7koa. 2005-2007 aldian, ordea, oreka

handiagoa da: emakumezkoen langabezia-tasaren jaitsiera 2,1 puntukoa da, gizonezkoena, ordea, 1,6 puntukoa da.

Langabezia-tasen bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera (1997-2007 aldian)
(%-etan)

Sexua eta adina	Langabezia-tasak					
	1997	2001	2003	2005	2006	2007
Gizonak	13,8	6,7	6,9	4,0	2,7	2,4
Emakumeak	29,8	14,5	11,5	6,2	4,4	4,1
< 25 urte	42,0	19,3	20,8	11,0	8,3	8,0
25-34 urte	24,6	12,0	10,8	6,5	4,3	4,1
35-49 urte	14,4	8,1	6,8	4,0	2,7	2,4
50-64 urte	8,8	5,6	4,1	2,3	1,9	1,9
Guztira	20,3	9,9	8,9	4,9	3,4	3,1

EAEko eskualde gehienetan, langabeen bolumenak gutxienez % 80ko gainbehera izan du 1997-2007 aldian. Beherakada handienak (% 90 ingurukoak) Aiaran, Durangaldean eta Tolosa-Goierriin gertatu dira aldi horretan. Gainerako eskualdeei dagokienez, beherakada % 80tik % 85era bitartekoa da, Eskuinaldea soilik urruntzen da zertxobait zenbateko horietatik (% 77,9).

2005-2007 biurtekoan ikusitako bilakaerak erakusten du, orokorrean, langabeziaren beherakada erlatiboaren erritmo handiaren jarraipena dela. % 45etik gorako beherakadak bereziki nabarmenak dira Aiaran, Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Durangaldean. Proporzioa % 30etik % 35era bitartekoa da Debagoiengan, Tolosa-Goierriin eta Bizkaiko gainerako eskualdeetan. Izan ere, Bizkaiak sendotu egin baitu bere garrantzia langabeziaren jaitsiera-prozesuan aldi honetan, 2005-2007 bitartean ikusitako jaitsieraren % 81,4 biltzen baitu, 2001-2005 bitartean ikusitako % 61,4 (zenbateko hori ere handia zen) eta 1997-2001 aldiko % 56,4 gaindituta. Bizkaia barruan, Bilbo eta Ezkerraldea eskualdeek duten garrantzia funtsezkoa da, aztertutako jaitsieraren % 56,2 biltzen baitute (% 46,5, 2001-2005 bitartean, eta % 41,1 1997-2001 bitartean). Baina gainerako eskualdeek langabezia-zenbatekoen murrizketan duten parte-hartzea ere handitu da, bereziki Durangaldearen eta Bizkaia-Kostaren kasuan: 1997-2001 aldian % 8,8, 2001-2005 aldian % 7,5, 2005-2007 aldian % 15,9. Eskuinaldearen kasuan, 2006. urtera arte ere goranzko joerari eutsi zion: 1997-2001 aldian % 6,5, 2001-2005 aldian % 7,3, eta 2005-2006 aldian % 19,5. Eskuinaldean, ordea, langabeziak gorakada handia izan du 2006tik 2007ra bitarte, 2006an 1.728 langabe izatetik 2007an 3.186 izatera iritsita.

Indar gutxiagorekin bada ere —Donostialdea eta Debabarrena eskualdeetan batik bat, % 23,5 eta % 7 jaitsi baita— langabezia jaisten ari da oraindik Gipuzkoako eskualde guztietan. 2005ean langabezia-maila txikia zenez gero, eragin kuantitatiboak, ordea, mugatuak dira lurralde horretan. 2005-2007 aldiko langabeziaren jaitsiera absolutuaren % 14,7 soilik metatzen

da Gipuzkoan. Bizkaian bezalaxe, kasu horretan ere langabeziak gora egin du 2006-2007 aldiko erreferentziako eskualde batean; Debabarrenean, alegia: 472 langabetik 605 langabera igaro da. Zenbateko horiek, ordea, ez dira batere esanguratsuak termino absolutuetan.

2006tik 2007ra bitarte, Araban, langabeziaren bilakaera positiboa da, eskualde guztietan jaitsi baita nabarmen langabezia eta horri esker, 2005-2006 aldiko gorakada arindu da. Lurralde historiko horretan, langabeziak berriz ere gorantz egitea ez zen zerbait berria, hori ikusi baitzen 2001-2003 aldian; nahiz eta hurrengo bi urteetan langabezia-zenbatekoetan ikusitako jaitsiera garrantzitsuari esker beherakada arindu ahal izan zen, 2006. urtetik aurrera gertatutakoaren ildoari jarraiki. Hala ere, orokorrean, Aiara nabarmentzen da 2005-2007 aldiko langabezia-jaitsiera EAEko batez bestekoa baino handiagoa izan zuelako, baina Gasteizen kasua bestelakoa izan da: aldi horretan langabeziaren jaitsiera orokorra (% 11,9) izan zuen, EAEko txikienekoa, alegia. Izan ere, Arabak % 4ko ekarpena baino ez dio egin EAEko langabeziaren zenbateko absolutuen murrizketari 2005. urtetik 2007. urtera bitarte.

Langabezia-tasei dagokienez, eskualde guztietan bilakaera oso positiboa da. 1997-2007 bitartean, tasek izandako hobekuntza, orokorrean, oso garrantzizkoa da, Bilbon eta Ezkerraldean 20 puntutik gorako beherakadak izan baitira, Aiaran, Eskuinaldean, Durangaldean, Donostialdean eta Debabarrenean 15 puntutik 17,5 puntura bitartekoak eta Gasteizen, Bizkaia-Kostan eta Tolosa-Goierriin 13tik 14ra bitartekoak. Beherakada 8,3 puntura jaitsi den arren Debagoienean; hori gertatzen da 1997an eskualde horrek soilik zuelako % 10etik beherako langabezia-tasa. Debagoienak, 2007an, eutsi egin dio daukan toki pribilegiatuari; izan ere, EAEko langabezia-tasa txikiena duen eskualdea da.

Azken aldiko bilakaera, oro har, ona izaten ari da oraindik, baina aurreko urteetan baino modu zehaztuagoan. Betiere % 3tik beherako mailan, langabezia-tasak egonkortzeko joera du Donostialdean eta Debagoienean, eta goranzko joera txiki bat Debabarrenean. Alabaina, Eskuinaldeko eta Bilboko aldaketa kezagarriagoa da. Bilbon langabezia-tasa maila nahikoa handietan egonkortu dela esan daiteke, EAEn testuinguruan (2007an % 4,9 eta 2006an % 4,8), eta Eskuinaldean tasa hori % 2,4tik % 4,2ra igo da 2006. urtetik 2007. urtera. Aldiz, gainerako eskualdeetan, hau da, Arabako eskualdeetan, Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan, Durangaldean eta Tolosa-Goierriin, tasak gutxienez 0,5 puntu jaitsi dira 2006tik 2007ra bitarte.

Nolanahi ere, nabarmendu behar da 2007an EAEko eskualde guztiek 2005ean baino langabezia-maila askoz txikiagoak dituztela, 2005-2007 biurtekoan hobekuntza garrantzitsuak lortuta Aiaran eta Bizkaiko eskualde guztietan. Eta 2005etik 2006ra bitarte langabezia-tasek gora egin arren Araban, baita 2006tik 2007ra bitarte Bilbon, Eskuinaldean eta Debagoienean ere, azken aldiko bilakaera ezohikoa da, zalantzarik gabe. Kasu guztietan, 1993an tasa guztiak % 20tik gorakoak zirela kontuan hartzen badugu, EAEko eskualde bakar batek ere ez zuen

gainditzen % 10eko muga 2005ean, gehieneko zenbatekoa % 4,9 izanik Bilbon 2007an. Hortaz, bazirudien azken hamalau urte hauetan langabezia masiboaren arazoa behar bezala bideratu zela EAEko eskualde guztietan.

**16-64 urteko langabeen bilakaera, eskualdearen arabera
(1997-2007 aldian)**

(Datu absolutuak, % bertikalak eta langabezia-tasa %-etan)

Eskualdea	Langabeak				Hazkundera %-etan				Langabezia-tasa			
	1997	2005	2006	2007	07/97	06/05	07/06	07/05	1997	2005	2006	2007
Gasteiz	18.072	3.033	3.592	2.673	-85,2	18,4	-25,6	-11,9	15,3	2,4	2,8	2,1
Aiara	3.344	667	1.008	327	-90,2	51,1	-67,6	-51,0	17,7	3,4	5,0	1,6
Eskuinaldea	14.427	4.825	1.728	3.186	-77,9	-64,2	84,4	-34,0	21,5	6,3	2,4	4,2
Bilbo	40.676	11.217	7.708	7.687	-81,1	-31,3	-0,3	-31,5	25,6	7,2	4,8	4,9
Ezkerraldea	44.373	13.088	8.100	6.666	-85,0	-38,1	-17,7	-49,1	25,9	7,3	4,5	3,8
Bizkaia-Kosta	8.440	3.197	1.846	1.685	-80,0	-42,3	-8,7	-47,3	17,0	5,9	3,5	3,0
Durangaldea	9.037	2.374	1.418	1.075	-88,1	-40,3	-24,2	-54,7	18,3	4,4	2,6	1,9
Donostialdea	38.225	8.137	6.530	6.225	-83,7	-19,8	-4,7	-23,5	18,5	3,7	2,9	2,8
Tolosa-Goierrri	7.181	1.275	1.192	856	-88,1	-6,5	-28,2	-32,9	14,8	2,4	2,3	1,6
Debagoiena	2.748	637	505	415	-84,9	-20,6	-18,0	-34,9	9,7	2,0	1,6	1,4
Debabarrena	4.363	651	472	605	-86,1	-27,4	28,0	-7,0	17,7	2,7	2,0	2,5
Guztira	190.885	49.100	34.100	31.400	-83,6	-30,5	-7,9	-36,0	20,3	4,9	3,4	3,1

Aipatu behar den alderdi garrantzitsu bat da 2005-2007 biurtekoa garrantzizkoa dela Bizkaian langabeziaren beherakadari dagokionez. Oro har, 1997-2007 aldian langabezia-mailetan izandako guztirako jaitsieraren % 15 inguru edo gehiago biurteko horri dagokio Bizkaiko eskualdeetan, Bizkaia-Kostan % 22,4ko gehieneko mailara iritsita. % 10,7rekin, aipaturako proportzioa EAEko batez besteko mailaren pareko dago Bilbon, eta Aiara ere antzeratsu (% 11,3), baina Debagoiena ere ez da asko urruntzen maila horietatik (% 9,5). Bilbon eta Eskuinaldean, ordea, 2005-2007 biurtekoko jaitsieraren eragina 2005etik 2006ra bitarte gertatutakoarekin lotzen da; izan ere, Bilbon, langabeziaren zenbatekoak egonkortu egin ziren eta Eskuinaldean nabarmen handitu dira 2006tik 2007ra bitarte.

1997-2007 aldian izandako langabeziaren jaitsierari 2005-2007 biurtekoak egindako ekarpena askoz txikiagoa da Gipuzkoako gainerako eskualdeetan eta Gasteizen, betiere % 7tik beherakoa.

**1997-2007 aldiko langabeziaren jaitsiera absolutuaren banaketa, aldiaren eta eskualdearen arabera
(% horizontalak)**

Eskualdea	1997-2007ko langabeziaren jaitsieraren banaketa	
	1997-2005 aldian	2005-2007 aldian
Gasteiz	97,7	2,3
Aiara	88,7	11,3
Eskuinaldea	85,4	14,6
Bilbo	89,3	10,7

Ezkerraldea	83,0	17,0
Bizkaia-Kosta	77,6	22,4
Durungaldea	83,7	16,3
Donostialdea	94,0	6,0
Tolosa-Goierri	93,4	6,6
Debagoiena	90,5	9,5
Debarrena	98,8	1,2
Guztira	88,9	11,1

2005. urtetik 2007. urtera bitarteko langabezia-tasen bilakaera eskualdearen arabera aztertuz gero, biurteko horretan langabezia-tasen beherakada nahikoa orokortua dagoela ikusiko dugu, baina 2006tik 2007ra tasa horren goranzko joeraren testuinguruan Eskuinaldeari, Debarrenari eta, hein txikiagoan, Bilbori dagokienez.

Hiru eskualde horiek badute ezaugarri komun bat: emakumeen langabezia-tasaren hazkunde esanguratsua. Debarrenean eta Eskuinaldean, 2006an % 3tik % 3,5era bitarteko zenbatekoetan zeuden, eta 2007. urtean % 4,6tik % 5,5era bitarte. Bilbok % 5,9ko tasa zuen oraindik 2006an, eta hortik abiatuta, 2007an % 6,7ra iristea lortu du, EAEko emakumeen langabezia-tasarik handienera. Gizonezkoen langabeziaren bilakaera ez dator bat eskualde horietan; izan ere, Bilbon % 4tik % 3,5era murriztu da eta Debarrenean % 1en inguru egoten jarraitzen du. Eskuinaldean, gizonezkoen langabezia-tasa % 1,8tik % 3,2ra igo da, langabeziaren indize orokorrean eskualde horren kasuan atzemandako bilakaera txar diferentziala sendotuta. Horrela, bada, Eskuinaldearen langabezia-tasa orokorra 1,8 puntu handitu da 2006-2007 aldian, % 2,4tik % 4,2ra igota; Debarrenaren kasuan, ordea, bost hamarren baino ez (% 2tik % 2,5era) eta hamarren bat Bilbon (% 4,8tik % 4,9ra).

Aipatutako goranzko joera horietaz gain, zenbait eskualdetan langabezia-tasa espezifiko batzuk egonkortu egin direla atzeman da. Donostialdearen kasuan, bi sexuei eragiten die horrek, nahiz eta emakumeen langabezia-tasa oraindik ere zertxobait jaisten ari den. Tasak egonkortzeko prozesua murriztu egin da gizonen artean Gasteizen, baina 2005. urtearekin alderatuta, hazkundearen ikuspegitik begiratuta (% 2 2006an eta 2007an, eta soilik % 1,4 2005ean). Bestalde, Debagoienean gehienbat emakumeen artean sumatzen da egonkortzeko joera. Alabaina, Bilbon, Eskuinaldean eta Debagoienean ikusitakoaren aurrean, aipatutako hiru eskualde horiek bereziak dira, alde batetik, 2006-2007 aldian sexuaren arabeko tasa espezifikoren batean gorakada deigarririk ez dutelako izan, eta bestetik, 2007an tasa espezifiko oso txikiei eusteagatik kasu guztietan. Emakumeei dagokienez, Donostialdean lortu da gehieneko maila (% 3,2).

EAEko gainerako eskualdeetan –Aiara, Ezkerraldea, Bizkaia-Kosta, Durangaldea eta Tolosa-Goierrri-, sexuaren arabera langabezia-tasa espezifikoak gutxieneko mailara iritsi dira 2007. urtean, 2005eko eta 2006ko zenbatekoekin alderatuta.

**Langabezia-tasen bilakaera, sexuaren eta eskualdearen arabera
(2005-2007 aldian)
(%-etan)**

Eskualdea	Gizonak			Emakumeak		
	2005	2006	2007	2005	2006	2007
Gasteiz	1,4	2,0	2,0	3,7	3,9	2,2
Aiara	2,6	2,5	1,2	4,7	8,5	2,2
Eskuinaldea	5,0	1,8	3,2	8,1	3,1	5,5
Bilbo	6,3	4,0	3,5	8,4	5,9	6,7
Ezkerraldea	5,6	3,5	3,0	9,9	5,9	4,9
Bizkaia-Kosta	5,4	2,8	2,3	6,7	4,5	3,9
Durangaldea	3,1	1,7	1,0	6,6	4,0	3,2
Donostialdea	3,6	2,5	2,5	3,8	3,5	3,2
Tolosa-Goierrri	1,9	2,0	1,3	3,0	2,6	2,1
Debagoiena	1,1	1,1	0,7	3,3	2,2	2,3
Debarrena	1,9	0,9	1,1	4,0	3,5	4,6
Guztira	4,0	2,7	2,4	6,2	4,4	4,1

Adinaren ikuspegitik begiratuta, 2006tik 2007ra bilakaera negatiboa izan duten hiru eskualdeen ezaugarri komun nagusia honako hau da: 25-34 urtekoen artean langabezia-tasak gora egitea. Horrela, bada, adin-tarte horren tasa % 2,3tik % 4,2ra igo da Debarrenean, % 3,1etik % 6,4ra Eskuinaldean eta % 6tik % 6,7ra Bilbon. 25 urtetik beherakoetan ere nabarmen handitu dira langabezia-mailak zenbait eskualdetan, 2007an Debarrenean % 8,1era iritsita, 2006an maila ia nulua izan ostean; Eskuinaldean, hazkundera % 7,1etik % 12,4ra izan da. Bilbon, ordea, tasak behera egin du % 10etik % 8,1era, eta horri esker, eskualde horren langabezia-tasa orokorra ez da hainbeste handitu.

Langabezia-tasa orokorren bilakaeran eragin txikiagoa duten arren, Eskuinaldeak, Bilbok eta Debarrenak badute beste ezaugarri komun bat; hain zuzen ere, 50 urtetik gorakoetan hazkunde txikiak (puntu-erdi ingurukoak) izatea. Aldiz, 35-49 urtekoetan langabezia-tasak murriztu egin dira Bilbon eta Debarrenean, eta soilik Eskuinaldean suma daiteke langabezia-mailaren igoera, adin horietan. Datu horrek beste elementu deigarri bat agerrarazi du: Bizkaiko eskualde horretan langabeziaren zenbatekoak adin guztietan hazi egiten dira, bereziki 35 urtetik beherakoetan.

Lehen aipatutakoez gain, 2005-2007 aldian adinaren arabera langabezia-mailen goranzko beste prozesu batzuk ere aipatuko ditugu. 25 urtetik gorakoei dagokienez, deigarria da Debagoienean eta Tolosa-Goierrin ere hazkundera izan dela. Lehenengo kasuan, gazteen

langabezia-tasa % 3,3 zen 2005ean eta 2006-2007an % 6 ingurura igo da; bigarreanean, 2006an tasa % 4-4,5 izatetik 2007an % 10,9 izatera iritsi da, azken urte horretan EAEko handienetako bat. 2006-2007 aldian Donostialdean egonkortzea sumatu da, eta Debabarrenean, aldiz, hazkunde handia; horrek agerian utzi du Gipuzkoan gazteen langabezia-tasetan joera ez oso positiboa dagoela, eta 2006-2007 aldian, Eskuinaldeak ere bat egin du prozesu horrekin.

Gipuzkoan aipatutako joera areagotu egiten da eskualde gehienetan 25-34 urtekoetan. Hori horrela izanik, Debabarrenean aipatutako hazkundeaz gain, aipatu behar da adin horretan langabezia-tasa % 3,1etik % 3,9ra hazi dela Donostialdean eta % 1,4tik % 2,3ra Debagoienean, betiere 2006. urtetik 2007. urtera. Tolosa-Goierriko soilik erakusten du adin horretan langabezia-tasetan beheranzko joera argia, aztertutako aldian.

35 urtetik gorakoetan, Eskuinaldearen, Bilboren eta Debabarrenaren hazkunderaz gain, Ezkerraldearen gorakada txikia aipatu behar da; hain zuzen ere, 50 urtetik gorako langabeziaren zenbatekoetan puntu-erdi inguruko gorakada. Kasu horretan, 2006tik 2007ra bitarte langabezia-tasa % 2,7tik % 3,2ra igo da.

Alabaina, alde positiboari erreparatuta, 2006tik 2007ra bitarte Aiaran eta Gasteizen langabezia-tasak jaitsi egin dira 35 urtetik beherakoetan, 2005-2006 aldian nabarmen hazi ostean; hainbeste hazi zirenez, aldi horretan bi eskualde horietako langabezia-tasa orokorra handiarazi zuten, 35 urtetik gorakoetan izandako hazkunde txiki partzialekin batera. Azken aldiko beherakada nabarmena da Aiaran eta Gasteizen 25-34 urtekoetan, baita Aiaran 25 urtetik beherakoetan ere, baina Gasteizen gazteen langabezia-tasa % 5etik gorako mailan egonkortu da 2007an. Hori horrela izanik, 2005etik 2006ra bitarte % 2,6tik % 7,3ra igo ostean, tasak % 6,6ari eutsi dio azken urtean.

**Langabezia-tasen bilakaera, adinaren eta eskualdearen arabera
(2005-2007 aldian)
(%-etan)**

Eskualdea	Adina											
	< 25 urte			25-34 urte			35-49 urte			50-64 urte		
	2005	2006	2007	2005	2006	2007	2005	2006	2007	2005	2006	2007
Gasteiz	2,6	7,3	6,6	3,4	3,7	1,8	2,2	2,1	1,8	1,3	1,4	1,6
Aiara	10,9	17,6	3,1	3,7	7,7	1,8	2,6	3,3	1,8	1,9	0,5	0,4
Eskuinaldea	14,2	7,1	12,4	8,0	3,1	6,4	4,6	2,1	2,9	4,6	0,5	1,1
Bilbo	21,7	10,0	8,1	9,4	6,0	6,7	5,5	4,3	4,1	3,0	2,8	3,3
Ezkerraldea	13,7	10,4	9,0	9,3	5,6	4,6	5,4	3,1	2,5	4,0	2,7	3,2
Bizkaia-Kosta	16,4	15,7	13,3	8,2	5,5	4,8	5,9	2,2	1,8	0,9	0,7	0,7
Durangaldea	8,2	5,9	4,0	7,6	4,1	1,9	3,1	1,4	1,7	0,9	2,5	1,8
Donostialdea	9,2	6,3	6,2	4,4	3,1	3,9	3,1	2,7	2,1	2,0	2,1	1,5
Tolosa-Goierri	4,1	4,5	10,9	3,0	3,2	1,1	2,5	2,0	0,7	0,8	0,7	0,9
Debagoiena	3,3	6,1	5,8	3,6	1,4	2,3	1,6	1,0	0,8	0,4	1,5	
Debabarrena	3,1	0,0	8,1	3,2	2,3	4,2	2,5	2,5	0,7	2,5	1,0	1,4

Guztira	11,0	8,3	8,0	6,5	4,3	4,1	4,0	2,7	2,4	2,3	1,9	1,9
----------------	------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

Kolektiboaren barne-ezaugarriak aztertuta, aldaketa garrantzitsu bat atzemango dugu luzaroko langabeziaren azken aldiko bilakaeran, hau da, urtebeteko edo hortik gorako iraupena duen langabeziarena.

2006. urtera arte, luzaroko langabeziaren jaitsiera diferentziala suma zitekeen bilakaeran. Langabezia mota hori % 91,4 jaitsi da 1997tik 2006ra bitarte, iraupen motz eta ertaineko langabeen artean ikusitako % 66,1en gainetik, hori ere handia izanik. Hala eta guztiz ere, 2006tik 2007ra luzaroko langabezia % 11,5 hazi da, 2006an 10.360 langabe izatetik 2007an 11.554 izatera igarota. Zenbateko hori 2001eko 45.146 langabeena baino askoz txikiagoa den arren, gertatutako aldaketak haustura kezkarria eragin du ordura arte oso positiboa zen bilakaera-prozesuan. Egia esan, are deigarriagoa da kontuan hartzen badugu iraupen motz eta ertaineko langabeen kopuruak erritmo nabarmenean murrizten ari direla (% 16,1) 2006tik 2007ra.

2006ko eta 2007ko luzaroko langabeziaren hazkundera honako honekin loturik dago: langabezia-egoeran urtebetetik bi urtera bitarte daramaten langabeen artean izandako igoera handiarekin. Talde horren bolumena % 35,4 handitu da, langabezian denbora gehien daraman kolektiboaren bilakaera positiboa konpentsatuta egoera horretan bi urte edo gehiago daramaten langabeen artean % 7,7ko jaitsierarekin.

2006tik 2007ra bitarte luzaroko langabeziaren hazkundera areagotu egin da 2005-2006 aldian jada sumatzen zen aldaketa-ildoan. 1997-2005 aldian, langabeziaren murrizketa areagotu egiten zen iraupena luzatu ahala. 2005-2006 bitartean, beherakada erlatiboa handiagoa zen oraindik ere langabezia-egoeran urtebetetik bi urtera bitarteko epea zeramatenen artean urtebete baino gutxiago zeramatenen artean baino (batzuek % 49,2ko beherakada dute, besteek, aldiz, % 27,2koa). Hala eta guztiz ere, langabezian epe handiena zeramatenen artean gertatzen zen beherakada txikiena, enplegua bilatzen bi urte edo gehiago zeramatenetan % 24,5 jaitsi baitzen. 2006tik 2007ra, iraupen motzeko langabe kopuruaren jaitsiera-erritmoa urrunditu egiten da langabezia-egoeran bi urte edo gehiago daramatenen erritmoari dagokionez (%-16,1 eta %-7,7, hurrenez hurren), eta orain, gainera, egoera horretan urtebetetik bi urtera bitarte daramatenen artean gora egin du langabeen kopuruak.

Egia esan, kontuan hartzen badugu zenbatekoek dituzten aldaketa erlatiboak erreferentziako taldeen bolumena handiagoa edo txikiagoa izateak baldintzatzen dituztela, luzaroko langabezia-egoeran daudenen beherakada erlatibo handiena engainagarria zen jada 2005etik 2006ra bitarte, are gehiago kontuan hartzen badugu, 1997az geroztik lehen aldiz,

langabeziaren zenbatekoen beherakada gehiena iraupen laburreko langabeekin lotzen dela (% 58,7 2005-2006 bitartean, % 37,7 2001-2005 bitartean, eta % 20,7 1997-2001 bitartean). Izan ere, 2006. urtean bazirudien iraupen handieneko arazoek konponbidea gero eta zailagoa zela denborak aurrera egin ahala. Horrela, bada, 1997-2006 aldia hartzen badugu erreferentzia gisa, ikus dezakegu 1997. urteko iraupen laburreko langabeziaren beherakadaren % 19,2 2005-2006 aldian gertatzen zela, proportzioa, ordea, % 12,9ra jaitsi zen langabezian urtebetetik bi urtera bitarteko epea daramatenei dagokienez, eta % 2,5era langabezian bi urte baino gehiago daramatenen kasuan.

Iraupen oso luzeko (langabezia-egoeran bi urte edo gehiago) langabe kopuruaren beherakada positiboa da 2006tik 2007ra, baina, oro har, eskura ditugun datuen arabera, luzaroko langabezia-egoerek gora egiteko joera berreskuratzeko prozesua dator berriro ere.

**16-64 urteko langabeen bilakaera, langabezia emandako denboraren arabera
(2005-2007 aldian)**

(Datu absolutuak eta hazkundea %-etan)

Langabezia emandako denbora	Absolutuak			Hazkundea %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
< urte 1	32.392	23.585	19.776	-27,2	-16,1	-38,9
> urte 1	16.708	10.360	11.554	-38,0	11,5	-30,8
1-2 urte	9.114	4.626	6.264	-49,2	35,4	-31,3
> 2 urte	7.594	5.734	5.290	-24,5	-7,7	-30,3
Guztira	49.100	34.100	31.400	-30,5	-7,9	-36,0

Oharra: ED/EE ez dira kontuan hartu

2006tik 2007ra bitarte luzaroko langabezia handitu izana honako honen ondorioa da: 2005etik aurrera, langabezia mota horrek eskualde-eremuan izan dituen bilakaera ezberdinen ondorioa. Alde batetik, zenbait eskualdetan (bereziki Aiaran, Durangaldean eta Gipuzkoako eskualde guztietan, Debabarrenean izan ezik), azken aldiko bilakaeran jarraitutasuna sumatzen da, luzaroko langabe kopuruen jaitsieraren jarraitutasuna, alegia. Eskualde horietan, jaitsierak % 40tik % 55era bitarteko mailetara iristen dira 2005-2007 aldian. Hala ere, nahiz eta Ezkerraldean luzaroko langabeen kopurua 2006tik 2007ra egonkortu egin den, 2005-2006 aldiko beherakada handiaren ondorioz, jaitsiera antzeko mailan geratzen da, % 46,9ko murrizketa izanik luzaroko langabeen zenbatekoetan 2005-2007 biurtekoan.

2005etik 2007ra bitarte, luzaroko langabeziaren zenbatekoetan beherakada handia ikus daiteke bilakaeran, baina jaitsieraren indarra murriztu egin da Eskuinaldean eta Bizkaia-kostan % 25etik % 30era bitarteko mailetara; Bilbon, jaitsiera soilik % 6,5ekoa da. Jaitsiera-maila txikiagoak luzaroko langabeziaren gorakada handi batekin loturik daude, 2006-2007 aldian eskualde horietan gertatutako gorakadarekin, alegia, aldi horretan % 30etik gorako hazkundeak izan baitira.

Bilakaerarik negatiboena Gasteizetik eta Debabarrenean izan dute, luzaroko langabezia gora eta gora ari baita gutxienez 2005. urtetik aurrera. Bi eskualde horietan soilik handitu da langabezia mota hori 2005-2007 aldian EAE osoan; langabezia-egoeran gutxienez urtebete daramaten langabeen kopurua % 14 handitu da Debabarrenean, eta Gasteizen % 36,4.

2006tik 2007ra, luzaroko langabeziaren hazteko joera (aurreko urtean sumatzen hasia zen Debabarrenean eta Gasteizen) Bizkaiko eskualde gehienetara zabaldu da, Durangaldera izan ezik, eta prozesu horrek kontraste egiten du eskualde horietan guztietan 1997-2005 aldian luzaroko langabeziaren kopuruetan izandako jaitsiera handi eta orokortuarekin. Termino absolutuetan, hazkundea bereziki handia da Eskuinaldean eta Bilbon, 2006tik 2007ra jazotako

hazkundearen % 85,4 metatzen dela eskualde horietan, luzaroko langabe kopuruak gora egiten duen eremuetan.

Luzaroko langabeziaren alderdi hiritar edo urbanoa ere aipatu beharreko datua da. Langabe mota horren % 88,2 EAEko bost eskualde urbano nagusietan pilatzen da. Alabaina, Bilbo inguruko hiru eskualdeek ere parte-hartzea handia dute proportzio horretan, luzaroko langabe guztien % 63,2 biltzen baitute, Donostialdearen % 14,7 eta Gasteizen % 10,2 gaindituta.

**16-64 urteko luzaroko langabeen (langabezia urtebete baino gehiago daramatenak)
bilakaera, eskualdearen arabera
(2005-2007 aldian)**

(Datu absolutuak eta hazkundera %-etan)

Eskualdea	Absolutuak			Hazkundera %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Gasteiz	865	1.043	1.179	20,6	13,1	36,4
Aiara	219	212	127	-3,3	-39,9	-41,9
Eskuinaldea	1.753	700	1.243	-60,0	77,5	-29,1
Bilbo	3.856	2.586	3.607	-32,9	39,5	-6,5
Ezkerraldea	4.626	2.437	2.455	-47,3	0,7	-46,9
Bizkaia-Kosta	490	269	358	-45,1	33,2	-26,8
Durungaldea	825	463	368	-43,9	-20,4	-55,3
Donostialdea	3.298	1.853	1.704	-43,8	-8,1	-48,4
Tolosa-Goierri	412	469	200	13,8	-57,3	-51,4
Debagoiena	184	148	108	-19,9	-27,1	-41,6
Debarrena	180	180	205	0,2	13,8	14,0
Guztira	16.708	10.360	11.554	-38,0	11,5	-30,8

Iraupen laburreko langabeziaren bilakaera ere ez da homogenea EAEko eskualde guztietan 2005etik 2007ra bitarte. Zenbait kasutan, galera oso handia da, Aiara eta Bizkaiko eskualde guztietan % 40 inguruko edo hortik gorako beherakadak izanik. % 30 inguruko jaitsiera gertatu da Gasteizen eta Debagoiengan, eta % 25etik azpikoa Donostialdean, Tolosa-Goierri eta Debarrenean. Testuinguru horretan, Bizkaiaren papera (eta Bizkaiaren barruan, Bilbo eta Ezkerraldearena) deigarria da oso. Izan ere, 2005-2007 aldian iraupen laburreko langabeziaren zenbatekoetan izandako jaitsiera absolutuaren % 86,8 Bizkaiari dagokio, eta proportzioa % 59,7koa da soilik Bilbo eta Ezkerraldea kontuan hartuz gero.

Aurreko emaitzak hertsiki lotuta daude 1997-2005 aldian iraupen laburreko langabeziaren bilakaeran ikusitakoarekin. Ildo horretatik, iraupen laburreko langabezia-tasak 2005etik 2007ra bitarte gehien jaitsi diren eskualdeak (bereziki, Bizkaiko eskualdeak) dira, hain zuzen ere, adierazitako aldian nabarmendu zirenak langabezia mota horren beherakada txikia izan zutelako. Beherakada handia izan zutelako aldi hartan nabarmendu ziren eskualdeek (bereziki Gipuzkoakoek), ordea, orain bilakaera okerragoa dute, oro har.

1997-2007 aldiko iraupen laburreko langabeziaren jaitsieraren denboraren arabera banaketa adierazitako bilakaera desberdina izatearekin lotzen da. Horrela, bada, 2005-2007 bitartean ikusitako bilakaerak erakusten du Arabako eta Gipuzkoako eskualdeetan % 20tik beherako jaitsierak izan direla, baina egiaztatu dugu 1997-2007 aldiko iraupen laburreko langabeziaren % 30 baino gehiago 2005etik 2007ra bitarteko aldiari dagokiola Bizkaiko eskualdeetan; Bizkaia-Kostaren kasuan, % 70 gora ere iristen da proportzio hori¹⁴.

Ikus daitekeenez, orain arte eskualdearen arabera bilakaeran dauden aldeak jaitsieraren dimentsio ezberdinei dagozkie, lurraldearen arabera, eta eskualde guztietan sendotu egin da iraupen laburreko langabeziaren jaitsiera, EAE osoko ezaugarri baita 2005-2007 aldian. Azken aldiko bilakaerari erreparatuta, ordea, aldaketa-zantzuak sumatuko ditugu. 2006tik 2007ra bitarte Donostialdean iraupen laburreko langabeziaren zenbatekoetan egonkortzeko joera ikus daiteke, soilik % 2,1eko jaitsierarekin; eta joera horri Debarreneko eta Eskuinaldeko hazkundeak gehitu behar zaizkio.

16-64 urteko iraupen laburreko langabeen (langabezia urtebete baino gutxiago daramatenak) bilakaera, eskualdearen arabera (2005-2007 aldia)

Eskualdea	Absolutuak			Hazkundera %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Gasteiz	2.168	2.550	1.494	17,6	-41,4	-31,1
Aiara	447	796	199	77,8	-74,9	-55,4
Eskuinaldea	3.072	1.028	1.874	-66,5	82,3	-39,0
Bilbo	7.361	5.122	4.081	-30,4	-20,3	-44,6
Ezkerraldea	8.462	5.568	4.211	-34,2	-24,4	-50,2
Bizkaia-Kosta	2.707	1.577	1.327	-41,7	-15,9	-51,0
Durungaldea	1.550	955	707	-38,3	-26,0	-54,4
Donostialdea	4.839	4.617	4.521	-4,6	-2,1	-6,6
Tolosa-Goierrri	863	723	655	-16,2	-9,4	-24,1
Debagoiena	452	358	307	-20,9	-14,2	-32,1
Debarrena	471	292	400	-37,9	36,8	-15,1
Guztira	32.392	23.585	19.776	-27,2	-16,1	-38,9

Lehen ere aipatu dugunez, 2005-2006 aldian oraindik ere errealitate izaten jarraitzen du luzaroko langabeziaren bilakaera positibo erlatiboak, betiere orokorrean hartuta. 2001. urtean, langabezia hori gutxiengoa zen Euskal Autonomia Erkidegoko langabeetan, % 47,5 zegoen egoera horretan, 1997ko % 63,1etik behera, nabarmen, baina ondoren eutsi egin zitzaion beherakadarako joerari, luzaroko langabeen proportzioa % 34ra jaitsi baitzen 2005ean eta % 30,4ra 2006an. 2006tik 2007ra bitarte, luzaroko langabeen zenbatekoak gorakada izan da,

¹⁴ Bizkaia-Kostaren kasuan, 2005-2007 aldiko beherakadari balio handiegia eman zaio, beharbada, iraupen laburreko langabeziak gora egin zuelako 2001-2005 aldian.

iraupen laburreko langabeziaren beheranzko joerari eustearekin kontrastean; dena dela, luzaroko langabeziaren garrantzi erlatiboak berriz ere gora egitea dakar. 2006tik 2007ra bitarte % 30,4tik % 36,8ra igaro da, 2003-2006 aldi osoko erregistroen gainetik.

Gorakada hori berezik Bizkaian da aipagarria, luzaroko langabeen garrantzia areagotu egin baita 2005etik 2007ra bitarte, Bilbon 13 puntu baino gehiago, eta Ezkerraldean eta Bizkaia-Kostan 6na puntutik gora. Baina batez ere Arabako eskualdeetan handitu da luzaroko langabeziaren garrantzi erlatiboa, 15 puntutik gora. Sumatutako aldaketa 2006tik 2007ra bitarteko luzaroko langabeziaren zifretan aztertutako gorakadarekin, bereziki, loturik dago, Aiaran eta Durangaldean izan ezik, non langabezia mota hori erori egin den zifra absolutuetan 2006tik 2007ra. Hazkundearen eraginak deigarriak dira eskualde horietan. Hori horrela izanik, Aiaran eta Bilbo inguruko hiru eskualdeetan luzaroko langabeen proportzioa handiagoa da, oro har, 2007an 2003-2006 aldian baino, eta egoera hori 2001-2006 aldira ere zabal daiteke, Gasteizen kasuan.

Arabako eta Bizkaiko eskualdeekin kontraste handia eginez, Gipuzkoan luzaroko langabeziaren garrantzi erlatiboaren beherakada-prozesua egonkortu egin da 2006tik 2007ra. Debabarrenean izan ezik, gainerako eskualdeetan 2007. urtean luzaroko langabeen presentzia-maila txikiena lortu da, langabezia-egoera guztien artetik.

**Luzaroko langabeen proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera
(1997-2007 aldian)
(%-etan)**

Eskualdea	Luzaroko langabeak %-etan					
	1997	2001	2003	2005	2006	2007
Gasteiz	54,7	41,6	29,4	28,5	29,0	44,1
Aiara	54,5	55,7	28,6	32,9	21,0	39,0
Eskuinaldea	61,6	44,9	28,5	36,3	40,5	39,0
Bilbo	66,1	50,8	40,9	34,4	33,5	46,9
Ezkerraldea	65,7	48,5	29,9	35,3	30,1	36,8
Bizkaia-Kosta	61,7	48,4	36,2	15,3	14,6	21,3
Durangaldea	66,6	42,9	31,5	34,7	32,6	34,3
Donostialdea	62,0	45,4	40,4	40,5	28,4	27,4
Tolosa-Goiherri	58,6	44,4	49,6	32,3	39,3	23,4
Debagoiena	58,2	41,8	24,5	29,0	29,2	25,9
Debabarrena	72,5	65,3	52,2	27,6	38,1	33,9
Guztira	63,1	47,5	35,3	34,0	30,4	36,8

Aldez aurreko lan-esperientzia kontuan hartuta, langabeziak izan duen bilakaerari dagokionez, 2006-2007 aldian berrikuntzak gertatu dira. 2006. urtera arte aldez aurreko lan-esperientziarik gabeko langabeen kopurua nabarmenago murriztu bazen ere, 2006tik 2007ra bitarte, horrelako langabeen kopurua egonkortu egin da, baina aldez aurreko lan-esperientzia

baduten langabeen zenbatekoaren gainbehera luzatuta. Horrela, bada, aldez aurreko lan-esperientzia baduten langabeen bolumena % 8,3 murriztu da.

**16-64 urteko langabeen bilakaera, aldez aurreko lan-esperientziaren arabera
(2005-2007 aldian)**

Lan-esperientzia	Absolutuak			Hazkundera %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Bai	45.500	31.545	28.930	-30,7	-8,3	-36,4
Ez	3.600	2.400	2.400	-33,3	0,0	-33,3
Guztira	49.100	34.100	31.400	-30,5	-7,9	-36,0

Oharra: ED/EE ez dira kontuan hartu

2005-2007 aldian, lan-esperientzia badutenean arteko langabezia-murrizketa maila gorenera iritsi da, % 50 inguru edo hortik gora, Araian eta Bizkaiko zenbait eskualdetan (Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Durangaldean). Jaitsieraren intentsitatea % 30etik % 40ra bitartekoa da EAEko gainerako eskualdeetan, Gasteiz, Donostialdea eta Debabarrena salbuespen izanik (% 25etik beherakoa baitute). Debabarrenean, baita Eskuinaldean ere, 2006. urtetik aurrera, lan-esperientzia badutenean langabezia hazi egin da, Bizkaiko eskualdean garrantzi kuantitatibo nabarmena izanik.

Lan-esperientzia duten 16-64 urteko langabeen bilakaera eskualdearen arabera (2005-2007 aldian)

(Datu absolutuak eta hazkundera %-etan)

Eskualdea	Absolutuak			Hazkundera %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Gasteiz	2.783	3.218	2.498	15,6	-22,4	-10,3
Aiara	617	982	302	59,3	-69,2	-51,0
Eskuinaldea	4.315	1.519	2.690	-64,8	77,1	-37,7
Bilbo	10.294	7.271	6.901	-29,4	-5,1	-33,0
Ezkerraldea	11.792	7.314	6.120	-38,0	-16,3	-48,1
Bizkaia-Kosta	3.051	1.650	1.523	-45,9	-7,7	-50,1
Durangaldea	2.147	1.251	997	-41,7	-20,3	-53,6
Donostialdea	8.016	6.237	6.087	-22,2	-2,4	-24,1
Tolosa-Goierri	1.237	1.152	842	-6,9	-26,9	-31,9
Debagoiena	620	489	384	-21,1	-21,5	-38,1
Debabarrena	626	462	587	-26,2	27,0	-6,3
Guztira	45.500	31.545	28.930	-30,7	-8,3	-36,4

Aldez aurreko lan-esperientziarik gabeko langabeziari dagokionez, langabezia mota horrek lortutako maila txikiari esker uler daiteke, hein handi batean, 2006tik 2007ra bitarte zenbatekoetan, oro har, sumatu den egonkortzea. Nolanahi ere, zifrak oraindik ere % 20 inguruko edo hortik gorako erritmoan erortzen dira Gasteizen, Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan, Durangaldean, Donostialdean eta Tolosa-Goierriin. Gainerako eskualdeetan, lan-esperientziarik

gabeko langabeen bolumena egonkortu edo handitu egin da, 2005-2007 biurteko osoan hazkunde kuantitatiboki esanguratsurik izan gabe. 2005eko eta 2006ko txostenetan aipatutakoari jarraiki, langabezia mota hori hondar-fenomeno bihurtu dela esan daiteke, soilik 2.400 lagun hartzen baititu eraginpean, bai 2006. urtean, bai 2007. urtean.

Lan-esperientziarik gabeko 16-64 urteko langabeen bilakaera, eskualdearen arabera (2005-2007 aldia)

(Datu absolutuak eta hazkundea %-etan)

Eskualdea	Absolutuak			Hazkundea %-etan		
	2005	2006	2007	06/05	07/06	07/05
Gasteiz	250	375	176	50,0	-53,1	-29,7
Aiara	50	25	24	-49,6	-3,6	-51,4
Eskuinaldea	510	210	427	-58,9	103,6	-16,3
Bilbo	922	437	787	-52,6	80,1	-14,7
Ezkerraldea	1.296	691	546	-46,7	-20,9	-57,8
Bizkaia-Kosta	146	196	162	34,3	-17,2	11,2
Durungaldea	227	167	78	-26,3	-53,1	-65,4
Donostialdea	121	233	138	92,8	-40,9	13,9
Tolosa-Goierrri	38	40	14	4,9	-66,1	-64,4
Debagoiena	16	16	31	-1,4	89,2	86,6
Debarrena	24	11	18	-56,9	71,0	-26,3
Guztira	3.600	2.400	2.400	-33,3	0,0	-33,3

Langabeziak azken urtean izandako barne-bilakaerak gorakada txiki bat ekarri du lan-esperientziarik gabeko langabeen proportzioan, betiere langabe guztien taldetik, baina gorakada horrek ez dio eragin epe luzeko jaitsiera nabarmeneko joerari. Langabe mota horrek guztizkoaren % 28,5 osatzen zuen 1997an, eta 2001ean % 16,8, 2005ean % 7,3, 2006an % 7 eta 2007an % 7,6.

Lan-esperientziarik gabeko langabeen proportzioaren beherakada garrantzikoa da eskualde guztietan 1997-2007 bitartean. Hala ere, nahiko zabaldua dagoen joera bat aipatu behar dugu; hain zuzen ere, lan-esperientziarik gabeko langabeen proportzioak zertxobait gora egiteko joera duela EAEko eskualdeetan 2005. urtetik aurrera. Egoera horretan daude, batez ere, Eskuinaldea, Bilbo, Bizkaia-Kosta eta Debagoiena.

**Lan-esperientziarik gabeko langabeen proportzioaren bilakaera, eskualdearen arabera
(1997-2007 aldia)
(%-etan)**

Eskualdea	Lan-esperientziarik gabeko langabeak %-etan					
	1997	2001	2003	2005	2006	2007
Gasteiz	22,5	13,7	6,6	8,2	10,4	6,6
Aiara	27,8	20,9	7,2	7,5	2,5	7,5
Eskuinaldea	41,9	22,0	8,2	10,6	12,1	13,4
Bilbo	28,6	18,1	11,2	8,2	5,7	10,2
Ezkerraldea	28,6	17,3	7,7	9,9	8,5	8,2
Bizkaia-Kosta	30,4	16,4	9,3	4,6	10,6	9,6
Durungaldea	24,8	12,4	10,1	9,6	11,8	7,3
Donostialdea	26,2	13,0	23,7	1,5	3,6	2,2
Tolosa-Goierra	24,0	21,7	10,3	3,0	3,4	1,6
Debagoiena	36,6	16,4	36,9	2,6	3,2	7,4
Debarrena	33,0	23,9	41,4	3,8	2,2	3,0
Guztira	28,5	16,8	12,8	7,3	7,0	7,6

5. Biztanleria ez-aktiboa

5.1. Egungo egoera.

16-64 urteko biztanleria ez-aktiboa 423.602 lagunek osatzen dute 2006. urtean. Hori horrela izanik, adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleriaren % 29,7 ekonomikoki ez-aktibotzat har daiteke.

Ez-aktiboan taldean emakumeak nagusitzen dira, talde horretako % 66,9 baitira. Egoera hori jarduerarik ezaren tasaren eragina handiagoa izateari lotzen zaio, emakumeetan tasa hori bi aldiz handiagoa baita: % 40,1, eta gizonetan % 19,5.

16-64 urteko biztanleria ez-aktiboa, sexuaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta jarduerarik ezaren tasa %-etan)

Sexua	Absolutuak	%	Jarduerarik ezaren tasa
Gizona	140.310	33,1	19,5
Emakumea	283.292	66,9	40,1
Guztira	423.602	100	29,7

Ez-aktibo gehienak bi adin-tarte hauetan biltzen dira: alde batetik, 50 urtetik gorakoan taldean, ez-aktibo guztien % 45,4 direla; beste alde batetik, 25 urtetik beherakoena (% 25,9). 25-34 urtekoak ez-aktibo guztien % 9,8 baino ez dira, eta 35-49 urtekoetan proportzio hori % 18,9ra igotzen da.

Jarduerarik ezaren eraginik handiena 20 urtetik beherakoetan ikusten da, % 89,8 izatera iritsi baita. 20-24 urtekoetan % 44,2ra jaisten den arren, jarduerarik ezaren eragina erabakigarria da oraindik ere. Aldiz, jaitsiera nabarmena gertatu da 25-34 urtekoetan: 25 urtetik 29 urtera bitartekoetan tasa % 14,4 da, eta % 11 —mailarik txikiena— 30-34 urtekoetan. Hortik aurrera zenbatekoak handitu egiten dira pixkanaka, 60-64 urtekoetan % 73ra iristen dela. Nolanahi ere, jarduerarik ezaren tasei % 15-20 inguru eusten zaie 50 urtera arte. Adin horretatik aurrera nabarmen hazten dira, eta 50-54 urtekoetan maila % 27 da, eta 55-59 urtekoetan % 42,8.

16-64 urteko biztanleria ez-aktiboa, adinaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta jarduerarik ezaren tasa %-etan)

Adina	Absolutuak	%	Jarduerarik ezaren tasa
-------	------------	---	-------------------------

16-19 urte	61.728	14,6	89,8
20-24 urte	47.982	11,3	44,2
25-29 urte	22.761	5,4	14,4
30-34 urte	18.615	4,4	11,0
35-39 urte	23.426	5,5	14,4
40-44 urte	29.091	6,9	15,9
45-49 urte	27.522	6,5	17,2
50-54 urte	40.899	9,7	27,0
55-59 urte	58.148	13,7	42,8
60-64 urte	93.430	22,1	73,0
Guztira	423.602	100	29,7

Jarduerarik ezaren tasa handienak, oro har, Bizkaiko eskualdeei dagozkie, batez bestekoaren gaineko zenbatekoak baitituzte beti, Durangaldearen salbuespenarekin. Tasarik altuenak Eskuinaldean, Bilbon, Ezkerraldean eta Bizkaia-Kostan daude, % 31 inguruko edo hortik gorako mailekin, eta Ezkerraldean % 32,2ra iristen dira —mailarik handiena—. Durangaldean zenbatekoak % 29,2ra jaisten dira. Bizkaitik kanpo, Debarrenak soilik ditu Bizkaiko eskualde gehienen antzeko jarduerarik ezaren tasak (% 30,2).

Durangaldean bezalaxe, tasak % 30etik beheraxeago daude Gasteizen. Maila txikiak (% 26tik % 28ra bitartekoak) Aiara eta Gipuzkoako eskualde hauetan ikusten dira: Donostialdea, Tolosa-Goierri eta Debagoiena, eskualde horretan dagoela zenbatekorik txikiena (% 26,2).

Jarduerarik ezaren tasa 16-64 urtekoetan, eskualdearen arabera
(%-etan)

Eskualdea	Guztira
Gasteiz	29,3
Aiara	27,8
Eskuinaldea	31,2
Bilbo	31,2
Ezkerraldea	32,2
Bizkaia-Kosta	30,8
Durangaldea	29,2
Donostialdea	27,2
Tolosa-Goierri	26,2
Debagoiena	26,8
Debarrena	30,2
Guztira	29,7

Etsia hartutako ez-aktiboen taldea (hau da, okupazio berri bat ezin izango dutela lortu pentsatzen dutelako jada lanik bilatzen ez duten ez-aktiboak) 2007an, talde marjinala da ez-aktibo guztien barnean: 4.738 lagun, biztanleria ez-aktiboaren % 1,1.

16-64 urteko etsia hartutako biztanleria ez-aktiboa

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Jarduerarik ezaren egoera-mota	Absolutuak	%
Etsia hartutako ez-aktiboak	4.738	1,1
Bestelako ez-aktiboak	418.864	98,9
Guztira	423.602	100

Biztanleria ez-aktiboaren barruan, talde bereziki garrantzitsua osatzen dute honako hauek: enplegua bilatzen ari direla eta lanerako prest daudela diotenak; horietatik batzuk duela gutxi jarri ahal izan dira kontaktuan enplegu-zerbitzuekin, langabezia-txartela berritzeko. Pertsona horiek eta langabeak ezin dira bereizi, gaur egun, baldin eta azken hilean okupazio berria bilatzeko gestio edo ekintza espezifikoak egin ez izanagatik ez bada; horrelako ekintzarik egin ez dutenak ez-aktiboak dira, ez langabeak. 2007an, talde horrek 15.380 lagun biltzen ditu, hots, 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren % 3,6. Nolanahi ere, talde hori aktiboetara gehituko bagenie, aktiboak % 1,5 haziko lirateke, ez asko, egia esan.

Talde horren generoaren arabera banaketan, emakumeak dira nagusi gaur egun oraindik ere, guztirakoaren % 59,2 baitira. Dena den, zenbateko erlatiboetan, errealitate horrek zertxobait eragin handiagoa du gizonen artean: gizonetako ez-aktiboaren taldearen % 4,5, eta emakumetako ez-aktiboaren % 3,2.

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboa, sexuaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta ez-aktiboaren taldearen gaineko garrantzia %-etan)

Sexua	Absolutuak	%	Ez-aktiboak guztira %-etan
Gizona	6.270	40,8	4,5
Emakumea	9.110	59,2	3,2
Guztira	15.380	100	3,6

Adina kontuan hartzen badugu, ez-aktibo baina lanerako prest dagoen biztanleriaren funtsezko muina, gaur egun, 40-49 urtekoetan dago (% 31,1), 20-29 urtekoen gainetik (% 26,4). Halaber, esanguratsua da 30-39 urtekoek osatzen duten % 23,5eko zenbatekoa. Zenbatekoak % 15era jaisten dira 50 urtetik gorako kasuan. 20 urtetik beherakoak lanerako prest dauden ez-aktibo guztien % 4,1 baino ez dira.

Zenbateko erlatiboetara dagokienez, 30-44 urtekoek izan dute eraginik handiena. Kasu horretan, ez-aktibotzat hartutako biztanleriaren % 8,5etik % 11ra bitartek enplegurako prest dagoela dio. 20-29 urtekoetan eta 45-49 urtekoetan ere garrantzitsua da proportzioa hori, % 5etik % 7ra bitartekoa izanik. Proportzioa % 3,3ra murriztu da 50-54 urtekoetan. 55 urtetik

gorakoetan eta 20 urtetik beherakoetan, prestasunerako joera % 1,5 inguru edo hortik behera dago ez-aktiboaren artean.

Adierazitako egoeren eragin kuantitatiboa eta kualitatiboa kontuan hartzen baditugu, adierazi behar dugu egoera horrek 25-44 urtekoetan duela eraginik handiena. Izan ere, talde horretan biltzen dira enplegurako potentzialki prest dauden ez-aktibo guztien % 54,4, eta proportzioa % 81era igotzen da 20-49 urteko biztanleria guztia kontuan hartuz gero. Oro har, adin-tarte horretan lanerako prest daudenen garrantzia % 7,4koa da, 20 urtetik beherakoei eta 50-64 urtekoei dagokien % 1,2 erraz gaindituta.

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboa, adinaren arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta ez-aktiboaren taldearen gaineko garrantzia %-etan)

Adina	Absolutuak	%	Ez-aktiboak guztira %-etan
16-19 urte	624	4,1	1,0
20-24 urte	2.475	16,1	5,2
25-29 urte	1.589	10,3	7,0
30-34 urte	1.613	10,5	8,7
35-39 urte	2.000	13,0	8,5
40-44 urte	3.162	20,6	10,9
45-49 urte	1.614	10,5	5,9
50-54 urte	1.347	8,8	3,3
55-59 urte	849	5,5	1,5
60-64 urte	106	0,7	0,1
Guztira	15.380	100	3,6

Lurralde-eremuko ikuspegian, lanerako prest dauden ez-aktiboak Bilbon eta Ezkerraldean metatzen dira. Bi eskualde horietan biltzen da kasu guztien % 43,5; Eskuinaldea ere kontuan hartuko balitz % 49,6. Gasteizen ere kolektibo horren zati garrantzitsu bat metatzen da (% 16,9), Donostialdea atzetik datorkiola (% 11,9).

Ez-aktibo guztiekin alderatzen badugu, aldeak ez dira hain deigarriak beti eraginari dagokionez. Egia esan, Eskuinaldeako eta Donostialdeko zenbatekoak EAEko batez besteko mailaren azpikoak dira: prest dauden ez-aktiboaren % 2,7 eta % 2, hurrenez hurren, ez-aktibo guztiei dagokienez. Alabaina, Bilbo eta Gasteiz bai nabarmentzen dira batez bestekoaren gaineko zenbatekoekin (% 5 inguru), Baita Aiara ere. Debagoienak soilik gainditzen ditu adierazitako mailak, lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren % 5,9rekin.

Gainerako eskualdeetan, lanerako prest dauden ez-aktiboaren proportzioa EAEko batez besteko mailatik zertxobait gora dago Ezkerraldean, Bizkaia-Kostan eta Durangaldean % 3,8tik % 3,9ra bitarteko zenbatekoekin. Prest dauden ez-aktiboaren maila txikiak (% 3tik behera)

Donostialdean eta Eskuinaldean aurkituko ditugu, baita % 2tik behera ere Tolosa-Goierri eta Debabarrenean.

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboa, eskualdearen arabera
(Datu absolutuak, % bertikalak eta ez-aktiboaren taldearen gaineko garrantzia %-etan)

Eskualdea	Absolutuak	%	Ez-aktiboak guztira %-etan
Gasteiz	2.597	16,9	4,9
Aiara	391	2,5	5,0
Eskuinaldea	941	6,1	2,7
Bilbo	3.430	22,3	4,8
Ezkerraldea	3.256	21,2	3,9
Bizkaia-Kosta	981	6,4	3,9
Durantaldea	875	5,7	3,8
Donostialdea	1.837	11,9	2,2
Tolosa-Goierri	304	2,0	1,6
Debagoiena	638	4,1	5,9
Debabarrena	130	0,8	1,2
Guztira	15.380	100	3,6

5.2. Azken aldiko bilakaera.

Euskadiko 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera aztertzen badugu,¹⁵ ikusiko dugu ez-aktibo kopurua nabarmen jaitsi dela etengabe 1993-2003 bitartean. 1997tik 2001era bitarte, jaitsiera-erritmoa bizkortu egin zen (aktiboaren kopurua % 11,4 murriztu zen, eta aurreko aldiaren % 3,1), eta 2001. urtetik 2003. urtera joerari eutsi egin zitzaion, nahiz eta murrizketa txikixegotik abiatu (%-8,4). 2003tik aurrera, ordea, joera hori eten egin da, eta 2003-2005 bitartean % 1,8 igo da biztanleria ez-aktiboaren bolumena. Beherakadaren erritmoaren intentsitatea 2003. urtearen aurreko urteetako baino txikiagoa bada ere, 2005-2007 aldiaren berriz ekin zaio jarduerarik ezaren zenbatekoak murrizteari, ez-aktibo kopurua % 2,9 jaitsita (2003. urtera bitarte erregistratutakoa baino gutxiago, hala ere).

¹⁵ Langabeekin bezalaxe, kasu honetan ere BJA metodo zaharreko datuak baliatu ditugu 2001. urtera arte (urte hori barnean hartuta), eta hortik aurrera, BJA/EUROSTAT metodologia berriarekin lan egin dugu.

2005etik 2007ra jarduerarik ezaren zenbatekoak murriztu egin ziren, eta murrizketa hori, neurri handi batean, joera bat berreskuratzearekin loturik dago; hain zuzen ere, emakume ez-aktiboen kopurua jaisteko joera, aldi horretan % 4ko murrizketa izan duela. Gizonen kasuan, aldiz, ez-aktibo kopuruan 2003. urtetik aurrera gertatzen ari den hazkundeari eutsi egin zaio: 2003-2005 aldian % 0,1, eta 2005-2006 aldian % 0,7. Soilik 2006tik 2007ra berriz ere murriztu da gizonezko ez-aktiboen bolumena (%-1,2). Oro har, emakume ez-aktiboen bolumenean % 4ko jaitsiera izanik, gizon ez-aktiboen kopurua soilik % 0,6 murriztu da 2005-2007 biurtekoan.

2005etik 2007ra emakumearen mesederako den alde horren jatorria arestian adierazitako guztia da. Ildo beretik, 2001-2003 bitartean ikusten da jarduerarik eza gehiago jaitsi dela emakumeetan (%- 9,2, gizonetan, aldiz %-6,6), egoera hori ikusten zen 1993-1997 aldian ere; gizonezko ez-aktiboak % 0,8 igo baitira, eta emakume ez-aktibo kopurua, aldiz, % 5 jaitsi da. 1997-2001 aldian, ordea, biztanleria ez-aktiboaren beherakada-prozesua askoz handiagoa zen gizonetan, % 15,1eko jaitsiera izan baitute, emakumeen % 9,5eko jaitsieraren gainetik; 1997-2007 aldian, jarduerarik ezaren beherakada handiagoa da oraindik ere gizonezkoen biztanlerian (% 21,1, eta emakumeetan % 19). Zenbateko erlatiboetan, ordea, ez da agerian geratzen jarduerarik ezaren erabateko jaitsierak emakumeen kasuan duen egiazko garrantzia, ez-aktibo gehienak emakumeak baitira. Ildo berari jarraiki, 1997. urtetik 2007. urtera bitarte, ez-aktibo bolumenean izandako murrizketa absolutuaren % 64 emakumeei legokiekeela aipatu behar da.

Adinari dagokionez, 2005-2007 aldian ez-aktibo bolumenean izandako jaitsiera handienak 25 urtetik beherakoetan (% 6,8) gertatu dira, eta adierazlea % 3tik % 4ra bitarteko zenbatekoetan dago 35-49 urtekoei dagokienez. Alabaina, 50 urtetik gorakoetan artean, biztanleria ez-aktiboaren bolumena % 0,1 baino ez da murriztu.

Aurreko joerek zera adierazten dute, azken hamar urteotan jarduerarik ezak bilakaera ezberdinak izan dituela adin-talde arabera. Hasteko, jaitsiera handiena izan duten taldeei erreparatuko diegu, eta egiaztatu dugu 35-49 urtekoetan, 1997-2001 bitartean % 3,3ko murrizketa izan ondoren, ez-aktibo bolumenaren jaitsiera bizkortu egin dela 2001-2005 aldian, % 8,3rekin, eta 2005-2007 biurtekoan jaitsiera-erritmo garrantzitsuari eutsi zaiola (%-3,9). Oro har, 35-49 urtekoetan ez-aktibo bolumena % 14,8 jaitsi da 1997tik 2007ra bitarte, zalantzarik gabe, adin horietako jarduera-tasen hazkundearekin loturiko prozesua izanik.

Hala ere, aldi horretako beherakadarik handiena (% 41,8) 25 urtetik beherakoei dagokie. Horrek erakusten du adin-talde horretako biztanleria ez-aktiboaren bilakaeraren egoera nabarmen aldatu dela. Horrela, bada, 1993-1997 bitartean % 5,5 igo ondoren, adin horietako biztanleria ez-aktiboa % 24,8 jaitsi da 1997-2001 bitartean, eta % 16,9 2001-2005 bitartean, 2005-2007 bitartean antzeko maileri eutsi zaiela, bi urte eskasean % 6,8ko jaitsierarekin. Kasu horretan, ordea, bilakaera honako honekin lotzen da neurri handi batean: lehengo mende

amaierako krisi demografikoaren ondorioz, 25 urtetik beherakoetan guztirako bolumenak izandako jaitsieran.

Jarduerarik ezak jaisteko izan duen joera orokorrarekin onura gutxien lortzen duten adin-taldeei dagokienez, 50 urtetik gorako kasuan ikusten da jaitsiera-mailak EAEko batez besteko mailak baino txikiagoak direla 1997-2006 bitartean; izan ere, aldi horretan ez-aktiboen bolumena % 7,6 jaitsi da. 1997-2001 aldian garrantzia galdu ostean (%-5,9, 25 urtetik beherakoek soilik gaindituta), adin horietako ez-aktibo kopuruan lehen hazkundera sumatu zen (% 1,4) 2001etik 2003ra bitarte. 2003-2006 aldian beheranzko joera berreskuratu zen arren (2003-2005 biurtekoan %-1,9 eta 2005-2006 aldian %-1,4), 2006. urtetik 2007. urtera bitarte ez-aktiboen kopuruak berriz ere gora egin du (% 1,3) 50-64 urtekoetan.

Joera desberdinena 25-34 urteko kolektiboak du. 2001-2003 aldian izandako jaitsiera handia kenduta, adin horretako ez-aktibo kopuruak gora egin du etengabe 1997-2007 aldian. Izan ere, 25-34 urteko ez-aktiboen zenbatekoa (% 10,8 jaitsi zen 1993-1997 bitartean) % 4,8 igo da 1997-2001 bitartean, eta % 3 2001-2005 bitartean; 2005. urtetik aurrera, ordea, joera hori bizkortu egin da, 2005-2006 aldian % 4,1 hazi baita. Baliteke 1997. urteaz geroztik izandako joera-aldaketa garrantzitsu hori (adin horietako biztanleria ez-aktiboa % 12,4 hazi da 1997-2006 bitartean) adin-talde horretako biztanleriaren jaiotza-tasarekin lotutako prozesu demografikoak suspertzearekin lotuta egotea. Dena den, 2006tik 2007ra bitarte joera aldatu egin da, eta % 6,9ko jaitsiera suma daiteke adin horietako ez-aktiboen kopuruetan, aldi horretako jaitsierarik handiena izanik. Hala ere, % 4,6rekin, 25-34 urtekoen balantzea eginez gero, 1997-2007 aldian ez-aktiboen zenbatekoetan hazkundera gertatuko da oraindik, EAEn izandako hazkunde bakarra alegia, adin-talde guztietan.

Beraz, EAEn 1997-2007 aldian ez-aktibo kopurua murriztu egin da, oro har, baina ezin ditugu ahaztu horren azpian dauden aldaketak, aldi osoan atzeman daitezkeenak. Ildo horretatik, bereziki aipatu behar da 1997-2007 aldian biztanleria ez-aktiboaren bolumenak izandako hazkunde absolutua, hainbat mugimendu koiunturalekin, 25-34 urtekoei dagokienez. 2003-2005 aldian, 25 urtetik beherakoetara eta 35-49 urtekoetara hedatuko zela zirudien zirkunstantzia hori, ez da sendotzen, ordea, adierazitako adin-taldeetan 2005-2007 aldian. Aitzitik, 2005-2007 aldian jarduerarik ezaren beherakada-prozesua (azken urte hauetan ikusten zena) zertxobait berpiztu da, eta 2006tik 2007ra bitarte 25-34 urtekoetan beheranzko joerak zertxobait hobetu ere egin dira.

Azken aldiko bilakaeraren salbuespen esanguratsu bakarra 50 urtetik gorakoei dagokie. Kasu horretan, 1997-2001 aldian izandako jaitsiera garrantzitsua eten egin da eta 2001etik 2007ra, epe luzera eutsi egin zaie, modu erlatiboan, ez-aktiboen zenbatekoei, 2006-2007 aldian gorakada txiki bat ere izanik.

**16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera
(1997-2007 aldian)¹⁶
(Datu absolutuak)**

Sexua eta adina	Absolutuak					
	1997	2001	2003	2005	2006	2007
Gizonak	177.792	150.990	140.979	141.107	142.036	140.310
Emakumeak	349.800	316.624	287.521	295.217	287.066	283.292
< 25 urte	188.360	141.718	115.796	117.702	112.947	109.710
25-34 urte	39.545	41.453	35.876	42.685	44.451	41.376
35-49 urte	93.920	90.827	80.458	83.252	81.657	80.040
50-64 urte	205.767	193.616	196.370	192.684	190.047	192.477
Guztira	527.592	467.614	428.500	436.324	429.103	423.602

(Hazkundera %-etan)

Sexua eta adina	Hazkundera %-etan					
	07/06	06/05	07/05	05/01	01/97	07/97
Gizonak	-1,2	0,7	-0,6	-6,5	-15,1	-21,1
Emakumeak	-1,3	-2,8	-4,0	-6,8	-9,5	-19,0
< 25 urte	-2,9	-4,0	-6,8	-16,9	-24,8	-41,8
25-34 urte	-6,9	4,1	-3,1	3,0	4,8	4,6
35-49 urte	-2,0	-1,9	-3,9	-8,3	-3,3	-14,8
50-64 urte	1,3	-1,4	-0,1	-0,5	-5,9	-6,5
Guztira	-1,3	-1,7	-2,9	-6,7	-11,4	-19,7

Eskualde-eremuan, 1997-2007 aldian biztanleria ez-aktiboak behera egin du EAEko ia eskualde guztietan. Jaitsierarik handiena, bai ez-aktiboaren zenbatekoei dagokienez, bai jarduerarik ezaren tasari dagokionez, Gipuzkoako eskualde guztietan eta Ezkerraldean eta Durangaldean gertatzen da. Zona horietan ez-aktiboaren % 20tik gorako jaitsierak biltzen dira, eta jarduerarik ezaren tasei dagokienez, 6,5 puntutik gorakoak.

Aiara, Eskuinaldea eta Bilbo eskualdeak maila horietara hurbiltzen dira, hein handi batean. Hori horrela izanik, zenbateko absolutuen jaitsiera-mailak % 17,5etik % 19ra bitartekoak dira, jarduerarik ezaren tasak 4,5-7 puntu erorita.

¹⁶ 2001. urtera arte —urte hori barnean hartuta—, EUSTAT metodologia zaharraren arabera aurkeztu ditugu LMEn zenbatekoak.

Horrekin kontraste handia eginez, biztanleria ez-aktiboaren bolumena % 2,4 baino ez da jaitsi Bizkaia-Kostan, jarduerarik ezaren tasan 3,3 puntuko jaitsierarekin bateragarri izanik oraindik ere. Gasteizen, aldiz, ez-aktiboaren bolumena maila berean dago 1997an eta 2007an, jarduerarik ezaren tasetan 1,5 puntu eskaseko jaitsiera gertatuta. Aipatutako bi eskualde horietan, ez-aktiboaren bolumena gutxi jaitsi izana ekonomikoki ez-aktiboa den bizitzan mantentze-prozesuak gehiago egonkortzearekin lotzen da.

Azken aldiko bilakaerari dagokionez, egiaztatu dugu 2005-2007 bitartean jarduerarik ezaren zenbatekoak jaisten ari direla oraindik EAEko zenbait eskualdetan. Jaitsiera puntu 1 eta 2 puntu artekoa da Bilbon, Ezkerraldean eta Durangaldean, eta 3,5 puntutik 4 puntura bitartekoa Aiaran eta Debabarrenean. Beste zenbait kasutan, hobekuntza 0,5 puntutik beherakoa da, tasak egonkortzera ere iritsia, hala nola, Donostialdean, Eskuinaldean edo Bizkaia-Kostan; azken horretan, biztanleria ez-aktiboaren bolumen orokorra handitzearekin bateragarria da prozesu hori.

Aurrekoaren kontrastean, 2005. urtetik 2007. urtera jarduerarik ezaren tasak apurtxo bat handitu dira (0,5 puntu inguru) Gasteizen, Tolosa-Goierri eta Debagoiengan. Gasteizen eta Debagoiengan, igoera 2006-2007 aldian gertatu da, funtsean.

16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera, eskualdearen arabera (1997-2007 aldia)

(Datu absolutuak, hazkundearen %-a eta jarduerarik ezaren tasa %-etan)

Eskualdea	Ez-aktiboak				Hazkundea %-etan				Jarduerarik ezaren tasa			
	1997	2005	2006	2007	07/97	06/05	07/06	07/05	1997	2005	2006	2007
Gasteiz	52.747	51.558	50.479	52.755	0,0	-2,1	4,5	2,3	30,8	28,9	28,3	29,3
Aiara	9.569	8.927	8.310	7.822	-18,3	-6,9	-5,9	-12,4	33,7	31,3	29,0	27,8
Eskuinaldea	41.801	34.490	36.834	34.411	-17,7	6,8	-6,6	-0,2	38,4	31,2	33,4	31,2
Bilbo	88.776	77.692	72.763	71.847	-19,1	-6,3	-1,3	-7,5	35,9	33,3	31,2	31,2
Ezkerraldea	115.214	89.199	87.339	84.507	-26,7	-2,1	-3,2	-5,3	40,2	33,1	32,5	32,2
Bizkaia-Kosta	25.780	24.131	25.198	25.166	-2,4	4,4	-0,1	4,3	34,1	30,9	32,4	30,8
Durangaldea	29.103	23.751	23.532	23.242	-20,1	-0,9	-1,2	-2,1	37,1	30,7	30,4	29,2
Donostialdea	106.696	84.390	82.683	83.513	-21,7	-2,0	1,0	-1,0	34,1	27,5	27,0	27,2
Tolosa-Goierri	27.301	18.587	19.361	18.839	-31,0	4,2	-2,7	1,4	36,0	25,6	26,8	26,2
Debagoiena	16.168	11.187	10.610	10.852	-32,9	-5,2	2,3	-3,0	36,3	26,4	25,1	26,8
Debabarrena	14.435	12.412	11.993	10.649	-26,2	-3,4	-11,2	-14,2	37,0	34,2	33,3	30,2
Guztira	527.592	436.324	429.103	423.602	-19,7	-1,7	-1,3	-2,9	35,9	30,4	30,0	29,7

Etsia hartutako biztanleria ez-aktiboari dagokionez, 1997-2007 aldian murrizketa handia gertatu da (%-54,9), eta horri esker agerian geratu da Euskadin enplegu-aukerak nabarmen hobetu direla aztertutako hamarkadan. 1997tik 2001era bitarte, bereziki, jaitsiera oso ikusgarria gertatu zen: etsia hartutako 10.000 ez-aktibotik gora izatetik 4.000 baino zertxobait gehiago izatera igaro zen, 2003. urtera arte errealitate horri eutsita. Aldiz, 2003-2005 aldian, berriz gora egin du etsia hartutako ez-aktiboaren bolumenak, 7.000 lagunetara iritsi arte, baina 2006an eta 2007an berriz ere behera egin du, hurrenez hurren, 4.983 eta 4.738 lagunera jaitsita.

**Etsia hartutako 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera
(1997-2007 aldia)**

(Datu absolutuak eta hazkundea %-etan)

	Absolutuak						Hazkundea %-etan
	1997	2001	2003	2005	2006	2007	2007/1997
Etsia hartutako ez-	10.505	4.535	4.267	7.001	4.983	4.738	-54,9

Bada aintzat hartu beharreko beste talde bat: lanerako prest dagoen biztanleria ez-aktiboa. Egiatzatu ahal izan denez, jarduera neurtzeko metodologian aldaketak sartuz geroztik garrantzi handia hartu du talde horrek, zeren metodologia aldatu aurretik, talde hori biztanleria langabeen multzoan, oro har, sailkatzen baitzen.

Ez-aktiboaren talde horri dagokionez, hona hemen datu garrantzitsu bat: 2003-2005 aldian gorakada izan da; izan ere, aldi horretan kolektibo hori 13.737 lagun izatetik 31.433 lagun izatera igaro da, azkenean, 2006an. Lanerako prest dagoen ez-aktibo kopurua jaitsi egin da berriz ere azken urte horretan, 20.882 lagun baitira. 2006tik 2007ra bitarte jaitsierari eutsi egin zaio, 15.380 lagunetara iritsita; zenbateko hori 2001ekoa baino % 35,6 txikiagoa da, nahiz eta 2003ko gutxieneko maila baino handixeagoa den oraindik.

2001-2007 aldiko datuen bilakaerari erreparatuta, nolana ere, epe luzeko jaitsiera garrantzitsua ikus daiteke kolektibo hori osatzen dutenen kopuruan. Horrela, bada, 2001az geroztik ikusitako langabeziaren jaitsiera-prozesuaren intentsitatea egiaztatzen du adierazle horrek, langabeziaren zenbatekoen jaitsierak bezala jardun baitu bereziki 2001-2003 eta 2005-2007 biurtekoetan.

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera
(2001-2007 aldia)**

(Datu absolutuak eta hazkundera %-etan)

	Absolutuak				Hazkundera %-etan				
	2001	2005	2006	2007	05/01	06/05	07/06	07/05	07/01
Lanerako prest dauden	23893	31.433	20.882	15.380	31,6	-33,6	-26,3	-51,1	-35,6

Ez-aktiboaren kolektiboaren barruan lanerako prest dauden ez-aktiboaren garrantziak askotariko bilakaerak izan ditu. Hori horrela, 2001-2003 aldian % 4,9tik % 3,2ra murriztu ostean, proportzioa berriz ere % 4,9ra igo zen 2006an, baina 2007an % 3,6ra jaitsi.

2001-2007 aldiko bilakaera kontuan hartuta, konturatuko gara gizonen kasuan lanerako prest dauden ez-aktiboaren zenbateko txikiak 2007. urtean lortu direla (% 4,5). Emakumeen artean, 2006tik 2007ra bitarte jaitsiera izan den arren, proportzioa 2003koa baino handiagoa da (% 3,2 eta % 2,4). Hala ere, 2001eko mailekin alderatuta, proportzioan izandako beherakada handiagoa da emakumeen artean (1,4 puntu, eta gizonetan puntu 1).

Adinaren arabera, epe luzeko joera oso positiboa da zenbait kasutan, bereziki 25-39 urtekoetan. 2001-2007 aldian, 25-29 urteko biztanlerian prestasun-adierazlea % 20tik % 7ra murriztu da; jaitsiera % 12,5etik % 8,7ra bitartekoa da 30-34 urtekoetan, eta % 14,4tik % 8,5era 35-39 urtekoetan. 25-34 urtekoetan, 2007ko mailak txikiak dira, alde handiaz, gainera, eta 2003ko gutxieneko mailen inguruan daude 35-39 urtekoen artean.

Antzeko zerbait gertatzen da 50 urtetik gorakoetan ere, aldiko mailarik txikiak 2007koak baitira, 55 urtetik gorako kasuan. Alabaina, kasu horretan, 2001ean abiapuntuko zenbatekoak oso txikiak zirenez, logikari jarraiki, jaitsiera txikiagoa da zenbateko absolutuetan. 2001ean % 0,5etik % 4,2ra bitarteko zenbatekoak baziren, 2007an % 0,1etik % 3,3ra bitartekoak.

25 urtetik beherako zenbatekoetan epe luzeko egonkortasuna suma daiteke, 2003tik aurrera goranzko joera txikiarekin; bilakaerarik txarrena 40-49 urtekoei dagokie. Kasu horretan, lanerako prest dauden ez-aktiboaren garrantziak goranzko joera argia du erreferentziako biztanleria ez-aktibo guztian. 45-49 urtekoetan, 2001ean % 4,4 zen eta 2007an % 5,9, 2006ko %

7,7aren azpitik, nolahi ere. 40-44 urtekoen artean, hazkundera etengabea da, 2001eko % 7,6tik 2007ko % 10,9ra. Izan ere, talde hori lanerako prest dauden ez-aktibo proportzio handienekoa da 2007an. 2001eko egoerarekin alderatuta, aldaketa nabarmena da; izan ere, 2001ean, 40-44 urtekoetan, erreferentziako proportzioa 25-39 urtekoena baino gutxienez 5 puntu beherago zegoen.

Eskualde-eremuan, joera nagusia beherakada da, 2001-2007 aldian prest dauden ez-aktiboen proportzioari dagokionez. Jaitsierarik deigarrienak (1,5 puntutik 3 puntura bitartekoak) Bilbo inguruko hiru eskualdeei eta Donostialdeari dagozkie. Bilbon izan ezik (proportzioak gora egin baitu 2003ko % 3,1etik 2006ko % 6,9ra, 2007an berriz ere % 4,8ra jaisteko), gainerako kasuetan 2007an gutxienera zenbatekoak lortu dira. Jaitsiera bereziki aipagarria da Ezkerraldean, proportzioa etengabe murriztu baita 2001eko % 7tik 2007ko % 3,9ra.

Aiaran eta Debarrenean ere, joera beheranzkoa da baina ez hain handia; Debarrenaren kasuan, abiapuntuko mailak oso txikiak zirelako (2001ean % 2 inguru). Beste zenbait eskualdetan, ordea, 2001-2007 aldian adierazlea egonkortu egin dela esan dezakegu, esaterako, Bizkaia-Kostan, Durangaldean eta Tolosa-Goierrin.

Gasteiz eta Debagoiena eskualdeek izan dute bilakaerarik negatiboa. Bi kasuetan, 2003an gutxienera mailak lortu ziren eta berriz ere gora egin zuen 2006an¹⁷. 2007. urtean Gasteizen hobekuntza izan da, 2006ko % 6,2tik % 4,9ra jaitsi baita tasa; Debagoienera hazkundera luzatu da, 2007an % 5,9ra iritsita, 2007an EAEko eskualde guztien arteko mailarik handienara.

¹⁷Bilakaera hori izan dute, baita ere, 2001-2007 aldian lanerako prest dauden ez-aktiboen garrantzia egonkortzeko joera duten zenbait eskualdetan, bereziki, Bizkaia-Kostan eta Tolosa-Goierrin.

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera
sexuaren, adinaren eta eskualdearen arabera
(2001-2007 aldia)**

(Ez-aktiboaren taldearen gaineko garrantzia %-etan)

	2001	2003	2006	2007
Sexua				
Gizona	5,5	4,8	5,6	4,5
Emakumea	4,6	2,4	4,5	3,2
Adina				
16-19	0,8	0,7	1,1	1,0
20-24	4,6	3,8	5,7	5,2
25-29	20,0	10,3	15,1	7,0
30-34	12,5	10,6	15,1	8,7
35-39	14,4	7,9	8,5	8,5
40-44	7,6	8,3	9,3	10,9
45-49	4,4	3,3	7,7	5,9
50-54	4,2	2,0	4,3	3,3
55-59	2,0	1,8	2,1	1,5
60-64	0,5	0,4	0,6	0,1
Eskualdea				
Gasteiz	2,9	2,3	6,2	4,9
Aiara	5,8	4,5	7,2	5,0
Eskuinaldea	5,6	3,0	5,2	2,7
Bilbo	6,3	3,1	6,9	4,8
Ezkerraldea	7,0	5,2	4,2	3,9
Bizkaia-Kosta	4,0	0,9	4,3	3,9
Durantaldea	3,6	4,7	4,1	3,8
Donostialdea	4,0	3,2	4,0	2,2
Tolosa-Goierrri	1,9	0,7	2,6	1,6
Debagoiena	4,3	0,3	4,5	5,9
Debarrena	2,1	0,1	1,1	1,2
Guztira	4,9	3,2	4,9	3,6

6. Lanerako prest dagoen biztanleria

Biztanleria landunari eta ez-aktiboari buruzko datuetan ikusi den bezala, EAEko lan-merkatuan lan-indarraren eskaintza ez da langabeen taldera soilik mugatzen (talde horretako batzuk, gainera, jada ez daude egiaz lanerako prest, jada aurkitu duten lan berri batean hastear baitaude). Gaur egun, EAEn lan berri bat lortzeko prest dauden lagunak 71.146 dira; horietatik % 44 langabeak dira, baina % 34,3 landunak¹⁸ eta % 21,6 ez-aktiboak, Eurostaten araudiaren arabera, BJA metodologia-hurbilketa berrian hartutakoak. Zenbateko absolutuetan, talde horretan 31.330 langabe daude, 24.435 landun eta 15.380 ez-aktibo.

Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria, jarduerarekiko duten loturaren arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Jarduerarekiko lotura	Absolutuak	%
Landuna	24.435	34,3
Langabea	31.330	44,0
Ez-aktiboa	15.380	21,6
Guztira	71.146	100

Oharra: Landunen kasuan, egungoa ez den beste enplegu batean hasteko prest egon behar dute

Kolektibo hori bilakaeraren ikuspegia kontua hartuta aztertzen badugu, ikusiko dugu EAEko lan-merkatuaren irudiak alderdi positibo batzuk erakusten dituela. Ildo horretatik, 2001 eta 2005 bitartean, lanerako prest zegoen biztanleriaren bolumena langabe kopurua baino askoz txikiagoa zen (% 9,9ko jaitsiera; zenbateko hori kontrastean zegoen langabeziari buruzko zenbatekoak % 48,4 jaitsi baitzen); 2005 eta 2007 bitartean, ordea, zenbateko horien bilakaera hurbildu egin da. Horrela bada, langabezia % 36 jaitsi da, baina lanerako prest dauden langabeen zenbatekoak ere % 38,5 jaitsi dira azken biurtekoan; izan ere, 2001. urtean 128.534 lagun ziren, gaur egun, aldiz, 71.146 dira. Horretaz gain, 2001-2005 aldian ez bezala, enplegu berri bat bilatzen ari diren landunen kopurua ere jaitsi egin da (% 30,7). Halaber, % 51,1 jaitsi da lanerako prest dagoen ez-aktiboen zenbatekoa, 2001-2005 aldian etengabe gora egin ostean.

¹⁸ Gogoan izan puntu honetan honako hauek bakarrik kontuan hartzen direla: beste enplegu bat bilatzen ari diren eta 15 egunetan lan hori lortzeko prest dauden landunak.

Adierazitako datuen argitara, argi dago 2007. urte bukaeran sumatzen den lan-indarraren eskaintza-egoerak nabarmen murriztu direla merkatuan, eta errealitate horretan erabakigarria da 2005-2007 biurtekoan gertatutakoa. Izan ere, 2001-2007 aldi osoa aztertuz gero, enplegurako prest dagoen biztanleriaren bolumen-murrizketaren % 77,8 2005-2007 aldiari dagokio, 2003-2005 aldiko % 21,8 eta 2001-2003 aldiko % 0,5 gaindituta.

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleriaren bilakaera
(2001-2007 aldia)**

(Datu absolutuak eta hazkundera %-etan)

Jarduerarekiko lotura	Absolutuak				Hazkundera %-etan
	2001	2003	2005	2007	07/05
Landuna	33.672	28.027	35.242	24.435	-30,7
Langabea	94.861	86.504	49.100	31.330	-36,2
Ez-aktiboa	0	13.737	31.433	15.380	-51,1
Guztira	128.534	128.268	115.775	71.146	-38,5

Gorago azaldutako bilakaera positiboak zera adierazten du, EAEn 16-64 urtekoetan lanerako prest daudenen proportzioa, hau da, prestasun-tasa nabarmen murriztu dela. 2001etik 2003ra bitartean % 9 inguruko maileri eutsi ondoren, 2003. urtetik 2005. urtera bitartean lehenengo jaitsiera sumatu da, 2005ean % 8,1era iritsi arte. Nolanahi ere, jaitsierarik deigarriena 2005-2007 biurtekoan gertatu da, prestasun-tasa % 6an kokatuta 2006an eta % 5ean 2007. urtean. Datu hori garrantzizkoa da 2003tik eta 2007ra bitartean egoera nabarmen hobetu dela erakusten duelako, 2001-2003 aldian zenbatekoak egonkortu ondoren.

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleriaren bilakaera
(2001-2006 aldia)**

(Prestasun-tasa, %-etan)

Urtea	Prestasun-tasa %
2001	9,0
2003	9,1
2005	8,1
2006	6,0
2007	5,0

Kontuan hartutako biztanleriaren % 57,6 emakumeak dira. Izan ere, prestasunaren eragina handiagoa da emakumeetan: % 5,8, eta gizonetan % 4,2.

Alabaina, aldeak ez dira handiegiak, eta generoaren araberako tasetan bat-egiteko prozesua gertatzen ari dela esan dezakegu. Horrela, bada, 2001ean 3,9 puntuko aldea zegoen emakumearen kaltetan; 2007an, ordea, 1,6ra igaro da alde hori. Egia esateko, tasa 5,2 puntu jaitsi da 2001etik 2007ra bitartean emakumeetan (% 11 izatetik % 5,8 izatera igaro da), gizonetan, ordea, jaitsiera 2,9 puntukoa da (% 7,1etik % 4,2ra igaro da). Egoera hori 2001 eta 2005 bitartean gertatukoarekin lotzen da hein handi batean. Aldi horretan, emakumeen artean ia 2 puntuko jaitsierarekin batera, gizonezkoen prestasun-tasak egonkortu egin dira (% 7 inguru).

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria,
sexuaren arabera**
(Datu absolutuak, % bertikalak eta prestasun-tasa %-etan)

Sexua	Absolutuak	%	Prestasun-tasa			
			2001	2005	2006	2007
Gizona	30.200	42,4	7,1	6,9	5,0	4,2
Emakumea	40.946	57,6	11,0	9,2	7,1	5,8
Guztira	71.146	100	9,0	8,1	6,0	5,0

Lanerako prest dauden lau biztanletatik hiru baino gehiago 20-44 urtekoak dira, % 35ek 20-29 urte ditu, eta % 43,8k 30-44 urte.

20 urtetik beherakoak salbuespen izanik (horietatik % 2,5ek soilik baitio prest dagoela lan berri bat lortzeko), 20 urtetik gorakoan artean, fenomeno horrek gazteenen artean lortu ditu mailarik handienak, eta adinean aurrera egin ahala, eragina murriztu egiten da. Gehieneko mailak 20-29 urtekoetan biltzen dira; adin horietako biztanleriaren % 9tik % 10era bitartek esan du lan berri bat lortzeko prest dagoela. Zenbatekoak handi samarrak dira oraindik (% 6-7 ingurukoak) 30-39 urtekoetan. Prestasun-tasak % 5,1era jaitsi dira 40-44 urtekoetan, eta % 3,5eko edo hortik beherako maila dute 45 urtetik gorakoek. 55 urtetik aurrera, zenbatekoak % 2tik behera ere jaitsi dira.

Azken aldian, prestasun-tasan hobekuntza-zantzu garrantzitsuak izan dira. Aldaketa positiboak honako adin-talde hauek dituzte: 2001ean % 10eko tasa gainditzen zuten adin-taldeak, 20-39 urtekoetan tasa hori 5 eta 8 puntu bitarte jaitsi baita. Jaitsiera horiek aldi osoan gertatu dira. Beherakada 2 puntutik 2,5 puntura bitartekoa izan den arren —hori gertatu da, hein handi batean, 2001-2005 aldian ikusitako hobekuntzarik ez delako izan adin gazteenetan—, 40-49 urtekoetan oraindik garrantzitsua da beherakada. Jaitsiera, orokorrean, 0,5 puntutik 1,5 puntura bitartekoa da gainerako adin-taldeetan. Dena dela, arazoaren eragin txikieneko taldeak dira bai 2001ean, baita 2007an ere.

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria,
adinaren arabera**
(Datu absolutuak, % bertikalak eta prestasun-tasa %-etan)

Adina	Absolutuak	%	Prestasun-tasa			
			2001	2005	2006	2007
16-19 urte	1.726	2,4	3,6	4,4	3,0	2,5
20-24 urte	10.653	15,0	15,2	13,7	11,0	9,8
25-29 urte	14.282	20,1	17,0	15,3	12,3	9,0
30-34 urte	12.074	17,0	13,0	11,1	8,1	7,1
35-39 urte	9.699	13,6	11,7	9,6	7,0	5,9
40-44 urte	9.395	13,2	7,8	7,3	5,5	5,1
45-49 urte	5.564	7,8	5,5	6,4	4,5	3,5
50-54 urte	4.602	6,5	4,4	4,1	3,2	3,0
55-59 urte	2.348	3,3	3,3	3,5	2,4	1,7
60-64 urte	804	1,1	0,6	1,2	1,0	0,6
Guztira	71.146	100	9,0	8,1	6,0	5,0

Lan berri bat lortzeko prest dagoen taldean, gehiengoak ikasketa-maila handia du. Horri dagokionez, biztanleria horren % 50,3k lanbide-heziketa mailako edo unibertsitate-mailako ikasketak ditu. % 20,9k lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak ditu, eta gainerako % 28,8ak ez du ikasketarik edo lehen mailako ikasketak ditu.

Prestasun-tasak aztertuta, berretsi egin da, hein batean, ikasketa-mailaren eta lan berri bat lortzeko prestasunaren arteko lotura. Ildo horretatik, egiaztatu da prestasun-tasak askoz handiagoak direla bigarren mailako ikasketak dituzten taldeetan, tasa horiek % 5etik % 5,5era bitartekoak baitira; lehen mailako ikasketak dituztenenak, aldiz, % 4,6koak dira. Azken zenbateko hori gainditu ere egiten dute hirugarren mailako ikasketak dituztenek (% 4,8).

Gaur egungo egoera 2001ekoaz bestelakoa da; 2001ean, bigarren mailako lanbide-heziketako eta hirugarren mailako ikasketak dituztenen artean prestasun-mailak askoz ere handiagoak ziren. Izan ere, 2001-2007 aldian, prestakuntza-maila handienekoen artean tasak nabarmen jaitsi dira, bigarren mailako lanbide-heziketako tituludunen artean % 10,8tik % 5,2ra jaitsita, eta hirugarren mailako ikasketetako tituludunen artean % 11,9tik % 4,8ra.

Prestakuntza-maila txikiagoko kolektiboetan izandako aurrerapena ere garrantzitsua da, hain handia izan gabe ere. Hori horrela izanik, lanbide-arlokoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituztenen egoerak ere hobera egin du 2006tik 2007ra. 2001etik 2007ra bitarte % 7tik % 7,5era bitarteko mailan egon ostean, azken urtean % 5,5era iritsi da, ikasketa mota horiek dituztenen arteko prestasun-tasa lehen aldiz jaitsi baita modu erlatiboki esanguratsuan. Lehen mailako ikasketak egindakoen kasuan, 2001-2005 aldian % 7 inguruko zenbatekoetan egon

ostean, egoerak nabarmen egin du hobera 2005etik 2006ra bitarte, % 4,5era murriztu baita, eta 2007an, funtsean, eutsi egin zaio zenbateko horri (% 4,6).

**Lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria,
ikasketa-mailaren arabera**
(Datu absolutuak, % bertikalak eta prestasun-tasa %-etan)

Ikasketa-maila	Absolutuak	%	Prestasun-tasa			
			2001	2005	2006	2007
Lehen mailako ikasketak	20.500	28,8	7,3	7,0	4,5	4,6
Bigarren mailako ikasketak	14.843	20,9	7,0	7,5	6,9	5,5
Lanbide-ikasketak	18.435	25,9	10,8	9,2	6,6	5,2
Unibertsitate-ikasketak	17.368	24,4	11,9	9,0	6,9	4,8
Guztira	71.146	100	9,0	8,1	6,0	5,0

Eskualde-eremuari dagokionez, hona hemen daturik esanguratsuenak: lanerako prest dagoen biztanleriaren % 47,8 Bilbo inguruko hiru eskualdeetan bizi da, bereziki Bilbon eta Ezker Ibarrean (egoera horretan dauden % 40,8 biltzen baitute). Beste % 20,4 Donostialdean metatzen da, eta Gasteizen, lanerako prest dauden % 12,7. Atzetik, Bizkaiko gainerako eskualdeak daude, % 9,9rekin, Gipuzkoako gainerakoak, % 7,4rekin, eta Aiara, % 1,7rekin.

Zenbaki erlatiboetan, eskualdeen arteko aldeak 2007an ez dira aurreko urteetan bezain garrantzitsuak, egoera onenean dagoen eskualdearen eta egoera txarrean dagoen eskualdearen artean 3,5 puntuko aldea baitago, 2001ean ikusitako 9,3 puntuko aldetik behera, nabarmen. Bestalde, Bilbo inguruko hiru eskualdeak ez dira jada nabarmentzen eskualde horietako zenbatekoak EAeko gainerako eskualdeetakoak baino handiagoak direlako, nahiz eta Bilbo eta Ezkerraldea eskualdeetako zenbait tasa handiagoak diren —% 6,7 eta % 5,2—. Eskuinaldea EAeko batez bestekoetatik behera dago (% 4,6); tasa hori Donostialdeko % 4,7, Gasteizko % 5 eta Bizkaia-Kostako % 5,3 baino txikiagoa da. Aiara eta Debarrena ere antzeko mailan daude, % 4,5 inguru.

Mailarik txikienei dagokienez, Durangaldea, Tolosa-Goierrri eta Debagoiena nabarmentzen dira, prestasun-tasak % 3tik % 3,5era bitartekoak direla, eta mailarik txikiena Tolosa-Goierrri du, % 3,2rekin.

Azken aldiko bilakaera bereziki Bizkaiko eskualdeentzat izan da onuragarri. Gaur egun, Bilbo inguruko hiru eskualdeen egoera hobea —2001ean % 10etik gorako mailak zituzten— 2001etik 2007ra bitartean tasak 5 puntutik 6,5 puntura jaistearekin lotzen da, baina beherakada

hori, batez ere, 2005-2007 aldian gertatu da. Halaber, Durangaldean ere beherakada nabarmena da, 4,8 puntuko hobekuntzarekin, azken bi urteotan metatuta, kasu horretan ere. Bizkaia-Kostan, 2006. urtera arte prestasun-tasa etengabe jaitsi zen, baina azken urtean, % 4,8tik % 5,3ra igo da. Horren ondorioz, 2001-2007 aldian prestasun-tasa soilik 1,9 puntu jaitsi da.

Bizkaitik kanpo, prestasun-tasaren jaitsiera nabarmena da Aiaran ere, % 9tik % 4,4ra murriztuta 2001. urtetik 2007. urtera; 4,6 puntuko beherakada hori, hein handi batean, 2006-2007 aldiko jaitsieraren ondorioa da, 2005-2006 aldian gorakada garrantzitsua gertatu ostean. Donostialdean ere hobekuntza handia gertatu da, % 8tik % 4,7ra erorita, 3,3 puntuko hobekuntza, alegia.

Gasteizen, Tolosa-Goierri eta Debagoienean, hobekuntza 2 puntutik 2,5 puntura bitartekoa da. Kasu horretan, prestasun-tasetako gorakada puntual batek eragin du hori, 2005ean edo 2006an, kasuan kasu, baina 2006tik 2007ra bitarte tasa horien murrizketa garrantzitsua gertatu da (Gasteizen eta Tolosa-Goierri 1,2 puntu, eta Debagoienean 1,9 puntu).

Debarrenaren kasua berezia da: 2006. urtera arte prestasun-tasa txikieneko eskualdea zen, % 3tik % 4ra bitarteko zenbatekoekin, baina 2007an tasa hori % 4,6ra igo da, EAE osoko tasa baino soilik hamarren bat edo beste gutxiago. Bizkaia-Kosta eta Debarrena eskualdeetan soilik egin du gora prestasun-tasak 2006tik 2007ra, EAE osoan.

**Lan berria lortzeko prest dagoen 16-64 urteko biztanleria,
eskualdearen arabera**

(Datu absolutuak, % bertikalak eta prestasun-tasa %-etan)

Eskualdea	Absolutuak	%	Prestasun-tasa			
			2001	2005	2006	2007
Gasteiz	9.025	12,7	7,2	5,4	6,2	5,0
Aiara	1.239	1,7	9,0	5,9	7,7	4,4
Eskuinaldea	5.034	7,1	10,1	9,7	5,7	4,6
Bilbo	15.350	21,6	13,0	11,9	7,5	6,7
Ezkerraldea	13.647	19,2	10,5	9,7	6,9	5,2
Bizkaia-Kosta	4.318	6,1	7,2	6,4	4,8	5,3
Durungaldea	2.750	3,9	8,2	7,1	4,6	3,5
Donostialdea	14.485	20,4	8,0	7,0	5,6	4,7
Tolosa-Goierra	2.288	3,2	5,3	6,0	4,4	3,2
Debagoiena	1.400	2,0	5,9	4,4	5,4	3,5
Debarrena	1.611	2,3	3,7	3,9	3,3	4,6
Guztira	71.146	100	9,0	8,1	6,0	5,0

7. Azken urtean enpleguarekin izandako erlazioa

Orain arte aurkeztutako datuak 2007. urtearen azken hiruhilekoan izandako jardueraren egoerari buruzkoak dira. Ikuspegi hori geldoegia denez, interesgarria da adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleriak urte osoan lanarekin duen harremana aztertzea.

Azterketa hori egiten badugu, azken urte honetan Euskal Autonomia Erkidegoko 16-64 urteko biztanleriaren % 71,9k enpleguarekin loturaren bat izan duela egiaztatuko dugu. Proportzio hori 2001ekoa (% 64,3) eta 2002koa (% 67,5) baino askoz handiagoa da. Igoera hain handia ez bada ere, 2003an, 2005ean eta 2006an ikusitako zenbatekoekin alderatzen badugu, ikusiko dugu hazkundera izan dela: % 69,6, % 70,5 eta % 71,4, hurrenez hurren.

Azken urte osoan, 16-64 urteko biztanleriaren % 5,2k lana izan du 6 hilabete baino gutxiagoz; % 2,8k 6-9 hilabetez izan du lana; % 3k 9-12 hilabetez, eta % 60,9k urte osoan lan egin du, modu jarraituan. Azken zenbateko hori aurrerapen handia da 2005eko % 57,8rekin eta 2006ko % 58,6rekin alderatuz gero, eta are deigarriagoa da 2001-2003 aldiko zifrak erreferentziatzat hartuta (% 2,3 2001ean eta % 53,6 2003an).

16-64 urteko biztanleria, azken urtean lanean jardundako denboraren arabera (Datu absolutuak eta % bertikalak)

Lanean jardundako denbora	Absolutuak	%
12 hilabete	868.793	60,9
9-12 hilabete	42.164	3,0
6-8 hilabete	39.947	2,8
< 6 hilabete	74.649	5,2
Ezer ez	400.407	28,1
Guztira	1.425.959	100

Eskuragarri ditugun datuek adierazten dute jarduerari dagokionez, kategoriak nahiko irekiak direla, eta horrek eragina du langabezia-egoerak okupazio-egoerara igarotzean, baita jarduerari eta jarduerarik ezari dagozkien egoeretan ere.

Landunei dagokienez, 2007ko azken hiruhilekoan landunen % 10,6k ez du okupazio jarraitua izan urte osoan. 2003-2005 aldian % 15,4tik % 12,7ra jaitsi ostean, zenbateko horrek beheranzko joerara itzultzea esan nahi du, atzemandako hazkunderen ostean, lehena 2001-2003 aldian (2001ean % 13,7, 2002an % 14,3 eta 2003an % 15,4), eta beranduago, 2005-2006 aldian, berriro ere 2001ekoaren antzeko mailara itzulita (% 13,6). Joera hori, zalantzarik gabe,

urte osoan modu jarraituan okupazioa izan duten 16-64 urteko biztanleen proportzioaren gorakadarekin loturik dago, 2007ko LMEko daturik positiboenetako bat izanik.

Biztanleria ez-landunari dagokionez, 2007. urte amaierako langabeen % 46,4k enpleguarekin loturaren bat izan du urtean zehar (2001ean % 35,3 eta 2002an % 40,9 ziren), baina proportzio horrek ez du gainditzen 2003-2006 aldiko % 49tik % 51ra bitartekoa; horrek esan nahi du langabeak okupazioaren munduan sartzea zailagoa dela 2003. urtetik aurrera. Erreferentziako proportzioa % 9,5 da ez-aktiboen kasuan. Zenbateko horrek 2001eko eta 2002ko erregistroak gainditzen ditu (% 5,7 eta % 7,5, hurrenez hurren), baita 2005ekoa (% 8,9) eta 2006koa (% 8,7) ere. Kasu horretan, zenbateko hori soilik 2003ko % 9,8 baino txikiagoa da.

Gaur egun, lanik gabe edo ez-aktibo dagoen biztanleriak produkzio-sisteman nolabaiteko parte-hartzea izaten duen arren, egungo landunek metatzen dute 2007an Euskadin lan egindako hilabete guztien % 97,4, eta egungo langabeei % 0,7 soilik dagokie, egungo biztanleria ez-aktiboaren % 1,8ren azpitik ere geratuta. Ikuspegi horretatik begiratuta, begi-bistakoa da egungo langabe eta ez-aktiboen taldeek lan-masari egiten dioten ekarpena nahiko marjinala dela.

16-64 urteko biztanleria, azken urtean jardundako denboraren arabera eta jarduerarekiko gaur egungo loturaren arabera
(% bertikalak)

Azken urtean jardunean emandako denbora	Jarduerarekiko lotura			
	Landuna	Langabea	Ez-aktiboa	Guztira
12 hilabete	89,4	0,5	0,2	60,9
9-12 hilabete	3,2	12,7	1,7	3,0
6-9 hilabete	2,8	11,8	2,2	2,8
< 6 hilabete	4,7	21,4	5,3	5,2
Ezer ez		53,6	90,5	28,1
Guztira	100	100	100	100
Lanean emandako hilabeteak (guztira %-etan)	97,4	0,7	1,8	100
Biztanleria osoan duen garrantzia	68,1	2,2	29,7	100

Urtean zehar modu jarraituan landun izandako biztanleriaren garrantzi erlatiboa kontuan hartzen badugu, egiazta dezakegu sexuaren araberako aldeak oso nabarmenak direla; izan ere 16-64 urteko landunen artean modu jarraituan jardun duten gizonak % 71,9 dira, eta emakumeak, aldiz, % 49,7. Nolanahi ere, okupazio jarraituaren goranzko joera emakumeetan gertakari nabarmena da azken urte hauetan. Urte osoan modu jarraituan jardun duten emakumeen proportzioa % 39 zen 2001ean; 2003an % 41,7ra igo zen, 2005ean % 45,8ra, eta gaur egun % 49,7 da.

Oro har, azken urtean okupazio jarraitua izan duten emakumeen proportzioa 10,7 puntu handitu da 2001-2007 aldian, eta gizonena 6,5 puntu. Hala ere, 2006. urtera arte emakumeen bilakaera hobea zen, baina 2006tik 2007ra okupazio jarraituaren tasa gizonena baino txikixeagoa da (emakumeek 2,1 puntuko hazkundera, eta gizonek 2,6koa).

Azken urtean modu jarraituan jardun duen 16-64 urteko biztanleria, sexuaren arabera
(erreferentziako biztanleriaren %-a)

Sexua	2001	2005	2006	2006
Gizona	65,4	69,5	69,3	71,9
Emakumea	39,0	45,8	47,6	49,7
Guztira	52,3	57,8	58,6	60,9

Adinak ere alde handiak eragiten ditu, eta alde handia dago adin-taldeetan, izan ere hainbat taldetan urtean enplegu jarraituaren esperientzia izan du biztanleria gehienak, baina beste hainbat taldetan ez. Azken horien artean 25 urtetik beherakoak nabarmentzen dira bereziki: 20-24 urtekoen % 32,2k eta 16-19 urtekoen % 3,5ek modu jarraituan jardun du. Antzeko egoeran dago, halaber, 60 urtetik gorako taldea, okupazio jarraituan aritu direnak % 26 izanik.

25-59 urtekoen artean, ordea, biztanleria gehienak lortzen du okupazio jarraituari eustea urte batean. 25-29 urtekoetan eta 55-59 urtekoetan proportzioa % 55etik % 65era bitartekoa da (% 63,9 eta % 55, hurrenez hurren). 50-54 urtekoetan % 69,5era iritsi da, eta 30-49 urtekoetan % 75etik % 77,5era bitarte dabil; adin-tarte horietan sumatzen da okupazio jarraituaren eragin handiena.

Alabaina, okupazio jarraituari buruzko datuen azken aldiko bilakaera positiboa da adin guztietan. Hazkunderik handiena 2001 eta 2007 bitartean gertatu da 45-59 urtekoetan, adin horietan 9 puntutik 11 puntura bitarteko igoerak atzeman dira lan jarraituaren adierazleari dagokionez. Halaber, hobekuntza garrantzizkoa da, 6,5 puntutik 8,5 puntura bitartekoa, 25-44 urtekoen artean. Txikiagoa den arren (3,5-4,5 puntu), aurrerapena oraindik ere nabarmena da 20-24 urtekoetan eta 60-64 urtekoetan. Aldiz, okupazio jarraituaren tasa soilik 0,8 puntu hobetu da 20 urtetik beherakoetan.

2005-2007 aldiko bilakaerari erreparatuta, 25-29 urtekoetan aurrerapen nabarmenak ikusten dira oraindik ere, oro har, 3 puntu eta 4,5 puntu artekoak. Alabaina, 25 urtetik beherakoetan puntu batetik beherakoa da, eta okupazio jarraituaren tasa bi hamarren ere jaitsi da 60-64 urtekoetan.

Egia esateko, okupazio jarraitua dutenen proportzioa jaisteko errealitateak, azken urteotan, 60 urtetik gorakoei eta 20 urtetik beherakoei eragiten die. Izan ere, horixe gertatu da 2006tik

2007ra bitarte, adin-talde horietan okupazio jarraitua izan dutenen proportzioa gehiago edo gutxiago murriztu baita. Jaitsiera-prozesu horrek 20-24 urtekoei ere eragin zien 2005-2006 aldian, baina kasu horretan, azken aldiko bilakaera positiboagoa da. Hala ere, oro har, 2005-2007 aldian, 60 urtetik gorakoek eta 25 urtetik beherakoek bilakaera txarragoa da 25-59 urtekoetan baino.

Azken urtean modu jarraituan jardun duen 16-64 urteko biztanleria, adinaren arabera
(erreferentziako biztanleriaren %-a)

Adina	2001	2005	2006	2007
16-19 urte	2,7	2,3	4,4	3,5
20-24 urte	27,9	31,2	29,3	32,2
25-29 urte	57,0	59,6	60,2	63,9
30-34 urte	67,0	72,0	72,2	75,3
35-39 urte	69,5	73,4	73,0	76,5
40-44 urte	70,6	74,4	74,9	77,2
45-49 urte	66,4	73,9	74,1	77,4
50-54 urte	59,8	65,4	67,5	69,5
55-59 urte	46,2	52,2	54,0	55,0
60-64 urte	22,6	26,2	26,1	26,0
Guztira	52,3	57,8	58,6	60,9

Eskualdearen araberako adierazleen azterketak agerian uzten du eskualdeen artean aldea egon badagoela oraindik okupazio jarraituari dagokionez, nahiz eta emaitzak argi eta garbi bateratzen ari diren. Alderik positiboenean Tolosa-Goierri nabarmentzen da. 16-64 urtekoen % 65,9 landun jarraitu izanik, % 65eko maila gainditzen duen eskualde bakarra da gaur egun. Dena dela, EAEko beste eskualde askotan % 62,5etik % 64ra bitarte dabilta, hala nola, Arabako eskualdeetan, Durangaldean, Donostialdean eta Debagoiengan.

Eskuinaldea eta Debabarrena EAEko batez bestekoaren inguruko mailan daude, % 60,5etik % 61era bitarte. EAEko eskualde gehien zenbatekoetatik urrun, Bilbo, Ezkerraldea eta Bizkaia-Kosta daude % 58tik % 59ra bitarte. Ezkerraldeak du mailarik txikiena, % 58,2rekin.

Alabaina, okupazio jarraituaren eraginak nabarmen egin du gora ia eskualde guztietan 2001-2007 aldian. Eskualde askotan, 8 puntutik gorako hazkundera izan da: Bizkaiko eskualde guztietan (Bizkaia-Kostan izan ezik) eta Tolosa-Goierriin. Eskuinaldean, Ezkerraldean eta Tolosa-Goierriin azken sei urteotan 10 puntutik gorako hazkundera izan dira. Azken horiek baino txikiago, Donostialdean 6,7 puntu, Bizkaia-Kostan 5,7 puntu, eta Gasteiz eta Debagoiengan 4 puntutik 4,5 puntura bitarte. Debabarrenean hazi da gutxien adierazle hori, 2001-2006 aldian 3 puntuko hazkunderarekin.

2005-2007 aldiko bilakaerak aurrerapen garrantzitsuak adierazten ditu, 2 puntutik gorakoak, EAEko eskualde gehienetan. Bilbo inguruko hiru eskualdeetan eta Durangaldean, 4

puntu inguru edo hortik gora ere iristen da. Aldiz, zenbatekoa 1-1,5 puntura murrizten da Bizkaia-Kostan eta Donostialdean.

Testuinguru horretan, bereziki deigarria da Debagoiengan izandako beherakada, 2006an oraindik ere EAEko goiko postuetan baitzegoen. Izan ere, 2006tik 2007ra bitarte adierazlea eskualde bakar batean jaitsi da, eta Debagoiena da eskualde hori. Okupazio jarraitua dutenen proportzioa 2001eko % 59,2tik 2006ko % 65,7ra hazi ostean, 2007an % 63,6ra jaitsi da.

Azken urtean modu jarraituan jardun duen 16-64 urteko biztanleria, eskualdearen arabera
(erreferenziako biztanleriaren %-a)

Eskualdea	2001	2005	2006	2007
Gasteiz	58,6	59,8	61,7	62,6
Aiara	53,7	59,3	58,9	62,5
Eskuinaldea	48,4	56,8	56,9	60,6
Bilbo	49,0	53,9	56,3	58,5
Ezkerraldea	45,8	52,0	54,6	58,2
Bizkaia-Kosta	53,0	57,3	55,7	58,7
Durungaldea	53,9	59,7	59,9	63,8
Donostialdea	55,7	61,4	61,4	62,4
Tolosa-Goierrri	52,3	65,9	62,3	65,9
Debagoiena	59,2	65,1	65,7	63,6
Debarrena	58,2	58,9	55,6	61,2
Guztira	52,3	57,8	58,6	60,9

2007. urteko landunen taldea kontuan hartzen badugu, ikusten da adar eta sektore guztietan enplegu jarraitua nabarmentzen dela, jarduera-sektore eta -adar gehienetan % 85etik gorako mailak izanik. Zenbateko horretatik behera soilik ostalaritza eta etxeko zerbitzua daude (% 83,3 eta % 80,4 hurrenez hurren).

Lan jarraitua dutenen proportziorik handiena duten adarretan, zenbatekoak % 90etik gorakoak dira lehen sektoreko adarretan eta industria-adar gehienetan (elikagai-industria kenduta), baita metalean (metalurgian izan ezik) eta energia-produkzioan ere. Zerbitzuetan, soilik Administrazio Publikoa iristen da aipatutako erregistroetara.

Sektore-arloko zenbatekoei dagokienez, lehen mailako sektorean ikus dezakegu landun jarraituen proportziorik handiena (% 96,1). Sektore horretatik at, landun jarraituen proportziorik handiena industriari eta eraikuntzari dagokie (% 90,9 eta % 91,8, hurrenez hurren), eta zerbitzu-sektorean adierazlea % 88,2 da.

Bilakaerari dagokionez, 2007ko egoerak hazkunde handia erakusten du landun jarraituen proportzioan. Hori horrela izanik, 2001-2006 aldian % 86,5etik % 87,5era bitarte ibili ostean (2003. urtea salbuespena da, % 84,6ra murriztu baitzen), aztertutako proportzioa % 89,4ko maila gorenera iritsi da 2007an. Okupazio jarraituaren ehunekoen hazkundera handiena da 2005etik 2007ra bitarte, 3 puntuko edo hortik gorako zenbatekoekin elikagai-industrian, material elektrikoaren fabrikazioan, gainerako manufaktura-industrian eta eraikuntzan. Zerbitzuen sektorean, sektorerik positiboak osasuna eta gizarte-zerbitzuak, eta gainerako merkataritza-zerbitzuak izan dira.

Hala ere, zenbait adarretan landun jarraituen proportzioak behera egin du 2005-2007 aldian. Hona hemen adar horiek: erauzketa-industria, bestelako gai ez-metalikoen fabrikazioa, metalaren zenbait adar –makinagintza eta garraiatzeko materialaren fabrikazioa– eta finantza-erakundeak.

Azken urtean modu jarraituan jardun duen 16-64 urteko biztanleria, egungo sektorearen eta jarduera-adarraren arabera
(erreferentziako biztanleriaren %-a)

Jarduera-adarra eta sektorea	2001	2005	2006	2007
Nekazaritza	95,0	95,2	91,8	96,1
Industria	88,9	89,9	88,7	90,9
Eraikuntza	81,8	86,9	83,8	91,8
Zerbitzuak	85,3	86,1	85,7	88,2
Nekazaritza	95,1	96,0	92,5	96,4
Arrantza	94,3	92,9	88,6	94,5
Erauzketa-industria	94,9	97,0	84,6	93,2
Elikagai-industria	81,5	79,4	84,5	86,1
Paper-industria	90,1	89,4	87,2	91,0
Industria petrokimikoa	86,0	92,0	92,3	94,8
Kautxu-industria	91,5	89,5	87,3	92,1
Bestelako gai ez-metalikoen industria	91,8	92,7	87,3	90,4
Metalurgia	90,3	90,7	88,7	92,0
Makinagintza	90,6	92,4	90,0	89,8
Material elektrikoa	83,8	85,9	88,8	89,7
Garraiatzeko materiala	89,0	92,9	90,5	89,6
Hainbat manufaktura-industria	88,1	88,2	89,1	92,2
Energia-produkzioa	86,5	86,2	86,4	88,2
Eraikuntza	81,8	86,9	83,8	91,8
Merkataritza	86,1	86,0	85,6	88,4
Ostalaritza	78,5	80,7	80,6	83,3
Garraioak eta komunikazioak	90,1	89,5	89,3	89,8
Finantza-erakundeak	89,5	90,7	91,3	89,5
Enpresetarako zerbitzuak	82,3	85,1	85,0	87,5
Administrazio Publikoa	87,3	92,4	89,1	92,6
Hezkuntza	86,0	86,6	85,6	88,7
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	87,2	84,9	87,7	89,4
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	83,9	85,9	84,8	89,0
Etxeko zerbitzua	81,6	78,4	74,9	80,4
Guztira	86,3	87,3	86,4	89,4

Landun jarraituen proportzioa ere oso handia da lanbide mota gehienetan, % 90 inguruko edo hortik gorako zenbatekoekin. Salbuespen bakarra langile ez-kualifikatuei dagokie, landun jarraituak % 85,7 baitira. Azken aldiko bilakaera bereziki positiboa da kolektibo horren kasuan, 2006tik 2007ra bitarte % 78tik % 85,7ra igota landun jarraituen proportzioa. Kasu guztietan goranzko joera dagoela, okupazio jarraitua dutenen proportzio-hazkundeak argi erakusten du azken urtean hobekuntza nabarmenak izan direla enplegatu administrarien eta langile kualifikatuen artean. Lehenengo kasuan, landun jarraituen proportzioa % 85etik % 88,6ra igo da, eta bigarrenean, % 85,3tik % 88,7ra.

Azken urtean modu jarraituan jardun duen 16-64 urteko biztanleria, egungo lanbidearen arabera

(erreferentziako biztanleriaren %-a)

Lanbidea	2001	2005	2006	2007
Indar Armatuak	81,3	74,7	81,2	100
Zuzendariak	95,5	96,4	96,0	97,3
Teknikariak	86,8	88,5	88,3	89,8
Enplegatu administrariak	85,9	86,2	85,0	88,6
Langile kualifikatuak	84,9	85,8	85,3	88,7
Makineriako operadoreak	90,1	91,0	89,6	90,9
Langile ez-kualifikatuak	80,0	80,2	78,0	85,7
Guztira	86,3	87,3	86,4	89,4

Gutxienez 2001. urtetik (urte horretan hasi baitzen adierazle hori jasotzen), okupazio jarraitua oso handia da soldatapekoak ez diren langileen artean. Kasu horretan, okupazio jarraituari dagokionez, % 90 inguruko edo hortik gorako mailak dituzte soldatapekoak ez diren landun motetan. 2007. urtean, enplegu-emaeleak, autonomoak eta kooperatibistak % 95 inguruko edo hortik gorako mailara ere iritsi dira. Beste horrenbeste gertatzen da kontratu mugagabea duten soldatapeko langileekin ere: kolektibo horren % 96,5ek okupazio jarraitua du.

Logikari jarraiki, okupazio jarraituaren eragina txikiagoa da kontratu mugagaberik ez duten soldatapekoen artean. Horrela, bada, aldi baterako kontratua duten soldatapekoen % 63,1ek soilik izan du okupazio jarraitua urte osoan, eta proportzio hori kontraturik gabeko landunena baino txikiagoa ere bada (% 72,2).

Hala eta guztiz ere, azken aldiko bilakaeraren arabera, okupazio jarraituari eusteko baldintza gutxienak betetzen dituzten kolektiboek hobetu egin dute, argi eta garbi. 2006-2007 aldian, kontratu mugagabea duten soldatapekoen artean 2,7 puntuko hobekuntzak izan dira; 8,6 puntukoak (% 54,5etik % 63,1era) aldi baterako kontratua duten langileen artean, eta 7,5 puntukoak kontraturik gabekoen artean (% 64,7tik % 72,2ra). 2007an, lan-merkatuaren estutasuna dela-eta, EAEko biztanleria landunaren segmentu guztietan egiazko egonkortasun maila handiagoa bultzatu da.

Azken urtean modu jarraituan jardun duen 16-64 urteko biztanleria, egungo lanbide-egoeraren arabera
(erreferentziako biztanleriaren %-a)

Lanbide-egoera	2001	2005	2006	2007
Enplegu-emailea	96,8	97,6	95,8	97,8
Autonomia	93,2	95,0	91,8	94,6
Familia-laguntza	89,3	90,7	88,9	91,8
Kooperatibista	98,4	97,2	97,1	98,4
Admin. Publikoko soldatapekoak				
	88,5	89,8	88,9	92,4
Enpresa publ. soldatapeko langileak	88,8	89,4	88,8	92,0
Enpresa prib. soldatapeko langileak	83,6	84,6	84,4	87,4
Bestelako egoeraren bat	67,9	73,0	76,4	72,5
Guztira	86,3	87,3	86,4	89,4

Azken urtean soldatapeko okupazio jarraitua izan duen 16 eta 64 urte bitarteko biztanleria, egungo kontratu motaren arabera
(erreferentziako biztanleriaren %-a)

Kontratu mota	2001	2005	2006	2007
Mugagabea	96,0	96,3	93,8	96,5
Aldi baterakoa	53,3	53,7	54,5	63,1
Kontraturik gabe	70,3	67,4	64,7	72,2
Guztira	84,4	85,5	85,1	88,2

8. Lana bilatzeko neurriak.

Lan Merkatuaren Erroldan (LME) lana bilatzeko politikak aztertzen dira, baina langabeen taldean ez ezik, honako hauetan ere oinarritzen da: lana bilatzen ari direla eta inkesta egin aurreko lau astetan lana bilatzeko gestio eraginkorrak egin dituztela dioten 16-64 urteko guztietan. Erreferentziako kolektibo hori 55.349 lagunek osatzen dute EAEn¹⁹.

Hasteko, lana bilatzen den lurralde-eremua aztertuko dugu, eta baieztatu egiten da, argi eta garbi, Euskadin lan-merkatua tokian tokikoa dela. Hortaz, lana bilatzen ari diren biztanle gehienek —guztirakoaren % 75ek— gehienez ere beren Lurralde Historikoan aurkituko dutela pentsatuz egiten dute. Soilik % 19,6k bilatzen du lana Euskal Autonomia Erkidego osoan, eta % 5,4k Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo.

Ez da alde handirik ikusten okupazioaren egoeraren arabera, landunetan eta langabeetan ez behintzat, lan-bilaketa Lurralde Historikoaren esparruan egiten dutenen zenbatekoak % 72,9 eta % 74,8 izanik. Lanerako prest dauden eta gestioak egin dituzten ez-aktiboen kolektiboan, ordea, proportzioa % 87,7ra igo da.

Lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen 16-64 urteko biztanleria, jarduerarekiko loturaren arabera, eta lana bilatzeko lurralde-eremuaren arabera (% bertikalak)

Lana bilatzeko eremua	Jarduerarekiko lotura			
	Landunak	Langabeak	Ez-aktiboak	Guztira
Udalerrria	36,3	39,0	52,4	39,0
Lurralde Historikoa	36,7	35,8	35,3	36,1
EAE/ Nafarroa	21,8	19,5	9,4	19,6
Espainia	0,8	0,7	1,6	0,8
Europar Batasuna	2,8	4,2	1,0	3,5
Beste zenbait leku	1,6	0,8	0,3	1,0
Guztira	100	100	100	100

Oraindik ere lana bilatzeko modu nagusietako bat enpleguko bulego publikoetara jotzea da (INEM, Lanbide, udal-bulegoak, eta abar), eta lana bilatzen ari direnen % 69,1ek bide hori erabiltzen du. Horien artetik, % 81ek (lana bilatzen ari diren guztien % 55,9k) bulego horiekin kontaktua izan du azken lau asteetan enplegu-eskaintzei buruzko informazioa lortzeko. Handia den arren, proportzio hori zertxobait txikiagoa da enplegua bilatzeko beste modu esanguratsu

¹⁹ Datu horietan sartzen dira oraindik ere lana aurkitu ez duten langabeak (31.330 lagun, jada lana aurkitu eta lanean hastear dauden langabeak kenduta), baita azken 4 asteetan lana bilatzeko gestioak egin dituzten landunak eta ez-aktiboak ere (20.103 eta 3.916 lagun, hurrenez hurren).

batzuen baina. Adierazitako moduak honako hauek dira: enplegu-eskaintzak komunikabideetan kontsultatzea (lana bilatzen ari direnen % 60,7k baliatzen du bide hori) edo ahaide edo lagunei galdetzea (% 65,3).

Lana bilatzen ari direnen artean eragin txikiagoa duten arren, testuinguru horretan, ezin aipatu gabe utzi % 52,6k komunikabideetan iragarkiak jarri dituela edo iragarkiren bati erantzun diola, eta % 44,7 zuzenean enpresarekin harremanetan jarri dela. Erabiltzen den beste modu bat enplegu-bulego pribatuetara eta Aldi Baterako Laneko Enpresetara (ABLE) jotzea da: lana bilatzen ari direnen % 42,1ek jotzen du horietara. Maila txikiagoetara jaitsita, % 21,4k azterketak edo elkarrizketak egin ditu, eta % 23k lan-poltsetan izena eman du.

Aurreko urteetan ikusitakoari dagokionez honako alderdi hau deigarria da: azken urteotan nabarmen hazi da pertsonekin, enpresetan, edo kolokazio-zerbitzuetan lana bilatzeko zuzeneko gestioak egiten dituzten lagunen proportzioa. Ildo horretatik, alde batetik, 2001-2007 aldian nabarmen hazi da lan-eskaintzak kontsultatzeko zerbitzu publikoetara jotzen dutenen proportzioa (2001ean % 42,7 izatetik 2007an % 55,9 izatera igaro da) eta, neurri txikiagoan, prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko informazioa eskatzen dutenen proportzioa (% 25,2tik % 31,7ra igaro da, baina 2003ko % 37,1en azpitik) . Halaber, hazi egin da enpresaburuekiko zuzeneko harremanak baliatzen dituzten enplegu-bilatzailen proportzioa (% 29tik % 44,7ra bitarte 2001-2007 aldian, 2005eko % 47,5etik zertxobait jaitsita), baita enplegu-bulego pribatuetara eta ABLEetara jotzen dutenena (% 27,8tik % 42,1era), edo ahaide eta lagunengana jotzen dutenena ere (% 44,6tik % 65,3ra).

Era berean, aztertutako aldian nabarmen hazi dira, ordea, lana bilatzeko gainerako moduak. Ildo horretatik, ikusi dugu komunikabideetan iragarkiak jarri dituzten edo iragarkiei erantzun dieten lagunen proportzioa nabarmen hazi dela, 2001eko % 38,6tik 2007ko % 52,6ra lehenengo kasuan, eta bigarren kasuan % 52,2tik % 60,7ra.

Elkarrizketetan eta azterketetan parte hartzeari dagokionez, esan behar dugu enplegurako gestioak egiten dituzten lagunen kopurua nabarmen hazi dela, 2001-2007 aldian % 14,3tik % 21,4ra, hain zuzen ere. Lan-poltsetan izena ematearekin ere beste horrenbeste gertatu da, 2001eko % 14,7tik gaur egungo % 23ra igo da. Autoenpleguan hasteko ikuspegiak ere bilakaera positiboa du; izan ere, gestioak egiten dituzten enplegu-eskatzailen % 3,8ri eragiten zion 2001ean, gaur egun, ordea, % 5,1i eragiten dio. Dena den, zehaztu behar da lana bilatzeko bide horietara jotzeak jaitsiera handia izan duela 2006tik 2007ra bitarte, eta azken urte honetan 2006koak eta 2005ekoak baino maila txikiagoak lortu dira.

Azken aldiko aldaketak kontuan izanik, datuen arabera, 2006tik 2007ra bulego publikoekiko harremana berreskuratzeko joera dago, bereziki, eskaintako enpleguei buruzko informazioa lortzeko, baina hala ere, epe luzera handiagoa da bulego pribatuen eta ABLEen erabileraren

hazkundera. Komunikabideetan iragarkiak jartzeko baliabideak eutsi egin dio goranzko joerari. Alabaina, 2006tik 2007ra bitarteko hazkunde handiena ahaide eta lagunetikiko kontaktu zuzenak dira.

Lana bilatzeko beste mekanismo batzuen erabilerak jaisteko joera du 2007an, aurreko urteekin alderatuz gero. Horixe sumatu da elkarrizketetan parte-hartzeari dagokionez, beste lan-poltsetara jotzeari dagokionez, edo autoenplegua kontuan hartzeari dagokionez. Kasu horietan bezala, aurreko urteekin alderatuta, 2007an murrizketak izan dira, baita ere, enpresaburuekiko kontaktu zuzenetan, komunikabideetan eskaintzak kontsultatzeari dagokionez, edo dendetan iragarkiak jartzeari dagokionez.

Jarduerari dagokionez, egoeraren araberrako aldeak nabarmenak dira. Langabeen eta landunen portaera alderatzen baditugu, ikusiko dugu gaur egun langabeek batez ere ABLEetara jotzen dutela lana bilatzeko (% 45,8k; landunen, aldiz, % 37,9 dira), baita enpresaburuekiko kontaktuetara ere (batzuek % 47,8, besteek % 40,8) . Zerbitzu publikoak ere gehiago erabiltzen dituzte. Langabeen % 67,6k zerbitzu horiek baliatzen ditu lan-eskaintzei buruzko informazioa lortzeko, aitzitik, landunen % 38,5ek baliatzen ditu, eta langabeen % 39,1ek informatzeko edo ikastaroetan parte hartzeko baliatzen ditu (landunen % 18,6). Komunikabideetako lan-eskaintzen baliabidea (% 63,8 eta % 57,3) edo dendetan iragarki pertsonalak jartzeko baliabidea ere (% 6,3, eta % 4,3) langabeek baliatzen dute batez ere. Alderatuz gero, biztanleria landunen, ordea, arreta handiagoa ematen dio azterketa eta elkarrizketetan parte hartzeari (% 22,9 eta % 20,5) edo bestelako lan-poltsetan izena emateari (% 25,6 eta % 21,7).

Bestalde, biztanleria ez-aktiboa batez ere nabarmentzen da bulego publikoetan gauzatzen duelako lan-bilaketa, % 51,8k baliatu baititu bulego horiek lan-eskaintzari buruzko informazioa eskatzeko, proportzio hori, ordea, langabeetan ikusitako ehunekoa (% 67,6) baino txikiagoa da. Bulego publikoak baliatzeko joera lan-eskaintzak komunikabideetan ikusteko joerak soilik gairitzen du (% 53,3k baliatzen ditu bulego publikoak; nolana ere, langabeetan eta landunetan ikusitako proportzioa baino txikiagoa da). Langabeen eta landunen artean baino maila apalagoan bada ere, ABLEekin edo enpresaburuekin harremanetan jartzen direnen proportzioa ere handia da, ezagunei galdetu edo komunikabideetan iragarkiak jarri edo iragarkiren bati erantzuten diotenen proportzioa bezalaxe. Lana bilatzeko gestio eraginkorrak egin dituzten ez-aktiboen % 35etik % 45era bitarte egoera horretan dago. Alabaina, enplegua bilatzeko gestioak egiten dituzten ez-aktiboen langabeek bezala ematen dute izena bestelako lan-poltsetan (batzuek % 19,9 dira, besteak, aldiz, % 21,7; nolana ere, landunen % 35,4tik behera daude); horretaz gain, nabarmentzen dira prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeari dagokionez (% 39,7, langabeak, aldiz, % 39,1 dira, eta landunen % 18,6). Maizago jotzen dute dendetan iragarkiak jartzera ere (% 9,5; langabeetan % 6,3, eta landunetan % 4,3).

Lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen 16-64 urteko biztanleria, jarduerarekiko loturaren arabera eta lana bilatzeko moduaren arabera
(bilaketa mota bakoitza erabili dutenen %-a)

Lana bilatzeko modua	Jarduerarekiko lotura				2001
	Landunak	Langabeak	Ez-aktiboak	Guztira	
Enpleguko bulego publikoa	47,0	81,9	79,2	69,1	70,3
. Txartela berritu edo zigilatu	31,3	68,8	69,4	55,2	53,3
. Ikastaroei buruzko informazioa jaso/ikastaroak egin	18,6	39,1	39,7	31,7	25,2
. Lehenengo aldiz izena eman	5,0	10,9	8,9	8,7	11,4
. Datuak berritu	19,2	40,7	32,9	32,4	22,4
. Lan-eskaintzei buruzko informazioa	38,5	67,6	51,8	55,9	42,7
. Lan-eskaintza jaso	4,3	8,9	9,0	7,3	5,8
. Beste batzuk	4,8	3,4	5,2	4,1	3,6
Enpleguko bulego pribatua /ABLE	37,9	45,8	34,0	42,1	27,8
Enpresaburuekin harremanetan jarri	40,8	47,8	39,6	44,7	29,0
Ahaideei edo lagunei galdetu	66,5	66,9	45,4	65,3	44,6
Komunikabideetan iragarkiak jarri edo horiei erantzun	53,8	53,3	40,5	52,6	38,6
Azterketa edo elkarrizketa	22,9	20,5	20,8	21,4	14,3
Autoenplegua	5,3	5,0	4,8	5,1	3,8
Lan-eskaintzak kontsultatu komunikabideetan	57,3	63,8	53,3	60,7	52,2
Enpleguko bulegoaren deiaren zain	21,9	17,9	18,4	19,4	14,7
Eskaeren edo azterketen zain	14,1	12,5	20,9	13,7	11,3
Iragarki-taula eta dendetan iragarkiak jarri	4,3	6,3	9,5	5,8	3,7
Lan-poltsetan izena eman	25,6	21,7	19,9	23,0	14,7

Bilatzen den lanaldi-motari dagokionez, ia gehienak lanaldi osoan lan egiteko prest daude: % 90,4 (% 41,1 modu eskusiboan eta % 49k onartuko luke lanaldi partzialeko eskaintza). Soilik % 9,6 bilatzen du lanaldi partzialeko edo ordukako lana eta proportzio hori handiagoa da ez-landunen artean (% 12,6 ez-aktiboetan, % 11,1 langabeetan, eta % 6,7 landunetan).

2006. urteari dagokionez, soilik lanaldi osoko enplegua lortzeko prest daudenak nabarmen murriztu direla aipatu behar dugu. 2005etik 2006ra % 38tik % 47,1era hazi ostean, 2007an % 41,4ra jaitsi da berriro. Beherakada bereziki deigarria da langabeen artean, lanaldi osoko okupazioaren eskatzaileak % 42,3tik % 35,5era murriztuta. Aldiz, % 6,3tik % 9,6ra handitu da soilik lanaldi partziala bilatzen ari direnen proportzioa, eta goranzko joera hori sumatu da jarduerarekiko lotura mota guztietan.

Lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen 16-64 urteko biztanleria, jarduerarekiko loturaren arabera eta bilatzen ari den lanaldi motaren arabera
(% bertikalak)

Bilatzen den lanaldi mota	Jarduerarekiko lotura			
	Landunak	Langabeak	Ez-aktiboak	Guztira
Soilik lanaldi osoa	52,3	35,5	33,1	41,4

Partziala edo osoa	41,0	53,4	54,3	49,0
Soilik partziala	5,7	9,8	12,0	8,5
< 15 ordu astean	1,0	1,2	0,6	1,1
Guztira	100	100	100	100

Lana bilatzen ari den eta lana bilatzeko gestioak egin dituen 16-64 urteko biztanleriak, ordea, lanean hasteko hainbat baldintza proposatu ditu. Gaur egun lan berri bat bilatzeko prest dagoela adierazten duen taldea soilik kontuan hartzen badugu, LMEk honako baldintza hauek hartzen ditu aintzat: etxebizitza-aldaketa, diru-sarrerak edo kategoria espero zirenak baino txikiagoak izatea, eta lanaldi partzialean lanean jarduteko prest egotea.

Baldintza horiek kontuan hartzen baditugu, ikusiko dugu aztertutakoen % 14,5ek soilik onartuko lituzkeela baldintza horiek guztiak lanpostu berri bat lortzeko prozesuan; proportzio hori etengabe jaitsi da: 2003an % 24,5, 2005ean % 20,8 eta 2006an % 15,6. Aztertutako biztanleria ez-aktiboaren % 7,4k soilik onartuko lituzke ezarritako baldintza guztiak, baina proportzioa langabeen artean % 13,6ra eta landunen artean % 16,2ra igotzen da. 2006. urtearekin alderatuta, landunen artean adierazleak gora egin duen arren (% 12,6 urte hartan), kontrakoa gertatzen da langabeen eta ez-aktiboaren kasuan (% 17,4 eta % 15,2, hurrenez hurren, 2006an).

Aipatu baldintza horietatik guzti-guztiak onartzeko prest ez dagoen taldearen arrazoiak aintzat hartuz gero, eragozpen nagusia etxebizitzaz aldatzea da. Baldintza guztiak onartzeko prest ez daudenen artean, % 84k ez du onartzen baldintza hori; proportzio hori hazi egiten da biztanleria produkzio-sistematik aldentzen den neurrian (% 76,4 landunetan, % 87,7 langabeetan eta % 100 ez-aktiboetan).

Gaur egun eragin garrantzitsua (baina ez nagusia) duen beste alderdi bat honako hau da: diru-sarrerak kualifikazioari dagozkionak baino txikiagoak izatea. Lan bila ari diren, gestioak egiten dituzten eta lanerako prest daudenen % 40,6k ez du zirkunstantzia hori onartu 2007an, bereziki gaur egun lanean jarduten dutenen kasuan, baina baita ez-aktiboaren kasuan ere (% 50,7 eta % 71,7, langabeen artean soilik % 34,2).

Gainerako faktoreak garrantzitsuak badira ere, horien eragina askoz txikiagoa da. Lanbide-kategoria kualifikazio-mailari dagokiona baino txikiagoa izateari dagokionez, zirkunstantzia horrek aztertutako lagunen % 30,5 hartzen du eraginpean, eta % 29,5 lanaldi partzialeko lan-augerari dagokionez. Baldintza horiei dagokienez, talde kritikoenak landunak eta ez-aktiboak dira, zirkunstantzia horren eraginpean daudenen % 40tik % 47,5era bitartek ez baitituzte baldintza horiek onartuko; proportzio hori, ordea, % 23ra jaitsi da zentzu hertsian langabezia daudenetan.

Azken batean, mugigarritasun geografikoa da, 2007an ere, gogoko lana lortzeko eragozpen nagusia, enplegu berrian hasteko baldintzaren bat jartzen dutenen gehiengoari dagokionez. Hala ere, gaur egun, lan berri batean hasteko landunek ezartzen duten baldintza nagusietako bat maila ekonomikoa eta lanbide-maila hobetzeko itxaropena da, bereziki, lana bilatzen ari diren landunen edo ez-aktiboen kasuan.

2005etik 2006ra bitarte ez bezala, 2007an enplegu-eskatzailen itxaropenak murrizteko joera dago, oro har. Itxaropen-murrizketa hori agerian geratzen da, lana lortzeko baldintza jakin batzuk onartzen ez dituztenen ehunekoak jaitsi egin baitira. Horrela, bada, lana bilatzen ari den, gestioak egiten dituen eta lanerako prest dagoen guztirako biztanleriari dagokionez, 2005-2006 bitartean, % 32,8tik % 44,3ra igo zen kualifikazioari dagozkion diru-sarrerak eskatzen dituztenen kopurua eta 2007an, berriz ere % 34,8ra itzuli da adierazlea. Espero zutena baino lanbide-kategoria txikiagoa onartuko ez luketenen kasuan, proportzioa % 23,7tik % 32,9ra igo zen 2005-2006 aldian eta 2007an % 26,1era jaitsi; lanaldi partzialean hasteari uko egingo lioketenei dagokienez, 2005etik 2006ra bitarte % 22tik % 32,1era igo ostean, 2007an % 25,2ra murriztu dira zenbatekoak. Egia esateko, etxebizitzaz aldatzeari uko egiteak soilik eutsi dio goranzko joerari, eta nabarmen, gainera: 2005ean % 61,1, 2006an % 62,6, eta 2007an % 71,8.

Aztertutako bilakaeran, oro har, 2006tik 2007ra bitartean, itxaropenak beherantz egokitu behar izan direla ikusi dugu, bereziki zentzu hertsian langabe direnen artean. Horrela, bada, langabeen % 29,5ek gaur egun espero du diru-sarrerak kualifikazioaren parekoak izatea, eta 2006an % 37,5 ziren, eta 2005ean, aldiz, % 27,4; % 20k ez luke onartuko kualifikazioari dagokion kategoria baino beheragoko lanposturik (2006an % 24,5 eta 2005ean % 18,3); azkenik, % 19,9k ez luke onartuko lanaldi partzialeko lanposturik, eta 2006an % 25,4 eta 2005ean % 16,8 ziren. Aldiz, etxebizitzaz aldatzeari uko egingo lioketenen proportzioa 2005eko % 63,5tik 2006ko % 64,7ra igaro da, eta 2007an % 75,8ra.

Nolanahi ere, zera aipatu behar dugu, itxaropen-murrizketa hori 2006-2007 aldian soilik ikusi dela. Aurkeztutako datuen arabera, oro har, 2006. urtearekin alderatuta murrizketa dagoen arren, onartu gabeko baldintzen eragina handiagoa da oraindik ere 2007an, 2005ean baino. Biztanleria langabeen eta ez-aktiboen kasuan, bereziki, deigarria da datu hori.

Lana bilatzen ari den, gestioak egin dituen eta lanerako prest dagoen 16-64 urteko biztanleria, jarduerarekiko loturaren eta hainbat baldintza onartzeko prest egotearen arabera²⁰
(% bertikalak)
2007

Baldintzak	Jarduerarekiko lotura			
	Landunak	Langabeak	Ez-aktiboak	Guztira

²⁰Logikari jarraiki, langabeen % 100 dago lanerako prest eta landunen kasuan % 89,3, baina ez-aktiboek dagokienez, soilik % 20,4.

Baldintza guztiak onartuko lituzke	16,2	13,6	7,4	14,5
Baldintzaren bat ez luke onartuko	83,8	86,4	92,6	85,5
Onartu gabeko baldintzak (Baldintzaren bat onartzen ez duen biztanleria)				
Bizilekua aldatzea	76,4	87,7	100	84,0
Kualifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak	50,7	34,2	71,7	40,6
Espero zena baino beheragoko kategoria	43,1	23,2	40,8	30,5
Lanaldi partziala	40,2	23,0	47,5	29,5
Onartu gabeko baldintzak (Guztirako biztanleria)				
Bizilekua aldatzea	64,0	75,8	92,6	71,8
Kualifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak	42,4	29,5	66,4	34,8
Espero zena baino beheragoko kategoria	36,1	20,0	37,8	26,1
Lanaldi partziala	33,7	19,9	44,0	25,2

2006

Baldintzak	Jarduerarekiko lotura			
	Landunak	Langabeak	Ez-aktiboak	Guztira
Baldintza guztiak onartuko lituzke	12,6	17,4	15,2	15,6
Baldintzaren bat ez luke onartuko	87,4	82,6	84,8	84,4
Onartu gabeko baldintzak (Baldintzaren bat onartzen ez duen biztanleria)				
Bizilekua aldatzea	66,7	78,3	88,2	74,2
Kualifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak	64,5	45,4	44,6	52,5
Espero zena baino beheragoko kategoria	53,9	29,7	48,8	39,0
Lanaldi partziala	49,5	30,8	50,1	38,1
Onartu gabeko baldintzak (Guztirako biztanleria)				
Bizilekua aldatzea	58,3	64,7	74,8	62,6
Kualifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak	56,4	37,5	37,8	44,3
Espero zena baino beheragoko kategoria	47,1	24,5	41,4	32,9
Lanaldi partziala	43,3	25,4	42,5	32,1

2005

Baldintzak	Jarduerarekiko lotura			
	Landunak	Langabeak	Ez-aktiboak	Guztira
Baldintza guztiak onartuko lituzke	19,9	21,3	18,6	20,8
Baldintzaren bat ez luke onartuko	80,1	78,7	81,4	79,2
Onartu gabeko baldintzak (Baldintzaren bat onartzen ez duen biztanleria)				
Bizilekua aldatzea	67,8	80,7	92,9	77,1
Kualifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak	58,0	34,9	20,6	41,4
Espero zena baino beheragoko kategoria	45,7	23,3	22,4	29,9
Lanaldi partziala	44,3	21,4	3,2	27,8
Onartu gabeko baldintzak (Guztirako biztanleria)				
Bizilekua aldatzea	54,3	63,5	75,6	61,1
Kualifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak	46,5	27,4	16,8	32,8
Espero zena baino beheragoko kategoria	36,6	18,3	18,2	23,7
Lanaldi partziala	35,5	16,8	2,6	22,0

Lan berri bat bilatzen ari direla, lan hori lortzeko gestioak egin dituztenek atzemandako muga nagusiak zein diren jakin dezakegu LMEri esker. Arazo hori garrantzitsua da, aztertutako % 87k adierazi baitu lana lortzeko arazo objektiboren bat izan duela, eta proportzio hori 2003koa (% 83,5) baino nabarmen handiagoa da, nahiz eta 2005ekoa (% 93) eta 2006koa (% 91,8) baino zertxobait txikiagoa den. Horretaz gain, langabezia-egoeran daudenen artean eragin zertxobait handiagoa du arazoak: % 88,3, ez-aktiboetan % 85,3 eta landunetan % 85,4.

Arazo nagusiak kualifikazioari buruzko alderdiei dagozkienak dira, ikasketa-mailei, hizkuntzak jakiteari eta lan-esperientziari lotuta. Kolektiboaren % 59,8k dio horrelako arazoren bat izan duela; zenbateko hori ez da asko aldentzen 2003ko % 61,4tik, baina 2005eko % 67,1 eta 2006ko % 63 baino txikiagoa da. Ez dago alde handirik jarduerarekiko loturari dagokionez: ez-aktiboaren artean % 61,2, langabeen artean % 59,8, eta landunen artean % 59,5.

Muga espezifikoei helduta, behar besteko lan-esperientziarik ez izatea aipatu du lana bilatzen ari direnen % 32,3k; ikasketa-mailaren proportzioa % 27,7 da eta hizkuntzak jakitearena % 22,2. Aurreko urteekin alderatuta, lan-esperientziarekin loturiko arazoen eragina nabarmen jaitsi da, 2005ean % 38ra ere iritsi baitzen. Horixe bera gertatu da ikasketa-mailarekin loturiko arazoen kasuan ere, nahiz eta kasu horretan, 2007an lortutako maila 2003koaren antzekoa den (% 27,8, eta 2005eko gehienekoa % 33). Hizkuntzak jakiteari dagokionez, 2007ko zenbatekoa 2006ko % 25,4 baino txikiagoa da, baina 2003ko % 18,9 baino nabarmen handiagoa.

Ikasketei eta lan-esperientziari loturiko arazo multzoetatik oso urrun adinaren problematika dago. Arazo hori lana bilatzen ari direnen % 21,8k adierazi du, eta zenbateko hori 2001eko % 18,5 eta 2006ko % 20,1 baino zertxobait handiagoa da, baina 2003ko % 26,5 baino askoz txikiagoa da. Arazo horrek langabeei eragiten die, diferentzialki: % 28,4, ez-aktiboaren kasuan % 16,7 eta lana bilatzen ari diren landunen kasuan % 12,3.

Oso deigarria da adinari lotutako mugak generoari lotutako eragozpenak –sexua edo familia-kargak edukitzea– oraindik ere gainditzen dituela; egoera horrek taldearen % 19,5i eragiten dio. Alabaina, arazo horien eragina maila gorenera iritsi da 2007an, 2005eko % 17,6 eta 2006ko % 16,1 erraz gaindituta.

Generoa edo sexua, berez, lana bilatzen ari direnen % 4,2k soilik adierazi du eragozpen dela; familia-kargak izateak garrantzi handiagoa du, aztertutakoen % 16,4 baitago egoera horretan. Zenbateko hori 2006ko edo 2005eko mailak (% 12 eta % 12,6, hurrenez hurren) baino askoz handiagoa da eta 2003ko % 6,6 edo 2001eko % 9,8 argi eta garbi gaindituta. Jarduerarekiko loturaren arabera, landunen % 15,5ek du arazo hori, langabeen % 16,6k eta ez-aktiboen % 18,7k.

2007. urtean, soldata-helburuak ere muga garrantzitsuak izaten dira lana lortzeko prozesuan. Horri gagozkiola, aztertutako biztanleriaren % 16,2k alderdi horrekin lotzen du lan berri bat lortzeko zailtasuna, eta alderdi horren garrantzia gora egiten ari zen etengabe EAEn 2006. urtera arte, lana bilatzen ari direnetan. 2003an soilik % 8,3ko maila zegoen, baina 2005ean % 15era eta 2006an % 19,3ra igo da. Dena den, ikus daitekeenez, 2007. urtean eten egin da goranzko joera jarraitu hori, ia hiru puntuko jaitsiera izan baita lana lortzeko prozesuan muga horrek duen eraginari dagokionez. Enplegua lortzeko muga mota horren eragina % 12,5 da langabeen (zentzu hertsian) artean, % 18 ez-aktiboen artean, eta % 21,6 lana bilatzen ari diren landunen artean.

Mugigarritasun geografikoaren ezintasunarekin loturiko arazoa ere nabarmena da, biztanleriaren % 13,8k adierazi baitu (2003ko % 11 gaindituta baina 2005eko % 14,9ren eta 2006ko % 17,6ren azpitik). Modu desberdinean eragiten die ez-aktiboek eta langabeei (% 15etik % 16ra bitarteko zenbatekoekin, eta landunen artean % 11,4).

Bestalde, jatorri geografikoa aipatu dute lana bilatzen ari direnen % 5,8k, 2001eko % 2,7 eta 2006ko % 4 gaindituta; beraz, mende berriko lehen urtetan gero eta garrantzi handiagoa izateko joera duten muga gutxi horietako bat da.

Arazo fisikoak izateari dagokionez, proportzioa % 2,8 da, 2003ko % 3,2ren azpitik baina 2006ko % 1 gaindituta.

Lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen 16-64 urteko biztanleria, jarduerarekiko loturaren arabera, eta lana lortzeko atzemandako mugak kontuan hartuta
(erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a)

Mugak	Jarduerarekiko lotura			
	Landunak	Langabeak	Ez-aktiboak	Guztira
Kualifikazioari/esperientziari lotuak	59,5	59,8	61,2	59,8
* Ikasketa-maila	24,6	29,9	26,7	27,7
* Hizkuntzak	26,3	19,8	20,7	22,2
* Lan-esperientzia	32,4	31,2	41,1	32,3
Generoaren arazoari lotuak	19,6	19,1	23,0	19,5
* Familia-kargak	15,5	16,6	18,7	16,4
* Sexua	4,5	4,0	4,3	4,2
Soldata-helburuak	21,6	12,5	18,0	16,2
Mugigarritasun geografikorako ezintasuna	11,4	15,1	15,9	13,8
Adina	12,3	28,4	16,7	21,8
Jatorrizko herrialdea	8,2	4,8	1,1	5,8
Muga fisikoa	4,4	2,1	0,0	2,8
Mugaren bat	85,4	88,3	85,3	87,0

Kualifikazioaren edo esperientziaren arazoen barne-azterketak agerian utzi du arazoaren edukia aldatu egiten dela lortutako ikasketa-mailaren arabera. Ildo horretatik, ikasketa-maila txikiarekin loturiko problematikaren kasuan, egiaztatu dugu arazo horren eraginpeko gehienak lanbide-arloko edo unibertsitateko ikasketarik ez duten taldeetakoak direla (% 51,7). Aldiz, hizkuntzekin edo behar besteko lan-esperientziarik ez izatearekin loturiko arazoei dagokienez, lanbide-arloko edo hirugarren mailako ikasketak dituztenek aipatu dituzte gehienbat (% 52,5 eta % 59,3, hurrenez hurren).

Erreferentzia-taldeei buruzko datuak zenbateko erlatiboen arabera aztertzen baditugu, egiaztatuko dugu, oro har, ikasketa-mailaren problematikak ez diola berdin eragiten ikasketa-maila txikiarekin biztanleriari. Lehen mailako ikasketak dituztenen edo ikasketarik ez dutenen % 32,5ek ikasketa-mailei loturiko mugak adierazi ditu; proportzio, hori, ordea, 2006ko % 41,2tik eta 2005eko % 52,4tik behera dago. 2005eko % 36,6tik eta 2006ko % 46tik behera egin du, halaber, arazo hori adierazten dutenen proportzioak lanbide-arlokoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituztenetan, gaur egun % 28,7 baita. Aldiz, lanbide-arloko bigarren mailako ikasketak dituztenen proportzioa % 31,4tik % 33,3ra igo da; azken urtean, kezkatzeko modukoa da joera hori, prestakuntzaren eta laneratzeko potentzialaren arteko desoreka-arrisku handieneko talde bihurtu baita. Egia esan, hirugarren mailako ikasketak dituztenen artean soilik jaitsi da nabarmen adierazlea (% 17,5, 2006ko % 18,7ren azpitik).

Orain arte adierazitakoaren kontra, lan-esperientziaren arazoa balioesteko garaian, lan-munduan sartzeko eragozpenak areagotu egiten dira, oro har, ikasketa-mailan gora egin ahala. Problematika horrek lan berri bat bilatzen ari diren unibertsitateko tituludunen % 38,4ri eta

lanbide-arloko bigarren mailako ikasketak dituztenen % 32,9ri eragiten dio, baina lehen mailako ikasketak edo beheragoko mailakoak dituztenetan % 21,9ra jaitsi da. Joera horrek badu salbuespen bat: lanbide-arlokoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituen biztanleriaren % 37,5ek dio arazoak dituela lana lortzeko lan-esperientziarik ez izateagatik, zenbateko hori, ordea, 2005eko % 45,3tik behera dago baina ez du gainditzen 2006ko % 34,8.

Bestalde, hizkuntzen arazoan nolabaiteko berdinketa dagoela esan dezakegu, ikasketamailari dagokionez, ikasketa-taldeetan % 21etik % 24ra bitarteko eragina duela, betiere lana bilatzen ari diren eta gestioak egin dituztenek aipatutako arazoetan, oro har, jaitsiera nagusi den testuinguruan.

Lana bilatzen ari den, gestioak egin dituen eta kualifikazioari/esperientziari loturiko arazoak izan dituela adierazi duen 16-64 urteko biztanleria, muga motaren eta ikasketamailaren arabera

(% bertikalak eta erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a (1))

Muga mota eta ikasketa-maila	%	Erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a
<i>Ikasketa-maila</i>		
Lehen mailako ikasketak	31,0	32,5
Bigarren mailako ikasketak	20,8	28,7
Lanbide-ikasketak	30,6	33,3
Unibertsitate-ikasketak	17,6	17,5
Guztira	100	27,7
<i>Hizkuntza-maila</i>		
Lehen mailako ikasketak	26,0	21,9
Bigarren mailako ikasketak	21,5	23,8
Lanbide-ikasketak	24,0	20,9
Unibertsitate-ikasketak	28,5	22,7
Guztira	100	22,2
<i>Lan-esperientzia</i>		
Lehen mailako ikasketak	17,5	21,4
Bigarren mailako ikasketak	23,3	37,5
Lanbide-ikasketak	26,0	32,9
Unibertsitate-ikasketak	33,2	38,4
Guztira	100	32,3

(1) Lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen talde bakoitzeko biztanleria.

Genero-arazoek batez ere emakumeei eragiten diete oraindik ere. Sexuarekin loturiko lanerako mugak izan dituzten kasuen % 93,8, eta familia-kargekin zerikusia dutenen % 83,5 lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen emakumezko biztanleriari dagokio. Eraginpeko biztanleria gutxiengoa izaten da kasu guztietan, baina nolana ere, daturik deigarriena lana bilatzen ari diren emakumeen artean familia-kargek duten eragina da: emakume horien % 23,9k gaur egun adierazi du familia-kargen arazoa muga dela lan berria lortzeko. Zenbateko hori

2005eko % 17,9 eta 2006ko % 15,6 baino handiagoa da, nabarmen, eta beraz, baita 2003ko % 9,1 eta 2001eko % 13,2 baino handiagoa ere. Aitzitik, 2003ko proportzioarekin alderatzen badugu, ikusiko dugu nabarmen ari dela jaisten lan berri bat lortzeko sexua edo generoa berez mugatzat hartzen duten emakumeen proportzioa: % 6,9, 2006an % 7,8, 2005ean % 10,5 eta 2003an % 12,8. 2006. urteaz geroztik, adierazlea 2001eko mailaz azpitik dago (% 8,8 urte hartan).

Lana bilatzen ari den, gestioak egin dituen eta generoari loturiko arazoak izan dituela adierazi duen 16-64 urteko biztanleria, muga motaren eta sexuaren arabera
(% bertikalak eta erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a (1))

Muga mota eta sexua	%	Erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a
Sexua		
Gizonak	6,2	0,6
Emakumeak	93,8	6,9
Guztira	100	4,2
Familia-kargak		
Gizonak	16,5	6,3
Emakumeak	83,5	23,9
Guztira	100	16,4
Mota bat edo bestea		
Gizonak	15,2	6,9
Emakumeak	84,8	29,0
Guztira	100	19,5

(1) Lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen talde bakoitzeko biztanleria.

Lana bilatzen ari diren eta gestioak egin dituzten emakumeen egoera zehatzago aztertzen badugu, talde horren % 29k adierazi du generoari edo familia-kargak izateari loturiko oztoporen bat izan duela (gizonezkoetan % 6,9k). Proportzio hori 2002ko % 19,4tik % 26,7 igo bazen ere 2005ean, jaitsi egin zen 2005-2006 bitartean, 2003ko mailetara itzulita gutxi gorabehera (% 21,4). Hortaz, 2007ko gorakada garrantzitsua da, hamarkada osoko mailarik handienera iritsi baita.

12 urtera bitarteko seme-alabak edukitzea oso funtsezkoa da maila horretan. Horrela, bada, lana lortzeko muga mota horiek dituztela adierazi duten emakumeen proportzioa batez bestekoa baino askoz txikiagoa da adin horretako seme-alabarik ez duten emakumeen artean, ezkonduak edo ezkongabeak diren kontuan hartu gabe (% 19,8 eta % 10,9, hurrenez hurren). Aitzitik, adierazitako mugak % 62,4ra igo dira seme-alabak dituzten emakume ezkonduetan eta % 49,9ra seme-alabak dituzten emakume ezkongabeetan.

12 urtetik beherako seme edo alabaren bat edukitzeak, hortaz, funtsezko etena eragiten du emakumeen artean generoarekin eta familia-kargekin loturiko mugen eragina neurtzeko garaian. Aldiz, 2005ean ikusitakoarekin kontrastean, bai 2006an, bai 2007an, ezkondata egoteak berriz ere eragozpen handiagoak dakartza familia eta lana bateragarri egiteko garaian, genero-mugen eragina handiagoa baita, argi eta garbi, emakume ezkonduetan (% 19,8, eta ezkongabeetan % 10,9, 12 urtetik beherako seme-alabarik ez dagoenean; eta 12 urtetik beherako haurren bat baldin badago, % 62,4 ezkonduetan eta % 49,9 ezkongabeetan). 12 urtetik beherako haur bat baino gehiago izateak, ordea, ez dakar bestelako muga garrantzitsurik.

Lana bilatzen ari diren, gestioak egin dituzten eta generoari edo familia-kargak izateari loturiko arazoak izan dituztela adierazi duten 16-64 urteko emakumeak, egoera zibilaren eta 12 urte bitarteko seme-alaba kopuruaren arabera
(% bertikalak eta erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a (1))

Egoera zibilaren eta seme-alaba kopuruaren arabera	%	Erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a
Seme-alabarik gabeko emakume ezkonduak	11,3	19,8
Seme-alabarik gabeko emakume ezkongabeak	17,9	10,9
Seme-alabadun emakume ezkonduak	45,8	62,4
<i>Seme edo alaba 1</i>	31,2	64,4
<i>2 seme-alaba edo gehiago</i>	14,6	58,5
Seme-alabadun emakume ezkongabeak	25,0	49,9
<i>Seme edo alaba 1</i>	17,7	50,1
<i>2 seme-alaba edo gehiago</i>	7,3	49,6
Guztira	100	29,0

(1) Lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen talde bakoitzeko biztanleria.

Adinaren arazoari dagokionez, eragozpen hori izan dutela adierazten dutenen % 84,7k 35 urte edo gehiago ditu, baina gehienbat 40-54 urtekoetan metatzen da arazo hori. Adin-tarte horretan biltzen dira lana bilatzen ari diren, gestioak egin dituzten eta adinari loturiko mugak aipatu dituztenen % 59,4.

Izan ere, adin-tarte horretan nabarmen hazi da adinaren arazoa izan dutela esan dutenen kopurua, lana bilatzen ari direnen artean. Horrela, bada, 20-35 urtekoetan % 10ek baino gutxiagok aipatu du arazo hori, baina 35-39 urtekoetan proportzioa % 17,5era igotzen da, eta % 45,5era 40-44 urtekoetan. 45 urtetik gorakoetan, adina eragozpen bihurtzen da lana lortzeko eta lan berria bilatzen ari diren eta gestioak egiten ari diren gehienei eragiten die arazo horrek. 35 urtetik gorakoetan taldea alde batera utzita, 16-19 urteko gazteen arteko % 21,6 deigarria aipatu behar dugu. Gazteegi izatea ere arazo izan daiteke, antza.

60 urtekoetan edo gehiagokoetan eta 20 urtetik beherakoetan izan ezik, ikusi dugu, ordea, adinaren eragina, elementu mugatzaile gisa, nabarmen jaitsi dela 2001-2006 bitartean. Joera hori dela-eta egoera onenean zeuden adin-taldeak 20-29 urtekoak ziren, talde horri dagokionez, arazo horren eragina 2001ean % 11-13 izatetik 2006an % 3-6 izatera igaro baitzen; halaber, 40-59 urtekoak ere egoera onean zeuden, 10 puntu edo gehiago jaitsi baitzen adinari loturiko mugek eragiten dietenen proportzioa.

Alabaina, azken aldiko bilakaeran gorakadaxo bat sumatu da zenbati adin-taldetan, arazo horri dagokionez. 20 urtetik beherakoez eta 60 urtetik gorakoez gain (kolektibo horiek modu kronikoan baitaude joera horren eraginpean), eragina bereziki deigarria da 2006-2007an 40-54 urtekoen taldean. Aldiz, 25-39 urtekoetan arazoaren eragina murriztu egin da, eta 30-39 urtekoetan beheranzko joera berreskuratu da berriro, 2005ean eta 2006an eten ostean.

Lana bilatzen ari den, gestioak egin dituen eta adinari loturiko arazoak izan dituela adierazi duen 16-64 urteko biztanleria, adinaren arabera
(% bertikalak eta erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a (1))

Adina	%	Erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a
16-19 urte	1,9	21,6
20-24 urte	5,7	8,0
25-29 urte	3,0	2,8
30-34 urte	4,8	5,5
35-39 urte	10,7	17,5
40-44 urte	21,8	45,5
45-49 urte	18,0	56,1
50-54 urte	19,6	77,3
55-59 urte	9,7	74,7
60-64 urte	4,8	79,3
Guztira	100	21,8

(1) Lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen talde bakoitzeko biztanleria.

Jatorriari helduta, Europar Batasunetik kanpokoei dagozkie lan-munduan sartzeko arazoaren % 77. Beste % 9,7 espainiar nazionalitatea dutenei, eta gainerako % 13,4ak EBko beste Estatu batzuetako jendearekin loturiko arazoak biltzen ditu.

Egia esan, lana bilatzen ari diren, lana lortzeko gestioak egin dituzten eta Europar Batasuneko Estaturen batekoak ez direnen % 45,7k aipatu du jatorriarekin loturiko arazoaren bat izan duela lan-munduan sartzeko. Oso handia bada ere, badirudi proportzio hori, ordea, pixkanaka-pixkanaka jaisten ari dela 2003ko % 59,3tik eta 2005eko % 51,9tik 2006ko % 38,8ra jaitsi baita. Aitzitik, kontrako joera atzeman da Europar Batasuneko beste Estaturen batekoen

artean. 2005an % 9,9 ziren, baina 2006an % 31,9 eta 2007an % 38,8 izatera igaro dira, Europar Batasunekoak ez diren herritarrei dagokien tasa gaindituta azken urtean²¹. Bestalde, Estatuko herritarren tasa % 0,7 baino ez da.

Lana bilatzen ari den, gestioak egin dituen eta jatorriari loturiko arazoak izan dituela adierazi duen 16-64 urteko biztanleria, nazionalitatearen arabera
(% bertikalak eta erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a (1))

Nazionalitatea	%	Erreferentzia-biztanleriaren gaineko %-a
Espainiarra	9,7	0,7
EBko beste herrialderen batekoa	13,4	38,8
EBkoa ez den beste herrialderen batekoa	77,0	35,7
Guztira	100	5,8

(1) Lana bilatzen ari den eta gestioak egin dituen talde bakoitzeko biztanleria.

²¹ 2005etik 2006ra bitarte izandako hazkunde handia baldintzatua dago EBn Errumania eta Bulgaria sartzearekin. Sarrera hori lagungarri izan da 2005etik 2006ra bitarteko hazkunde horretan; hain zuzen ere, EBko beste Estaturen bateko herritarren artean jatorri geografikoari loturiko eragozpenak aipatzen dituztenen proportzioren hazkundean.

9. Atzerritarrak

Oso zaila da Euskadin bizi diren 16-64 urteko atzerritarren jarraipena behar bezala egitea. Izan ere, bizilekuan mugikortasun handia du talde horrek, eta oso zaila izaten da erregistro administratiboan bidez (esaterako, Erroldaren bidez) azterketak egitea; horretaz gain, kasu askotan, egoera instituzionalean daudenen edo pasadizokoen taldekoen berezko ezaugarriak ere hartzen ditu talde horrek. Bestalde, herritartasun berria erraz lortzen dute gehienetan, bai ezkontuta, bai naturalizazio-prozesu estandarren bidez, eta bereziki, herritartasun bikoitza lortzea nahiko erraza izaten den kasuetan. Arrazoi horiek guztiak aintzat hartuta, jarraian EAEko 16-64 urteko atzerritarrei buruzko zenbatekoak aurkeztuko ditugu, baina kontu handiz aztertu beharrekoak dira. Alabaina, atzerritarren taldea garrantzitsua denez, egoki iruditu zaigu gizarte-talde horren garrantzia eta ezaugarriak hobeto aztertzea.

LMEren datuei jarraiki, 2007an, EAEko familia-etxebizitzetan bizi diren 16-64 urteko 55.386 lagunek beste Estatu bateko nazionalitatea dute. Euskadiko biztanleria potentzialki aktibo guztiaren % 3,9 osatzen du zenbateko horrek; horietatik % 3 Europar Batasunetik kanpoko Estaturen batekoa da eta gainerako % 0,9a Europar Batasuneko beste Estaturen batekoa²².

16-64 urteko biztanleria, nazionalitatearen arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Nazionalitatea	Absolutuak	%
Estatukoa	1.370.574	96,1
EBko beste Estaturen batekoa	12.730	0,9
EBtik kanpoko Estaturen batekoa	42.655	3,0
Guztira	1.425.959	100

²²Lehenengo begiratuan, datu horietan atzerritarren garrantzia gutxietsia geratzen dela pentsa daiteke. Baina egia esan behar bada, ez dago talde horren egiazko garrantzia aditzera emango duen iturri estatistikorik —fidatzeko modukoa eta 2007. urtearen amaierako datuekin eguneratuta—; hortaz, ezin izango dugu eman daturik, txostenaren kapitulu honetan jasotako zenbatekoak zuzenak ote diren ziurtasunez kontrastatu ahal izateko. Berez, eskura ditugun iturriak erregistro administratibo hutsak dira eta ez daude behar bezala eguneratuta; Biztanleen Udal Erroldari ere aplika diezaiokegu ezaugarri hori. Hori dela-eta, modu hipotetikoan, betiere, zenbatekoetan egiaz gutxietsita agertuko balira atzerritarrak oso zaila izango litzateke atzerritarren taldearen egiazko garrantzia zehaztea. Nolanahi ere, kapitulu honetan emandako datuak balioesteko garaian ez dugu ahaztu behar atzerritarrei buruzko datuetan ez daudela sartuta ez pasadizokoak, ezta instituzioetan nahiz bestelako zentro kolektiboetan —pentsioak, ostatuak, eta abar— dagoen biztanleria ere. 16 urtetik beherakoak edo 65 urtetik gorakoak ere ez daude barnean hartuta.

2007. urtean gora egin du EAEn bizitzen 5 urte edo gehiago daramatenen proportzioak, % 47,7 Europar Batasuneko Estaturen batetik etorriak, eta % 45,5 Batasunetik kanpokoak izanik.

16-64 urteko atzerritarrak nazionalitatearen eta EAEn bizitzen daramaten urteen arabera
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Bizitzen daramatzaten urteak	Nazionalitatea		
	EBko beste Estaturen batekoa	EBkoa ez den beste Estaturen batekoa	Guztira
< 3 urte	32,0	27,2	28,3
3-4 urte	20,3	27,3	25,7
5-9 urte	22,4	35,4	32,4
10 urte edo gehiago	25,4	10,1	13,6
Guztira	100	100	100

Bertako biztanleriarekin alderatuta, datu demografiko azpimarragarriena honako hau da: atzerritarrak gazteagoak dira. Kolektibo horren batez besteko adina biztanle nazionalena baino askoz ere txikiagoa da; Europar Batasunetik kanpotik datozenena 32,8 urte eta EBko gainerako tokietatik datozenena 36 urte izanik. Biztanleria nazionalaren kasuan, batez besteko adina 41,1 urte dira.

Batasunetik kanpoko herrialderen batetik etorritakoen % 64k gehienez 35 urte dituzte, eta proportzio hori % 56,4ra murrizten da Europar Batasuneko gainerako herrialdeetatik etorritakoen artean, edo % 34,3ra biztanleria nazionalaren artean.

16-64 urteko biztanleria, nazionalitatearen, sexuaren eta adinaren arabera
(% bertikalak eta batez besteko adina)

Sexua	Nazionalitatea		
	Estaturakoa	EBko beste Estaturen batekoa	EBkoa ez den beste Estaturen batekoa
Gizona	50,7	50,0	44,1
Emakumea	49,3	50,0	55,9
Adina	Estaturakoa	EBko beste Estaturen batekoa	EBkoa ez den beste Estaturen batekoa
16-24 urte	12,3	13,6	15,8
25-34 urte	22,0	42,9	48,2
35-49 urte	35,7	29,3	31,2
50 urte eta gehiago	30,0	14,3	4,8
GUZTIRA	100	100	100
Batez besteko adina (urteak)	41,1	36,0	32,8

Europar Batasuneko ez den beste herrialderen batetik etorritako atzerritarren presentzia nabarmena da EAEko hiru eskualdetan: Gasteizen, Eskualdean eta Bilbon. Bertako biztanleen % 35,8 soilik bizi da hiru eskualde horietan, baina proportzioa % 39ra igotzen da EBko beste Estaturen batetik datozen herritarren kasuan, eta % 56,5era EBtik kanpoko herritarren kasuan.

Europar Batasuneko ez den herrialderen batetik etorritakoen artean, % 15,1 Donostialdean bizi da. Lehen aipatutako eskualdeetan ez bezala, eskualde horretan bizi direnen proportzioa askoz txikiagoa da, bai eskualdean bizi den bertako biztanleriaren zatiarekin alderatuta, bai EBko beste herrialderen batetik datorren biztanleriarekin alderatuta (% 21,6 eta % 33,6, hurrenez hurren).

16-64 urteko biztanleria, nazionalitatearen eta eskualdearen arabera
(% bertikalak)

Eskualdea	Nazionalitatea		
	Estatukoa	EBko beste Estaturen batekoa	EBkoa ez den beste Estaturen batekoa
Gasteiz	12,5	19,8	16,0
Aiara	2,0	1,5	1,3
Eskualdea	7,6	4,4	12,6
Bilbo	15,8	14,8	27,9
Ezkerraldea	18,7	12,2	9,1
Bizkaia-Kosta	5,7	6,4	4,9
Durangaldea	5,7	1,3	2,9
Donostialdea	21,6	33,6	15,1
Tolosa-Goierri	5,1	3,5	3,6
Debagoiena	2,9	2,1	0,4
Debarrena	2,4	0,3	6,0
GUZTIRA	100	100	100

2006. urtera arte, atzerritarren artean askoz handiagoa zen jarduerarako joera. Hori horrela izanik, Estatuko herritartasuna duten biztanleen artean jarduera-tasa % 69,9 da, baina proportzioa % 73,7ra igo da Europar Batasunetik kanpokoaren artean, eta % 79ra Batasuneko beste Estaturen bateko herritarren artean. Dena dela, jarduera-tasak goranzko joerari eusten dio biztanleria nazionalen artean 2005etik 2007ra, % 69,4tik % 70,3ra igarota, baina atzerritarren kasuan beherakada handiak sumatu dira. Biurteko horretan, tasa % 81,6tik % 72,1era murriztu da Batasuneko beste herrialderen batetik etorritakoen kasuan, eta % 75,9tik % 70,2ra Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetako herritarren kasuan. Azken kasu horretan, 2005. urtean, biztanleria nazionalak baino 6,5 puntu handiagoko jarduera-tasak zituzten abiapuntu, eta 2007an antzeko zenbatekoetara iritsi da. Batasunetik kanpoko atzerritarren kasuan, diferentzial positiboa 12,2 puntu jaitsi zen 2005. urtean, eta 2007an soilik 1,8.

Bestalde, langabeziak eragin handiagoa du atzerritarren artean, EBko beste Estaturen bateko herritarren artean % 8,1eko langabezia-tasa izanik, eta % 8,8koa Batasunetik kanpotik

etorritakoen artean, betiere biztanleria nazionalaren % 2,9 gaituta. Estatuko herritarren artean langabezia-tasa murrizten ari da azken urteotan; 2005-2006 aldian hobekuntza izan zen, tasa % 11,9tik % 8,8ra murriztu baitzen, eta 2007. urtean mailari eutsi egin dio, Batasunetik kanpoko Estaturen batetik etorritakoen artean. EBko beste Estaturen bateko herritarren artean, 2005-2006 aldian jaitsiera areagotu egin zen (% 13,9tik % 5,1era), eta beherakada horrekin kontrastean, tasak gora ere egin du, 2007an langabezia-tasa % 8,1era iritsita.

Jarduera-tasa beherakorra eta langabezia-indize handiagoak uztartuz gero, horren ondorioz, atzerritarren artean okupazio-koefizienteak txikiagoak ziren 2006an 2007. urtean baino, betiere biztanleria nazionalaren koefizienteetatik nabarmen beherago egonda: % 64 EBtik kanpotik etorritakoen kasuan, % 66,3 Batasuneko beste Estaturen batetik etorritako atzerritarren kasuan, eta % 68,2 biztanleria nazionalaren kasuan, hori guztia 2007. urtean. Okupazio-koefizienteak 2,1 puntuko hazkundera izan du 2005etik 2007ra Estatuko herritarren artean, baina 2,9 puntuko jaitsiera izan da EBtik kanpoko atzerritarren artean eta 3,9 puntukoa gainerako atzerritarren artean. 2005etik 2006ra, EBtik kanpoko atzerritarren artean okupazio-koefizienteen garapenean hainbat muga atzeman ziren jada, eta 2006-2007 aldian, atzerritar guztien artean, oro har, okupazio-mailak asko jaitsi dira.

16-64 urteko biztanleriaren funtsezko okupazio-adierazleak, nazionalitatearen arabera (%-etan)

2007			
Nazionalitatea	Jarduera-tasa	Langabezia-tasa	Okupazio-koefizientea
Estatukoa	70,3	2,9	68,2
EBko beste Estaturen batekoa	72,1	8,1	66,3
EBkoa ez den beste Estaturen batekoa	70,2	8,8	64,0
Guztira	70,3	3,1	68,1
2006			
Nazionalitatea	Jarduera-tasa	Langabezia-tasa	Okupazio-koefizientea
Estatukoa	69,9	3,2	67,6
EBko beste Estaturen batekoa	79,0	5,1	75,0
EBkoa ez den beste Estaturen batekoa	73,7	8,8	67,2
Guztira	70,0	3,4	67,6
2005			
Nazionalitatea	Jarduera-tasa	Langabezia-tasa	Okupazio-koefizientea
Estatukoa	69,4	4,7	66,1
EBko beste Estaturen batekoa	81,6	13,9	70,2
EBkoa ez den beste Estaturen batekoa	75,9	11,9	66,9
Guztira	69,6	4,9	66,1

Atzerritarrentzat funtsezko arazoa da lanerako baimenik ez izatea. Atzerriko biztanleria aktiboaren % 18,4k ez du baimenik 2007an, 2006ko % 20,4tik behera baina 2005eko % 15,7tik gora dagoen zenbatekoa izanik. Lan egiteko baimenik lortu ezinik dabilta, gaur egun, Europar Batasunetik kanpoko herrialderen batetik datozenen % 20,3, eta Batasuneko Estaturen batetik datozenen % 12,1.

Bestalde, EBko gainerako herrialdeetatik datozen landunen % 11,4 baimenik gabe ari da lanean gaur egun, eta proportzioa % 18,5era igotzen da EBtik kanpoko atzerritarren kasuan; zenbateko hori esanguratsua da, ezbairik gabe, baina ez du gainditzen 2006ko % 23,1a.

Langabeen kasuan, gehiago dira lanerako baimenik ez dutenak. Hori horrela izanik, atzerritar langabeen % 35ek lanerako baimenik ez duela ikusi dugu, 2005eko antzeko zenbatekoa izanik baina 2006ko % 29 baino handiagoa. Lan-baimenik ez duten langabeen proportzioa % 39,2ra iristen da Europar Batasunetik kanpoko etorkinetan, eta % 20ra EBko beste Estaturen bateko herritarren kasuan.

Lanerako baimenik ez duten 16-64 urteko atzerritarrak, jarduerarekiko loturaren eta nazionalitatearen arabera
(%-etan)

Nazionalitatea	Jarduerarekiko lotura		
	Landunak	Langabeak	Guztira
EBko beste Estaturen batekoa	11,4	20,0	12,1
EBtik kanpoko Estaturen batekoa	18,5	39,2	20,3
Guztira	16,8	35,0	18,4

Sektorearen eta jarduera-adarraren arabera, atzerritarren presentzian alde handiak atzeman dira. Izan ere, biztanleria hori honako adar hauetan biltzen da: manufaktura-industriaren adarretan, eraikuntzan, ostalaritzan, hezkuntzan eta etxeko -zerbitzuan. Bertako biztanleriaren % 27,7k ekonomiaren adar horietan lan egiten du; proportzioa % 55,3 da EBko beste herritarren kasuan, eta % 71,2 Europar Batasunetik kanpoko Estatuetakoko herritarrei dagokienez.

Europar Batasuneko beste Estaturen bateko biztanleriari dagokionez, nabarmendu behar da landunek garrantzi handia dutela manufaktura-industrian, eraikuntzan eta hezkuntzan. Kasu horretan, landunen % 36,9 biltzen dira adar horietan, eta bertako biztanleriari eta EBtik kanpotik etorritakoei dagokienez, zenbatekoak % 20 ingurukoak dira. Atzerritarren kolektibo horretan, %

18,4 etxeko zerbitzuan eta ostalaritzan ari da lanean; zerbitzu-sektoreko gainerako adarrei % 37,1 dagokie, eta beste % 7,6 zerbitzuetakoak ez diren sektoreetako gainerako adarrei.

EBkoa ez den beste herrialderen batetik etorritako biztanleriari dagokionez, biztanleria hori garrantzizkoa da ostalaritzan eta etxeko zerbitzuan batez ere, bi adar horietan landunen % 51,8 biltzen baita; aldiz, bertako biztanleriaren % 6,3 eta EBko beste Estaturen bateko herritarren % 18,4. Landunen beste % 12 bat eraikuntzan ari da, EBko herrialderen batetik etorritako atzerritarren arteko % 21,7 baino txikiagoa izanik zenbateko hori. Gainerako landunei dagokienez, kasuen % 20,4 gainerako zerbitzuetan (hezkuntza barnean hartuta) biltzen da, eta % 15,8 industrian eta lehen sektorean.

16-64 urteko biztanleria landuna, nazionalitatearen, sektorearen eta jarduera-adarraren arabera
(% bertikalak)

Jarduera-adarra eta sektorea	Nazionalitatea		
	Estatukoa	EBko beste Estaturen batekoa	EBkoa ez den beste Estaturen batekoa
Nekazaritza	1,6	1,1	0,2
Industria	27,1	11,7	15,6
Eraikuntza	8,9	21,7	12,0
Zerbitzuak	62,4	65,5	72,2
Nekazaritza	1,4	1,1	0,2
Arrantza	0,2		
Erauzketa-industria	0,2		
Elikagai-industria	1,5	1,7	2,2
Paper-industria	1,5	2,0	
Industria petrokimikoa	1,2		0,4
Kautxu-industria	1,8		1,4
Bestelako gai ez-metalikoen industria	0,7	1,3	0,2
Metalurgia	8,7	3,5	3,6
Makinagintza	4,0	1,8	0,8
Material elektrikoa	1,7		1,2
Garraiatzeko materiala	2,9		1,2
Hainbat manufaktura-industria	2,3	1,5	3,9
Energia-produkzioa	0,7		0,6
Eraikuntza	8,9	21,7	12,0
Merkataritza	13,5	11,6	8,0
Ostalaritza	4,6	6,6	26,4
Garraioak eta komunikazioak	6,4	14,6	2,1
Finantza-erakundeak	2,2		0,3
Enpresetarako zerbitzuak	9,8	5,7	7,3
Administrazio Publikoa	5,4	0,5	0,1
Hezkuntza	7,1	10,0	1,3
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	7,3	1,3	1,3
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	4,3	3,4	0,1
Etxeko zerbitzua	1,7	11,8	25,4
Guztira	100	100	100

Europar Batasuneko ez den beste Estaturen batetik etorritako etorkinen artean, biztanleria ez-kualifikatua da nagusi. Horien % 54,4 lanbide-kategoria horretako enpleguetan ari da lanean, Estatuko herritarren % 25,2 eta EBko beste herrialdeetako herritarren % 36,4 erraz gaindituta, baina 2006ko % 67,1 gainditu gabe.

Aitzitik, atzerritar horiek zuzendarien, teknikarien eta arduradunen artean parte-hartze oso txikia dute: % 5,7, Estatuko herritarrena % 29,1, eta EBko beste Estatuetakoko herritarrena % 19,6 izanik.

16-64 urteko biztanleria landuna, nazionalitatearen eta lanbide-kategoriaren arabera
(% bertikalak)

Lanbide-kategoria	Nazionalitatea		
	Estatukoa	EBko beste Estaturen batekoa	EBkoa ez den beste Estaturen batekoa
Ez-kualifikatua	25,2	36,4	54,4
Kualifikatua	45,7	44,0	40,0
Arduradunak	1,7		
Teknikariak	21,6	14,9	3,5
Zuzendariak	5,9	4,7	2,2
Guztira	100	100	100

Europar Batasunetik kanpoko herrialderen bateko atzerritarren beste ezaugarri bat da enpresa pribatuaren soldatapeko lanetan metatzen direla (% 89,4, EBko beste Estaturen bateko herritarren proportzioa % 73,7, eta bertakoena % 68,2 dela). Soldatapekoak ez direnen taldean, ordea, presentzia oso txikia dute (% 8,2), bertakoek eta Europar Batasuneko beste Estaturen bateko herritarrek dutena baino txikiagoa (% 16,6 eta % 22, hurrenez hurren).

16-64 urteko biztanleria landuna, nazionalitatearen eta lanbide-egoeraren arabera
(% bertikalak)

Lanbide-egoera	Nazionalitatea		
	Estatukoa	EBko beste Estaturen batekoa	EBkoa ez den beste Estaturen batekoa
Enplegu-emailea	3,0	5,3	0,2
Autonomoa	11,2	16,0	7,5
Familia-laguntza	0,3		
Kooperatibista	2,2	0,7	0,5
Administrazio Publikoko soldatapeko langilea	10,6		0,5
Enpresa Publikoko soldatapeko langilea	4,2		0,3
Enpresa Pribatuko soldatapeko langilea	68,2	73,7	89,4
Bestelako egoeraren bat	0,4	4,3	1,5

Guztira	100	100	100
----------------	-----	-----	-----

Hona hemen beste alderdi deigarri bat: Europar Batasunetik kanpoko etorkinen lan-kolokatasun handia, soldatapeko landunen % 39,5ek soilik baitu lan-kontratu mugagabea, 2006ko % 46ren azpitik. % 36,3k aldi batera kontratua du, eta % 24,2 kontraturik gabe ari da lanean, 2005eko % 19,1 erraz gaindituta baina 2006ko % 25,9ren azpitik geratuta. Egoera prekarioan dauden proportzioa txikiagoa da, baina oraindik ere garrantzitsua, Batasuneko beste Estaturen batetik etorritako soldatapekoen artean: % 36,6 aldi baterako kontratuekin, eta % 11,9 kontraturik gabe. Kontratatu mugagabeen proportzioa % 51,5 da.

Oro har, kontratuetan kolokatasun-egoera dute bertakoen % 24,1ek, baina EBko beste Estatuetakoa herritarren artean proportzioa % 48,5era igotzen da, eta EBtik kanpoko herritarren artean % 60,5era. Zenbateko horiek adierazten duten egoerak okerrera egin duela 2006. urtearekin alderatuta, % 21,7tik % 24,1era igo baita, 2005eko % 25,3ra hurbilduz. Aitzitik, gainbehera handiena EBko gainerako herritarrei dagokie, soldatapekoen artean kolokatasun-tasa % 25,7tik % 48,5era igo dela 2006-2007 aldian, 2005eko % 37,8 erraz gaindituta. Gainbehera txikiagoa da Batasunetik kanpoko herrialdeetatik etorritako atzerritarren artean, abiapuntuko egoera diferentziala kolokatasuneko baten ere. Kasu horretan, 2005etik 2006ra bitarte % 56,2tik % 54rainoko jaitsiera txikia izan zen, baina 2007an kolokatasun-tasa % 60,5era igo da.

16-64 urteko soldatapeko biztanleria landuna, nazionalitatearen eta kontratu motaren arabera
(% bertikalak)

Kontratu mota	Nazionalitatea		
	Estaturikoa	EBko beste Estaturen batekoa	EBkoa ez den beste Estaturen batekoa
Mugagabea	75,9	51,5	39,5
Aldi baterakoa	22,4	36,6	36,3
Kontraturik gabe	1,7	11,9	24,2
Guztira	100	100	100

Atzerritarren lan-egoerak okerrera egin duela ikus daiteke beste lan bat bilatzen ari direla dioten landunen proportzioari erreparatuta, betiere nazionalitatearen arabera. Biztanleria nazionalaren kasuan, adierazle hori % 2,5 eskas da, 2006ko % 3,9 baino nabarmen gutxiago. Aldiz, atzerritarren artean egoera txarragoa da. Batasuneko beste Estaturen bateko herritarren kasuan, beste lan bat bilatzen ari diren landunen proportzioa 2006ko % 4 2007ko % 6,9ra igo da, eta biztanleria nazionalarekiko aldea 2006ko hamarren eskas batetik 4,4 puntura igaro da. Azken aldiko igoera horretan, 2006ko abiapuntuko maila oso handia zen EBtik kanpoko

herrialdeetako atzerritarren kasuan, adierazlea urte horretan % 13,7 izatetik 2007an % 16,8 izatera pasatuta.

Azken aldiko igoera hori gorabehera, zenbatekoen arabera oso gutxi dira beste lan bat bilatzen ari diren landunak atzerritarren artean. Lanari dagokionez, kolokatasuna eta eragozpenak izaten dituzte atzerriko landun gehienek, baina antza, asko eta asko konforme daude egungo okupazio-egoerarekin.

Lana bilatzen ari den 16-64 urteko biztanleria landuna, nazionalitatearen arabera
(Lana bilatzen ari direnak %-etan)

Lana bilatzen ari da	Bilatzen ari direnak %-etan
Estatukoa	2,5
EBko beste Estaturen batekoa	6,9
EBkoa ez den beste Estaturen batekoa	16,8
Guztira	3,0

Atzerritarren arteko langabeziaren ezaugarriei dagokienez, gaur egun, emakumeen langabezia nabarmendu behar dugu, langabezia-egoeren % 77,9 metatzen baita kasu horretan, 2006an % 43,1 zela. Emakumeen langabeziaren bilakaeran joera-aldaketa izan da, bereziki, atzerritarren artean. Horrela, bada, 2005-2006 aldian behera egin ostean, langabeziak berriz ere gora egin du nabarmen emakumeen artean, 2007an % 13,8ra iritsita. Horrekin kontraste handia eginez, gizonezkoen langabezia-tasa oso handia zen 2005ean (% 15,2), baina 2007an % 3,8ra iritsi arte jaitsi eta jaitsi aritu da. Alabaina, joera-aldaketa hori suma zitekeen jada 2006. urtean, emakumeen langabezia-jaitsieran egonkortze-zantzuak agertu baitziren (% 9,2tik % 7,2ra murriztu zen 2005-2006 aldian), eta gizonezkoen langabezia-mailetan, aldiz, murrizketa nabarmena gertatu zen (% 15,2tik % 9ra), 2006tik 2007ra bitarte ere luzatu dena intentsitateari dagokionez.

Adinaren arabera, nabarmentzeko modukoa da, halaber, langabe atzerritarren artean gazteenek gero eta garrantzi handiagoa izatea. Hori horrela izanik, 35 urtetik beherako langabeen proportzioa % 51,5etik % 75,8ra igo da, bereziki deigarria izanik 16-24 urtekoen hazkundera (% 11,2tik % 32,2ra).

Errealitate hori langabezia-tasen bilakaerarekin loturik dago, bilakaera ez baita berdina 35 urtetik beherako eta gorako atzerritarren artean. 35 urtetik gorakoei dagokienez, 50 urtetik gorakoetan langabeziak gora egiten duen arren, kolektibo hori ez da oso esanguratsua, eta benetan esanguratsua dena zera da, azken urteotan, 35-49 urteko atzerritarren artean langabezia murrizteko joera sendotu egin dela. Tasa % 16,3 zen 2005ean, eta % 10,9 2006an, baina % 4,4 2007an.

Aitzitik, 35 urtetik beherakoen langabezia-tasak gora egin du 2006tik 2007ra bitarte. Hazkundera ez da oso handia 25-34 urtekoen artean: tasa % 6,7tik % 7,4ra igaro da, baina 2005eko % 9,3 gainditu gabe. Alabaina, 25 urtetik beherakoetan bai da nabarmena hazkundera. Kasu horretan, 2005etik 2006ra bitarte % 14,7 izatetik % 9,3 izatera igaro zen, eta 2007an berriz ere gora egin du, % 26ra arte.

Hortaz, atzerritarren artean, gazteen langabezia gizarte-fenomeno berriztat har daiteke Euskadin. Atzerritarren artean, gazteen langabeziaren diferentziala nabaria da; % 26ko tasa dute, 25-49 urtekoen mailetatik (2007an % 4,4tik % 7,4ra bitarte) argi eta garbi urrunduta.

16-64 urteko atzerritar langabeak, sexuaren eta adinaren arabera
(% bertikalak eta langabezia-tasa %-etan)

Sexua	% bertikalak	Langabezia-tasa
Gizona	22,1	3,8
Emakumea	77,9	13,8
Adina	% bertikalak	Langabezia-tasa
16-24 urte	32,2	26,0
25-34 urte	43,6	7,4
35-49 urte	16,3	4,4
50 urte eta gehiago	7,9	11,5
GUZTIRA	100	8,7

Langabe atzerritarren baldintzak okertu egin dira, modu deigarrian, gainera, 2007. urtean. Horrela, lan-esperientziarik gabeko langabeen proportzioa handitu egin da 2006ko % 6,5etik 2007ko % 22,3ra. Gaur egun, zenbateko hori oso handia da, biztanleria orokorrari dagokion % 7,6 baino askoz handiagoa.

Bestalde, luzaroko langabeziaren eraginari dagokionez, 2005-2006 aldian % 25,4tik % 20,8ra jaitsi zen (bi kasuetan, urte haietako EAeko batez bestekoen azpiko zenbatekoak ziren), eta 2007an % 46,8ra igo da, biztanleria orokorraren % 36,8 erraz gaindituta. Oso luzaroko langabeziari dagokionez (bi urtetik gora), aldi horretan handitu egin da, 2006ko % 8,1etik 2007ko % 13,8ra, baina kasu horretan ez du gainditzen biztanleria orokorraren % 16,8a.

Aurkeztutako datuei jarraiki, 2006. urtera arte langabezian kronifikazio txikiko kolektiboa izatetik, gaur egun, atzerritarrak okerrerako prozesu nabarian sartuta egotera igaro dira, eta laneratzeko arazo diferentzialak areagotzea eragin dezake prozesu horrek.

16-64 urteko langabe atzerritarrei buruzko beste hainbat adierazle
(Erreferentzia-taldearen gainekoa %-etan)

Adierazlea	%
Lan-esperientziarik gabeko langabeak	22,3
Luzaroko langabezia (> urte 1)	46,8
Oso luzaroko langabezia (> 2 urte)	13,8

Eskualdeen, azpieskualdeen eta udalerrien arabera datuak

16-64 urteko biztanleria landunaren bilakaera. 2005eko eta 2007ko LME (Egungo BJA metodoa)

Eskualdea	Azpieskualdea/Udalerrria	Biztanleria landuna		
		2005	2007	07/05 bilakaera (%)
Gasteiz	Arabako Ibarak	2.314	2.508	8,4
	Lautadako gainerakoa	6.113	7.458	22,0
	Gasteiz	109.652	108.290	-1,2
	Arabako Mendialdea	1.420	1.428	0,5
	Errioxa	4.265	4.941	15,8
	Guztira	123.764	124.625	0,7
Aiara	Gorbeialdea	3.760	4.139	10,1
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	6.294	7.575	20,4
	Laudio	8.869	8.230	-7,2
	Guztira	18.923	19.944	5,4
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	11.268	12.168	8,0
	Getxo	36.010	35.668	-1,0
	Leioa	13.907	13.992	0,6
	Erandio	10.103	10.798	6,9
	Guztira	71.288	72.626	1,9
Bilbo	Bilbo	144.541	150.399	4,1
	Guztira	144.541	150.399	4,1
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	26.973	28.319	5,0
	Barakaldo	39.180	41.502	5,9
	Basauri	20.828	20.576	-1,2
	Galdakao	13.992	14.441	3,2
	Portugalete	20.610	20.991	1,8
	Santurtzi	19.272	19.323	0,3
	Sestao	13.932	12.222	-12,3
	Guztira	167.050	170.931	2,3
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	19.251	18.838	-2,1
	Markina-Ondarroa	11.341	11.758	3,7
	Plentzia-Mungia	20.200	24.182	19,7
	Guztira	50.792	54.778	7,8
Durungaldea	Arratia-Nerbioi	9.159	10.660	16,4
	Durungaldeko gainerakoa	30.330	31.588	4,1
	Durango	11.752	12.965	10,3
	Guztira	51.241	55.213	7,8
Donostialdea	Hondarribia	7.348	8.063	9,7
	Irun	24.973	27.632	10,6
	Donostialdeko gainerakoa	46.555	47.869	2,8
	Errenteria	18.465	17.141	-7,2
	Donostia	83.865	81.660	-2,6
	Urola-Kostako gainerakoa	22.582	24.351	7,8
	Zarautz	10.455	10.358	-0,9
Guztira	214.242	217.074	1,3	
Tolosa-Goierri	Goierri	29.837	29.742	-0,3
	Tolosaldea	22.775	22.408	-1,6
	Guztira	52.612	52.150	-0,9
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	18.812	19.025	1,1
	Arrasate	11.706	10.234	-12,6
	Guztira	30.518	29.259	-4,1
Debarrena	Debarreneko gainerakoa	11.520	13.128	14,0
	Eibar	11.688	10.830	-7,3
	Guztira	23.209	23.958	3,2
EAE	GUZTIRA	948.180	970.957	2,4

16-64 urteko langabeen bilakaera. 2005eko eta 2007ko LME (Egungo BJA metodoa)

Eskualdea	Azpieskualdea/Udalerrria	Langabeak		
		2005	2007	07/05 bilakaera (%)
Gasteiz	Arabako Ibarak	42	24	-43,5
	Lautadako gainerakoa	111	159	42,8
	Gasteiz	2.755	2.358	-14,4
	Arabako Mendialdea	23	52	121,5
	Errioxa	102	81	-20,2
	Guztira	3.033	2.673	-11,9
Aiara	Gorbeialdea	47	53	11,1
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	158	134	-15,5
	Laudio	461	140	-69,6
	Guztira	667	327	-51,0
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	351	669	90,7
	Getxo	2.544	1.246	-51,0
	Leioa	1.129	890	-21,2
	Erandio	801	382	-52,4
	Guztira	4.825	3.186	-34,0
Bilbo	Bilbo	11.217	7.687	-31,5
	Guztira	11.217	7.687	-31,5
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	2.291	1.008	-56,0
	Barakaldo	2.461	1.335	-45,8
	Basauri	1.306	596	-54,4
	Galdakao	952	474	-50,3
	Portugalete	1.028	1.039	1,1
	Santurtzi	2.658	1.006	-62,2
	Sestao	1.638	915	-44,1
	Enkarterriak	754	294	-61,1
	Guztira	13.088	6.666	-49,1
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	708	647	-8,5
	Markina-Ondarroa	624	133	-78,7
	Plentzia-Mungia	1.864	904	-51,5
	Guztira	3.197	1.685	-47,3
Durungaldea	Arratia-Nerbioi	547	145	-73,4
	Durungaldeko gainerakoa	1.237	719	-41,9
	Durango	590	211	-64,2
	Guztira	2.374	1.075	-54,7
Donostialdea	Hondarribia	226	97	-57,1
	Irun	1.276	892	-30,1
	Donostialdeko gainerakoa	1.510	1.518	0,5
	Errenteria	935	215	-77,0
	Donostia	2.699	2.991	10,8
	Urola-Kostako gainerakoa	1.053	385	-63,4
	Zarautz	439	126	-71,4
	Guztira	8.137	6.225	-23,5
Tolosa-Goierri	Goierri	707	676	-4,4
	Tolosaldea	568	180	-68,4
	Guztira	1.275	856	-32,9
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	262	164	-37,4
	Arrasate	375	251	-33,1
	Guztira	637	415	-34,9
Debarrena	Debarreneko gainerakoa	359	379	5,8
	Eibar	292	225	-22,8
	Guztira	651	605	-7,0

EAE	GUZTIRA	49.100	31.400	-36,0
-----	---------	--------	--------	-------

16-64 urteko biztanleria aktiboaren bilakaera. 2005eko eta 2007ko LME (Egungo BJA metodoa)

Eskualdea	Azpieskualdea/Udalerrria	Biztanleria aktiboa		
		2005	2007	07/05 bilakaera (%)
Gasteiz	Arabako Ibarak	2.356	2.532	7,5
	Lautadako gainerakoa	6.224	7.617	22,4
	Gasteiz	112.407	110.648	-1,6
	Arabako Mendialdea	1.444	1.479	2,5
	Errioxa	4.367	5.022	15,0
	Guztira	126.798	127.298	0,4
Aiara	Gorbeialdea	3.807	4.192	10,1
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	6.452	7.709	19,5
	Laudio	9.330	8.371	-10,3
	Guztira	19.590	20.271	3,5
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	11.618	12.837	10,5
	Getxo	38.554	36.914	-4,3
	Leioa	15.036	14.882	-1,0
	Erandio	10.904	11.180	2,5
	Guztira	76.113	75.813	-0,4
Bilbo	Bilbo	155.757	158.086	1,5
	Guztira	155.757	158.086	1,5
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	29.263	29.328	0,2
	Barakaldo	41.641	42.837	2,9
	Basauri	22.134	21.172	-4,3
	Galdakao	14.944	14.915	-0,2
	Portugalete	21.638	22.030	1,8
	Santurtzi	21.930	20.329	-7,3
	Sestao	15.569	13.137	-15,6
	Enkarterriak	13.018	13.851	6,4
	Guztira	180.138	177.597	-1,4
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	19.959	19.485	-2,4
	Markina-Ondarroa	11.966	11.891	-0,6
	Plentzia-Mungia	22.064	25.086	13,7
	Guztira	53.989	56.463	4,6
Durangaldea	Arratia-Nerbioi	9.706	10.805	11,3
	Durangaldeko gainerakoa	31.568	32.306	2,3
	Durango	12.342	13.176	6,8
	Guztira	53.615	56.288	5,0
Donostialdea	Hondarribia	7.573	8.160	7,7
	Irun	26.249	28.524	8,7
	Donostialdeko gainerakoa	48.065	49.387	2,8
	Errenteria	19.400	17.356	-10,5
	Donostia	86.564	84.652	-2,2
	Urola-Kostako gainerakoa	23.634	24.737	4,7
	Zarautz	10.895	10.484	-3,8
	Guztira	222.380	223.299	0,4
Tolosa-Goierri	Goierri	30.544	30.418	-0,4
	Tolosaldea	23.344	22.588	-3,2
	Guztira	53.887	53.006	-1,6
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	19.074	19.189	0,6
	Arrasate	12.081	10.485	-13,2
	Guztira	31.155	29.674	-4,8
Debarrena	Debarreneneko gainerakoa	11.879	13.507	13,7
	Eibar	11.980	11.056	-7,7

	Guztira	23.859	24.563	2,9
EAE	GUZTIRA	997.280	1.002.357	0,5

16-64 urteko biztanleria ez-aktiboaren bilakaera. 2005eko eta 2007ko LME (Egungo BJA metodoa)

Eskualdea	Azpieskualdea/Udalerria	Biztanleria ez-aktiboa		
		2005	2007	07/05 bilakaera (%)
Gasteiz	Arabako Ibarak	812	1.064	31,1
	Lautadako gainerakoa	2.428	2.281	-6,1
	Gasteiz	45.558	46.763	2,6
	Arabako Mendialdea	574	524	-8,7
	Errioxa	2.185	2.123	-2,9
	Guztira	51.558	52.755	2,3
Aiara	Gorbeialdea	1.050	1.152	9,8
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	3.317	2.693	-18,8
	Laudio	4.560	3.976	-12,8
	Guztira	8.927	7.822	-12,4
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	4.268	4.154	-2,7
	Getxo	19.182	18.872	-1,6
	Leioa	5.790	5.816	0,4
	Erandio	5.250	5.569	6,1
	Guztira	34.490	34.411	-0,2
Bilbo	Bilbo	77.692	71.847	-7,5
	Guztira	77.692	71.847	-7,5
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	12.993	14.424	11,0
	Barakaldo	22.773	21.936	-3,7
	Basauri	9.694	8.080	-16,7
	Galdakao	6.048	5.404	-10,6
	Portugalete	14.050	10.321	-26,5
	Santurtzi	10.876	11.536	6,1
	Sestao	6.121	6.364	4,0
	Enkarterriak	6.644	6.442	-3,0
	Guztira	89.199	84.507	-5,3
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	9.207	10.121	9,9
	Markina-Ondarroa	5.428	5.169	-4,8
	Plentzia-Mungia	9.496	9.876	4,0
	Guztira	24.131	25.166	4,3
Durungaldea	Arratia-Nerbioi	4.394	4.083	-7,1
	Durungaldeko gainerakoa	14.631	13.439	-8,1
	Durango	4.725	5.720	21,0
	Guztira	23.751	23.242	-2,1
Donostialdea	Hondarribia	2.958	2.640	-10,8
	Irun	12.497	11.921	-4,6
	Donostialdeko gainerakoa	18.214	16.708	-8,3
	Errenteria	7.579	7.911	4,4
	Donostia	32.961	33.794	2,5
	Urola-Kostako gainerakoa	6.697	6.334	-5,4
	Zarautz	3.484	4.205	20,7
Guztira	84.390	83.513	-1,0	
Tolosa-Goierri	Goierri	11.993	11.517	-4,0
	Tolosaldea	6.595	7.321	11,0
	Guztira	18.587	18.839	1,4
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	7.262	6.722	-7,4
	Arrasate	3.925	4.130	5,2
	Guztira	11.187	10.852	-3,0
Debarrena	Debarreneneko gainerakoa	5.624	4.213	-25,1

	Eibar	6.788	6.437	-5,2
	Guztira	12.412	10.649	-14,2
EAE	GUZTIRA	436.324	423.602	-2,9

16-64 urtekoen okupazio-koefizienteen bilakaera (%-etan). 2005eko eta 2007ko LME (Egungo BJA metodoa)

Eskualdea	Azpieskualdea/Udalerria	2005	2007
Gasteiz	Arabako Ibarrek	73,1	69,8
	Lautadako gainerakoa	70,6	75,4
	Gasteiz	69,4	68,8
	Arabako Mendialdea	70,4	71,3
	Errioxa	65,1	69,2
	Guztira	69,4	69,2
Aiara	Gorbeialdea	77,4	77,5
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	64,4	72,8
	Laudio	63,9	66,7
	Guztira	66,4	71,0
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	70,9	71,6
	Getxo	62,4	63,9
	Leioa	66,8	67,6
	Erandio	62,5	64,5
	Guztira	64,5	65,9
Bilbo	Bilbo	61,9	65,4
	Guztira	61,9	65,4
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	63,8	64,7
	Barakaldo	60,8	64,1
	Basauri	65,4	70,3
	Galdakao	66,7	71,1
	Portugalete	57,8	64,9
	Santurtzi	58,7	60,6
	Sestao	64,2	62,7
	Enkarterriak	62,4	66,8
	Guztira	62,0	65,2
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	66,0	63,6
	Markina-Ondarroa	65,2	68,9
	Plentzia-Mungia	64,0	69,2
	Guztira	65,0	67,1
Durangaldea	Arratia-Nerbioi	65,0	71,6
	Durangaldeko gainerakoa	65,7	69,1
	Durango	68,9	68,6
	Guztira	66,2	69,4
Donostialdea	Hondarribia	69,8	74,7
	Irun	64,5	68,3
	Donostialdeko gainerakoa	70,2	72,4
	Errenteria	68,4	67,8
	Donostia	70,2	68,9
	Urola-Kostako gainerakoa	74,5	78,4
	Zarautz	72,7	70,5
Guztira	69,8	70,8	
Tolosa-Goierrri	Goierrri	70,1	70,9
	Tolosaldea	76,1	74,9
	Guztira	72,6	72,6
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	71,4	73,4
	Arrasate	73,1	70,0
	Guztira	72,1	72,2
Debarrena	Debarreneneko gainerakoa	65,8	74,1

	Eibar	62,3	61,9
	Guztira	64,0	68,0
EAE	GUZTIRA	66,1	68,1

16-64 urtekoen langabezia-koefizienteen bilakaera (%-etan). 2005eko eta 2007ko LME (Egungo BJA metodoa)

Eskualdea	Azpieskualdea/Udalerria	2005	2007
Gasteiz	Arabako Ibarak	1,3	0,7
	Lautadako gainerakoa	1,3	1,6
	Gasteiz	1,7	1,5
	Arabako Mendialdea	1,2	2,6
	Errioxa	1,5	1,1
	Guztira	1,7	1,5
Aiara	Gorbeialdea	1,0	1,0
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	1,6	1,3
	Laudio	3,3	1,1
	Guztira	2,3	1,2
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	2,2	3,9
	Getxo	4,4	2,2
	Leioa	5,4	4,3
	Erandio	5,0	2,3
	Guztira	4,4	2,9
Bilbo	Bilbo	4,8	3,3
	Guztira	4,8	3,3
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	5,4	2,3
	Barakaldo	3,8	2,1
	Basauri	4,1	2,0
	Galdakao	4,5	2,3
	Portugalete	2,9	3,2
	Santurtzi	8,1	3,2
	Sestao	7,6	4,7
	Enkarterriak	3,8	1,4
	Guztira	4,9	2,5
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	2,4	2,2
	Markina-Ondarroa	3,6	0,8
	Plentzia-Mungia	5,9	2,6
	Guztira	4,1	2,1
Durungaldea	Arratia-Nerbioi	3,9	1,0
	Durungaldeko gainerakoa	2,7	1,6
	Durango	3,5	1,1
	Guztira	3,1	1,4
Donostialdea	Hondarribia	2,1	0,9
	Irun	3,3	2,2
	Donostialdeko gainerakoa	2,3	2,3
	Errenteria	3,5	0,9
	Donostia	2,3	2,5
	Urola-Kostako gainerakoa	3,5	1,2
	Zarautz	3,1	0,9
	Guztira	2,7	2,0
Tolosa-Goierni	Goierni	1,7	1,6
	Tolosaldea	1,9	0,6
	Guztira	1,8	1,2
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	1,0	0,6
	Arrasate	2,3	1,7
	Guztira	1,5	1,0
Debarrena	Debarreneko gainerakoa	2,0	2,1
	Eibar	1,6	1,3
	Guztira	1,8	1,7
EAE	GUZTIRA	3,4	2,2

16-64 urtekoen langabezia-tasen bilakaera (%-etan). 2005eko eta 2007ko LME (Egungo BJA metodoa)

Eskualdea	Azpieskualdea/Udalerria	2005	2007
Gasteiz	Arabako Ibarak	1,8	0,9
	Lautadako gainerakoa	1,8	2,1
	Gasteiz	2,5	2,1
	Arabako Mendialdea	1,6	3,5
	Errioxa	2,3	1,6
	Guztira	2,4	2,1
Aiara	Gorbeialdea	1,2	1,3
	Arabako Kantaurialdeko gainerakoa	2,5	1,7
	Laudio	4,9	1,7
	Guztira	3,4	1,6
Eskuinaldea	Eskuinaldeko gainerakoa	3,0	5,2
	Getxo	6,6	3,4
	Leioa	7,5	6,0
	Erandio	7,3	3,4
	Guztira	6,3	4,2
Bilbo	Bilbo	7,2	4,9
	Guztira	7,2	4,9
Ezkerraldea	Ezkerraldeko gainerakoa	7,8	3,4
	Barakaldo	5,9	3,1
	Basauri	5,9	2,8
	Galdakao	6,4	3,2
	Portugalete	4,8	4,7
	Santurtzi	12,1	4,9
	Sestao	10,5	7,0
	Enkarterriak	5,8	2,1
	Guztira	7,3	3,8
Bizkaia-Kosta	Gernika-Bermeo	3,5	3,3
	Markina-Ondarroa	5,2	1,1
	Plentzia-Mungia	8,4	3,6
	Guztira	5,9	3,0
Durangaldea	Arratia-Nerbioi	5,6	1,3
	Durangaldeko gainerakoa	3,9	2,2
	Durango	4,8	1,6
	Guztira	4,4	1,9
Donostialdea	Hondarribia	3,0	1,2
	Irun	4,9	3,1
	Donostialdeko gainerakoa	3,1	3,1
	Errenteria	4,8	1,2
	Donostia	3,1	3,5
	Urola-Kostako gainerakoa	4,5	1,6
	Zarautz	4,0	1,2
	Guztira	3,7	2,8
Tolosa-Goierrri	Goierrri	2,3	2,2
	Tolosaldea	2,4	0,8
	Guztira	2,4	1,6
Debagoiena	Debagoieneko gainerakoa	1,4	0,9
	Arrasate	3,1	2,4
	Guztira	2,0	1,4
Debabarrena	Debabarreneko gainerakoa	3,0	2,8
	Eibar	2,4	2,0
	Guztira	2,7	2,5
EAE	GUZTIRA	4,9	3,1

ERANSKINA

Lan Merkatuaren Erroldaren ezaugarri teknikoak

Lan Merkatuaren Errolda (LME) Euskal Estatistika Planaren barnean hartuta dagoen eragiketa da. Estatistika hori, egungo formatuarekin, 1993az geroztik urtero egiten da (1996., 2000. eta 2004. urteetan izan ezik). Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak du eragiketaren ardura, Euskal Estatistika Erakundearekin (EUSTAT) koordinatuta.

Oro har, LMEk bi helburu nagusi proposatzen dituela adierazi behar dugu:

a) Lehenik eta behin, lehenetasuna emango zaio Lurralde Historikoa baino txikiagoak diren lurralde-eremuetan lan-merkatuaren azterketaren erreferentzia eratzeari. Adierazitako lurralde-eremu horiek enplegu-eskualdeak edo -arroak dira.

b) Bigarrenik, eta osagarri gisa, lan-merkatuari erantsi zaizkienei buruzko datuak emateaz gain, lurralde-eremuetako sektoreen, gizartearen eta lanbidearen egiturari buruzko hurbilketa egitea, betiere jarduerari, okupazioari edo langabeziari buruzko eragiketetan (BAI edo BJA) ohikoak diren estatistika-akatsak baino akats-maila txikiagoetan oinarrituta.

Adierazitako helburuetatik abiatuta, urteak joan eta urteak etorri, LMEren planteamendu metodologikoak aldatu egin dira —interesak eta aurrekontuen ahalbideak bat eginda—.

Hasiera batean errolda erreal gisa planteatu zen eta 1986an Euskal Autonomia Erkidegoan zeuden etxebizitza guztiak ekortu ziren. Aurrekontuaren aldetik, erroldaren eragiketari eutsi ezin zitzaionez, eta errolda horrek egiaz funtzionaltasunik ez zuela egiaztatu zenez, 1989ko eragiketan hasierako metodologia berriz aztertu zen. Bereziki, lagin-motako hurbilketa egitea erabaki zen.

Orduan, Sailaren eta Eskualdeetako Enplegu eta Trebakuntza Batzordeen finantza-laguntza izanik, 1989ko Lan Merkatuaren Erroldaren eragiketa abian jarri zen 43.000 etxebizitzako laginarekin, aipatutako Batzordeei dagozkien 32 eskualdeetan banatuta. Hurbilketa horri esker Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ziren 150.000 lagun ingururi buruzko datuak jaso ahal izan ziren.

1989ko eragiketari ekiteko garaian ikusi zen LME eta BJA (Biztanleria Jardueraren Arabera) inkesta koordinatu egin behar zirela nahitaez. Hortaz, LME galdesorta BJA-n zeuden oinarritzko galderetara egokitzea erabaki zen. Nolanahi ere, galdera guztiak jarri ordez,

EUSTATEk prestatutako bertsio erraztua —biztanleria landuna eta langabeak sailkatzen dituen— erabili zen.

Aurrekontuen inguruan izandako zailtasunek irauten zuten, eta Eskualdeetako Batzordeak modu formalean desagertu zirenez, 1993ko eragiketari begira, eragiketaren edukia berriz ere aztertu zen. Eragiketa lagina dela egiaztatu ondoren, lagina 12.000 etxebizitzatara murriztu zen. Orain, etxebizitza horiek hamaika enplegu-eskualdetan edo -arroatan banatuta daude.

Bestalde, homogeneizatzeko ahaleginak egin arren, egiaztatu zen LMEk ematen zituen zenbatekoak eta BJAk ematen zituenak oso desberdinak zirela, batez ere langabeei eta landunei buruzko datuak. Horren ondorioz, Eustatek kudeatutako eragiketarekin ahalik eta koordinazio handiena izateko modua aurkitzea erabaki zen. Hori horrela izanik, BJAREN galdesorta oinarritzko galdesortatzat hartzea erabaki zen, eta LMEren zenbatekoak BJAREN zenbatekoetara egokitu ziren. Printzipio horietan oinarrituta, 1993tik 1995era bitarte EUSTATEk laugarren hiruhilekoan BJAREN bitartez egindako inkestarekin modu koordinatuan garatu zen LME. Koordinazio-prozesuari esker, aldi horretako BJAREN galdesortak LME laginaren zatitzat erabili ahal izan ziren.

1997tik aurrera, LMEren lagin-maila zabaltzea erabaki zen, EUSTATEko eskualde guztietan eta EAEko udalerrri handietan jarduerari, okupazioari eta langabeziari buruzko oinarritzko informazioa eskuratu ahal izateko, eta ez soilik LMEren 11 enplegu-eskualde eta -arroa handietan.

Azken batean, bilakaera horren ondorioz, eta izenak bestelakorik adierazten badu ere, gaur egun LME lagin-eragiketa da. Euskal Autonomia Erkidegoko 13.500 familia-etxebizitza ditu helburu, eta datu-bilketa etxebizitza bakoitzean bizi diren 16 urtetik gorako guztien arabera aplikatuko da urte bakoitzeko azken hiruhilekoan. Dena den, 2005. urteaz geroztik, LMEk berezko laginarekin soilik eragiten du, urteko laugarren hiruhilekoaren BJA laginaren zatia gehitzeari uko eginez. Eustatek BJA galdesorta sinplifikatu zuen, baina LMEk BJAREN jatorrizko galdesortaren oinarritzko egiturari eutsi zionez, orain zailagoa da laginak bat egiteko prozesua. Jasotzaile-sistema bikoitza behar izango zen eta horrek izugarri eragotziko luke LMEren emaitzen aurkezpena, ezinbestean modu integratuan aurkeztu behar baitira.

Hala ere, nabarmentzeko modukoa da LME oraindik ere BJA galdesorta erabiltzen dela, funtsean. Hortaz, neurri batean esan daiteke eragiketa BJAREN jarraipena eta osagarria dela eskualde-mailako datuak lortzeko. Izan ere, aldagai handiei dagokienez, LMEren emaitzak urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoan BJARI dagozkion datuetara egokitzen dira, bi azterketa-modu horien artean kontraesanik izan ez dadin. Dena den, galdesortaren edukia arian-arian zabaldu

egin dela aipatu behar dugu, informazio berria lortzeko eskaerak gero eta gehiago baitziren, eta eragiketa urtero egiten dela aintzat hartuta. Horrela, bada, eta funtsean BJA galdesorta oinarri hartuta, LME galdesortan galdera osagarriak ere badira, eragiketan jasotako informazioaren edukia aberastearren.

LMEren bereizgarri den jatorrizko BJA galdesorta zabaltzeari prozesu bat gehitu behar zaio; hain zuzen ere, Eustatek garatutako sinplifikazio-prozesua, jatorrizko BJA galdesortaren diseinuari dagokionez. Horrek ondorio garrantzitsua eragin du LMEn. Urteak joan, urtean etorri, LME galdesortan item berriak sartu dira, jatorrizko BJA galdesortan ez daudenak, eta horrekin batera, galdesorta horren oinarrizko egiturari eutsi zaio orain, eragiketari eduki berria ematearren. Horrela, bada, LME lan-merkatuari buruzko eragiketa bat da, eta gaur egun, BJAren bidez lor zitekeena baino informazio askoz ere zabalagoa lortzeko aukera ematen du. Baina ekarpen osagarri hori ez da egiten BJAren jarraitutasun-ikuspegitik begiratuta; LME eragiketa urte bakoitzeko azken hiruhilekoan soilik egiten da oraindik ere.

BJA bezalaxe, LMEk taula moduan ere funtzionatzen du. Hortaz, eragiketaren oinarrizko beste erabilera bat da gure autonomia-erkidegoan bizi den 16 urtetik gorako biztanleriari eragiten dioten aldaketei buruzko luzaroko informazioa ematea.

Modu orokorrean azaldu dugun prozedura metodologikoa bat dator LME eragiketarekin lortu nahi ziren helburuekin. Ildo berari jarraiki, LMEren oinarrizko helburua ez da BJAk lortzen dituen datuetatik aldentzen den datu-iturria izatea, baizik eta jarduerari, okupazioari eta langabeziari buruzko oinarrizko aldagaien gaineko eskualde mailako hurbilketa egitea, eta ez bakarrik lurralde mailakoa edo Euskal Autonomia Erkidegoaren mailakoa. Bigarren mailako helburutzat, LME lagin askoz handiagoan oinarritzen denez, zenbait talderi dagokienez (esate baterako, luzaroko langabeei dagokienez), BJArenak baino esplotazio-aukera handiagoak emateko aukera du. BJA galdesorta sinplifikatzeko prozesuaren testuinguruan, LMEri esker, gainera, BJAk ematen duena baino informazio zabalagoa lortzeko aukera dugu gaur egun.

Azkenik, honako hau adierazi behar da: BJA langabeen taldea definitzeko Eurostaten araudiak hartu ostean, 2001. urteaz geroztik BJA metodologia berria erabiltzen da jardueraren araberako kategoriak mugatzeko. Distortsioak saihestearren, egoera guztien —batez ere, langabeziarekin eta jarduerarik ezarekin loturikoak— bilakaeraren azterketa egiteko garaian, hasierako BJA metodologiari dagozkion bilakaera-datuak eskaini izan ditu LMEk 2003. urteko eragiketara arte, luzaroko azterketan datuak modu koherentean interpretatzea erraztuz. 2005etik aurrera ez dago metodologia zaharrari dagokion daturik; horren ondorioz, zenbait alderditan datuak interpretatzeko eta egokitzeko arazoak izan daitezke. Txostenean zehaztu dugu zein bide hartu dugun epe luzera jarduerari, okupazioari eta langabeziari buruzko aldagaietan denboran zehar izandako aldaketen zentzuzko jarraipena egiteko.

Erabili diren enplegu-eskualdeak eta -arroak

1997. urteaz geroztik, EUSTATEko eskualde guztiei eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri handiei buruzko informazioa ematen du LMEk. Nolanahi ere, lurralde-eremu horietan jarduerari, okupazioari eta langabeziari buruz erantsi direnak soilik daude eskuragarri.

Komenigarria da datuei buruzko egitura-azterketa egitea LMEn erabili ohi diren 11 enplegu-eskualde eta -arroa handiei dagokienez; honako hauek dira eskualde eta arroa horiek:

1. ESKUALDEA. GASTEIZ

EUSTATEk honako eskualde hauek sartzen ditu: Arabako Lautada, Arabako Mendialdea, Arabako Ibarrek eta Arabako Errioxa.

LMeri dagokionez, eskualde hori bost azpieskualdetan banatzen da, eta EUSTATen arabera honako eskualde hauek dira: Arabako Mendialdea, Arabako Ibarrek, eta Arabako Errioxa, baita EUSTATen araberako Arabako Lautada eskualdea ere. Azken eskualde hori LMEn arabera bi azpieskualdetan banatzen da: Gasteiz udalerrria eta Arabako Lautadako gainerakoa.

2. ESKUALDEA. AIARA

EUSTATEk honako eskualde hauek sartzen ditu: Kantauri Arabarra eta Gorbeialdea.

LMeri dagokionez, eskualde hori hiru azpieskualdetan banatzen da, eta honako hauek dira: EUSTATen araberako Gorbeialdea eta Kantauri Arabarra. Azken eskualde hori LMEn arabera bi azpieskualdetan banatzen da: Audio udalerrria eta Kantauri Arabarreko gainerakoa.

3. ESKUALDEA. ESKUINALDEA

EUSTATen arabera, Bilbo Handiari loturiko Eskuinaldea barnean hartzen du.

LMeri dagokionez, eskualde hori lau azpieskualdetan banatzen da: Getxo, Leioa eta Erandio, bai eta Bilboko iparraldean dauden gainerako udalerrriak ere, Txorierrikoak barnean hartuta.

4. ESKUALDEA. BILBO

Bilboko udalerria hartzen du barnean.

5. ESKUALDEA. EZKERRALDEA

EUSTATen arabera Bilbo Handiari lotuta dagoen Ezkerraldea eskualdeari eragiten dio, baita Enkarterriak eskualdeari ere.

LMEri dagokionez, eskualde hori zortzi azpieskualdetan banatzen da: Barakaldo, Basauri, Galdakao, Portugalete, Santurtzi eta Sestao, baita EUSTATen araberako Enkarterriak eta Txorierriko hegoaldean edo Ezkerraldean bertan dauden Bilbo Handiaren gainerako udalerriak ere.

6. ESKUALDEA. BIZKAIA-KOSTA

EUSTATen arabera honako eskualde hauek sartzen dira: Plentzia-Mungia, Gernika-Bermeo eta Markina-Ondarroa.

LMEri dagokionez, eskualde hori hiru azpieskualdetan banatzen da eta azpieskualde horiek EUSTATen araberako eskualdeak dira.

7. ESKUALDEA. DURANGALDEA

EUSTATen arabera honako eskualde hauek sartzen dira: Durangaldea eta Arratia-Nerbioi.

LMEri dagokionez, eskualde hori hiru azpieskualdetan banatzen da, eta EUSTATen arabera eskualdeak dira, Durango izan ezik; udalerrri hori bereizita aztertzen baita.

8. ESKUALDEA. DONOSTIALDEA

EUSTATen arabera honako eskualde hauek sartzen dira: Urola-Kosta, Donostia, Donostialdea eta Bidasoa Beherea.

LMEri dagokionez, eskualde hori zazpi azpieskualdetan banatzen da, eta honako udalerrri hauek hartzen ditu barnean: Hondarribia, Irun, Donostia, Errenteria eta Zarautz, EUSTATen arabera Donostialdeko gainerako udalerrriak, eta Urola-Kostako EUSTATen arabeko gainerako udalerrriak.

9. ESKUALDEA. TOLOSA-GOIERRI

EUSTATen arabera honako eskualde hauek sartzen dira: Tolosaldea eta Goierri.

LMEri dagokionez, eskualde hori bi azpieskualdetan banatzen da eta EUSTATen arabeko eskualdeak dira.

10. ESKUALDEA. DEBAGOIENA

EUSTATen arabera Debagoiena eskualdea sartzen da.

LMEri dagokionez, Arrasate udalerrria ez dago eskualdearen gainerakoaren barnean hartuta.

11. ESKUALDEA. DEBABARRENA

EUSTATen arabera Debabarrena eskualdea sartzen da.

LMEri dagokionez, Eibar udalerrria ez dago eskualdearen gainerakoan barne hartuta.

Aurkeztu ditugun eskualdeak bat datoz Eustat-en eskualde-hurbilketa historikoarekin, eta 1993. urteaz geroztik ez da aldaketarik egin eskualdeen antolaketan.

AURKIBIDEA

1. Adin potentzialki aktiboan dagoen biztanleria guztiari buruzko datu orokorrak **¡Error! Marcador no definido.**
 - 1.1. Egungo egoera. **¡Error! Marcador no definido.**
 - 1.2. Azken aldiko bilakaera. **¡Error! Marcador no definido.**
2. Biztanleria aktiboa **¡Error! Marcador no definido.**
 - 2.1. Egungo egoera. **¡Error! Marcador no definido.**
 - 2.2. Azken aldiko bilakaera. **¡Error! Marcador no definido.**
3. Biztanleria landuna **¡Error! Marcador no definido.**
 - 3.1. Egungo egoera. Datu orokorrak. **¡Error! Marcador no definido.**
 - 3.2. Egungo egoera. Egiturazko datuak. **¡Error! Marcador no definido.**
 - 3.2.1. Sektorearen eta jarduera-adarraren araberako datuak. **¡Error! Marcador no definido.**
 - 3.2.2. Lanbidearen araberako datuak. **¡Error! Marcador no definido.**
 - 3.2.3. Lanbide-egoeraren araberako datuak. **¡Error! Marcador no definido.**
 - 3.2.4. Egungo okupazioan hasitako urtearen araberako datuak. **¡Error! Marcador no definido.**
 - 3.2.5. Enplegua bilatzearen araberako datuak. **¡Error! Marcador no definido.**
 - 3.2.6. Enplegu-aniztasuna. **¡Error! Marcador no definido.**
 - 3.2.7. Lanak eragindako diru-sarrera garbiak. **¡Error! Marcador no definido.**
 - 3.3. Azken aldiko bilakaera. Datu orokorrak. **¡Error! Marcador no definido.**
 - 3.4. Azken aldiko bilakaera. Egiturazko datuak. **¡Error! Marcador no definido.**
 - 3.4.1. Sektorearen eta jarduera-adarraren araberako datuak. **¡Error! Marcador no definido.**
 - 3.4.2. Lanbidearen araberako datuak. **¡Error! Marcador no definido.**
 - 3.4.3. Lanbide-egoeraren araberako datuak. **¡Error! Marcador no definido.**
 - 3.4.3.1. Soldatapeko langileei buruzko datu osagarriak. **¡Error! Marcador no definido.**
 - 3.4.4. Enplegua bilatzearen araberako datuak. **¡Error! Marcador no definido.**
4. Langabeak **¡Error! Marcador no definido.**
 - 4.1. Egungo egoera. **¡Error! Marcador no definido.**
 - 4.2. Azken aldiko bilakaera. **¡Error! Marcador no definido.**
5. Biztanleria ez-aktiboa **¡Error! Marcador no definido.**
 - 5.1. Egungo egoera. **¡Error! Marcador no definido.**
 - 5.2. Azken aldiko bilakaera. **¡Error! Marcador no definido.**

6. Lanerako prest dagoen biztanleria ¡Error! Marcador no definido.

7. Azken urtean enpleguarekin izandako erlazioa ¡Error! Marcador no definido.

8. Lana bilatzeko neurriak. ¡Error! Marcador no definido.

9. Atzerritarrak ¡Error! Marcador no definido.

Lan Merkatuaren Erroldaren ezaugarri teknikoak¡Error! Marcador no definido.

Erabili diren enplegu-eskualdeak eta -arroak ¡Error! Marcador no definido.